

Eusko Jaurlaritzak,
2017-2020 Legegintzaldian,
**giza eskubideen eta
bizikidetzaren**
arloan sortutako
dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra

- 2. Iragana argitzea
- 3. Biktimak
- 4. Memoria
- 5. Espetxe-politika
- 6. Hezkuntza
- 7. Erlijio-aniztasuna
- 8. Asiloa eta migrazio zaurgarria
- 9. Nazioarterako ekarpena
- 10. Eranskina. ETAren armagabetzea eta desagitea

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

2020ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana.	9
2. dokumentua. Urtez urteko jarraipen-txostenak.	95
3. dokumentua. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren ebaluazioari buruz herritarrei egindako bi iritzi-azterlanen laburpena.	141
4. dokumentua. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kanpoko ebaluazioa.	153
5. dokumentua. Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak egindako ezohiko jardueren memoria, Covid-19aren pandemiari lotuak	203

Bilduma honen aurkezpen orokorra

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETAK “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdiari ekin zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarra hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gogora Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jarduera-programaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduera ugari atera dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erljio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaugarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETAre armatzea eta desegitea.

Lehen liburu honek Proiektu Orokorrari buruzko dokumentuak biltzen ditu, hau da, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren diseinuari, bultzadari, kudeaketari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoak.

Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda giza ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-
ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desegitea 2018ko maiatza-
ren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabera izateaz gain,
onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migra-
zioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda
berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru ere-
mutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETAr buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua,
eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iragana-
ri lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko
hausnarketa horrek XII. Llegegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor
eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto
sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak
baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopoli-
zatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agen-
da globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala
baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean
gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi
galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu
berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika
publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko
lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mespretxua
defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako bes-
te balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta
are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal
duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin na-
gusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzit-
tik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko,
nazioko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez
baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen
Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira
ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten
deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

Liburu honen aurkezpena

Bildumako lehen liburu honek Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak XI. Legegintzaldian garatu duen jardueraren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko balio izan duten dokumentuak jasotzen ditu.

Lehenengoa eta garrantzitsuena, bere izaera estrategikoagatik eta Idazkaritzaren jarduketaren barruan dagoelako, **1. Dokumentua** da, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gobernu Kontseiluak 2017ko urriaren 11n onartu zuen behin betiko. Hala ere, bere ibilbidea urte bereko otsailean hasi zen. Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak plana gizartean eta politikan parte hartzeko prozesu bat izatea nahi zuen.

2017ko apirilaren 11n, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana Eusko Legebiltzarrerara bidali zen, eta proposamen ireki baten gisara aurkeztu zen jendaurrean, hiru hilabete baino gehiagoko epean ekarpenak jasotzeko zabalik baitzegoen. Egun horren aurretik eta ondoren, Idazkaritzak hainbat bilera egin zituen sail eta erakundeen artean, bai eta Legebiltzarreko taldeekin, alderdi politikoeekin, gizarte-taldeekin, hezkuntza-taldeekin eta nazioarteko taldeekin ere.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak sektorekako 16 ekimen nagusi ditu, kudeaketarekin, ebaluazioarekin eta finantziazioarekin erlazionatutako lan-ildo bat barne. Jarraipenari dagokionez, zehaztu zen sailarteko batzorde batek Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren gauzapeanaren urteroko jarraipen-txostenak egingo zituela, bai eta gobernu-kontseiluari igorri ere. Liburu honen **2. Dokumentuak** Plana onartu zenetik egin diren hiru txostenak jasotzen ditu. Txostenok ez dute garatutako lanaren ebaluazio kualitatiboa jorratzen, hartutako egutegi-konpromisoen betetzearen balantzea baizik.

3. Dokumentua garatutako lanaren balantze sozialari buruzkoa da. Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzak arlo honetan jarraitutako politikari buruz euskal gizarteari galdetu dioten bi iritzi-azterlanetako datuak aurkezten ditu, Planaren ebaluazioaren esparruan aurreikusita zeudenak, zehazki 15. ekimenean.

Aurreikuspen horren barruan, Planak ezartzen zuen, halaber, Legegintzaldiko azken urtean “Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenari buruzko kanpo-ebaluazioko txosten bat” eskatu beharko zela. Zeregin horri 2020ko lehen seihilekoan ekin zitzaion. Bilduma honetako **4. Dokumentuak** Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikasketen Institutuak (IECAH) egindako kanpoko balorazio kualitatibo horren isla jasotzen du.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketa-prozesutik atera daitekeen lehen ondorio bat da integraltzat jo daitekeen jarduera-ardatz multzo bat hedatu ahal izan dela, iragana argitzeko politika publikoak, biktimak, memoria, espetxe-politika, hezkuntza, aniztasuna, elkartasuna, dibulgazioa, parte-hartzea, nazioarteko ekintza, eta bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura barne hartzen dituen.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana bultzatzeak eta kudeatzeak lan bizia, sistematizatu eta integrala egitea ahalbidetu du. Horren emaitza eragin ona eta positiboa izan da normalizaziorako eta gizartea elkartzeko. Planaren bidez, bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura eraikitzeko ibilbide ezagun bat partekatu ahal izan da gizartearekin, ekintza eta proposamen zehatzetan oinarrituta.

Azken unean, **5. Dokumentua** gehitu zaio liburu honi. Dokumentu horretan, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren esparruan, 2020ko martxotik ekainera bitartean Covid-19ari erantzuteko inplementatu diren ezohiko jarduketak guztiak aipatzen dira.





1

● dokumentua

2017-2020rako
Bizikidetzaren eta Giza
Eskubideen Plana



2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana

Gizartea elkartzea helburu,
enpatiaren aldeko hautua



2017ko apirilaren 4a / urriaren 10a
Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzaren
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Sarrera

Lehen zatia.

Esparru orokorra

1. Diagnostikoa

- 1.1. Bake eta bizikidetzaren prozesuaren bilakaera aurreko legegintzaldian
- 1.2. 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko tresnaren ebaluazioa
 - 1.2.1. Tarteko ebaluazioaren kanpo-txostena
 - 1.2.2. Legegintzaldi amaieran Bake eta Bizikidetzaren Planaren balorazioa egiteko kanpo-txostena
 - 1.2.3. Eusko Jaurlaritzaren balorazioa
- 1.3. Testuinguru sozialean izandako aldaketak
 - 1.3.1. Murriztuz doan agenda eta haziz doan agenda
 - 1.3.2. Azterlan soziologikoaren emaitzak
- 1.4. Aldakorra den testuinguru sozialaren gakoak
 - 1.4.1. Indargunea
 - 1.4.2. Arriskua
 - 1.4.3. Aukeratu beharra
- 1.5. Diagnostikoaren ondorioak
 - 1.5.1. Aurrerapausoak, blokeoak eta lehentasunak
 - 1.5.2. Aurreko plana
 - 1.5.3. Plan berria
 - 1.5.4. Egoera berria kontuan hartzea
 - 1.5.5. Printzipio kontua
 - 1.5.6. Funtsezkoena, gizartea elkartzea
 - 1.5.7. Indargune nagusia
 - 1.5.8. Balio erantsiko indargarria
 - 1.5.9. Inflexio-puntua
 - 1.5.10. Gauzak errazten dituen faktorea

2. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Oinarriak

- 2.1. Oinarri aurre-politikoak
- 2.2. Plan honen zentzuaren batasuna
- 2.3. Helburu estrategikoa eta misioa
- 2.4. Plana egiteko kontuan hartutako egoerak
 - 2.4.1. Iragana Indarkeriaren amaiera antolatua
 - 2.4.2. Oraina. Bizikidetzaren normalizazioa
 - 2.4.3. Etorkizuna. Bizikidetzaren erronka berriak
- 2.5. Erronka sektorial estrategikoak eta helburu nagusiak
 - 2.5.1. Indarkeriaren amaiera antolatua
 - 2.5.2. Iragana argitzea
 - 2.5.3. Biktimak
 - 2.5.4. Memoria
 - 2.5.5. Espetxe-politika
 - 2.5.6. Hezkuntza
 - 2.5.7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura
- 2.6. Lan-metodologia
 - 2.6.1. Irizpide gidariak
 - 2.6.2. Jardunbideak
- 2.7. Jarduera-esparruak mugarriztatzea Gogorarekin
 - 2.7.1. Oinarrizko egitura
 - 2.7.2. Jarduera-eremu nagusiak

Bigarren zatia.

Akordiorako tresnak

1. Jarrerak

- 1.1. Gure burua orainaldian kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak
- 1.2. ETaren amaieraren aurreko jarrera
- 1.3. Iraganaren kontakizuna
- 1.4. Jatorri ezberdinetako urraketan tratamendua
- 1.5. Etorkizunaren lehentasunaren zentzua

2. Elkarrizketarako eta akordiorako proposamenak

- 2.1. Oinarrizko proposamena
- 2.2. Memoriari eta Bizikidetzari buruzko Txostenarekiko konpromisorako proposamena
- 2.3. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari buruzko Koordinazio Batzorde bat sortzeko proposamena
- 2.4. Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planeko hiru mikro-akordio proposamenen erreferentzia
 - 2.4.1. Iraganaren balorazio partekatua egiteko konpromiso etikoaren proposamena
 - 2.4.2. Orainaldian konfiantza-esparrua lortzeko konpromiso politikoaren proposamena
 - 2.4.3. Etorkizunera begirako gizarte- eta hezkuntza-konpromisoaren proposamena
- 2.5. Akordioa lortzeko abiapuntuak, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertzen ari diren erronken aurrean
 - 2.5.1. Erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzaren aurrean, aniztasunaren balioak
 - 2.5.2. Errefuxiatuen krisiaren aurrean, elkartasunaren balioak
 - 2.5.3. Nazioarteko terrorismoaren aurrean, demokraziaren balioak
 - 2.5.4. Gorroto-delituen aurrean, hezkuntzaren balioak

Hirugarren zatia.

Jarduera-plana

I. ardatza. Iragana. Indarkeriaren amaiera antolatua

- 1. ekimenaren fitxa. ETaren armagabetzea eta desegitea
- 2. ekimenaren fitxa. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa
- 3. ekimenaren fitxa. Iragana argitzea

II. ardatza. Oraina. Bizikidetzaren normalizazioa

- 4. ekimenaren fitxa. Biktimak
- 5. ekimenaren fitxa. Memoria
- 6. ekimenaren fitxa. Espetxe-politika

III. ardatza. Etorkizuna. Bizikidetzaren erronka berriak

- 7. ekimenaren fitxa. Aniztasunaren kudeaketa positiboa
- 8. ekimenaren fitxa. Elkartasunaren sustapena
- 9. ekimenaren fitxa. Hezkuntza
- 10. ekimenaren fitxa. Dibulgazioa
- 11. ekimenaren fitxa. Parte-hartzea
- 12. ekimenaren fitxa. Lankidetzaren estrategikoa
- 13. ekimenaren fitxa. Nazioarteko ekintza
- 14. ekimenaren fitxa. Elkarrizketa eta akordioa

IV. ardatza. Zeharkakoa. Kudeaketa eta aurrekontuak

- 15. ekimenaren fitxa. Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)
- 16. ekimenaren fitxa. Aurrekontuaren aurreikuspen xehaketa

Sarrera

I.

2006ko maiatzaren 2an, VII. legegintzaldian, Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak lehen aldiz onetsi zuen Bake eta Bizikidetzeta Plana. Gobernutik helburu bera lortzera bideratutako ekimenak modu artikulatuan planifikatzeko tresna modura sortu zen plan hori. VII. legegintzaldian, 2007ko abenduaren 26an, Jaurlaritzaren Kontseiluak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Lehen Euskal Plana (2008-2011) onetsi zuen. 2010eko ekainaren 8an, Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Lehen Euskal Planaren Birformulazioa onetsi zuen, IX. legegintzaldiari zegokiona. 2013ko azaroaren 26an, X. legegintzaldian, Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana onetsi zuen. Orain, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana aurkeztu da, XI. legegintzaldirako.

Ibilbide kronologiko horrek jarraitutasuna erakusten du, beste ezeren gainetik. Gaur pentsatzen duguna ezin da ulertu atzo edo herenegun egin genuena kontuan hartu gabe. Bakearen eta bizikidetzaren eraikuntza ez da zerotik hasten. Guztion lana da, denboran zehar egindakoa, gobernuen, alderdi politikoen, legebiltzar-taldeen eta instituzioen zein eragile sozialen, elkarte-mugimenduen eta herritarren askotariko ekarpen ugariekin.

Bigarrenik, azken hamar urteotan osaera desberdineko gobernuek, plan estrategikoa tresna modura erabilita, terrorismoaren eta indarkeriaren amaiera lortzeko eta bizikidetzaren, bakearen eta giza eskubideen helburuak lortzeko lan egin dutela frogatzen du. Horrenbestez, jarraitutasuna eta adostasuna antzeman daitezke tresna horren erabilgarritasunaren inguruan.

Dena den, plan horietako bakoitza aldatuz doan testuinguru bat aintzat hartuta taxutu da. Hori dela eta, lehenik eta behin, gaur egungo egoera aintzat hartuta, plan berri baterako beharrezko dagoen planteatu beharra dago. ETak 2011n iragarri zuen terrorismoa utziko zuela. Bost urte igaro dira azkeneko plana egin zenetik eta plan berri baterako beharrezko justifikatzeko, honako hiru baldintzetako bat bete beharko litzateke gutxienez: larrialdi-egoera bat edo mehatxu bat egotea, gizartearen lehentasunezko eskaera izatea edo beharrezkoa den baina amaitu gabe dagoen zeregina dela frogatzea.

Lehenengo baldintzari erreparatu gero, zorionez ez da larrialdirik edo mehatxurik antzeman, ez baitirudi atzera bueltarik dagoenik. Hala ere, indarkeriaren amaiera antolatua bermatzea euskal gizarteak pairatutako aldi traumatiko bati amaiera emateko modu arduratsu eta prebentiboa da. Bigarren baldintzari erreparatu gero, gizarteak ez du lehentasunezkoa den berariazko eskaerarik egin zentzu horretan. Inkesta guztien arabera, orain euskal gizarteak presazkoa ez den zeregintzat ditu bakea eta bizikidetzaren. Nolanahi ere, garrantzitsuak direla uste du eta asko balioesten dituzte.

Argiago ikusten da hirugarren baldintza. Izan ere, oraindik landu, konpondu edo burutu ez diren zeregin eta arazo garrantzitsuak daude: ETaren desagerpena, iragana argitzea eta horri buruzko gogoeta kritikoa egitea, biktima guztiei errekonozimendua eta ordaina ematea, memoria, espetxe-politika, bizikidetzaren kultura, giza eskubideen erronka berriak...

Historian zehar eta nazioartean izandako esperientziak indarkeriari amaiera emateko prozesua politika publikoak oinarri hartuta jarraitu eta burutzea gomendatzen du, elkarrekin adiskidetzara bizi garen arte. Iraganeko zauri irekiak ixteko beharizana dugu oraindik, ebatzi gabe jarraitzen duten arazoak ebazteko. Horrez gain, etorkizunean horren esperientzia traumatiko eta bidegabeak ez errepikatzeke oinarriak ezartzeko obligazioa dugu oraindik.

Isiltasuna gizartearen zauriak tratatzeko modurik okerrena da. Hala ere, trauma belaunaldiz belaunaldi transmititzeko biderik onena da. Gizarteak terrorismoari edo indarkeriari lotutako bizipen bat gaizki asimilatu badu, hainbat modutara berrager daiteke hainbat urteren ostean. Lau urterako den lanerako plana etorkizun hobe izaten laguntzeko beharrezkoa den tresna litzateke, bost urte baino ez baitira igaro ETAK indarkeriaren amaiera iragarri zuenetik.

Azken finean, ETaren jarduera armatuaren amaiera aditzera eman ondoren 2011an, 2012-2016 epean, aurrerapen nabariak gertatu dira baterako existentzian, hilketarik eta mehatxurik gabe. Dena den, beharrezkoa izaten jarraitzen du bizikidetzaren normalizazioan lanean jarraitzea, eta egiteke dauden hiru gairi heldu behar zaie: armagabetearen konfirmazioa eta ETaren behin betiko desegitea, espetxe-politika, eta iraganaren memoria kritikoa.

Testuinguru honetan, Euskadiko erakunde publikoek lankidetzaren prozesu bati ekin behar diote indarkeriaren amaiera ordenatuaren azken helburua lortze aldera, azken urteotan lortutako pluraltasun handieneko adostasunak edukita abiapuntu. Zentzu honetan, Eusko Legebiltzarrean 2012aren uztailan adostutako eta 2013aren martxoaren 22an berretsitako oinarri etikoak berresten ditu Eusko Jaurlaritzak.

Hau oinarri hartuta, XI. legegintzaldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan hau bultzatzea adostu du, aurreko legegintzaldietan garatutako planei jarraipena ematen diena eta Eusko Legebiltzarreko Memoriaren eta Bizikidetzaren inguruko Ponentzian lortuko diren akordioekin osatuko dena. Hausnarketarako esparru hau eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen edukia dira Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldirako ezarritako programaren isla eta garapena, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen atalarekin lotuta.

II.

Plan hau aurrekoarekin alderatu gero, honako honen izenburuan bertan desberdintasun garrantzitsua antzeman dezakegu. *Bake eta Bizikidetzaren Plana* izena hartu ordez, *Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana* izena hartu du. Bi arrazoi nagusirengatik eginda aldaketa hori: gizartea aldatuz doa eta planaren xedea egokitu egiten da. Ondorioa litzateke bat: beharrezkoa da aurrerapausoa egitea.

Terrorismoak eta indarkeriak markatutako aldi baten amaierari lotuta dago bakea eta, zorionez, pixkanaka-pixkanaka euskal gizartearen beharrezkoa izateari uzten ari da. Aldatu doan eta ziurgabetasunez bete dagoen mundu honetan, euskal gizarteak aurre egin behar die azaleratuz doazen erronkei. Giza eskubideei lotuta dagoen bizikidetzaren xedea erronka horietara hobeto egokitzea da, oraindik gaintzeko dauden erronkak alde batera utzi gabe.

Planaren azpititulua ere aldatu da. Aurreko planarena *"gizartea elkartzea helburu"* zen. Plan honetan formulazio hori mantendu da, adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren balio gorena lortzeko helburuak indarrean jarraitzen duelako. Enpatiaren kontzeptua gehitu zaio, helburu hori lortzeko ezagueraz hautatu den oinarri eta aukera modura.

Gizarte demokratikoaren balio gorenaren adierazgarri da *gizartearen elkartzeko* hori: *adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren* adierazgarri, hain zuzen ere. Premisa hori oinarri hartuta taxutu da plan hau eta baldintzatu egiten du lehenengo lerroetik azkeneraino. Enpatiaren aldeko hautua gizartearen elkartzeko helburua lortzeko premisa litzateke. Plan berri honek proposatzen duen aurrerapausoa da, dinamismo sozialarekin batera joango litzatekeena: horren hurbil ez dauden pertsonen lekuan jartzea, gizarteko kideak elkartzeko. Adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren lortzeko egindako esfortzu oro alferrekoa izango da enpatiaren aldeko hautua egiten ez badugu.

Aurreko planarekiko desberdintasun horiek agerian uzten dute Eusko Jaurlaritzak bere jardunean giza eskubideen ikuspuntua modu bateratuan eta sailen artean indartzeko dituen berariazko borondatea eta erabakitutasuna. Hain zuzen ere, giza eskubideen ikuspuntu hori indartzeak aldaketak ekarriko ditu gobernuaren beraren egiturari. Asmo hori bat dator, batetik, hazkunde inteligente, iraunkor eta integratzailearen aldeko estrategia europarrarekin (Europa 2020), eta, bestetik, Agenda 2030eko garapen iraunkorreko helburuekin, Eusko Jaurlaritzak horiek betetzeko konpromisoa baitauka bere gobernu-programan. Arlo horretan, zehazki, 16. helburua betetzeko konpromisoa sendoa dauka.

2015eko irailaren 25ean, benetan esanguratsua zen zerbait gertatu zen: mundu-mailako 193 liderrek Agenda 2030 delakoa zehaztu zuten. Hala, mundu-mailako 17 helburu betetzeko konpromisoa hartu zuten, hots, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH). Hitzarmen horren bidez egungo munduak dauzkan erronka konplexuei aurre egin nahi zaie. 16. helburuak, zehazki, gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea du xede.

Helburu horrekin lotuta, Nazio Batuen esanetan “bakerik, egonkortasunik, giza eskubiderik eta zuzenbidezko estatuan oinarritutako gobernagarritasun eraginkorrik gabe ezinezkoa da garapen iraunkorra lortzea”. (...) Garapen Iraunkorreko Helburuek nabarmen murriztu nahi dituzte indarkeria-modu guztiak (...), gatazken aurrean irtenbide iraunkorrak aurkitzeko. (...) Giza eskubideak sustatzea ezinbestekoa da prozesu horretan”.

Plan estrategiko honen barruan giza eskubideen ikuspuntu hori indartzeak aldaketak ekarriko ditu gobernuaren beraren egiturari. Lehenik eta behin, Idazkaritzaren izena aldatu da eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu du. Idazkaritza horren barruan sartu dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta errefuxiatuen krisiari erantzuteko koordinazioa.

Horrela, Idazkaritzak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gogoraren Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza hartuko ditu. Idazkaritzak plan estrategiko modura bultzatuko du 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan hau. Bestalde, sailtetako plan modura bultzatuko ditu Gogoraren 2017-2020rako Jarduera-plana eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarentzako 2018-2021erako Plan Gidatzailea.

III.

Helburu horiek aintzat hartuta, hiru atal handitan banatuta dago Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan hau. Esparru Orokorra litzateke lehenengo atala, eta Plana egiteko aintzat hartu den diagnostikoak eta Planaren beraren oinarriak osatzen dute. Bigarren atalaren izenburua *Oinarrizko akordiorako tresnak* da eta bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan adostasuna lortzeko bidea partekatzeko pentsatutako printzipio eta proposamenen katalogoa ageri da bertan. Planaren hirugarren atala jarduera-planari buruzkoa da. Ekintza zehatz bihurtzen diren 14 ekimen biltzen ditu, operatiboak diren beste bi ekimenekin batera.

Dokumentuaren hirugarren atal hori eta bertan bildutako guztia bereizita baina aldi berean lotuta dauden hiru egoeraren inguruan egituratzen da: indarkeriaren amaiera antolatua erlazioetatutako hiru ekimen (iragana), bizikidetzaren normalizazioarekin erlazioetatutako hiru ekimen (trantsizioa gaur egun), eta bizikidetzarako erronkekin konprometitutako bederatzi ekimen (etorkizuna).

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen egitura eta edukia zehazteko orduan, benetan kontuan hartu dira aurreko planaren harira egindako jarraipen- eta ebaluazio-prozesuen emaitzak, eta baita instituzioek, Legebiltzarreko alderdi edo taldeek eta elkarte-sareko eragileek egindako oharra, kritikak eta ekarpenak ere.

Ildo beretik, plan honetarako egin den kanpo-ebaluaziorako prozesua azpimarratu beharra dago. 2015ean egindako tarteko ebaluazioaren barruan, azterketa-prozesua egin zen eta legegintzaldi amaiera-

ko balorazio-txostenarekin osatu da. Dokumentuaren lehenengo ataleko lehen puntuari bildu dira txosten hartako ondorio eta gomendioak. Bai plan hau taxutzeko oinarri modura hartu den diagnostikoa egiteko orduan eta bai jarduera sektorialak garatzeko orduan kontuan hartu diren faktoreen parte dira ondorio eta gomendio horiek.

Aipatutako gomendioei jarraituz, azterlan soziologikoa egin da, kanpo-ebaluazioaren emaitza osatu duena gizarteak bake- eta bizikidetzaren arloaren inguruan egindako balorazioekin. Logikoa den moduan, azterlan horren emaitzan ere hartu dira kontuan. Azterlan soziologikoa horrek euskaldunen artean akordio etiko zabalagoa dagoela baieztatu du eta akordio horrek erreferentzia modura hartu beharreko oinarriko adostasun soziala osatzen du.

Entzutea berebizikoa da ebaluazio-prozesuan edo honen tankerako plan estrategikoa bat egiterakoan. Hori dela eta, dokumentu berri hau proposamen ireki modura aurkeztu zen 2017ko apirilaren 4an. Data horretatik aurrera, uztailaren 4ra arte, hiru hilabeteko epea egon da ekarpenak egiteko eta dokumentuaren edukiaren inguruko iritziak aldatzeko, talde parlamentarioen, erakunde sozialen eta herritarren aldetik.

Aldi horretan, ohar eta iradokizunak jasotzen zituzten 10 agiri aurkeztu ziren. Zehazki, ekarpenak aurkeztu zituzten Arabako Foru Aldundiak; Elkarrekin Podemos eta Popularren Euskal Taldea legebiltzar-taldeek; AVT eta COVITE biktime-elkarteak; Fernando Buesa eta Egiari Zor fundazioak; Elkarte Foroak; Ana Oregi parlamentariak; eta, Eusko Jaurlaritzaren barruan, Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiak.

Prozesu honen amaieran 26 proposamen hartu dira kontuan eta 63 aldaketa txertatu zaizkio Planaren proposamenari. Halaber, atal berri bat erantsi da, AVTk egindako ekarpen guztiei erantzuten diena, jarraian azalduko dugun bezala.

IV.

Biktimen politika publikoen arloan, era honetako plan baten abiapuntu garbia da honako hau: berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa sustatu behar da giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen artean. Erakunde publikoan betebeharra da, beraz, tratamendu berdina ematea iturri ezberdinetako terrorismo edo indarkeriaren biktime izan direnei. Eta, printzipio hori, hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen agindu bat da. Halaber, Eusko Jaurlaritzak eta plan honek hertsiki bete beharreko printzipio etiko garrantzitsua ere bada.

Terrorismoaren biktime asko eta beren elkarrekin oso sentikor ageri dira biktime ezberdinen artean berdintasunaren printzipioa manipulatzeko eragin ditzakeen arriskuen aurrean. AVT da terrorismoaren biktimen elkarte esanguratsua Espainian, eta elkarte horrek berak egindako ekarpenak kezka horren isla dira. Gaia bereziki delikatu eta garrantzitsua da, eta, beraz, hasiera-hasieratik heldu behar zaio argitasun eta zintotasun osoz. Hori dela eta, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen aurkezpenaren berariaz azpimarratu behar dela uste dugu.

ETAren terrorismoa pairatu duten biktime askoren kezka da jasan zuten bidegabekeria indarkeria ezberdinen artean hutsaldu egin daitekeela, edo era ezberdinetako biktimak edo indarkeria esplizituki edo inplizituki erabil daitezkeela. ETAk beren aurka baliatu zuen indarkeria nolabait konpentsatzeko edo ulertarazteko. Biktime eta biktime-elkarte asko kezkatuta ageri dira Eusko Jaurlaritzak gertaerak desitxuratu ditzakeelako.

Beldur dira halako ideiak gatazkaren eta elkarren aurkako bandoen teoria bakarra apelatzeko erabiliko ote diren, azken finean jasandako atentatuak eta erailketak justifikatuta. Terrorismoaren biktimetako askoren beldurra da terrorismoa legitimatzen duen kontakizun hori eraiikiko ote den. Eta kezka hori ulertzeko da, halako kontakizun batek berriz ere biktime bihurtuko bailituzte modu bidegabean.

Eusko Jaurlaritzak jakin badaki terrorismoaren biktimetako askok kezka horiek dituztela, eta horiekin ados dago. Honako hau, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana da, eta Eusko Jaurlaritzak bide horretan konprometitzen du. Hasiera-hasieratik, Eusko Jaurlaritzak biktimen aurrean argi eta garbi azaldu nahi ditu gai honen gainean dituen konpromisoen oinarriak.

·Gorago azpimarratu denez, bakea abesbatza baten lana da. Elkarren artean eraikitzeko bide horretan, Eusko Jaurlaritzak berariaz aipatu nahi du terrorismoaren biktimen ekarpena eta jarrera ezinbestekoak

direla. Mendeku hartzeko edozein aukerari uko egin, eta jasan zuten bidegabekeriaren aurrean Justiziarengan, polizia-ekintzarengan eta zuzenbidezko estatuko erakundeengan konfiantza izatea erabaki zuten.

·ETAk eta antzeko beste erakunde batzuek baliatutako indarkeria giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aurkako indarkeria sendoa izan da. Sufrimendu larri eta bidegabekeria eragin die pertsonen eta familiei, bai eta gizarte osoari ere. Orainsuko memorian sartzen den aldian, ETA izan da bizitzeko eskubidea gehien urratu duen kausa. Horren lekuko dira erakundeak hil zituen 846 pertsonak eta zauritu, estortsioa egin eta mehatxatu zituen milaka pertsonak.

·Ezinbestekoa da ETAREN biktimei berariaz adieraztea ez dela inoiz arrazoirik egon pertsona horietako bakoitzaren bizitza, duintasuna edo osotasuna baino balioa handiagoa izan duenik. Ondorioa, beraz, honako hau da: ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horrenbestez, “2inoiz gehiago ez gertatzeko mezu hori pedagogikoa izan dadin eta belaunaldiz belaunaldi helarazi dadin, ETA baztertzearan berariaz baztertu behar dira erakundeak baliatu zuen indarkeriaren justifikazioa, legitimazioa edo gorespina.

·Biktima guztiak ez ditu ETAK sortu. Beste erakunde terrorista batzuek ere eragin zituzten biktimak, BVE, GAL edo antzekoek, bai eta legez kanpoko botere-gehiegikeriek ere. Indarkeria horiek biktimak eta sufrimendu larri eta bidegabeak eragin dituzte, eta ez dira beti aintzatetsi, ez eta, batzuetan, ikertu ere. Eusko Jaurlaritzak gogor egingo du lan biktima horien guztien egiarako, justiziarako eta aintzatespenerako eskubideak aitortu eta defendatzeko, salbuespenik gabe, beraiek biktima bihurtu zituen egoera gorabehera.

·Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren printzipio hori aplikatuko du, horien guztien sentikortasuna guztiz errespetatuta. Horren harira, testuinguru biktimologiko eta kriminologiko ezberdinak bereizkeriarik gabe ez nahasteko konpromisoa hartzen du. Halaber, konpromisoa hartzen du biktima batzuk eta besteak biktima bihurtu dituen arrazoiak legitimatzen dituen alderatze oro saihesteko eta gainditzeko.

Hau da, Eusko Jaurlaritzak biktimen eta elkarten aurrean irmoki adierazi nahi du terrorismoa legitimatzen duen edozein justifikazio baztertzeko konpromisoa duela eta indarkeria horri legitimazioa kentzeko lanean jarraituko duela. Zeregin hori da, hain zuzen ere, Plan honen helburu nagusiaren oinarrietako bat: bizikidetzara, hots, gizartearen topaketa normalizatzea. Bada, horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritza sinetsita dago helburu hori lortzeko ezinbestekoa dela biktimen eta beren elkarten ekarpenak jasotzea.

V.

Arestian adierazi dugun legez, plan hau lehenago egin den ibilbidetik eta kokatzen den esparru arautzailetik sortzen da. Bestalde, planaren edukari eragiten dion esparru-araudian, hauek dira erreferentzia nagusiak:

- 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zituztenei eskubideak aitortu eta gehitu zizkiena eta beraien aldeko neurriak ezarri zituena. (2007ko abenduaren 27ko BOE, 310. zk.)
- 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa. (uztailaren 1eko EHAA, 124. zk.) (2011ko irailaren 3ko BOE, 212. zk.)
- 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendu eta babes osoa emateari buruzkoa. (2011ko irailaren 23ko BOE, 229. zk.)
- 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, 1960. eta 1978. urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izan zen motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, giza eskubideak urratu zitzaizkielako sufrimendu bidegabekeria bizi izan zuten biktimak izendatzeari eta ordaina emateari buruzkoa (2012ko ekainaren 19ko EHAA, 119. zk.)

- 157/2014 Dekretua, uztailaren 29koa, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea arautzen duena (2014ko abuztuaren 1eko EHAA, 145. zk.)
- 55/2010 Dekretua, otsailaren 23koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetza Kontseilua arautu zuena.
- 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zuena (2014ko abenduaren 22ko EHAA, 230. zk.)
- 75/2016 Dekretua, maiatzaren 17koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarena (2016ko maiatzaren 20ko EHAA, 95. zk.)
- 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean arrazoi politikoengatik indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa (2016ko abuztuaren 10eko EHAA, 151. zk.)
- 415/2013 Dekretua, irailaren 24koa, memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko dena (2013ko irailaren 30eko EHAA, 186. zk.)
- 5/2016 Dekretua, urtarrilaren 26koa, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten elkarteentzako eta erakundeentzako laguntzak arautzen dituen (2016ko otsailaren 1eko EHAA, 20. zk.)

Lehen zatia

Esparru orokorra

1. Diagnostikoa

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen diagnostikoaren edukia osatzeko, hiru erreferentzia hartu dira kontuan: aurreko legegintzaldian zehar bake- eta bizikidetzaprozesuak izandako bilakaera, aurreko Bake eta Bizikidetzaprozesuaren Planeko tresnaren ebaluazioa eta testuinguru sozialean izandako aldaketaren analisia.

1.1. Bake eta bizikidetzaprozesuaren bilakaera aurreko legegintzaldian

ETAk 2011ko urrian iragarri zuen terrorismoaren behin betiko amaiera. Horren ostean, bizikidetzaren normalizazioan izandako aurrerapen sozial handiak eta indarkeriaren behin betiko amaiera antolatua lortzeko izandako blokeoak markatu dute 2012-2016 legegintzaldia. Bakearen sendotzea gizarte mailan bere ideientzian inork mehatxurik sentituko ez zuen errealitate gisa ulertua izan zen bitartean, eremu instituzionalean eta alderdien artean akordioak lortzeko aurrerapenak oso eskasak izan ziren.

Horrela, paradoxa bat ematen da. ETAk hiltzen zuenean, terrorismoaren amaierarako adostasun erabakiorrak posibleak izan ziren bitartean, ezinezkoak izan ziren bizikidetzara erakitzekeo ETAk hiltzeari utzi zionean. Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako ekimenak ez zuten alderdien beharrezko babesik eduki ez eta, zenbait kasuetan, ekimen horiek zuzenduta egongo liratekeen kolektiboan erabakien laguntzarik ere.

Hori horrela izan arren, Bake eta Giza Eskubideen Plana garatu zen eta egitasmo estrategiko eta partekatua sendotu ziren, esate baterako, Gogora Institutuaren sorrera, Biktimen 12/2016 Legea edo giza eskubideen urraketei buruzko txostenen garapena, bizikidetzara erakitzekeo zoruaren parte izan behar duten biktimen errealitateak eta testigantzak modu ukazinean eta oraindik osatugabean eza-gutzen lagundu dutenak.

Legegintzaldi hasieratik, ETAk iragarritako terrorismoaren behin betiko amaiera bermatzen duten datuak sendotu dira. Bake eta bizikidetzaprozesuaren egoerak ez du okerrera egin; are gehiago, aurrera egin du eta oraindik hobetzeko tartea du. Dena den, prozesua nahi baino mantsoago aurrera egiten ari dela pentsatzen du, oro har, gizarteak.

Aurreko legegintzaldian, ETAk armagabetze-prozesuan, legezko espetxe-politikak onartzean edo iraganari buruzko hausnarketa kritikoa izan duen etenak frustrazioa eragin du, ez baita aurrerapen handirik egon. Horrenbestez, euskal gizarteak armak utzi eta behin betiko desagertu dadila eskatzen dio ETARI, halaber.

Halaber, aktore politikoek eta instituzionalek indarkeriaren amaiera antolatua eta bizikidetzaren printzipio berritzailea sustatu ditzaten eskatzen du. Gizartearen jarrera horrek funtzio traktore geldiezina betetzen du trantsizio horretan.

Egindako inkesta guztien arabera, euskal gizartearen gehiengo zabal batek Espainiako Gobernuari espetxe-politika alda dezala eskatzen dio. Horren harira, aurreko legegintzaldian Eusko Jaurlaritzara behin eta berriz saiatu zen Espainiako Gobernuarekin adostasun bat lortzen hainbat gai estrategiko kudeatzeko orduan, besteak beste, armagabetzearekin edo espetxe-politiken aldaketekin lotuta. Baina ezin izan du bide horretan aurrerapenik lortu, Espainiako Gobernuak ez baita horren alde agertu.

Ondorio gisa, eta azken lau urteotan gertatutakoa laburbiltzeko, honako bi esparru hauen arteko bereizketa egitea komeni da: indarkeriaren amaiera eta bizikidetzaren normalizazioa. Indarkeriaren amaierari dagokionez behin betikoa dela baieztatu da, egoeraren diagnostikoak hiru alderdiren inguruan (armagabetzea, espetxe-politika eta iraganaren inguruko hausnarketa kritikoa) nolabaiteko blokeoa islatzen badu ere. Bizikidetzaren normalizazioan, bizikidetzara erreal bat ekarri behar duen baterako existentzia aurrerabide handia izan dela eta gizarteak asko identifikatu dela islatzen du egoeraren diagnostikoak.

1.2. 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko tresnaren ebaluazioa

Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planak ezarri zuen planean bildutako ekimenen betetze-mailaren etengabeko jarraipena egin behar zela, sei hilean behin egin beharreko txostenen bitartez. Horrez gain, kanpo-ebaluazioarako prozesu bikoitza egin behar zela ezarri zuen, planaren erdia garatu ondoren eta lege-gintzaldi amaieran. Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesús A. Núñez eta Francisco Rey adituei agindu zitzaion kanpo-ebaluazio bikoitz hori eta IECAHren laguntza izan zuten (Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikasketen Institutua, "Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria" gaztelaniaz).

1.2.1. Tarteko ebaluazioaren kanpo-txostena (<https://goo.gl/XocOUq>)

2015eko udaberrian egin zen tarteko ebaluazio-txostenak Bake eta Bizikidetzaren balorazio ona egin zuen oro har. Haren laburpen exekutiboan honako hau dio, literalki:

«Laburbilduz, Plana orokorra, beharrezkoa, anbizio handikoa (baina errealista) eta orekatua da. *Planaren ikuspuntua eta xedea argi geratzen dira, sakonki arrazoitzen dira eta ekimen bakoitzak zehaztasun maila ezin hobea du. Dena den, Plana egungo euskal gizarteak eta politikak har dezakeenaren aurretik doa eta horrek sor dezake alde garrantzitsu bat lortu nahi denaren eta epe laburrean denon artean lor dezakegunaren artean. Hala ere, gida bat ezartzen du konfiantzan oinarrituta eta oraingo desadostasunak abiapuntu hartuta aurrera egiteko prest dauden guztiarentzat.*»

Ebaluazio-txosten hori azken fasean Bake eta Bizikidetzaren Planaren ezarpena hobetzera zuzendurik dauden gomendioen atal batekin amaitzen da.

Gomendio orokorren laburpena

- Lehena. Dimentsio etikoari lehen planoan eusten jarraitzea, betiere indarkeriaren bidegabekeria aitortuz.
- Bigarrena. Egoeren azterketa txertatzea eta Planak dituen helburuak kudeatzeko behin-behineko horizontea handitzea.
- Hirugarrena. Akordioa galarazten duten "konfort-guneetatik" irteteko gonbidapena egin eta elkarrizketarako eta adostasunerako foroen sorrera azpimarratzea, batzorde txostengilearen kasuan bezala.
- Laugarrena. Honako gai sentikor hauetan adostasun gehiago lortzea:

- (1) autokritika topagune gisa;
- (2) indarkeriak eragindako sektore guztienganako enpatia-keinueetan oinarritutako politika;
- (3) aitortu gabeko biktimak kontuan hartuko dituen lege berri bat;
- (4) giza eskubideak sendotzea, bakea eraikitzeko ardatz gisa;
- (5) birgizarteratze-politikak;
- (6) aktore sozial gehiago txertatzea;
- (7) gizarte eta hezkuntza arloko alderdiak sendotzea;
- eta (8) genero-ikuspegia txertatzea.

Gomendio zehatzen laburpena

- I. Gure historia berriari buruzko eduki akademikoa duten argitalpenak babestea.
- II. Memoriaren Mapa eta biktima guztien erregistroa osatzea.
- III. KREIk torturaren inguruko ikerketan egindako lana babestea.
- IV. Biktimekiko lan psikosoziala sustatzea.

-
- V. Presoak gerturatzearen kontua giza esparruan kokatzea.
 - VI. Adi-adian gisako esperientziak hezkuntza-esparru guztietara zabaltzea.
 - VII. Unibertsitateen parte-hartzea gehiago sustatzea.
 - VIII. Euskal historia garaikideari buruzko ikasmateriala sustatzea.
 - IX. Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordeari beste bultzada bat ematea.
 - X. Enpresa-munduaren eginkizunari buruzko hausnarketa egitea.
 - XI. Udaletxeekiko eta foru aldundiekiko itunak gehiago bultzatzea.
 - XII. Generoaren analisisa zeharka txertatzea (NBERen 1325 Ebazpena).
 - XIII. Indarkeriak emakumeengan duen inpaktuari buruzko ikerketa osatzea.
 - XIV. Planaren kanpo-komunikaziorako estrategia bat prestatu eta martxan jartzea.

2015eko urrian, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak legegintzaldi amaieran Bake eta Bizikidetzaren Plana kudeatzeko txostena aurkeztu zuen. Txosten horren bidez lan-programa eguneratu zen, kanpo-ebaluazioan egindako iradokizunak eta proposamenak kontuan hartuta. (<https://goo.gl/XnYTig>)

1.2.2. Legegintzaldi amaieran Bake eta Bizikidetzaren Planaren balorazioa egiteko kanpo-txostena (<https://goo.gl/My3Grr>)

Ondorio orokorren laburpena

2016ko irailean entregatu zen Bake eta Bizikidetzaren Planaren balorazioa egiteko kanpo-txostena. Hona hemen txosten horretan bildutako ondorio orokorren laburpena:

- ETAk indarkeriaren amaiera iragarri zuenetik, funtsezko aldaketak gertatu dira Euskal Herrian. Bake eta Bizikidetzaren Plana tresna errealista izan da, eta aldaketa horiek bultzatzen eta sendotzen lagundu du.
- Horrez gain, agendan gai batzuk sartzen lagundu du, “egungo legeriak babesten ez dituen biktimei aitortza ematea, autokritika egiteko beharra edo bakearen eta giza eskubideen kultura etorkizunerako gakoa delako ikuspuntua”, besteak beste.
- Orain agenda berri beharra dago, herritarrek etorkizunera begira eta giza eskubideekiko ikuspuntua barne hartuta. Izan ere, globalizazio desorekatuaren ondorioei (migrazioak, errefuxiatuak, berdintasunik eza, ingurumena, nazioarteko terrorismoa) gero eta lotuago dago ikuspuntu hori.
- Planak egin beharreko ibilbide guztia egin du ia. Konpondu gabeko arazoak konpontzeko, eragile garrantzitsuek blokeo-egoera gainditu behar dute. Plan berri bat behar da erronka horiei aurre egiteko, erroka horiek eguneratzeko eta errealitate berrira egokitzeko.

Gomendioen laburpena

- I. Bake eta Bizikidetzaren Planaren amaierako ebaluazioa egitea, gizartearen izan duen eragina eta ikasitakoa plan berria taxutzeko oinarri modura hartuta.
- II. Ildo beretik, estudio soziologiko bat egitea, herritarrek aurreko planaren agendaren eta orain diseinatu beharrekoaren inguruan duten iritzia ezagutzeko.
- III. Egiteko dauden zereginak ahaztu gabe, bizikidetzaren normalizatzeko lan egitea, euskal gizartearen aniztasuna eta testuinguru globala kontuan hartuta.
- IV. Biktimei ordaina ematearen, haien aitortzaren eta autokritikaren arloan egindako aurrerapausoen ostean, biktime horien esperientziak barne hartzea eta horietatik ikastea litzateke erronka.
- V. Espetxe-politikaren arloan, benetan gomendagarria litzateke Eusko Jaurlaritzaren Dekretua bultzatzea, justizia leheneratzailean zentratutako espetxe-politikarako dena, hain zuzen ere.

VI. Kultura- eta hezkuntza-alderdiek ezinbestekoak izan beharko lukete hurrengo planean. Horrez gain, komeni da hezkuntza- eta kultura-eragile gehiagoren parte hartzea bilatzea.

-Historian zehar gertatutakoa ikastearekin lotu behar da memoria.

-Giza eskubideen arloko prestakuntzan guztion eskubide guztietan eta horien zatiezintasunean sakondu beharra dago.

-Bizikidetzaren arloko hezkuntza modu positibo eta zabalean landu behar da, enpatiarekin erlacionatutako elementuak eta pertsonen errekonozimendua zein haien aniztasunarena gehituz.

VII. Etorkizuneko Planean, datuak biltzea eta generoaren eta adinaren arabera bereiztea lehen-tasuneko izan behar da indarkeriaren inpaktu bereizia ezagutu eta aztertzeko.

1.2.3. Eusko Jaurlaritzaren balorazioa

I. 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren sustapenari eta kudeaketari esker, lan handia eta integrala egin ahal izan da bakeari eta bizikidetzari eragiten dieten esparru guztietan. Eusko Jaurlaritzaren tankerako gobernu batek blokeo-egoeretan ekiteko dituen aukerak sistematizatu eta egituratzen dituen eredia osatu da horrela. Ekiteko gaitasun handiagoa duten aktoreen ekimenik ezak utzitako hutsunea bete du Bake eta Bizikidetzaren Planak.

II. Planak eragin ona eta positiboa izan du bizikidetzaren normalizatzeko eta gizartea elkartzeko. Oztopoak oztopo, planari esker gizartearekin partekatu ahal izan dugu benetako bake- eta bizikidetzaren prozesua eraikitzeko egindako ibilbide argia, egitate eta proposamen zehatzetan oinarrituta dagoena. Euskal gizarteak asko eta ongi baloratu du Eusko Jaurlaritzaren jardueraren ardatz hori. Herritarrek planarekin izandako identifikazio-maila altua izan da eta egindako inkesta bakoitzean ikus dezakegu hori.

III. Lau urte horietan, Bake eta Bizikidetzaren Planaren kudeaketa benetan tresna erabilgarria izan da memoria lantzeko orduan. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa eta autokritika bultzatzea ahalbidetu du etengabe. Terrorismoak eta indarkeriak ekarri dutenari buruzko hausnarketa egiteko adorerik eza arriskutsua da etorkizuneari aurrera egiteko, baina planean bildutako ekimenen memoria kritikoa eraikitzen lagundu dute.

IV. Planaren kudeaketaren mugarririk azpimarragarrien artean egongo lirake honako hauek:

-Lehendakariak 2015eko ekainean biktimen inguruan egindako autokritika eta AVT elkartearekiko lankidetzaren esparruaren inguruan egindakoa, azken hori terrorismoaren biktimak bazten dituen elkarerik beteranoena eta ordezkartza gehien duena izanik;

-2016an Eusko Jaurlaritzak biktimen aitortzarako antolatu zituen hiru ekitaldiak, Donostian (otsailaren 20an, poliziaren erasoaren biktimen omenez; martxoaren 11n, terrorismoaren biktimen omenez; maiatzaren 14an, frankismoaren biktimen omenez), gure historian lehenengo aldiz lau legebiltzar-talde handien parte-hartzea izan zutenak;

-Biktima guztiei legezko aitortza emateko eman diren pausoak, biktimen aitortzarako legea onestearrekin batera, ordura arte ez baitzeuden babestuta;

-Gogoraren sorrera, hots, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarena, Institutuak berak memoriaren arloko politikak kudeatzeko lortutako zeharkako adostasun zabalarekin batera, eta Memoriaren Plazaren harira egindako jarduerak;

-Horrekin guztiarekin batera, erakunde eskudunen aldetik aintzat hartu ez ziren edo gogoeta autokritiko hori pendiente dutenenengatik onartuak izan ez ziren armagabetzeko, espetxe-politika aldatzeko eta presoak gizarteratzeko edota autokritikarako egindako proposamenak nabarmendu beharra dago. Izan ere, hurrengo legegintzaldian arlo horietan egin beharreko lanerako oinarri sendoa osatzen dute. Proposamen horiek akordioetara zabalik jarraitzen dute, euskal alderdien artean zein Espainiako Gobernuarekin, batez ere espetxe-politikaren esparruan.

1.3. Testuinguru sozialean izandako aldaketak

Maila guztietan aldaketak dituen mundu eta garai batean bizi gara. Aurreikusteko zailak diren eraldaketak dira. Instituzioen, politikaren, gizartearen, ekonomiaren, belaunaldien, migrazioen eta abarren krisiak bizi ditugu. Ez gara isolatuta bizi, elkarrekin erlazionatuta baizik. Arazoak eta erronkak zeharkakoak dira eta tximeleta efektua gertatzen da sarritan. Euskadin indarkeriaz eta terrorismoz betetako garai ilun eta traumatiko batetik atera berri gara, hainbat hamarkadaren ostean. Sufrimenduak eta bidegabeke-riak utzitako zauri ugari daude oraindik, sendatu beharrekoak. Aldi berean, krisialdi ekonomiko larria bizi dugu, aldatuz doan gizarte honetan eta eraldaketa-prozesu sakon eta ezezaguna bizi duen mundu honetan. Hori guztia gurutzatu egiten da eta testuinguru sozial berria sortzen da.

1.3.1. Murriztuz doan agenda eta haziz doan agenda

Egoera aldatuz doa eta horrek eragin zuzena izan du gizarteak berandu iritsi zen eta oso astiro doan bake prozesuarekiko duen iritzian. ETAk indarkeriaren amaiera iragarri ostean egindako bakearen aldeko aldarrikapenak “zahartze” prozesu azkarra pairatu du. Gazteriarengan nabaritu da batez ere, egin gabe geratutakoa iraganeko gauza dela eta iragan hori gero eta azkarrago urrunduz doala uste baitute.

Eraldatuz doan mundu honetan, gizarteak bizikidetzaren normalizazioan egindako aurrerapausoek eta paradigma aldaketek anakroniko bilakatu dute geldirik zegoen hori. Horixe da testuinguru sozialean gertatzen ari den aldaketa aztertzeko hipotesi nagusia. Horrek, noski, ez du esan nahi plan honetan terrorismoaren eta indarkeriaren amaieraren kudeaketa gaindituzat jotzen denik edo hutsaltzen denik. Politika publikoen ikuspuntutik lehentasun sendoa da oraindik ere. Eta lehentasun horri aurre egin behar zaio gizartean toki-mailan nahiz globalki izan diren eraldaketak kontuan hartuta.

Ikuspegi honetatik, baieztatu behar da, orain gizarteak antzinako zeregin modura daukala indarkeriaren amaieraren kudeaketa eta hiru direla konpondu gabe geratu diren arazoak: (I) ETA armagabetu eta desegitea, (II) espetxe-politika aldatzea, eta (III) iraganari buruzko hausnarketa kritikoa egitea. Identifikazio honek ez dakar erantzukizuna parekatzea, jorratu gabeko lanen zerrenda da. 2011tik igaro diren bost urte hauetan, atzeratutako helburu horiek urruneko eta iraganeko erreferentzia bilakatu dira, objektiboki garrantzitsuak badira ere.

Paraleloki, bai mundu globalizatuan eta bai gure tokiko esparruan, XXI. mendeko errealtatera egoitzen diren kezkek biltzen dituen agenda berri bat sortu da. Azaleratzen ari diren eztabaidak dira, aniztasuna, elkartasuna, bizikidetzeta eta hezkuntza bezalako balioen kudeaketarekin zerikusia dutenak, eta benetako errealtateetan gauzatzen direnak, hala nola errefuxiatuak, migrazioak, pobrezia, ingurumenaren erronka, erlijio- eta kultura-aniztasuna, LGTB personen eskubideak, bazterkeria- eta injustizia-forma berriak, edota nazioarteko terrorismoaren edo gerraren mehatxuentzako erantzunak.

Azaleratzen ari diren errealtate horiek ezin dira diskurtso imeo baten zoru finkoan ezarri. Lur labainkorrean mugitzen dira, momentura arte eztabaidea ezintzat genituen printzipioak zalantzan jartzen dituzten jarreraren arteko hainbat eztabaida eragin dituzte eta horrek oinarrizko balio, eskubide eta askatasunen inguruko kontsiderazioari eragiten dio.

1.3.2. Azterlan soziologikoaren emaitzak (<https://goo.gl/Oe2tR8>)

“Legegintzaldi amaieran 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Planaren balorazioa egiteko kanpo-txostena” izenekoaren berariazko gomendioetako bati jaramon eginez, Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak inkesta bat egin zuen herritarrek aurreko legegintzaldiko planaren ardatzen inguruan duten iritzia eta orain onetsi beharreko planaren ardatzen inguruan dutena ezagutzeko.

Informazioa 2016ko azaroaren 9tik eta 11ra bitartean bildu zen. Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean aurki daiteke txosten osoa. Inkesta horretatik atera beharreko hamar ondorioen laburpena eskaini da jarraian. Hiru ataletan banatuta daude: egoeraren diagnostikoa, lehentasunezko pausoak eta planaren balorazioa.

A. Herritarrek egoeraren diagnostikoaren inguruan duten iritzia

I. Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan kezka sozial berriak agertu dira. Biztanleen % 72k diotenez, oso kezkatuta daude nazioarteko terrorismoa eta gerrak direla-eta, % 62 kezkatuta daude Euskadiko bake-prozesua eta bizikidetzaren direla-eta, eta arraza eta erlijio desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzak kezkatzen ditu % 31.

II. Bakea presa gutxiago duen baina oso garrantzitsua den kontua dela uste dute. Biztanleriaren % 52k dioenez, oso edo nahiko interesatuta daude Euskadin bake-egoera garatzen ari den moduatik. Gai horrekiko interesa pixka bat murriztuz joan da 1999. urteaz geroztik egindako neurketen arabera.

III. Hiru oztopo daude oraindik: adostasun politikorik eza, espetxe-politika eta ETaren armagabetzea edo desegitea. Honako hauek dira behin betiko bakea lortzeko dauden oztopo nagusiak: alderdi politikoak ez dira haien artean ados jartzeko gai izan (% 38) eta Espainiako gobernuak ez du presoaren egoera hobetzeko aurrerapausorik egin (% 36). Hirugarren oztopo modura, ETak ez dituela armak utzi eta ez dela desegin aipatu da (% 18).

IV. Gizarteak lau lehentasun daudela azpimarratu du: alderdien arteko adostasuna lortzea, presoak hurbiltzea, ETA armagabetu eta desegitea eta egindako kaltearen inguruko autokritika egitea. Epe laburrean prozesu honetan aurrera egitea ahalbidetuko luketen pausoak lirateke indar politiko guztien arteko adostasuna lortzea (% 39), presoak hurbiltzea (% 24), ETA armagabetu eta desegitea (% 19) eta egindako kaltearen inguruko autokritika egitea (% 11).

B. Herritarrek orain eman beharreko pauso nagusien inguruan duten iritzia

V. ETA desegin egin behar da eta armak utzi behar ditu. ETak emandako pausoak nahikoa izan ote diren galdetu ondoren, biztanleriaren % 49k uste du ezinbestekoa dela ETA oraintxe armagabetu eta desegitea, Espainiako gobernuak egiten duenaren zain egon gabe; bestalde, biztanleriaren % 36k uste du ETak emandako pausoak nahikoa izan direla eta orain Espainiako gobernuaren txanda dela.

VI. Espainiako gobernuak bake eta bizikidetzaren politika adostu behar du Eusko Jaurlaritzarekin. Euskaldun gehienek iritziak (% 92), Espainiako gobernuak bake eta bizikidetzaren politika adostu beharko luke Eusko Jaurlaritzarekin.

VII. Espetxe- eta gizarteratze-politika berria behar da, Euskadiko espetxeen eskumena baliatuz.

- Euskaldun gehienek oso kritikoak dira Espainiako gobernuaren espetxe-politikarekin; % 9k baino ez dute ondo baloratzen, % 55ek gaizki baloratu dute eta % 16k ez ondo, ez gaizki. % 14k ez dute inoiz entzun eta % 6k ez dute erantzun.

- Herritarren % 81ren ustez, Espainiako gobernuak ETako presoak gizarteratzeko lana erraztu beharko luke, legezketasunaren mugen baitan.

- Espetxeen eskumenaren arloan, herritarren % 75ek uste dute eskumen hori Euskadira ekarri beharko litzatekeela, hori aurreikusten baitu Gernikako Estatutuak. Herritarren % 9 bakarrik ez daude ados eskumenaren eskualdaketa horrekin.

VIII. Indar guztiek osatutako mahai batek balio estrategikoa eta lehentasunezkoa du. Herritarren aburuz, oso garrantzitsua da legegintzaldi honetan Eusko Legebiltzarrean bakeari eta bizikidetzari buruzko mahaia sortzea, indar-politiko guztien parte-hartzearekin. Herritarrek 8,2 puntu eman dizkiote horri, Otik 10era bitarteko eskalan.

C. Herritarrek Bake eta Bizikidetzaren Planaren inguruan duten iritzia

IX. 2013-16ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren edukiarekiko sintonia soziala. Euskaldunek Bake eta Bizikidetzaren Planarekiko duten adostasun maila oso altua da: biztanleen % 53 ados daude eta % 7 bakarrik ez daude ados; % 3k ez dute ez adostasunaren, ez desadostasunaren alde egin eta % 30ek ez dute Plana ezagutzen.

Planaren helburu espezifiko batzuk aipatu ondoren, 10etik 9 inguru ados daude Planak helburu horiek betetzeko egin beharrekoarekin. Helburu horien aldeko iritzia zabalagoa da 2014koarekin alderatuz gero:

- "Euskal Herriko ideologia politiko guztien arteko bizikidetzaren sustatzea", gizartearen babesa % 88koa izatetik % 95ekoa izatera pasatu da.
- "Estatuaren eta poliziaren indarkeria pairatu zuten pertsonai ere biktima-izaera aitortzea", gizartearen babesa % 80koa izan zen 2014an eta % 93koa 2016an.
- "Terrorismoaren biktimei aitortza eta ordaina emateko lana osatzea", babesa % 78koa izatetik % 92koa izatera pasatu da.
- "Iraganaren irakurketa kritikoa egitea, guztiok ados egoteko modukoa", babesa % 74koa izatetik % 86koa izatera pasatu da.
- Bestalde, inkestan parte hartu duten pertsonen % 89k uste dute egokia dela Eusko Jaurlaritzak ETA armagabetzeko prozesuan parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politikaren inguruan galdetuta, inkestan parte hartu dutenen % 37k uste dute ondo ari dela, % 5ek gaizki ari dela, % 30ek ez ondo, ez txarto, eta % 21ek ez dute inoiz entzun. Hala ere, euskaldunen % 74k modu positiboan baloratu dute Eusko Jaurlaritzak autokritika egin izana eta iraganean instituzioek biktimei arretoa gehiago eskaini behar zietela aitortu izana.

X. Plan berri bat bultzatzeko aukerak babes maila handia izan du. % 89aren aburuz, legegintzaldi honetan bizikidetzaren plan berri bat bultzatu beharko litzateke, aurrekoari jarraipena emango liokeena.

Inkesta honen emaitzek gizartearen gehiengoaren borondatea erakusten dute eta terrorismoa behin betiko amaitzeko eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren normalizatzeko ibilbide-orrira osatzeaz gain, gizarte elkartzeko espazio etokoa irudikatzen dute, etorkizunaren aldeko apustua sendotzen duena.

Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Plana gizartearen sentimen hori aintzat hartuta egin zen. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berri hau egiteko, diagnostiko sozial hori eta euskaldunen lehen tasun nagusiak hartu dira kontuan. Gizartearen eta instituzioen bat-etortze horrek ezinbesteko balioa du Euskadiko bizikidetzaren proiektuak atzera bueltarik izan ez dezan eta bideragarria izan dadin.

1.4. Aldakorra den testuinguru sozialaren gakoak

Aurrera begira, gizartearen gertatzen ari diren aldaketek eta eraldaketek oztopoak eta aukerak eskainiko dizkigute, logikoa denez. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, honako hauek dira gizarte-errealitate aldakor honen gako nagusiak, labur-labur. Bada indargune bat, bada arrisku bat, eta bada aukeratu beharra ere.

1.4.1. Indargunea

ETAren amaieraren iragarpena heldu baino hainbat urte lehenagotik euskal gizartearen aurrera eginda zegoen indarkeriaren amaieran eta bizikidetzaren normalizazioan. Jendea beste era batera bizi eta elkarbizi zen egunero, eta indarkeria anakronismo bihurtuta zegoen, errealitatearekin bateraezina zena. Ibilbide horretan gizarte zibil antolatua funtsezko zeregina nabarmendu behar da. Zailtasunak zailtasun, gizarteak ez zuen etsi eta ez du etsitzen elkarrekin adiskidetu eta normaltasunez bizitzeko. Horixe izan zen eta horixe da bakeak duen indargunerik handiena, horixe da terrorismoa eta indarkeria berriro ez itzultzeko bermerik onena. Era berean, ziurgabetasunez betetako etorkizunari aurre egiteko indargunerik handiena da. Euskal gizarteak elkarrekin adiskidetu eta normaltasunez bizitzeko duen gogo hori indargunea da, agertuz doazen erronkei aurrera egiteko indartu beharra dagoena.

1.4.2. Arriskua

Euskal gizartea etorkizunera begira zegoen lehendik, eta orain ere halaxe dago. Bultza-indar ikaragarria da hori bakea eta bizikidetzaren bermatzeko. Euskal gizartea aldaketen aurretik doa, eta, horrela, aldaketok bultzatu ere egiten ditu. Baina indar horrek arrisku bat ere badu berekin: erabat etorkizunak zer ekarriko begira bizitzea, iraganean bizi izandakoa ebaluatzeaz ahaztuta-edo. Horregatik, azken lau urteotan, politika publikoek elkarbizitza eta oroimen kritikoa aldeko proiektu bat sustatu dute. Etorkizunera begira ere horrelaxe jokatu beharra daukagu.

1.4.3. Aukeratu beharra

Errefuxiatuak, migrazioak, erlijio- edo kultura-aniztasuna, bazterkeria- eta bidegabekeria-modu berriak, gorroto-delituak, nazioarteko terrorismoaren mehatxuari erantzun beharra edo gerra; hori dena badator, eta giza eskubideekin dauka zerikusia. Eztabaida global horrek dakarren bidegurutzearen zera hori era bat baino gehiagotara adieraz daiteke: ireki ala itxi, individualismoa ala elkartasuna. Norantz nahi dugu aurrera egin? Gizarte solidario eta irekia nahi dugu; ala gizarte bere baitara itxia, individualismoa eta egoismoa dituen elkarbizitzaren josi-hari. Gaur, XXI. mendeko Europan, gobernua giza eskubideetara eta printzipio demokratikoetara lotuta egotea nahi badugu, halako bizikidetzarako plan bat sustatzea nahi badugu, ezin dugu aukeraketa estrategiko hori ahaztu.

1.5. Diagnostikoaren ondorioak

1.5.1. Aurrerapausoak, blokeoak eta lehentasunak

Azken lau urteotan bizikidetzaren bete finkatzeko borondatea sendotu da gizartean. Orain badakigu indarkeriaren amaiera betiko dela, baina, amaiera antolatuz ari garelarik, badira, hala ere, hiru gauza hortxe blokeatuta: ETaren armagabetzea eta desegitea, espetxe-politika eta iraganari buruzko gogoeta kritikoa. Horiez gain, politika-erloto defizit nagusia denok batera lan egiteko espazio baten falta izan da. Orain, lau gako horiek dira lehentasunik handienak.

1.5.2. Aurreko plana

2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana sustatzea eta kudeatzea normalizazioan eta gizartea elkar-tzen laguntzeko ahaleginean errefortzu bat izan da. Erabileen ekimen ezaren orde, ekiteko ahalmen handiagoa ekartzen saiatu da. Lan-tresna bat izan da bizikidetzaren eta oroimen kritikoa sustatzeko, eta euskal gizarteak ondo iritzi dio.

1.5.3. Beste plan bat

Beste plan bat behar da, egiteko dagoenari, aldi baterako denari eta badatorrenari erantzuna emateko. XI. legegintzaldian ere bada plan estrategiko baten tresna-premia, iraganak utzitako eginkizunei heltzeko, eta misioa gaur egungo errealitateara eguneratzeko eta gizartera egokitzeko. Izan ere, etorkizunera begiratzeko paradigmatik eta erreferentziak aldatzen ari dira.

1.5.4. Egoera berria kontuan hartzea

Plan berriak kontuan hartu behar du testuinguru sozialean zein nazioartean gertatzen ari den aldaketa handia. Jardueren ardatza *bakea eta bizikidetzaren* izatetik *bakea eta giza eskubideak* izatera pasatu da. Lehenengo ardatz horrek iraganari islatzen du, iraganean beharrezkoa izan zelako bakea lortzea, bizikidetzaren normalizatu ahal izateko. Bigarren ardatzak garai berri bat islatzen du. Indarkeriaren amaiera antolatua lortzeko prozesuari amaiera emateaz gain, beharrezkoa da eraldatuz doan mundu honetan agertuz doazen erronkei aurre egitea.

1.5.5. Printzipio kontua

Bizikidetzaren dakartzen erronken inguruko eztabaidak lur labainkorrean mugitzen dira. Migrazioei, errefuxiatuei, kulturen edo erlijioen arteko bizikidetzari, gorroto-delituei, nazioarteko terrorismoari, gerrei eta abarri buruzko eztabaidek oinarritzeko eskubide eta askatasunen hierarkia zalantzan jartzen duten eztabaidak dakartzate. Plan berri bat printzipio demokratikorik oinarritzeko oinarri hartuta egiten bada, giza eskubideen eta elkartasunaren balio gorenaren aldeko defentsarekin konprometituta egongo da.

1.5.6. Funtsezkoena, gizartea elkartzea

Gizartea elkartzea izan behar da oraindik ere plan berri baten helburu nagusia. Izan ere, elkarbizitza lortzea berez da balio gorena. Eta zer da 2020an espero izatekoa? Ordurako Eusko Jauriaritzak beharrezko adostasunak artikulatzeko gai izan dela, etenik gabe eta ekinean, gizartea elkartzearen alde; hau da, elkarrekin adiskidetu, normaltasunez eta oroimena galdu gabe bizitzearen alde.

1.5.7. Indargune nagusia

Planaren diseinuak eta kudeaketak kontuan hartu behar dute gizartea elkartzeko indargune nagusia herritarrek direla, eta herritarrek adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren normalizatu aukeratu dutela. Politika publikoek indargune hori indartu eta bultzatu behar dute. Era berean, memoriaren politika publikoen aldeko apustuarekin osatu behar da, iraganean ikasitakoaren gomuta atzean utzi duen etorkizuna eraikitze arriskua ekidin ahal izateko.

1.5.8. Balio erantsiko indargarria

Bada ideia bat balio handia duena kulturarako, heziketarako eta dibulgaziorako, eta beti hortxe dagoena bizikidetzari, giza eskubideei eta elkartasunari lotutako proiektu ororen azpian: enpatiaren aldeko hautua. Izan ere, bestea eta besteak kontuan hartzen dituen bizikidetzaren kultura horrexek definitzen ditu enpatiaren aldeko hautuak. Bere baitako ate-leihoak kanpora zabalik dituen eta barruan zein kanpoan elkartasuna erakusteko gaitasuna duen gizartea definitzen du. Euskal gizartea elkarbizitza lotua nahi badugu, elkarbizitza adiskidetu eta normalizatu, enpatiaren aldeko hautua da estrategiarik onena horretarako indargune nagusia sendotzeko.

1.5.9. Inflexio-puntua

Denon artean iraganaren irakurketa kritiko bat egin ez izana da aurreko legegintzaldiaren hutsuneetako bat. Alderdien arteko harreman politikoen arloan, ziurrenik gaur egungo testuinguruan horrexek lagunduko luke gehien eta ondoen inflexio-puntu bat sustatzen eta, hala, iraganaren lortza txukun garbitzen eta etorkizuneko ildoetatik abiatzen, ustez aukera gehiago eta hobeagoekin.

1.5.10. Gauzak errazten dituen faktorea

Joan den legegintzaldian izan zen bigarren hutsune bat ere, aurrekoarekin lotua; alegia, ez zela egon alderdi politikoen eta Legebiltzarreko alderdien artean lan egiteko fororik. Horretan badugu zer hobetua legegintzaldi berri honetan, argi eta garbi. Elkarbizitza eta akordioarako espaziorik gabe, eta iraganaren inguruko hausnarketa kritikorik egin gabe, aurreko puntuan gomendatu duguna, gizarteak aurrera egiten jarraituko du baina politika gauzatuta bakarrik ez da maila guztietan bizikidetzaren sustatzeko garai berri bati hasiera emateko beharrezkoa den inflexio-puntua sortuko.

2. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren oinarriak

Azaldu berri dugun diagnostikoak Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honek oinarritzat hartu beharrezkoa mugatzen du. Hainbat ataletan banatu dira planaren oinarriak: printzipio aurre-politikoak, planaren zentzuaren batasuna, misioa, egoerak, erronka sektorial estrategikoak, helburu nagusiekin batera, eta azkenik, lan-metodologia.

2.1. Oinarri aurre-politikoak

“2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gizartea elkartzea helburu, enpatiaren aldeko hautua” izeneko plan hau diseinatu, sustatu eta garatzeko bi oinarri hartu dira kontuan, oinarri aurre-politikoak direnak: printzipio etikoa eta printzipio demokratikoa.

• **Printzipio etikoa.** Plan hau gizartea *elkartzeko* proiektu bat da. Giza duintasunaren balio gorena eta duintasun hori lortzeko beharrezkoak diren giza eskubideen defentsa eta sustapena hartzen ditu oinarri, eta baita elkartasunarekiko eta giza eskubideen urraketen biktima izan direnen eskubideekiko konpromisoa ere.

• **Printzipio demokratikoa.** Plan honek printzipio demokratikoarekin duen lotura terrorismoa eta indarkeria forma oro alde batera uzteko konpromisoan islatzen da, eta baita askatasunaren, aniztasunaren, elkarrizketaren, elkartasunaren eta bizikidetzaren adiskidetsu eta normalizatuaren aldeko konpromisoan ere.

2.2. Helburu estrategikoa eta misioa

2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planak eta 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak helburu estrategikoa bera dute, honako esaldi honetan laburbiltzen dena: gizartea elkartzea helburu. Formulazio horrek balio goren bati egiten dio erreferentzia: adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren idealera hurbiltzea. Plan honen misioa giza eskubideekiko konpromisoan oinarritutako bizikidetzaren integratu eta integratzailea sustatzea da.

Bai egiteko geratu diren gauzak biltzen dituen agendaren ikuspegitik eta bai zeregin berriak biltzen dituen agendaren ikuspegitik, gizartea elkartzea da funtsezko helburua; adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren normalizatu lortzea, memoriarekin. Elkartasuna eta giza eskubideak dira oinarritzko printzipioak. Horrek guztiak osatzen du XXI. Mendean bizikidetzaren aldeko kultura sustatzeko oinarritzko materiala. Gizartearen, hezkuntzaren, osasunaren, justiziaren, kulturaren, ekonomiaren eta abarren arloko politika guztien helburua horixe izaten da azken batean: *adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren* posible egiteko eta gizartea elkartzeko baldintzak sortzea.

Adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren lortzeko helburuak elkarrekin bizitzeko modu bat deskribatzen du, hiru ezaugarri dituena: gizarte integratzailea, aukeren berdintasunaren alde egiten duen gizartea, eta modu zentzudunean partekatutako arau eta balioen bitartez arazo eta desadostasunei aurre egiteko gai den gizartea. Ez da gatazkarik eta desberdintasunik gabeko gizartea, hori irrealia baita. Gatazka eta desberdintasunak dituen gizartea da, baina gizarteko kideek partekatzen dituzten gutxiengo etiko eta demokratikoak ditu horiei aurre egiteko.

Ezaugarri horiek giza eskubideetan oinarritzen dira nolabait, lotuta baitaude. Diskriminaziorik gabeko bizikidetzaren integratzaile eta inklusiboa lortzeko erreferentzia unibertsala dira giza eskubideak. Giza eskubideei buruzko 30 artikuluetan berdintasunik ezaren aurrean aukeren berdintasunerako baldintzak bermatu eta lortzera bideratutako 30 erreferentzia ezarri dira. Azken finean, segurtasun osoz esan genezake bizikidetzaren esperientzia orotan gertatzen diren gatazka kudeatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituen erreferentziatzko araudia direla giza eskubideak.

Horregatik da plan hau bizikidetzari eta giza eskubideei buruzkoa. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da plan hau taxutzeko erreferentzia modura hartu den tresna. Indarkeriaren amaiera lortzeko agendarekin eta bizikidetzarako erronka berriei aurre egiteko sortu den agendarekin zerikusia duen guztia baloratzeko jarraitu beharreko ildoak ezartzen dute giza eskubideek. Giza eskubideak ez dira ideia, interes edo aukeraketa baterako tresna modura erabili behar. Giza eskubideak xedaezinenak dira.

Azken buruan, plan honen helburu estrategikoa gizartea elkartzea dela diogunean, memoria zainduz elkarrekin bizitzeari egiten diogu erreferentzia, iraganean egin gabe geratu ziren gauzen agendari erreparatzen diogunean, eta bizikidetzaren solidarioari, azaleratzen ari diren erronkei erreparatzen diogunean. Hori guztia kontuan hartuta, posible izango da gizartea elkartzea. Adiskidetzaren funtsezkoa da bizikidetzarako eta aldi berean, giza eskubideen eta horiek oinarri dituen giza duintasunaren balio gorenaren inguruko adostasunean oinarrituta egongo litzateke bizikidetzaren.

2.3. Plan honen zentzuaren batasuna

Plan estrategikoa bat egitea justifikatzen duen helburu metodologikoa askotariko ekimenak antolatzea da, helburu nagusien, printzipioen eta irizpideen arloan zentzu-batasunak lotutako sistema baten barruan. *Enpatiaren aldeko hautua* esaldian zehaztu da plan honen zentzuaren batasuna. Hona hemen gizarte-politika guztien topagunea: beste pertsona. Errealitatearen tokiko dimentsioa eta dimentsio globala ulertzea, beste pertsona horren existentzia oinarri hartuta.

Norberaren ongizatearen gainera edo gutxienez horren pare, guztion ongizatea lortzearen garrantzia ulertzen laguntzen duen alde aurreko esperientzia eta kontzeptua da enpatia. Kulturaren, hezkuntza-aren eta dibulgazioaren arloetan potentzialtasun handia duen kontzeptua da enpatia, bizikidetzari, giza eskubideei eta elkartasunari lotutako proiektu ororen funtsa baita. Enpatia ez da beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasuna bakarrik, gizakiak beste pertsona batzuegatik kezkatzeko eta haiez arduratzeko duen gaitasuna ere bada.

Plan honetan biktimizez hitz egiten dugunean, beharrezkoa da enpatiaren aldeko hautua egitea. Era berean, gerrek eragindako errefuxiatuez edo memoriaz hitz egiten dugunean, edo iragana argitzeaz edo autokritika egiteaz, edo espetxe-politikaz, edo hezkuntza inklusiboaz, berdintasunaz edo elkartasunaz... beste pertsona batzuen errealitatea da muina kasu guztietan. Pertsona horiek ikuspegi partekatu behar dute, haiek bizi duten errealitatearen kontzientzia hartzetik hasita.

Aldi berean, zehatz esanda gizatiarrago egiten gaituena da enpatia eta zentzu orokorragoan, sozial eta zibilizatu bihurtzen gaituena. Enpatiak bizikidetzarako duen garrantzia erabakigarria da. Integraztzailea den gizartea, aukeren berdintasuna lortzea helburu duena eta giza eskubideak oinarri hartuta gatazkak konpondu nahi dituen, beste pertsona batez kezkatzeko eta hartaz arduratzeko gai den gizartea da. Haien buruaz haratago ikusteko eta guztion ongizatearen esanahiaz jabetzeko gai diren herritarrek osatutako gizartea.

Horixe da bizikidetzaren eta giza eskubideen proiektu bat bideragarria izateko bete beharreko oinarriko baldintza. Berdintasunerako enpatiatik pentsatutako ekintza politikoa beharrezkoa litzateke. Era berean, beharrezkoa litzateke giza eskubideekiko enpatiarekin konprometituta dagoen gizartea izatea. Gizartea elkartzeko eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzari indartzeko, enpatiaren aldeko hautua esplizitu bihurtu behar da, hau da, gizarte solidarioaren aldeko hautua egin behar da, bai iraganak eka-ritako ondorioak kudeatzeko eta bai etorkizunean izango ditugun erronkei aurre egiteko.

Enpatiaren aldeko hautua da plan honen zentzuaren batasuna. Hona hemen planean bildutako ekimen guztiak batzen dituen funtsa: enpatiaz jokatzeko gaitasuna duten gizartea eta politika sustatzea eta horiek biak lotzea. Gizarteko kideak elkartzeko eta bizikidetzari sustatzeko gaitasuna dutenak, beste modu batera esanda. Enpatia funtsezkoa da adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzari normalizatua lortzeko.

2.4. Plana egiteko kontuan hartutako egoerak

Guztiz bereziak diren baina aldi berean elkarri lotuta dauden hiru egoera daude planaren, bere zentzuaren batasunaren eta misioaren oinarrian: indarkeriaren amaiera antolatua, bizikidetzaren normalizazioa eta aniztasunaren eta elkartasunaren aldeko kultura. Horixe da dokumentu honen hirugarren atalean deskribatu den jarduera-programaren egitura. Iraganen egin gabe geratu denarekin, trantsizio bidean dagoen orainarekin eta etorkizunerako prestatzearekin zerikusia duten errealitate eta beharri-zen kudeaketa islatzen dute hiru egoera horiek.

2.4.1. Iragana Indarkeriaren amaiera antolatua

Iraganen kudeaketa litzateke lehenengo egoera eta konpondu gabe geratu den arazo bat barne hartzen du: indarkeriaren amaiera antolatua, hain zuzen ere. *Egin gabe geratu diren zereginen agenda* erakusten du egoera horrek. ETArekin armagabetzea eta desagerpena, terrorismoaren eta indarkeriaren inguruko hausnarketa eta iraganen giza eskubideak urratu diren kasuak argitzea ere barne hartzen ditu.

2.4.2. Oraina. Bizikidetzaren normalizazioa

Orainari lotuta dago bigarren egoera, oraintsu gertatutakoari. Bi garaien arteko trantsizioan kokatzen gaituzten gaien agenda definitzen du. Hiru jarduera-arlo handi barne hartu behar ditu bigarren kapitulu honek: biktimen inguruko politika publikoak, memoriaren inguruko politika publikoak eta espetxe- eta gizareratze-politika berria. Iraganetik datoz hiru arlo horiek baina eragin zuzena dute oraina eta etorkizuna eraikitzeko orduan.

2.4.3. Etorkizuna. Bizikidetzaren erronka berriak

Hirugarren egoera bizikidetzaren eta giza eskubideen inguruko gai berriei lotuta dago. Haziz doan agenda batez hitz egin dezakegu kasu honetan. Hirugarren egoera honek desberdintasun

ugari sortzen dituen globalizazioaren harira sortutako eztabaidetara garamatza. Honako hauek lirateke errealitate horren erreferentziarik argienetako batzuk, oraingoak eta begien bistakoak direnak: migrazioak, errefuxiatuen egoera, gerren ondorio humanitarioak, nazioarteko terrorismoa, berdintasunik ezaren edo diskriminazioaren forma berriak eta gorroto-delituak. Sortzen ari diren erronka horien agenda bat dator bai Nazio Batuen Agenda 2030 delakoarekin, bai hazkunde inteligente, iraunkor eta integratzaileko estrategia europarrarekin (Europa 2020), horiekiko konpromisoa sendotuz.

2.5. Erronka sektorial estrategikoak eta helburu nagusiak

2.5.1. Indarkeriaren amaiera antolatua

- **Erronka estrategikoa.** Etapa bat behin betiko ixtea eta berri bati hasiera ematea. Horretarako, beharrezkoa da ETA armagabetu eta desagertzea eta terrorismoaren eta indarkeriaren inguruko hausnarketa kritiko eta partekatua egitea.
- **Helburu nagusia.** ETAren behin betiko desarmearen exigentzia eta haren benetako amaiera gauzatzen laguntzea.

2.5.2. Iragana argitzea

- **Erronka estrategikoa.** Egiaren mapa osatzen laguntzea, ezer parekatu gabe eta inor kanpoan utzi gabe, terrorismoaren eta indarkeriaren errealitatea eta horiek izandako eragina argitzea.
- **Helburu nagusia.** Iragan hurbilean izandako giza eskubideen urraketei eta horien biktimei buruzko txostenen programa garatzen jarraitzea.

2.5.3. Biktimak

- **Erronka estrategikoa.** Lehenik eta behin, biktima guztiak arreta eta aitortza eman zaiela sentitzeko baliabide guztiak jartzea eta bigarrenik, biktimek bizikidetzaren eta normalizazioaren arloan lortutako arrakasta sozial ororen subjektu eta partaide direla sentitzeko baliabide guztiak jartzea.
- **Helburu nagusia.** Biktima guztiei aitortza eta ordaina emateko prozesuak osatzen laguntzea, eta berariazko programa batzuk partekatzea, haiek ere bizikidetzara eraitzuten parte har dezaten sustatzeko.

2.5.4. Memoria

- **Erronka estrategikoa.** Gogora erreferentziazko espazio izatea lortzea, ondorengoetarako: (I) memoriaren inguruko politika publikoak partekatzeko, (II) memoriaren balio zehatza eta benetakoak kaleratu eta herritarrei hurbiltzeko, eta (III) memoriak hezkuntzarako duen potentzialtasuna sustatzeko.
- **Helburu nagusia.** Gogoraren jarduera-plan bat sustatzea legegintzaldi honetarako, iraganari buruzko gogoeta kritikoa egiteko, adostasunik handienez oinarriturik eta parte-hartzea, elkarriketa eta aniztasuna sustatuz.

2.5.5. Espetxe-politika

- **Erronka estrategikoa.** Zigor-, espetxe- eta gizareratze-politika normalizatzen eta baketzen laguntzea, legezko eta konstituzioko printzipioak errespetatuz, gizaratearen gehiengoaren borondatea aintzat hartuta eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzara lortzeko xedez.
- **Helburu nagusia.** Bizikidetzaren normalizazioarekin bat datorren zigor-, espetxe- eta gizareratze-politika garatzeko erabilgarriak diren tresnak eta akordioak sustatzea, euskal alderdien artean eta Espainiako Gobernuarekin.

2.5.6. Hezkuntza

- **Erronka estrategikoa.** Giza eskubideen arloko hezkuntza eskaintzeko proiektua sendotzea, giza duintasunaren oinarri pedagogikoan oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkaratasunarekiko konpromisora bideratua, enpatiaren aldeko hautua aintzat hartuta.

•**Helburu nagusia.** Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan konpontzeke dauzkagun eta etorri ere badatozen erronkak direla-eta, heziketarako tresnak sortzea eta gizartearen eta hezkuntzaren arteko elkarreraginak indartzea.

2.5.7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura

•**Erronka estrategikoa.** Gizartearen parte-hartzea eta eragile sozial, akademiko edo instituzionalakiko zein nazioarteko eragileekiko lankidetzaren sustatzea, adiskidetasunean oinarrituta dagoen eta memoria aintzat hartzen duen bizikidetzaren normalizatuaren aldeko kultura sendotzeko. Tokian bertan zein nazioartean giza eskubideen, elkartasunaren eta lankidetzaren arloetan agertuz doazen beharrezko erantzuteko gaitasuna, sentikortasuna eta adeitasuna oinarri dituen kultura sendotzeko, alegia, Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin eta y Europa 2020 estrategia europarrarekin bat etorritik.

•**Helburu nagusia.** Arloz arloko programak eta ekimenak bultzatzea gizartearen elkartzeko eta eztabaida eta akordioa sustatzeko, eta baita giza eskubideekiko konpromisoa, elkartasuna eta enpatiarren hautua sustatzeko ere, bai iraganetik konpontzeke dauzkagun gauzen inguruan eta baita gaur egungo eta bihar-etziko erronka berrien inguruan ere, barne-elkartasunerako eta garapenerako lankidetzarako politikekin batera.

2.6. Lan-metodologia

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana bultzatzeko eta kudeatzeko, irizpide gidatzaile batzuk eta funtzionamendurako arau batzuk aintzat hartzen dituen lan-metodologia bat dago.

2.6.1. Irizpide gidatzaileak

•**Nazioarteko estandarrak.** Nazioarteko zuzenbide humanitarioari, giza eskubideei, Nazio Batuen arauari eta biktimen, bake-prozesuen eta adiskidetzaren arloetan dauden nazioarteko estandarrei hobekien erantzuten dieten erabakiak aintzat hartzea litzateke plana kudeatzeko irizpide gidatzailea.

•**Adostasuna.** Zeharkako adostasuna bilatu eta lortzea izango da plana kudeatzeko bigarren irizpide gidatzailea. Adostasun horrek gure errealitate soziopolitikoaren aniztasunari erantzun beharko dio, esparru politikoan zein erakunde arteko esparruan.

•**Iniziatiba hartzea.** Blokeoek eta ekintzarik ezak dakartzaten abaguneen aurrean, bizikidetzaren erronkei aurre egiteko iniziatiba hartzea izango da planaren helburuak kudeatu eta bultzatzeko irizpide gidatzailea, gizartearen gehiengoak duen borondatearekiko errespetuarekin batera, eta eskumen propioen esparruan.

2.6.2. Jardunbideak

Honako jardunbide hauek gidatzen dute 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarduera-programa:

-Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bultzatze jarduerak guztiak garatzeko orduan genero-dimentsioa txertatzea.

-Herritarrek planarekin erlazionatutako politika publikoetan parte hartzeko bideak aztertu, proposatu eta/edo erraztea.

-Gobernuaren barruan, sailarteko lankidetzaren eta zeharkakoa antolatzea, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan.

-Esparru juridiko-politikoari buruzko eztabaida politikoa eta herritarrak eta gizartearen elkartzeko esparruari buruzko eztabaida aurre-politiko ez nahastea. Bigarren horrek izaera etikoa du batez ere, eta alderdien aukera politikoetatik kokatu beharra dago.

-Zuhurtziaz lan egiteari eta adostasuna lortzeko helburuari lehentasuna ematea, adierazpen publikoen eta behin eta berriro erantzuteko eztabaida mediatikoaren dinamikaren aurretik.

-Instituzio eta erakunde sozial guztiekin eta, bereziki eta oroz gainetik, Eusko Legebiltzarrarekin, lankidetzan aritzeko espazioei lehentasuna ematea.

-Legebiltzarreko taldeekin lankidetzan aritzeko metodologia bultzatzea. Meta daitezkeen eta aurrera egin dezaketen akordioak bilatzean oinarrituko litzateke metodologia hori, akordio horiek bideragarriak izan daitezzen.

2.7. Jarduera-esparruak mugarriztatzea Gogorarekin

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren sorrera izan zen aurreko legegintzaldiko mugarrietako bat. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan hau onestearekin batera, Gogoraren 2017-2020rako Jarduera-plana ere onesteko bidean dago. Bi planen artean, eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Gogora Institutuaren artean, lankidetzari eta osagarritasunari eman behar zaie lehentasuna. Horretarako, bataren eta bestearen eginkizunak mugarriztatu behar dira bikoiztasunik ez egoteko eta sinergia indartzeko. Atal honetan bi erakundeen oinarritzko egitura eta jarduera-esparruak mugarriztatzeko dituen eskema ageri da.

2.7.1. Oinarritzko egitura

Lehendakaria Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza	
Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia Eskumen nagusia Giza eskubideei, bizikidetzari eta lankidetzari buruzko politika publikoak zuzentzea eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana kudeatzea	
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (erakunde autonomoa)
Eskumen nagusia Biktimei eta giza eskubideei buruzko politika publikoak garatzea	Eskumen nagusia Memoriari buruzko politika publikoak garatzea

2.7.2. Jarduera-eremu nagusiak

Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana)	Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogoraren 2017-2020rako Jarduera-plana)
I. Indarkeriaren amaiera antolatua, duela gutxi gertatutakoaren memoriari lotuta Jarduera-eremu horrek barne hartzen ditu ETA armagabetzen eta desegiten laguntzera bideratutako ekimenak, eta baita iraganean terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideen urraketa eragin duen guztiaren inguruko hausnarketa kritikoa eta autokritika egiteko prozesuak bultzatzera bideratutako ekimenak ere.	I. Memoria Historikoa eta aldi horretan izandako biktimei eman beharreko aitortza bere osotasunean tratatzea Memoria Historikoaren garaiaren eta gure garaiaren artean jarritako distantziaren ondorioz, <i>oroipenerako, kontserbaziorako, ikerketarako, parte hartzeko edo hedapenerako</i> jarduerak egiten dira gehienbat, hura lantzeko. Beste modu batera esanda, memoriaren politika izaera hartzen dugu kontuan, Gogoraren politika dena.

<p>II. Giza eskubideen urraketak argitzeko txostenak Hertsiki giza eskubideen urraketari eta biktimengan izandako eraginari eta ondorioei eragiten dieten egitateak argitzean zentratutako azterlanak eta ikerketa-lanak egitea litzateke. Txostenak egin ondoren, Gogorari helaraziko zaizkio, txostenen dibulgazioa kudeatzeko.</p>	<p>II. Memoriari buruzko ikerketak eta proiektuak Memoriaren zentzu zabalean zentratzen diren eta giza eskubideen urraketak argitzera mugatzen ez diren ikerketak, proiektuak, bekak eta abar lirateke. Gure gizarteak iraganean bizitako indarkeria-egoera traumatikoekin batera doazen errealitate eta balio sozio-politiko positibo zein negatiboek buruzko lanak lirateke.</p>
<p>III. Biktimen arloko politika publikoak kudeatzea Atal honetan lantzen dira erakunde terroristen biktimei eta motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko politikak eta haiei aitortza eta ordaina ematekoak. Era berean, bizikidetzara irakitzeko laguntza helburu duten ekimenak ere lantzen dira.</p>	<p>III. Biktimen lekukotasuna biltzea Gogoraren beraren jardueraren eremu espezifikoak da erakunde terroristen, legez kontrako errepresioaren eta frankismoaren biktimen lekukotasuna biltzea, ikus-entzunezko euskarrian batez ere. Kasu bakoitzean, argi eta garbi bereiziko dira biktima bihurtu dituzten kausak.</p>
<p>IV. Espetxe- eta gizarteratze-politika berriak bultzatzea Idazkaritzaren beraren jardueraren eremua da espetxe- eta gizarteratze-politika berria adostera bideratutako proposamenak, ekimenak eta kudeaketa-lanak bultzatzea, eta berariaz bildu da Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honetan.</p>	<p>IV. Memoriari buruzko dokumentuak, artxiboa, liburutegia eta abar kudeatzea Gogoraren erantzukizuna eta eskumena da memoriari buruzko dokumentuak eta lekukotasun guztiez arduratzea, horiek sailkatzeko, artxibatzeko eta jendearen eskura jartzeko, dokumentazio zentro baten eta liburutegi baten bitartez.</p>
<p>V. Bizikidetzaren arloan agertuz doazen errorei arreta eskaintzea eta erantzutea Idazkaritzaren egitekoa litzateke bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertuz doazen errorei arreta eskaintzea. Errefuxiatuen egoerari, erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzari, xenofobiari, nazioarteko terrorismoari, gorroto-delituei eta beste errealitate batzuei erantzun beharrak sortzen ditu erroren horiek.</p>	<p>V. Memoriaren sozializazioa: dibulgazioa eta parte-hartzea Memoria eta hura osatzen duten tokiak ezagutzera ematea eta gizarteak memoria hori aniztasunetik eraikitzeko parte hartzea barne hartzen ditu jardueraren eremu honek. Memoriaren Plana ekimenak erakusten du memoriaren funtzio pedagogiko hori: errepikatu behar ez dena eta sustatzea merezi duena gogora ekartzea.</p>
<p>VI. Bizikidetzaren, giza eskubideen eta herritarren parte-hartzearen aldeko kultura sustatzea Bizikidetzaren aldeko kultura sozial eta politikoa sustatzea eta horrez gain, giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza-programak sustatzea. EITBrekin, Gazteriaren Kontseiluarekin eta gizarte-, hezkuntza- eta unibertsitate-erlako eragileekin zein nazioarteko eragileekin batera garatzen da jardueraren eremu hau.</p>	<p>VI. Memoriaren balioak hezkuntzan txertatzea Gogoraren beraren jardueraren eremua izateaz gain, bere erroren nagusietako bat da memoriaren dimentsio historiko eta etikoa hezkuntza- eta unibertsitate-esparruan txertatzea, horretarako egokiak diren tresna pedagogikoak erabilita eta hezkuntza-erlako eragileen adostasunarekin eta lankidetzarekin.</p>
<p>VII. Elkarrizketarako, lankidetzarako eta akordiorako espazioak sustatzea Idazkaritzaren egitekoa da erakundeak, gobernuak eta indar politikoak zein Legebiltzarreko indarrak bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan lankidetzan aritzeko eta lan egiteko espazioak bultzatzea eta horiek sortzen laguntzea.</p>	<p>VII. Erakundearen jardueraren koordinazioa sustatzea memoriaren arloan Hiru alderdi ditu jardueraren eremu honek: Euskadiko erakundearen eta memoriaren inguruko ekimenen arteko lankidetzara, memoriaren inguruko udal politikak koordinatu eta bultzatzea, Memoriaren Eguna bultzatzeaz gain, eta memoriaren inguruko nazioarteko sare eta erakundeekin harremanetan egotea.</p>

Bigarren zatia

Akordiorako tresnak

1. Jarrerak

2013ko ekainetik azarora bitartean, aurreko legegintzaldiko Bake eta Bizikidetzaren Planak proposatutakoaren inguruko iradokizunak eta ekarpenak egiteko aukera egon zen. Jasotako ohar orokorreari erantzuteko, bost puntu zituen atariko testu berri bat idatzi zen. Orain plan berri honetan sartu dira puntu horiek, laburbilduta, haien sendotasunak eta potentzialtasunak indarrean jarraitzen dutela uste baita.

Hala, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak hartu duen jarrera azaldu da jarraian, bost ataletan banatuta. Planaren oinarri etikoak lirateke eta Eusko Jaurlaritzaren konprometitzen dute. Dena den, akordiorako tresna modura eskaini dira, tradizio politiko desberdinen arteko adostasun zabal eta anitza lortzea helburu duen elkarriketa-prozesu batean partekatu beharrekoak. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren jarrera definitzen dute eta proposamen ireki modura eskaini dira.

1.1. Gure burua orainaldian kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak

Eusko Jaurlaritzak eta 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak bere egin dute "Zoru etikoa" izeneko dokumentua, Eusko Legebiltzarrak 2012ko uztailaren 12an onetsi zuena. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana oinarritzeko akordio haren argitara irakurri beharra dago.

Bere edukian, bere espirituan eta bere letran ezer ere ezin izango da interpretatu ETaren terrorismoa edo giza eskubideen bestelako edozein urraketa minimizatzearen edo, are gutxiago, justifikatzearen edo zilegi egitearen bidetik. Aitzitik, bidegabekiaren aitortzearen oinarritzen da.

Era berean, plan honetan ezer ere, ez hitzetan, ez espirituan, ezin izango da interpretatu gure gizartearen zati bat integrazio sozial eta politikoko prozesutik kanpo uztearen bidetik, integrazio horixe baita bizikidetasunaren normalizazioaren lehentasunezko helburuak eskatzen duena.

1.2. ETaren amaieraren aurreko jarrera

Erakundearen jarrerari erreparatu behar badiogu, ETaren amaieraren, desagertzearen edo desagitearen exijentzia, inolako baldintza politikorik gabe, Eusko Jaurlaritzaren eta bere Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren premisa da. Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren aurrean egindako ibilbide historikoaren parte modura errebindikatu behar da jarrera hori.

ETaren benetako amaieraren exijentzia gauzatzen laguntzea da Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen duen konpromisoa. Horretarako, ETaren legezko, behin betiko eta ordainetan ezer eman gabeko armagabetzea da lehenbiziko urratsa. Bere egiaztatzea babestea da, erantzukizunezko ikuspegi batetik, erakundeek orain izan behar dituzten lehentasunetako bat.

1.3. Iraganaren kontakizuna

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren lehentasunezko helburu estrategikoetako bat, hain zuzen, iraganaren kontakizun kritikoan geure ekarpena egitea da. Eusko Jaurlaritzari eta Plan honi ez dagokie kontakizun jakin bat inposatzea, baizik eta partekatutako gogoeta hori posible egiten duten baldintzak sortzea. Badugu printzipio bat eta badugu irizpide bat ibilbide hori segurtasun demokratikoz eta sinesgarritasun etikoaz janzten dutena.

•**Printzipio bat.** Zoru Etikoan bildutakoa: "Eragile ezberdinek gertatutakoaren kausei buruz konpartitutako akordio bat lortzea desiragarria den arren, giza eskubideen urraketa sorrarari buruz interpretazio ugari egon daitezkeela onartu behar da. Ondorioa da eskubide horien urraketa guztiak gertatzeko arrazoia dela zenbait talde eta pertsonak beste helburu batzuk jarri zituztela giza duintasunaren gainetik".

•**Irizpide bat.** Honako hau zehaztu zen aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planean: "Iraganari buruzko kontakizun kritiko eta konpartituta, ezin da argudiorik erabili (ez gatazka-testuingurua, ez elka-

rreren aurka dauden aldean gaineko tesia, ez jatorri ezberdinetako urraketen salaketa, ez estatu-arrazoa, ez etorkizunaren garrantzia handiagoa dela) ETAREN indarkeria edo giza eskubideen bestelako urraketak gutxitzeko, justifikatzeko edo legitimatzeko”.

1.4. Jatorri ezberdinetako urraketen tratamendua

Iraganari begiratzean, lanik zailenetako eta aldi berean garrantzitsuenetako bat giza eskubideen urraketa guztiak aitortzea da, bat ere baztertu gabe edo bati ere garrantzia kendu gabe. Izan ere, arriskua bikoitza da. Lehenik eta behin, urraketa batzuk besteekin justifikatzeko edo konpentsatzeko erabil daiteke iragana argitzeko ariketa hau. Eta gerta daiteke –hau bigarren arriskua– urraketa batzuk gutxiestea edo ezkutatzea. Beste behin ere, *zoru etikoak* bi erreferentzia argigarri eskaintzen dizkigu:

•**Egiaren printzipioa:** “Erdizkako egia, erreprimutakoa edo amnesikoa ekiditea: gertaeren kontakizun objektiboaren bitartez, giza eskubideen urraketari buruzko egia konpartitua eratzea”.

•**Erantzukizunaren printzipioa:** “Bakoitzak iraganean duen erantzukizuna eta giza eskubideen urraketen ondorioak zehaztea eta aitortzea”.

Premisa horiek aintzat hartuz gero, ikuspuntu bikoitza izan dezakegu. Giza eskubideen urraketa guztien *tratamendu integrala*, giza eskubideen urraketen errealitate bakoitzari buruzko *balorazio espezifikoak* eskaintzeko beharizanarekin batera.

•**Tratamendu integrala.** Azken 50 urteotan, giza eskubideen urraketen arrazoiak eta proportzioak desberdinak izan dira hamarkada bakoitzean. ETA eta antzeko taldeetatik, Segurtasun Indarretatik eta Estatuaren izenean, talde parapolizialetatik eta eskuin muturreko taldeetatik etorri dira. Urraketa eta biktimen existentzia aitortzea, beraien jatorria kontuan izan gabe, oinarritzko eta baztertu ezinezko printzipio etiko eta demokratikoa da. Urraketa guztiak aitortzeko eta kalteak ordaintzeko lan egitea da zoru etikoak, egiaren printzipiotik, eta giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbideak gomendatzen duten erantzukizuneko jarrera.

•**Balorazio espezifikoak.** Tratamendu integral batek giza eskubideen urraketen eremu bakoitzaren balorazio espezifikoari heltzeko eskatzen du, bakoitzaren dimentsioa eta esanahia kontuan izanik. Hain zuzen ere, dauzkan dimentsioetatik eta esanahiagatik, ETAREN indarkeriak berariazko balorazioa merezi du. Horrek ez du baztertzen bestelako giza eskubideen urraketak (arestian aipatutakoak adibidez) berariaz baloratu behar ez direnik; aitzitik, behar hori berresten du. Hala ere, denboran iraun duelako, inposaketa politikorako asmoa izan duelako, Trantsizioaren eta amnistia orokorraren ondoren luzatu delako, izan duen babes soziopolitikoagatik eta, batez ere, sortutako giza kalte konponezinen larritasun eta intentsitateagatik, ETAREN indarkeriaren injustizia berariaz baloratu beharra dago, batez ere biktimei eta haien senideei egindako kalte bidegabeagatik.

1.5. Etorkizunaren lehentasunaren zentzua

Azken finean, etorkizunari begira, garrantzitsuena zer ote den jakitea da giltzarria. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak erantzun argia eta erraza eskaintzen du: “gizartearen elkartzea” sustatzea. Hori da haren eginkizuna eta helburu nagusia. Esan nahi du “bereizitako munduak” ez dauzkan gizarte bat eraiki nahi dugula. Orain dauden espazioak irekitzea da, konpartitzeko.

•**Aurretiatzko baldintza bat.** Etorkizuna eraikitzea ezin daiteke izan iragana ahaztea, ezta aurretik zegoena gutxiestea ere. Bizikidetzaren integratu eta bateratuan oinarritutako etorkizunaren lehentasuna iragana argitzeko printzipiotik landu behar da. Zoru etikoak honela formulatzen du: “Konpartitutako oroimenaren eraikuntza biktimen bidegabeko sufrimendua arintzeko, zigorgabetasuna ekiditeko, eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa lortzeko bitartekoa izan dadin saiatzea. Memoria hori etorkizuna birpentsatzeko eta eraikitzeko erabili behar da, gertatutakoaren kontakizunean harrapatuta geratu gabe”.

•**Eginkizun argi bat.** Gure gizarteak, guztiek bezalaxe, arazoak, gatazkak, krisiak eta zatiketak dauzka eta edukiko ditu. Hori bizikidetzaren demokratikoaren errealitatearen parte da. Ez dugu gizarte utopikoa eraiki nahi. Gure helburua xumeagoa da. Gutxieneko etiko eta demokratiko batzuk

konpartitzen dakien gizarte bat eraiki nahi dugu soilik, gainontzeko gaietan desadostasunak bermeeekin agertu ahal izateko. Hori da etorkizunerako eginkizun argi eta arduratsua eta erronka. *Zoru etikoak* dioenez, “iragan mingarri baten ateak itxi behar dira eta denontzat itzaropentsua den etorkizunaren ateak ireki”.

2. Elkarrizketarako eta akordiorako proposamenak

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen bigarren atala elkarrizketarako eta akordiorako erreminta-kutxa modura itxuratu da. Aurreko puntuan Eusko Jaurlaritzak eta Plan honek eztabaida sozio-politikoan sentikorrak diren gaien inguruan izandako jarrerak bildu dira. Planak eta Eusko Jaurlaritzak mahai gainean utzi dituzten bost proposamen bildu dira puntu honetan. Elkarrizketarako eta akordiorako pentsatutako erremintak lirajteke.

Tradizio politiko guztien artean bizikidetzaren arloko puntu komun bat definitzeko oinarritzko proposamena da lehenengoa. Bigarrena Eusko Legebiltzarrean memoriaren eta bizikidetzaren inguruko batzorde txostengilea sortzeko proposamena da. Hirugarrenak Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarreko taldeen artean Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana Koordinatzeko Batzordea sortzea proposatzen du. Laugarrenik, aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planak barne hartzen zituen hiru mikro-akordioen testua bildu da. Azkenik, hainbat testu gehitu dira akordioa lortzeko abiapuntu modura, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertzen ari diren erronken aurrean

2.1. Oinarritzko proposamena

1. Indarkeriaren amaiera antolatua. Hiru ardatz garrantzitsutan islatu behar da konpromiso hau:

-Legezko, behin betiko eta ordainetan ezer eman gabeko armagabetzea egiaztatzea babestea ETA behin betiko desagertzearen eta desagertzearen aurretiko urrats bezala.

-Iraganean giza eskubideen urraketetan izandako erantzukizunaren edo biktimekiko sentiberatasun faltaren inguruko hausnarketa kritikoa egiteko prozesu bat garatzea.

2. Biktimak. Egiaren, justiziaren, ordainaren eta biktima guztiekiko elkartasunaren politika publikoen aldeko konpromisoa, biktima horiek jasan zuten bidegabekeriaren aurrean. Konpromiso hori biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua aitortzean eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da, biktima bihurtu dituzten kausak alderatu gabe.

3. Memoria. Memoria kritikoarekiko konpromisoa, hau da, iraganean izandako terrorismo edo indarkeria mota ororen legitimazioa, konpentsazioa edo minimizazioa gaitzestea, eta orain edo etorkizunean hori aldatzeari aurrez aurre kontra egitea.

4. Espetxe-politika. Honako legezko printzipio hauek oinarri hartuko dituen espetxe-politikaren aldeko konpromisoa: indibiduazioa, gizatasuna, eragindako mina aitortzea eta gizarteratzea. Horren ondorioetako bat litzateke presoak beren familia-girotik hurbil dauden espetxeetara lekualdatzeari babesa ematea.

5. Agertzen ari diren erronkak. Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertzen ari diren erronkei erantzuteko konpromisoa. Aniztasunaren kudeaketa positiboa egitea eta berdintasunik ezaren eta diskriminazioaren forma zahar eta berrien aurrean elkartasuna erakustea lirajteke erronka horietako batzuk.

6. Bizikidetzaren kultura. Bakearen eta giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bizikidetzaren aldeko kulturarekiko konpromisoa, ekintza zehatz eta egonkorren bitartez erakutsi beharrekoa, hezkuntzaren, dibulgazioaren, parte-hartzearen eta nazioarteko ekintzaren arloetan.

7. Elkarrizketa eta akordioa. Elkarrizketaren eta akordioaren aldeko konpromisoa, oinarritzko tresna demokratiko modura, eta ondorioz, instituzioak, gobernuak, indar politikoak eta Legebiltzarreko taldeak lankidetzan aritzeko espazioak sortzearen aldeko konpromisoa ere bai.

2.2. Eusko Legebiltzarraren Memoriari eta Bizikidetzari buruzko Txostenarekiko konpromisorako proposamena

Memoriaren eta bizikidetzaren arloan guztiok batera urrats erabakigarri bat emateko borondatea dugu. Abiapuntu modura hartu nahi ditugu azken urteotan lortutako akordioak, aniztasuna gehien errespetatzen dutenak. Ikuspegi horretatik abiatuta, geure egiten ditugu Eusko Legebiltzarrak 2012ko uztailaren 12an onetsitako akordioak, bere osotasunean.

Horiek oinarri hartuta, lankidetzaren prozesu bati ekiteko erabakia hartu dugu, behin betiko bakea lortzeko eta memoria aintzat hartzen duen bizikidetzaren normalizazioa sendotzeko. Helburu hori lortzeko, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen eta Berdintasunaren Batzordearen baitan memoriari eta bizikidetzari buruzko batzorde txostengile espezifikoarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu dugu gure gain.

Batzorde txostengile hori sortu eta garatzeko, adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren aldeko apustua eta printzipio demokratikoen eta giza eskubideen balio gorenari lehentasuna ematen dioten gutxieneko konpromisoak partekatzearen aldeko apustua egin behar dugu.

2.3. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari buruzko Koordinazio Batzorde bat sortzeko proposamena

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honetan koordinazio batzorde bat sortzea aurreikusi da, plana kudeatzeko orduan Idazkaritzaren eta Legebiltzarreko taldeen arteko koordinazio eraginkorra ahalbidetzeko batzorde bat, hain zuen ere. Aurreikuspen horren arabera:

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren inguruko Koordinazio Batzorde bat eratu da. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkari batek eta Eusko Legebiltzarreko taldeetako ordezkariak osatuko lukete batzorde hori.
- Koordinazio Batzordearen funtzioa informazioa eta aholkuak ematea izango litzateke, eta ez erabakiak hartzea. Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan lortutako akordioen jarraipenerako, aholkularitzarako, kontsultarako eta kudeaketarako organoa litzateke.
- Batzordearen helburu nagusia elkarriketarako, entzuteko eta lankidetzan aritzeko dinamikak itxuratzea da, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana kudeatzeko orduan ahalik eta adostasun gehien lortzen saiatzeko. Honako eginkizun hauek ditu:
 - Bakearekin, bizikidetzarekin eta giza eskubideekin zerikusia duten gaien inguruko informazioa eta ikuspegiak partekatzea.
 - Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren ardatzen kudeaketa eta sustapena koordinatzea eta jarraipena egitea, eta baita adostasuna lortzeko iradokizunak eta ekarpenak biltzea ere.
 - Memoriaren eta Bizikidetzaren Batzorde Txostengileak egindako lanetarako eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketarako lankidetzan aritzeko aukerak partekatu eta baloratzea.
- Koordinazio Batzordea lanerako eta hausnarketa partekatua egiteko mahai gisa sortu da eta bere funtzioa ez da jendaurrean adierazpenak egitea. Zentzu horretan, borroka politiko eta mediatikotik aldentzen den lan-dinamika mantentzen saiatuko da.
- Koordinazio Batzordea bi hilean behin bilduko da gutxienez, bilera garaian. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia arduratuko da bileretarako deia egiteaz eta bilera horiek antolatzeaz.

2.4. Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planeko hiru mikro-akordio proposamenen erreferentzia

Aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planak hiru *mikroakordio* proposamen eskaintzen zituen bere edukian. Lehenengoa iraganari buruzko balorazio partekatua egiteko gutxieneko adostasuna lortzera bideratuta zegoen; bigarrenaren helburua gaur egun konfiantza-esparrua sortzea zen; eta hirugarrenak etorkizunera begira bizikidetzarako hezkuntzak izan beharreko lau oinarri proiektatzen zituen.

Hiru testu labur horien edukia potentzialtasuna du oraindik; izan ere, Euskadin bizikidetzaren arloko dialektika politikoa tratatuta dago adostasunik ezagatik, eta hiru testuon edukia zerikusia du desadostasun horren muinarekin. Hori dela eta, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen bigarren atalean sartu ditugu hiru *mikroakordio* proposamen horiek, bigarren atal honetan erreminta-kaxa bat osatu nahi baita.

2.4.1. Iraganaren partekatutako balioespina egiteko konpromiso etikoaren proposamena

“Etorkizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea eskatzen dute, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiek egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik. (Legebiltzarraren erabakia, 2013ko martxoaren 14koa, eta Zoru Etxekoaren Oinarrizko Printzipioa)

Jazotakoa –terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak– gertatu zen talde eta pertsonen giza duintasunaren aurrean beste helburu batzuk ezarri zituztelako, hau da, kausa baten, helburu baten, estatu-arrazoi baten, ikuspegi ideologiko baten edo bestelako sinesmen edo usteen defentsa.

Etorkizunean, inoiz gehiago ez, ez kausa politikorik edo arrazoi partidariorik, ez bestelako uste osorik edo ziurtasunik ez da jarriko, balio absolutu bat izango balira bezala, giza eskubideen, pertsonaren eta bizitzaren balioaren gainetik.”

2.4.2. Orainaldian konfiantza-esparrua lortzeko konpromiso politikoaren proposamena.

“Hitz ematen dugu, gure aldetik, ETaren indarkeriaren bukaera ez dela izango, besterik gabe, orria pasatzea, kontuak argitu gabe, errekonozimendurik gabe eta gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe.

·Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragan ahazturik etorkizunera begiratzeagatik.

·Hitz ematen dugu ez dugula indarkeria eta giza eskubideen urraketak justifikatuko dituen historiari berridatziko, eta halakoak idaztearen eta erabiltzearen kontra egongo garela.

·Hitz ematen dugu biktima guzti-guztiek, baita legez kontrako kontraterrorismoenak ere, –parekotasun jo gabe–, merezi duten errekonozimendua eta ordaina jasoko dutela.

·Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaiera ez dela ezein sektorearen aurkako mendeku bilakatuko, integrazio eta bizikidetzarako gizarte-egituraketa baizik.

·Hitz ematen dugu, legez dauden aukeren barruan, gizartearen normalizazioak presoen eta espetxe-politikaren kontuari helduko diola, gizarte-errealitate berriarekin bat etorrira.

·Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaierak bakea eta bizikidetzaren normalizazioa ekarriko dituela eta gizarte elkartzeko proiektu, prozesu eta programa bat ahalbidetuko duela.”

2.4.3. Etorkizunera begirako gizarte- eta hezkuntza-konpromisoaren proposamena

la hezkuntza-arloko eragile guztiek sinatu zuten akordio-proposamen hau, 2013ko urriaren 1ean Donostiako Kursaal Jauregian egindako ekitaldi batean.

Gizalegez Akordioa. Bizikidetzarako hezkuntzaren lau oinarri

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketaren eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketaren honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziozko erantzun hori eratzearen, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat gartzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

·Bizikidetzaren zera da, gure ikuspegia beti osatugabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

·Bizikidetzaren zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.

·Bizikidetzaren zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.

·Bizikidetzaren zera da, giza duintasunarekiko errespetuaren balio gorena ulertzea. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartearen elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezikuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu modura hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

2.5. Akordioa lortzeko abiapuntuak, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan agertzen ari diren erronken aurrean

2.5.1. Erlajioren eta kulturen arteko bizikidetzaren aurrean, aniztasunaren balioak

Aniztasuna

Gizarte moderno eta garatu guztiak gizarte desberdin eta anitzak dira. Askatasunaren ondorio naturala da aniztasuna. Libre ez den herrialde bat bakarrik izan daiteke homogenea eta berdina.

Kultura-, erlijio-, hizkuntza- eta etnia-aniztasuna edo beste edozein motatako aniztasuna askatasunaren eta herritarren osasunaren sinonimoa da. Oparotasunaren sinonimoa ere bada. Mendebaldeko gizarte oparoenak gizarte anitz eta berritzaileak dira, baita kulturaren eta erlijioaren arloan ere.

Euskadi gizarte anitz eta konplexua izan da beti. Gero eta nortasun eta aniztasun gehiago dago gure gizartearen eta hori aberastasunaren, aukeren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren seinale da.

Bizikidetzaren

Europako gizarterik aurreratuenak –euskal gizartearen, tartean– kulturek eta erlijioen arteko bizikidetzarako espazio politikoak dira gaur egun. Desberdintasunak eta nortasunaren aniztasuna errespetuz baneratzeko erronka bat da, baina aukera-iturria da aldi berean.

Bizikidetzaren anitz eta harmoniatsurako helburua irmoak diren printzipio etikoak eta gure gizartearen eratu duten balio demokratikoak oinarri hartuta bakarrik lor daiteke.

Giza eskubideak

Giza eskubideekiko eta pertsonen duintasunarekiko errespetua, arraza, generoa, sinesmena edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial bereizi gabe, gure printzipio politikorik oinarritzat da.

Pertsonen duintasunaren eta beren bizitzaren eta kontzientzia-askatasunaren balio gorenak terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideak urratzeko beste modu baten erabilera edo justifikazioa guztiz gaitzestera garamatza, ustezko aitzakia politiko, sozial, kultural edo erlijiosoa edozein delarik ere.

Mundu mailan giza eskubideei buruzko nazioarteko itun eta hitzarmen guztietan aitortutako giza eskubideetako bat da erlijioa aukeratzeko askatasuna. Askatasun horrek barne hartzen du askatasun osoz edozein erlijio praktikatzeko eskubidea, bakarrik zein taldean, eta baita inongo erlijio edo sinesmenik ez praktikatzeko eskubidea ere.

Aukera biak dira legezkoak gizarte demokratiko batean. Pertsona guztiek izan behar dute aukera bat edo bestea hautatzeko eta jendaurrean erakusteko askatasuna, muga bakarrik gainerako pertsonen eskubideekiko eta ordena publiko demokratikoarekiko errespetutik eratorritakoak izanik.

Botere publikoek hori guztia posible izateko baldintza egokiak sustatu behar dituzte eta pertsona bati zein taldeei eskubide horiek erabiltzen uzten ez dien oztopo oro desagerrarazi behar dute.

Biktimak

Pertsona guztien giza eskubideen aldeko defentsa elkartasunari eta giza eskubideen urraketen biktimekiko enpatiarri lotuta dago oinarri-oinarrian. Indarkeria mota oro da gaitzesgarria, biktimei konponbiderik gabeko min bidegabea eragiten dielako.

Gizarte demokratiko bat biktimen alde egon behar da beti. Berebizikoa litzateke sentiberatasun horri eustea, biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidea erabili ahal izateko. Eta bereziki, biktima gehiago eragitea ekiditeko, bide demokratiko guztiak erabiliz.

Kontrabaliok

Azken urteotan Europako beste gizarte batzuetan bizi izandako gertaera bereziek bi kontrabaliok utzi dituzte agerian eta guk aurre egin behar diegu. Alde batetik, ustez erlijioak eragindako indarkeriazko fanatismoa; bestetik, arrazakeria, erlijio talde jakin batzuekiko jazarpena edo diskriminazioa eta bereziki, islamofobia.

Biak doaz giza eskubideen aurka, ustez etnikoa edo erlijiosoa den etiketa baten balioa jartzen baitute pertsona guztien giza duintasunaren gainetik. Kontrabaliok horietan, aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldarkortasuna jartzen dira arrazoimenaren eta gizatasunaren gainetik.

Balioak

Printzipio etiko eta demokratikoekin batera, balioak dira kontrabaliok horiei aurre egiteko eta bizikidetzak ekarritako erronkan aurrera egiteko tresnak. Hiru balio edo helburu azpimarratu beharko genituzke ahalgaitan horretan: segurtasuna, elkartasuna eta hezkuntza.

Segurtasuna

Europako eta nazioarteko gobernu eta instituzioen egitekoa da segurtasunaren arloko neurriak koordinatzea. Neurri horiek, giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko errespetua oinarri hartuta, indarkeria, terrorismoa edo pertsona edo taldeen pertsekuzioa prebenitu eta ekiditeko balio beharko lukete. Segurtasuna eta askatasuna ez daude kontrajarrita; aitzitik, balio bakar bat osatzen dute eta horrez gain, gizarte demokratiko eta aurreratua eraikitzekeko tresna bakarra osatzen dute.

Elkartasuna

Gizarteak eta erakunde publikoak berdintasunean eta elkartasunean oinarrituta dauden eta integrazioa, kohesioa eta justizia xede dituzten politika publikoak bultzatu behar ditugu. Politika publiko horiek hezkuntzaren, osasunaren edo oinarritzko gizarte-prestazioen unibertsaltasunaren alde egin behar dute irmo, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna ahalbidetzen duen gizarte kohesionatu bat izan dezagun. Elkartasuna berebizikoa da gizarte inklusiboa eta anitza izan dadin –bai kulturaren aldetik eta bai erlijioaren aldetik–, baina baita gizarte eraginkorragoa izan dadin ere. Gizarte eraginkorragoa diogunean, aniztasun horrek eskaintzen dizkigun baliabideak areagotzen dituela eta epe luzera errentagarriagoa eta lehiagarriagoa izan daitekeela esan nahi dugu.

Hezkuntza

Baliorik estrategikoena gizartearen hezkuntzarena eta prestakuntzarena da. Aniztasuna kontuan hartzen duten bizikidetzaren eta integrazioaren aldeko hezkuntza, giza duintasunarekiko errespetuari lehentasuna ematean oinarrituta dagoena. Proiektu erlijioso, moral edo ideologiko bakar bat ere ezin da oinarritu giza eskubideen aurkako erasoan, eta ezin du eraso hori justifikatu. Pertsona ororen giza duintasuna pertsona horren etiketa etniko, erlijioso edo politikoa baino garrantzitsuagoa da. Gure hezkuntza-proiektua funtsezkoa den ideia horren inguruan eta aurrera egin nahi duen gizarte aske eta demokratiko ororen oinarri den sinesmen-askatasunaren inguruan egituratu behar da.

Konpromisoa

Eusko Jaurlaritzak pertsonetikiko konpromisoa berretsi du, eta baita Euskadiko aniztasun erlijiosoari eta sinesmen desberdineko pertsonen arteko –eta horien eta sinestunak ez direnen arteko– bizikidetzaren harmoniatsuari eman beharreko babesa ere.

Horixe da Eusko Jaurlaritzaren jarrera esparru honetan. Aipatu ditugun printzipio etikoetan eta balio demokratiko horietan oinarritzen dira Jaurlaritzaren segurtasunerako, elkartasunerako, hezkuntzarako eta bizikidetzarako politika publikoak. Herritar guztiek dute beren sinesmenengatik edo erlijio bateko kide izan zein ez izateagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, eta baita beren kontzientzia-askatasuna baliatzekoa ere, muga bakarra gainerako pertsonen eskubideekiko errespetuak markatutakoa izanik.

2.5.2. Errefuxiatuen krisiaren aurrean, elkartasunaren balioak

Errefuxiatuen krisia europarren kontzientzia astintzen ari da. Bidegabekeria horrek eskatzen duen konpromisoarekin bat datorren erantzuna ematea betebeharrak eta demokratikoak da.

Testuinguru horretan gizakiaren elkartasunerako xederik gorenak antzeman ditzakegu, zerbait egiteko exijentziarik beharrezkoenekin eta zehatzeneekin batera. Krisi horretan gizalegezko printzipioa bezain garrantzitsua da zorrotasun praktikoa.

Oinarri batzuk ezarri beharra dago, printzipio etiko sendoen egiazkotasuna eta bideragarritasunerako irizpide praktikoa konbinatzen dituena. Helburu hori lortzeko egin da ondorengo katalogo hau.

A. BETEBEHARRA. Egin behar duguna. Zergatiak

1. Gizatasun-printzipioa. Elkartasuna gizakiaren betebeharrak da, gizatasunezko betebeharrak, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du muturreko sufrimendu, behartasun edo larrialdi egoeran daudenei lagundu behar diegula.

2. Erantzukizun-printzipioa. Giza duintasuna eta giza eskubideak defendatzeko erantzukizuna hartu behar dugu gure gain, norberarena zein partekatua. Horrez gain, beharrezkoak dira erantzukizun horrek dakartzan konpromiso instituzional, politiko eta soziala.

3. Legezketasun-printzipioa. Nazioarteko zuzenbidea errespetatu behar dugu. Testuinguru horretan, honako hauek errespetatu behar ditugu bereziki: 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 18. artikulua.

B. NAHI IZATEA. Egin nahi duguna. Zertarako egin nahi dugun

4. Seriotasuna. Seriotasunez, neurritz eta diskrezioz jokatu nahi dugu. Drama hau eta bere biktimak modu demagogiko, sentsazionalista, propagandistiko, alderdikoi edo paternalistan erabiltzearen aurka gaude.

5. Zorrotasuna. Zorrotasunez jokatu nahi dugu eta horretarako, irtenbide azkar, eraginkor, bideragarri eta iraunkorrak bilatu behar ditugu, epe ertain zein luzerako iraungo duten erantzunak behar direla ahaztu gabe.

6. Osotasuna. Ondorioak eta kausak landu nahi ditugu. Hemen laguntza eskaintzea eta tokian bertan esku hartzea proiektu zehatzekin, beste eragile batzuekin batera, egoera honen kausak gainditzeko.

C. AHAL IZATEA. Egin dezakeguna. Nola egin dezakegun

7. Elkarrekikotasuna. Gu edo gure herria momentu honetan errefuxiatuek bizi duten egoeran egongo bagina guri laguntzea gustatuko litzaigukeen moduan lagun genezake guk.

8. Koordinazioa. Administrazio publikoaren maila guztietan instituzioak haien artean ahalik eta gehien koordinatzen lagun dezakegu, tokiko instituzioetatik hasi eta nazioarteko instituzioetaraino. Horrez gain, gobernu kanpoko erakundeekiko sinergia eta lankidetzak estua bultzatzen laguntzen.

9. Antolaketa. Antolaketa zentratu gaitzake eta horrek errefuxiatuak behar bezala hartzeko beharrezkoak diren baliabide eragileak eta laguntzarako direnak aurreratzea, prestatzea eta eskura jartzea esan nahi du.

E. EGITEA. Egingo duguna. Zer den egingo dugun hori

10. Konpromisoa. Lehenik eta behin, estatu mailako, Europako eta nazioarteko instituzioen erabakietan eragina izaten saiatzen gara eta saiatuko gara, erantzunak justuagoak eta eraginkorragoak izan daitezten. Bigarrenik, krisi honek planteatutako erronka etiko, humanitario eta demokratikoari erantzuteko beharrezkoak izango liratekeen baliabideak aurreikusi ditugu. Hirugarrenik, elkartasunez eta modu antolatuan hartuko ditugu Euskadira heltzen diren errefuxiatu guztiak. Laugarrenik, errefuxiatuen eskubide eta betebeharren integrazioa sustatuko dugu, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa oinarri hartuta.

2.5.3. Nazioarteko terrorismoaren aurrean, demokraziaren balioak

2001ko irailaren 11ko atentatuak gertatu zirenetik, nagusiki eta bereizketarik egin gabe herritarrei erasotzen dien terrorismo globala daukagu munduan. Mehatxu larri eta global baten aurrean gaude. Jarduera politiko eta instituzionala ezin da atentatu bakoitzak eragindako ikarari erantzutera mugatu.

Estrategia zehatz bat behar da, osoa eta zentzuduna, bai atentatuen kausak eta posible egiten dituzten baldintzak eta bai haien ondorioak lantzen dituen. Horrenbestez, erantzun koordinatuak eman behar dira tokiko esparruan eta nazioartean, epe labur, ertain eta luzerako jarduerekin.

Eusko Jaurlaritzak printzipio demokratikoen, segurtasunaren eta giza eskubideen alde hartutako konpromisoak definitu du esparru honetan duen jarrera. Bi ikuspegiren arteko loturak deskribatzen du Jaurlaritzaren jarrera zehatza: denboran zehar iraungo duen dimentsio anitzeko erantzuna emateko beharrezkoak, nazioarteko terrorismoaren egiturazko kausak lantzeko, eta terrorismo horrek jarduteko duen ahalmenari aurre egiteko erantzun aldeaniztuna emateko beharrezkoak.

·Nazioarteko terrorismoari lotuta dauden egiturazko faktoreen aurrean dimentsio anitzeko erantzuna emateko printzipioak

-Integrazio-printzipioa. Gizartearekiko eta hezkuntzarekiko konpromisoa litzateke. Kohesio eta integrazio sozialerako politikak, giza eskubideen arloan hezteko politikak eta erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzarako politikak sustatzen jarraitzea du helburu, bai tokiko instituzioetatik eta bai nazioarteko instituzioetatik.

-Lankidetzaren printzipioa. Elkartasunarekiko konpromisoan sakontzea dakar, lankidetzaren politiken bitartez, batez ere nazioarteko terrorismoak gehien eraso dituen herrialdeetan. Herrialdeek politika horiek diseinatzeke orduan zuzenean parte hartzen dutela bermatu behar duen lankidetzaren ereduak litzateke. Horrela, politikak herrialde horien beharrezkoak erantzuneko diete, haien potentzialtasuna bultzatuko dute eta herrialdearen berezitasun erlijioso eta kulturala errespetatuko dute.

-Printzipio etikoa. Terrorismoari aurka egiteko, indarkeriaren aurrean etengabe eta modu aktiboan mobilizatzeko eta biktimizekiko enpatia eta ahalik eta hurbiltasun gehien erakusteko konpromiso politiko eta instituzional irmo eta anitza bultzatzea eta mantentzea dakar.

·Nazioarteko terrorismoak jarduteko duen ahalmenaren aurrean erantzun aldeaniztuna emateko printzipioak

-Eraginkortasun-printzipioa. Nazioarteko terrorismoak jarduteko duen ahalmenari eman beharreko erantzunaren ikuspuntutik, poliziaren eta inteligentzia zerbitzuen erantzuna eraginkorra litzateke epe laburrean. Horrekin batera, ekintza judiziala ere beharrezkoa litzateke. Ekintza horrek legeria kontuan hartuta esetsi behar du terrorismoa eta bereziki, maila politiko eta ekonomikoen arteko lankidetzaren bultzatu behar du nazioartean, terrorismoa posible egiten duten finantzaketa- eta hornikuntza-bideak erasotzeko.

-Proporzionaltasun-printzipioa. Ikuspuntu operatibotik, nazioarteko terrorismoak ez du konponbide militarrik. Izan ere, ez litzateke eraginkorra izango baina horrez gain, printzipio etikoa, giza eskubideekiko konpromisoa eta terrorismoak kaltetutako biztanleei laguntzeko betebeharrak humanitarioak kontuan hartuta, gerrak ez du irtenbide modura balio eta are gutxiago alde bakar batek nahi edo planteatzen badu. Kasuan-kasuan justifikatutako egoeretan eta Nazio Batuen agindura egokitzuz, emandako baliabide militarren erabilera nazioarteko terrorismoari erantzuteko estrategia globalaren osagaietako bat izan daiteke.

-Koordinazio-printzipioa. Poliziaren eta inteligentzia zerbitzuen konpromisoa etengabe indartzea esan nahi du, eta baita informazioa emateko eta prebentziorako baliabide guztiak gure inguruko polizia guztiak lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko erabiltzea ere, atentatuak ekiditeko. Konpromiso hori, krisi garaietan eskatzeaz gain, aplikatu eta egonkortu egin behar da denboran zehar.

2.5.4. Gorroto-delituaren aurrean, hezkuntzaren balioak

Gorroto-delituaren etniari, erlijioari, politikari, generoari, gizarteari edo jatorriari lotutako etiketa bat jartzen da pertsonen giza duintasunaren gainetik. Gorroto-delituak eragiten dituzten etiketa horietan aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldarkortasuna jartzen dira arrazoimenaren eta gizatasunaren gainetik.

Bizikidetzaren hausteko modu berriak dira gorroto-delituak. Gizalegez Akordioaren hitzaurrean bildu den bezala, bizikidetzaren hausten duten kausa nagusiek garaipean dakarte dogmatismoaren, fatalismoaren, manikeismoaren edo sektarismoaren giza kontzientzietan. Horrexek elikatzen ditu gorroto-delituak egiteko ideologia eta justifikazioa.

Lau paradigma horiek gizartearen kulturen eta norberaren pentsamoldean txertatuta egon daitezke, diskrezioz. Laurok badute ezaugarri komun bat, hain zuzen ere, inposaketa, indarkeria, giza eskubideen urraketa edo baliabide ez-etikoen erabilera normalizatu egiten dituztela:

- Dogmatismoa.** Guztiz zuzen zauden eta egia osoaren jabe zaren ustea izatea esan nahi du. “Segurtasun” pertzepzio hori nahitaezkoa da baliabide ez-etikoen erabilera legitimatzeko eta baliabide horiek erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa mugen kontzientzia nahikoa ez dagoelako sortzen eta garatzen da.
- Fatalismoa.** Funtsean, ikuspegi biktimista da eta horren eraginez ez da beste aukerarik ikusten, ezarpenean oinarritutakoa ez bada. Indarkeriaren erabilera justifikatu egiten da: “ez dago beste aukerarik”, “gainera, haiek egiten dutena okerragoa da”. Zailtasunen erdian, aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.
- Manikeismoa.** Arazoak alde aurreko dikotomia batera murrizten ditu eta hala, benetan aukeratzeko erantzukizuna eragozten du. Demagogia arriskutsua da, “dena da baleko” modukoak indarrean jartzen baititu eta aurkaria “etsai-iruditza” baino ez duelako hartzen. Manikeismoa kontzientzia etikoaren sakontasun ahuleko egoeretan zabalitzen da.
- Sektarismoa.** Ideia bati giza eskubideei baino balio handiagoa ematen diogularik, ideia horren defentsa kolektibo eta gogorra egitea esan nahi du. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Gizatasuna galtzeko prozesuak eragiten ditu, baita ergeltze-prozesuak ere. Giza duintasunaren balio gorena behar bezala ez barneratuta izatean oinarritzen da.

Hezkuntzaren ikuspuntutik, gorroto-delituaren prebentzioak, delitu politiko, sektario, klasista, arrazista, sexista, etnia artekoa zein erlijio artekoa izan, lotura zuzena du bizikidetzaren apurtzen duten lau kausa horiei emandako erantzunarekin. Hezkuntza da balio demokratikoa eta seguruenik, estrategikoa ere bada. Beharrezkoa da giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako bizikidetzaren lortzeko kultura eta hezkuntza sustatzea.

Sexismoaren, islamofobiaren, arrazakeriaren edo indarkeria forma ororen aurrean, bizikidetzarako eta aniztasuna aintzat hartzen duen integrazioarako hezkuntza litzateke erantzuna. Bizikidetzaren balioetan hezteko, mezu bat oinarri hartuta: ez dago giza duintasunarekiko errespetua baino garrantzitsuagorik.

Guztiok gara gizartearen eta hezkuntzaren arloko eragile. Bizikidetzaren oztokatzen duten eta gorroto-delituari lotuta dauden lau kausa horiei eman beharreko erantzuna dira ondorengo lau puntuak. Hezkuntzaren arlokoak dira eta Gizalegez akordioaren edukian sakontzen dute:

- Izaera mugatuaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, gure ikuspegia beti osatugabea dela onartzea. Ondorengoaz jabetzea esan nahi du: gutako inork ez du arrazoi osoa, ezin dugu dena egin eta ezin gara egia osoaren jabe izan. Hezkuntzaren ikuspuntutik, errealitate hori ulertzeko, giza-kion mugak onartzearen esperientzia hezigarria bultzatu behar da. Mugen esperientzia hezigarri horrek dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

•**Balio positiboaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Hori ikasteko, balio positiboaren esperientzia hezigarria sustatzea ezinbestekoa da. Esperientzia horri esker, etsipena eta baliabide ez-etikoetara jotzea ez diren aukera hobekak badirela konturatuko gara. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.

•**Kontzientzia etikoaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etiko pertsonalean sakontzeko esperientzia hezigarria sustatzea ezinbestekoa da. Dogmatismoaren, amorruaren, oldarkortasunaren, beldurraren, norberekoikeriaren eta abarren bulkada soilak baino gehiago gara, arrazoibidea dugulako eta zentzu etikoz aukeratzeko gai garelako. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta elkartasuna sustatzen du.

•**Giza duintasunaren pedagogia.** Bizikidetzaren zera da, giza duintasunaren errespetuaren balio gorenaren ulertzea. Giza duintasunaren eta giza eskubideen esperientzia hezigarria sustatzea. Gizaki guztiok merezi dugu errespetua eta eskubideen subjektu izatea. Pertsona bakoitza etiketa edo bere buruaren murrizketa soilak baino gehiago da. Kontzientzia hori erabakigarria da bizikidetzaren zibilizatuaren lortzeko. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Ikuspegi estrategikotik begiratuta eta etorkizunean gizarte integratu bat lortzeko, beharrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea, aipatu berri ditugun balioen tankerakoak lantzen dituen pedagogia unibertsala barne hartzen duten gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuen bitartez.

Hezkuntzaren aldeko apusturik gabe, bakearen eta bizikidetzaren aldeko kulturarik gabe, gizarterako eta kohesiorako politikarik gabe eta epe ertain eta luzerako diren balioetan inbertitu gabe, zaila izango da bizikidetzaren arloan agertuz doazen erronkei erantzun estrategiko eta globala ematea.

Hirugarren zatia

Jarduera-plana

I. ardatza. Iragana.

Indarkeriaren amaiera antolatua

1. ekimenaren fitxa

ETAren armagabetzea eta desegitea

1. Ekimenaren deskribapena

Hiru erreferentzia oinarri hartuta garatzen da ekimen hau:

- Legezko, behin betiko eta ordainetan ezer eman gabeko armagabetzea egiaztatzea, ETA desegitearen eta desagertzearen aurretiko urrats bezala.
- Legebiltzarreko taldeekin eta eragile instituzionalekin, nazioartekoekin, politikoeekin eta sozialekin koordinazioan eta lankidetzan garatzea egiteko hau.

2. Helburuak

- ETA behin betiko armagabetzea, desegitea eta desagertzea lortzea eta indarkeriaren amaiera antolatua lortzeko prozesuari mesede egitea.
- Euskal gizartean eta politikan iraganari eta indarkeriari lotutako etapa bat behin betiko ixten laguntzea eta bizikidetzan oinarritutako oraina eta etorkizuna eraikitzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Armagabetzearen egiaztatzea babestea Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 21ean aurkeztu zuen proposamena ete bere ondorengo eguneratzeak hartuko ditu erreferentzia modura.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza: Armagabetzea egiaztatzea babesteko prozesuaren garapena.	·2017ko lehen sei hilekoan.	·Legezko, behin betiko eta ordainetan ezer eman gabeko armagabetzea babesteko prozesuaren garapena.
2. ekintza. Prozesua ebaluatzea.	·2018ko lehen sei hilekoan.	·Ebaluazio-lana egitea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·ETA armagabetu eta desegiteko helburua betetzea eta indarkeriaren amaiera antolatua lortzen laguntzea.

2. ekimenaren fitxa

Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa

1. Ekimenaren deskribapena

Ekintza zehatz baten islatzen da ekimen honen edukia: iraganean giza eskubideen urraketa, indarkeriaren legitimazioa edo biktimekiko sentiberatasun falta eragin duen gauza ororen inguruko hausnarketa kritikorako dokumentu bat egitea. Akordio batera iristea eta ostean gizartean eta hezkuntza- eta unibertsitate-esparruan zabaltzea izango litzateke dokumentu horren helburua.

2. Helburuak

- Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen inguruko hausnarketa kritiko eta partekaturako prozesuaren alde egitea. Hausnarketa horrek *Inoiz gehiago ez* ondorioa ateratzeko eta *Ez errepikatzeko* konpromisoa hartzeko erreferentzia modura balio beharko luke, bai hedatzeko eta bai hezkuntza-arloan.
- Euskal gizartean eta politikan iraganari eta indarkeriari lotutako etapa bat behin betiko ixten laguntzea eta memoria aintzat hartzen duen bizikidetzan oinarritutako oraina eta etorkizuna eraikitzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Ekimen honen erronka nagusia ahalik eta adostasun handiena eta zeharkakoena lortzea da, eta gutxiengo etiko baten oinarrituta egitea: giza eskubideak xedaezinak direla onartzea eta beraz, giza eskubideen urraketa gaitzestea, orain, etorkizunean eta iraganaren analisisa egiteko orduan.
- Oinarritzko dokumentuaren lehenengo zirriborroa egiteko, Eusko Jaurlaritzak 2015eko apirilaren 1ean aurkeztutako Zuzendu dokumentua, autokritikaren balioari eta pedagogiari buruzkoa, hartuko da erreferentzia modura,
- Dokumentu hori egiteko metodoaren xedea adostasuna lortzea izan beharko da, dokumentua egiten joan ahala. Lehenengo zirriborroa egiteak ez du derrigorrez esan nahi jendartean aurkeztu behar denik, horrek adostasuna lortzen laguntzen badu.
- Modu osagarrian, Eusko Jaurlaritzak autokritikaren balioei buruzko dibulgaziozko jarduerak egin ahalko ditu, lehen aldiz 2015eko urriaren 31n garatu zituen Zuzendu Jardunaldien programari jarraipena emanez.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Oinarrizko proposamenaren zirriborroa egitea.	·2017.	·Proposamena itxuratzeko lana egitea.
2. ekintza. Ahalik eta adostasun handiena lortzen saiatzea.	·2017-18.	·Adostasuna lortzeko xedez egindako kudeaketen balantzea egitea.
3. ekintza. Ekimena ebaluatu eta eguneratzea.	·2018. Bigarren sei hilekoan eta egoki denean.	·Ebaluazio- eta eguneraketa-lana egitea.
4. ekintza. Adostutako dokumentuaren edukia zabaltzea.	·Egoki denean.	·Dokumentuan bertan xedatutakoaren arabera.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Terrorismoak, indarkeriak eta giza eskubideen urraketak markatutako iraganaren inguruko hausnarketa kritiko eta partekatua biltzen duen akordio-dokumentu bat egitea.

3. ekimenaren fitxa

Iragana argitzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honek jarraipena ematen dio aurreko legegintzaldietan ildo horretan egindako lanari. Urtean behingo programa bat zehaztu eta garatzea litzateke ekimenaren funtsa, 1960-2010 tartean gertatutako giza eskubideen urraketak eta eragindako biktimak argitzeko txosten eta azterlanak barne hartzen dituena.

2. Helburuak

- Egiaren mapa osatzen laguntzea, ezer parekatu gabe eta inor kanpoan utzi gabe, terrorismoaren eta indarkeriaren errealitatea eta iragan hurbilean izandako eragina argitzeko.
- Iragan hurbilean izandako giza eskubideen urraketei buruzko txostenen programa garatzen jarraitzea. Urraketa horiek ikusgai jartzea eta gizarteratzea biktimei ordaina eta aitortza publikoa emateko ekintza bat litzateke, gainera.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Gogorak egingo ditu *Memoria Historikoa* argitzeko txostenak eta azterlanak, hots, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak. Idazkaritza Nagusia arduratuko da *duela gutxiko memoria* argitzeko txostenak eta azterlanak bultzatzeaz. Txosten eta azterlan horiek eginda daudenean, Gogorari bidaliko zaizkio.
- Legegintzaldi honetarako laneko planaren baitan, aurreko legegintzaldian hasitako azterlanak bukatuko dira, argitu gabeko atentatu terroristen auzibide-egoerari buruzkoa, torturari buruzko ikerketa edo indarkeriaren eraginari buruzko txostena generoaren ikuspegitik begiratuta, esate baterako.
- Lan-programak ETaren eta hari lotutako erakundeen terrorismoa argitzera bideratutako azterlanak, GAL, BVE eta antzekoen terrorismoa argitzeari buruzko azterlanak eta motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketei buruzko azterlanak bilduko ditu atal desberdinetan.
- Erakunde adituei aginduko zaie txosten eta azterlan horiek egiteko, erakunde akademikoei bereziki. Azterlan horiek idazteko orduan iritzia emateko askatasuna, zorroztasuna, diziplina anitzeko ikuspegia eta azterlanok egin eta alderatzeko metodologia anitza bermatu beharko dituzte, joera ideologiko alderdikariak ekiditeko.
- Egiten diren txosten eta azterlanek barne hartuko dute genero- dimentsioa eta beraz, sexuaren arabera bereizi beharko dituzte bildutako datuak.
- Horiek guztiak oinarri hartuta, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak gainerako erakunde publikoekiko sinergia, osagarritasuna eta lankidetzaren bilatuko ditu iraganari buruzko azterlanak eta txostenak egiteko eta bikoiztasunak edo itxuraldatzeak ekiditen saiatuko da.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Argitze-lanaren urteko programa zehaztea.	·Urte bakoitzeko lehen sei hilekoan.	·Programa zehazteko lana egitea.
2. ekintza. Lan-programa kudeatzea.	·Legegintzaldiaren gainerakoan.	·Adostutako lan-programaren egutegia betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Aurreko legegintzaldietako txosten eta azterlanak eta legegintzaldi honetan egingo direnak batuta, egiaren mapa egin ahal izatea. Egiaren mapa horrek terrorismoaren eta indarkeriaren errealitatera eta iragan hurbilean izandako eraginera hurbilketa zehatza egitea ahalbidetu beharko luke.

II. ardatza. **Oraina.**

Bizikidetzaren normalizazioa

4. ekimenaren fitxa

Biktimak

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan bultzatuko dituen biktimen arloko politika publikoek hiru jardue-
ra-ardatz izango dituzte: jarraitutasuna, garapena, berrikuntza eta ebaluazioa.

- Jarraitutasuna. Terrorismoaren biktimen arloan, aurreko legegintzaldietan biktimei laguntzeko eta aitortza eta ordaina emateko bultzatu diren politikak bultzatzen jarraitzea, indarrean dagoen esparru arau-
tzailea eta bereziki 4/2008 Legea errespetatuz.
- Garapena. Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onetsitako 12/2016 Legea garatzea, arrazoi
politikoek eragindako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta ordaina emateari
buruzkoa.
- Berrikuntza. Batera Konpromisoa izeneko dokumentua oinarri hartuta, biktimak eta gizartea elkartzea eta
guztiek etorkizuna eta bizikidetzara eraikitzen parte hartzea sustatzen duten jarduera-ildoak bultzatzea.
- Ebaluazioa. Legegintzaldi amaieran biktimen aitortzaren arloan egiteko geratu diren zereginak ebaluatzea.

2. Helburuak

- Biktima guztiei aitortza eta ordaina emateko prozesuak osatzen laguntzea eta haiek ere bizikidetzara erai-
kitzeko orduan parte har dezaten sustatzea.
- Lehenik eta behin, biktimek arretoa eta aitortza eman zaiela sentitzeko baliabide guztiak jartzea eta bi-
garrenik, biktimek bizikidetzaren eta normalizazioaren arloan lortutako arrakasta sozial ororen partaide
direla sentitzeko baliabide guztiak jartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren eskumenen eremuan biktima guztien egiarako, justiziarako eta aintzatespenerako
eskubideak sustatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta
ordaina emateko duten eskubidean oinarritzen da, eta biktimei jasan zuten bidegabekeriaren aurrean
elkartasuna erakustean. Konpromiso hori biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua aitortzean eta
berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da, biktima bihurtu dituzten kausak
alderatu gabe.
- Gogorak kudeatuko ditu Memoria Historikoaren garaiko biktimen –frankismoaren biktimen– politikak,
biktima horiei eman beharreko aitortza eta ordaina memoriari hertsiki lotuta dagoelako. Idazkaritzak
kudeatuko ditu duela gutxiko memoriarekin lotura duten biktimen –terrorismoaren biktimak eta motiba-
zio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak– politika publikoak;
izan ere, politika publiko horien garapena laguntza ematean oinarritzen da, besteak beste, eta bizikide-
tza normalizatzeko helburuari lotuta dago.
- Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren lankidetzara indartuko da eta Terroris-
moaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna ospatuko da urtero.
- Urtero-urtero, azken hiru hilabeteetan, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagu-
siak hurrengo urterako lan-programa bat prestatuko du. Lan-programa horrek jarraitutasunaren, gara-
penaren eta berrikuntzaren ardatzak garatu beharko ditu biktimen arloko politiketan.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. 2017ko lan-programa.	·2017. Lehen seihilekoan.	2017ko lan-programa betetzea.
2. ekintza. 2018ko lan-programa.	·2018. Lehen hiruhilekoan.	·2018ko lan-programa betetzea.
4. ekintza. 2019ko lan-programa.	·2019. Lehen hiruhilekoan.	·2019ko lan-programa betetzea.
4. ekintza 2020ko lan-programa.	·2020. Lehen hiruhilekoan.	·2020ko lan-programa betetzea.
5. ekintza. Aitortza emateko politiken ebaluazioa egitea.	·2020. Lehen seihilekoan.	·Ebaluazioa aurkeztea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·Legegintzaldi amaieran arlo honetako politikek instituzioak, eragile politikoak, elkarteak eta herritarrak gehiago elkartzeko espazio bat osatzea, biktimen parte-hartzearekin. Logikoa den moduan, elkarketa horietan desadostasunak ere onartu beharko dira baina funtsean batasuna sustatuko da.

5. ekimenaren fitxa

Memoria

1. Ekimenaren deskribapena

Memoriaren politika publikoen arloan, Eusko Jaurlaritzak Gogoraren 2017-2020rako Jarduera-plana aurkeztuko du, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarena, alegia. Plan horrek edukia emango die bere hiru ardatzei: kudeaketa, dibulgazioa eta ikerketa. Horrez gain, honako proiektu hauek barne hartuko ditu, besteak beste: dokumentazio zentroa, liburutegia, erakusketetan eta hezkuntzan oinarritutako estrategia edo memoriaren institutuen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako proiektuak. Memoria Historikoaren arloan, euskal instituzioek Memoria Historikoaren egia argitzeko eta aitortzeko eta biktimei ordaina emateko prozesu bat bultzatzeko beharrezkoak diren aurreikuspenak ezarriko ditu. Hori guztia Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea (4/2014 Legea, azaroaren 27koa) oinarri hartuta.

2. Helburuak

- Gogora erreferentziazko espazio izatea lortzea, ondorengoetarako: (I) memoriaren inguruko politika publikoak partekatzeko, (II) memoriaren balio zehatza eta benetakoa kalera eta herritarrei hurbiltzeko, eta (III) memoriak hezkuntzarako duen potentzialtasuna sustatzeko.
- Gogorarentzako jarduera-programa bat sustatzea, iraganari buruzko gogoeta kritikoa egiteko, adostasunik handienez oinarriturik eta parte-hartzea, elkarrizketa eta aniztasuna sustatuz.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Eusko Jaurlaritzaren memoria-arloko politika publikoa elkarrizketan eta aniztasunarekiko konpromisoan oinarritzen da eta iraganean izandako terrorismo edo indarkeria mota ororen legitimazioa, konpentsazioa edo minimizazioa gaitzesteko eta orain edo etorkizunean hori aldatzeari aurrez aurrez kontra egiteko konpromisoa du.
- Gogora Institutuak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Berdintasunaren Batzordearen aurrean kontu emateaz gain, bere Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzen duten eragileekin konpromisoa eta lana partekatzeko lidergoa hartu du bere gain.
- Gogoraren 2017-2020ko Jarduera-planean memoria historikoaren garaia eta duela gutxiko memoriarena landuko dira, bata eta bestea bereizita. Iraganean pairatutako terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa ororen aurka egingo du, salbuespenik gabe, eta horiek konpentsatzeko konparaketa oro arbuatuko du.
- Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroan parte hartuko du eta harekin lankidetzan arituko da. Memoria-aniztasunaren trataera demokratikoari mesede egiten eta hura bultzatzen saiaturiko da, memoria-arloko politika publikoa itxurtzeko orduan joera alderdikariak egoteko arriskua ekiditeko.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Gogoraren Jarduera-plana aurkeztea.	·2017. Lehen sei hilekoan.	·Jarduera-planaren aurkezpen lana egitea.
2. ekintza. Gogoraren Jarduera-plana garatzea.	·Indarraldi osoan zehar.	·Jarduera-planaren programa eta edukiak betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Gogoraren jarduerak eta ekimenak ideologia politikoen arteko eta gizartearen eta instituzioen arteko topaketa-puntua izatea lortzea.

6. ekimenaren fitxa

Espetxe-politika

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jurlaritzak espetxe-politikaren arloan duen jarduera-programak hiru helburu hauek bete nahi ditu:

- Espetxe-politikari beste norabide bat emateko proposamen bat sustatzea. Espetxe-politika berriaren helburu nagusia gizarteratzea izan beharko litzateke, eragin humanitario handiena duten arazoei lehen-tasuna eman beharko lieke, presoak etxera hurbiltzearen alde egin beharko luke eta espetxeekiko eskumena EAera eskualdatzeko eskatu beharko luke.
- Legebiltzarraren ekimenak prestatzen laguntzea, ekimen horiek arestian aipatutako proposamena babesten dutenean eta Espainiako gobernuaren eta Eusko Jurlaritzaren arteko adostasuna lortzeko eskatzen dutenean.
- Europar zabaltzen ari den justizia leheneratzailearen ildo beretik, gizarteratzeko politika publikoak arautzen eta sustatzen dituen dekretu bat onetsi eta garatzea, Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan.

2. Helburuak

- Zigor-, espetxe- eta gizarteratze-politika normalizatzen eta baketzen laguntzea, legezko eta konstituzioko printzipioak eta Gernikako Estatutua errespetatuz, gizarteraren gehiengoaren borondatea aintzat hartuta eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzara lortzeko xedez.
- Bizikidetzaren normalizazioarekin bat datorren zigor-, espetxe- eta gizarteratze-politika garatzeko erabilgarriak diren tresnak eta akordioak sustatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Honako legezko printzipio hauek oinarri hartuko dituen espetxe-politikaren aldekoa da Eusko Jurlaritzak: indibiduaizoa, gizatasuna, eragindako mina aitortzea eta gizarteratzea. Horren ondorioetako bat litzateke presoak beren familia-girotik hurbil dauden espetxeetara lekualdatzeari babesa ematea.
- Espetxe-politika beste modu batera orientatzeko proposamena ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa errespetatuz gauzatuko da eta Zuzen Bidean Proposamenean oinarrituko da. Eusko Jurlaritzak 2014ko azaroan aurkeztu zuen proposamen hori eta ETAREN amaieraren ostean, zigor- eta espetxe-arloetan berriro ere normaltasuna lortzea du helburu.
- Gizarteratzeko Dekretua itxuratzeko, Eusko Jurlaritzak 2016ko ekainaren 18an Donostian egin zen Justizia Leheneratzailearen Europako Kongresuan aurkeztu zuen Dekretuaren zirriborroa hartuko da oinarri modura. Konstituzioak berriro hezteko eta berriro sozializatzeko funtzioa ezartzen du espetxe-zigorrorako, eta funtzio horretara bideratuko da Dekretuaren edukia. Horrekin batera, Langraiz Bidearen eta bere testigantza autokritikoen esperientzia izango du kontuan.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Espetxe-politikari buruzko oinarritzko proposamena prestatzea.	·2017-2018.	·Proposamenaren aurkezpen-lana egitea.
2. ekintza. Legebiltzarraren ekimenekin lankidetzan aritzea.	·Indarraldi osoan zehar.	·Lankidetzan aritzeko ekintza gauzatzea.
3. ekintza. Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea.	·2018.	·Dekretua onestea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Espetxe-politikan jarduteko adostasuna lortzea, preso dauden pertsonak beren familia-girotik hurbil geratzen diren espetxeetara ekartzeko, haiek gizarteratzeko legezko bideak garatzeko eta espetheen gaineko eskumena eskualdatzeko.

III. ardatza. **Etorkizuna.**

Bizikidetzaren erronka berriak

7. ekimenaren fitxa

Aniztasunaren kudeaketa positiboa

1. Ekimenaren deskribapena

Aniztasunaren kudeaketa positiboaren arloan, hiru jarduera-ildotan islatuko da garatu beharreko lan-programa:

- Erlijioen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako programa bat bultzatzea, hiru ekintzaren bitartez: sinesmen desberdinen ezarpen-mapa egitea, erakunde erlijiosoen erregistroa sortzea eta erlijio kontseilu bat eratzea.
- Gurtza-zentroei buruzko lege bat onestea, aurreko bi legegintzaldietan egindako lanean oinarrituko litzatekeena.
- Udalerrri edo eskualde bakoitzeko kultura- eta erlijio-aniztasunaren ezagutzarako eta pedagogiarako tokiko gidaliburuak egiteko ereduazko dokumentu bat prestatzea.
- Herritarren eta elkarten inplikazioa sustatzea, giza eskubideen arloko diru-laguntzetarako deialdietan aniztasunaren sustapena eta arrazismoaren eta gorroto-delituen prebentzioa sartuz.

2. Helburuak

- Elkarrizketa, enpatia eta lankidetzeta bultzatzea, aniztasuna modu positiboan kudeatzeko eta pertsona bat bere etiketa kolektiboagatik diskriminatua izateko forma oro ekiditeko.
- Desberdintasun erlijioso edo kulturalen aurrean edo bestelako desberdintasunen aurrean, enpatiaren aldekoa den eta beldurrak eta estereotipoak gainditzea helburu duen kultura sustatzeko tresna eta baliabide erabilgarriak sortzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren lehenengo artikuluan oinarrituta dago Eusko Jaurlaritzak arlo honetan bultzatzen duen politika: *“Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute”*.
- Ekimen hau garatzeko, sinesmen erlijiosoen parte-hartzea bultzatuko da, eta baita erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzaren alde lan egiten duten erakunde sozialena ere.
- Erljio kontseiluak aholkularitza-izaera izango du eta proposamenak egin ahalko ditu. Arazoak aztertze-ko eta adostuak izan diren proposamenak egiteko espazio modura funtzionatuko du.
- Aniztasunaren tokiko gidaliburuaren eredia itxuratzeko, kultura desberdinetako pertsonen parte hartzea iradokiko da, elkar ezagutzeko eta bata bestearengana hurbiltzeko aukera ematen baitu horrek. Gainera, genero-dimentsioa barne hartu beharko du gidaliburuak.
- Jarduera-lerro hauek Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatuz gauzatuko dira.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Erlijioen arteko lan-programa aktibatzea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Programaren egutegia eta edukia betetzea.
2. ekintza. Gurtza-zentroen Legea onestea.	·2018.	·Legearen onespenez egitea.
3. ekintza. Tokiko gidaliburuaren eredu aurkeztu eta zabaltzea.	·2018.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
4. ekintza. Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.	·2018.	·Diru-laguntzen dekretu berri bat onestea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Kulturen arteko bizikidetzarako eta lankidetzarako erreferente bat sortzea Erlijio Kontseiluaren inguruan, gizartearen xede duena.

8. ekimenaren fitxa

Elkartasunaren sustapena

1. Ekimenaren deskribapena

Arlo honetan, Eusko Jaurlaritzaren laneko planak lau jarduera-ildo garatu nahi ditu:

- Sailarteko organo bat sortzea, giza eskubideak urratzeko arrisku larria duten egoerak hautemateko mekanismo modura funtzionatuko lukeena.
- Esparru-dokumentu bat egin eta garatzea, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Mediterraneoan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa.
- Herritarren eta elkarten inplikazioa sustatzea, giza eskubideen arloko diru-laguntzetarako deialdietan elkartasunaren sustapena sartuz, berdintasunik ezaren edo bidegabekeriaren aurrean, eta mobilizazioa, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurrean.
- 2018-2021erako Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Gidatzailea egin eta onesteko prozesua eta tramitazioa bultzatzea, aurreko plan gidatzailearen ebaluazioa egin ondoren.

2. Helburuak

- Giza eskubideekiko enpatiarekin eta guztion ongizatearen esanahia ulertzean oinarritzen den bizikidetzaren aldeko kulturarekin konprometitutako gizartea sustatzea.
- Berdintasunik eza islatzen duten egoerarik kritikoenen aurrean erantzuteko gaitasuna izateko beharrezkoak diren baliabideak indartzea eta elkartasuna sustatzea.
- Euskadin instituzioek eta gizarteak elkartasunaren eta giza eskubideen alde hartutako konpromisoaren barneko proiektzioa garapenerako lankidetzaren politiken arloko nazioarteko ekintzarekin konektatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Elkartasunaren balioa sustatzeak badu funtzio estrategiko bat Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honetan. Gizartea elkartzeko eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren indartzeko biderik sendoena da, bai iraganaren ondorioak kudeatzeko orduan eta bai etorkizuneko erronkei aurrera egiteko orduan.
- Lau fasetan banatuko da giza eskubideak urra ditzaketan egoera larrien berri emateko sailarteko alerta-mekanismoaren lana: oso zaugarriak diren egoerak eta kolektiboak hautematea, egoeraren azterketa espezifikoa egitea, irtenbideak bilatzea eta erantzuna ematea. Genero-dimentsioa barne hartu beharko du guzti horrek. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Sailarteko Batzordearen azpibatzorde izaera izango du sailarteko lan honek.
- Errefuxiatuen eta etorkinen harrerari buruzko esparru-dokumentu bat egiteko prozesuan, esperientziak, hausnarketak eta proiektuak partekatzeko jardunaldi batzuk egiteko aukera baloratuko da, Europako eskualdeetako gobernuak arlo horretan modu aktiboan jarduteko borondatea baldin badute.
- 2018-2021erako Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Gidatzailea egin aurretik, Garapenerako Lankidetzaren Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Orokorrak finkatuko ditu Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrari bidaltzeko.
- Aurreko plan gidatzailea ebaluatzeko eta plan gidatzaile berria onesteko prozesuarekin batera, azken urteotan nazioartean gertatutako aldaketa garrantzitsuak eta aldaketa horiek ekarritako erronkak, mugak eta aukerak kontuan hartzen dituen funtsezko hausnarketa bultzatuko da. Horrez gain, Garapenerako Lankidetzaren 1/2007 Legearen balizko erreforma egiteko komenigarritasuna baloratu beharko da.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Sailarteko organoa sortzea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Organoa sortzea eta bere agenda garatzea.
2. ekintza. Esparru-dokumentu bat prestatzea.	·2017.	·Aurkezpen- eta dibulgazio-lan horren egutegia eta edukia betetzea.
3. ekintza. Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Diru-laguntzen dekretu berria onestea.
4. ekintza. Lankidetzarako Plan Zuzentzaile berria onestea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Plan Zuzentzaile berria onestea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·Giza eskubideak urratzeko arrisku larria duten egoerei hobeto erantzuteko erabilgarriak eta praktikoak izan daitezkeen tresnak sortzea: Jaurlaritzaren baitan sailarteko organo bat sortzea, erreferentziatzko esparru-dokumentu bat prestatzea eta lankidetzarako plan gidatzaile bat itxuratzea.

9. ekimenaren fitxa

Hezkuntza (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)

1. Ekimenaren deskribapena

Hezkuntzaren arloan, bizikidetzari eta giza eskubideei lotutako hezkuntza indartzeko programa bat garatea aurreikusten da plan honetan, hiru ardatz oinarri hartuta:

- Indarkeriarik eza eta giza eskubideak, Adi-adian proiektuan bildu diren biktimen lekukotasun hezigarrien eguneratuz eta hezkuntza- eta unibertsitate-eremu berrietara zabalduz.
- Aniztasuna eta giza eskubideak, arrazismoaren eta etiketa kolektiboei lotutako diskriminazioaren prebentzioan zentratutako hezkuntza-tresna bat abian jarritz.
- Elkartasuna eta giza eskubideak, bidegabekeriaren eta bazterkeriaren aurrean enpatia eta elkartasuna sustatzean zentratutako hezkuntza-proposamen baten bidez.
- Jarduera-programa hau garatzearekin batera, Elkarrekin bonu-programarekin eta Eskola Bakegune webgunearekin jarraituko da eta Eusko Jaurlaritzak Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroari babesa ematen eta bertan parte hartzen jarraituko du.

2. Helburuak

- Giza eskubideen arloko hezkuntza eskaintzeko proiektua sendotzea, giza duintasunaren oinarri pedagogikoan oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua, enpatiaren aldeko hautua aintzat hartuta.
- Bizikidetzaren arloan konpontzeke dauzkagun eta etorri ere badatozen erronkak direla-eta, heziketarako tresnak sortzea eta gizartearen eta hezkuntzaren arteko elkarreraginak indartzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Gure hezkuntza-sistemak urteak daramatza lanean bizikidetzarako hezkuntzaren eremuan. Jarduera-programa honek egindako lana aitortzen du beste ezeren aurretik eta proposamen *gehigarri* modura itxuratu da, lan hori indartzea baita bere xedea.
- Zentrozen eta hezitzaileen autonomiarekiko errespetuan oinarritzen da programa hau eta Gizalegez Akordioa sinatu duten hezkuntza-arloko eragileekin batera eta haiekin harremanetan mantenduz garatuko da, eragile horiek baitira Euskadiko hezkuntza-komunitatearen ordezkariak.
- Ikasgeletan lekukotasuna eman duten biktimekin lankidetzan diseinatuko da Adi-adian programaren eguneratzea eta zabaltzea.
- Diskriminazioa prebenitzeko eta elkartasuna sustatzeko tresna hezigarriak garatzeko orduan, Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroarekin koordinatu beharko da lana.
- Jarduera-lerro hauek Hezkuntza Sailarekin koordinatuz gauzatuko dira.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Adi-adian proiektua eguneratzea.	·2017. Lehen seihilekoan.	·Eguneratutako proiektua prestatzea.
2. ekintza. Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.	·2017. Lehen seihilekoan.	·Bonu-programaren deialdia onestea.
3. ekintza. Diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala sortzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
4. ekintza. Elkartasuna sustatzeko hezkuntza-materiala sortzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
5. ekintza. Gizalegez Akordioaren deialdia egitea.	·Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.	·Urtero lan hori egitea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntza ideologia politiko desberdinak eta gizartea eta instituzioak elkartzeko gakoa izan dadin lortzea eta horrekin batera, hezkuntzarako tresnak sortzea, erreferenteak izango liratekeenak, erabilgarriak direlako eta erabili egiten direlako.

10. ekimenaren fitxa

Dibulgazioa (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)

1. Ekimenaren deskribapena

Honako jarduera-ildo hauei jarraipena ematen dieten beste jarduera batzuk daude dibulgazio-ekimenaren baitan:

- Abenduaren 10ean ospatzen den giza eskubideen egunaren harira urteroko kanpaina egitea.
- Abenduaren 10ean bertan René Cassin Saria ematea.
- EiTBrekin bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sinatutako akordioarekin jarraitzea eta berriro sinatzea.
- Giza eskubideei buruzko zinemaren Zinexit zikloarekin jarraitzea eta berriro jaurtitzea.

2. Helburuak

- Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kultura indartzera bideratutako pedagogia soziala sustatzea.
- Giza eskubideekiko, elkartasunarekiko eta enpatiaren aldeko hautuarekiko konpromisoari lotuta dauden komunikazio- eta dibulgazio-erreferentziak sortzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Euskal gizartean giza eskubideak eta horien oinarrian den giza duintasuna errespetatzearen balio etiko, aurrepolitiko eta unibertsalaren aldeko kontzientzia indartzera bideratuta dago Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen arloan duen dibulgazio-politika, adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren normalizatua lortu ahal izateko.
- Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urteurrenarekin batera egiten diren komunikazio espezifikorako ekimenak edo beste edozein komunikazio-kanpaina baldintzatuko ditu gure gizarteak bizi duen egoera ekonomiko zailak.
- EiTBrekin sinatutako akordioa berritzeko, aurreko legegintzaldietan bakearen eta bizikidetzaren arloan egindako ibilbidea hartuko da erreferentzia modura eta aniztasunarekin eta elkartasunarekin erlazionatutako giza eskubideen arloan agertuz doazen gaiak gehituko zaizkio.
- Zinexit zikloak arrakastaz gainditu du bere lehenengo etapa eta sendotu egin da. Legegintzaldi honetan zehar proiektu bat prestatuko da, progresiboki zabaltzen joateko. Zinexit Bilboko Udalarekin eta ekimenarekin bat egiten joango diren beste udalerriekin koordinatzen da.
- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartu ondoren, webgunea eguneratu eta bere egitura Planaren edukira egokitu beharko da.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Abenduaren 10eko kanpainak garatzea eta René Cassin Saria ematea.	·Urte bakoitzeko abenduan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
2. ekintza. EITBrekin sinatutako akordioa berritzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
3. ekintza. Zinexiten etapa berrirako proposamena aurkeztea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Proposamena prestatzeko lana egitea.
4. ekintza. Web gunea egokitzea.	·2018. Lehen sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Giza eskubideen balio gorena defendatu eta zabaltzeko konpromisoa hartu duten instituzioen erreferentzia eta instituzioek bere egindako erreferentziak gizartean sendotzea.

11. ekimenaren fitxa

Parte-hartzea (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)

1. Ekimenaren deskribapena

Gogorak memoria eraikitzeke orduan gizarteak parte hartzeko egingo duen lanaz gain, jarduera-programak lau lan-ildo izango ditu:

- Elkarteen Foroarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena onestea. Hitzarmen hori bizikidetzara eraikitzeke orduan herritarren parte-hartzea sustatzera bideratuta egongo litzateke batik bat.
- Azken urteotan Aipaz elkartearekin (Bakearen Ikerketarako Espainiako Elkarte) eta Bakearen Kultura Fundazioarekin izandako lankidetzara-erperientziari jarraipena ematea.
- Herritarrek parte hartzeko tokiko ekimenak babestea. Udalekin eta elkarteekin itundu daitezke ekimen horiek, Elkarrekin Bonuen programa bultzatuz eta indartuz.
- Eusko Jaurilaritzak Aieteko Giza Eskubideen arloko Baliabide Pedagogikoen Zentroarekin lankidetzan eta bertan parte hartzen jarraitzea, metodologia parte-hartzaileen arloan.

2. Helburuak

- Eragile sozialekin lankidetzan aritzea eta horrela, iraganaren memoria aintzat hartzen duen, adiskidetasunean oinarritzen den eta giza eskubideen agenda berriari irekita dagoen bizikidetzara normalizatuaren aldeko kultura finkatzea.
- Programak eta ekimenak bultzatzea, pertsona bakoitzak eta oro har gizarteak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan inplikatzeko eta erantzukizunez jokatzeko kontzientzia hartzea sustatzen dutenak, hain zuzen ere.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honetan bildu diren ekimen guztiek zeharkako jarduera-eredu bera dute oinarritzat: "herritarrek planarekin erlazionatutako politika publikoetan parte hartzeko bideak aztertu, proposatu eta/edo erraztea". Horrenbestez, herritarrek parte hartzeko programa espezifikoak garatzeaz gain, plan osoa garatzeko orduan ere aintzat hartu beharreko zerbait da herritarren parte-hartzea.
- Elkarteen Foroarekin eta erakunde sozialekin sinatutako lankidetzara-hitzarmenetan garrantzia berezia emango zaio herritarren parte-hartzearen arloan izari txikian izandako esperientzien balioari eta parte-hartze horrek areagotzeko eta hedatzeko duen indarrari.
- Legegintzaldi honetan, gizartearen egitekoa eta giza eskubideen arloan agertzen ari diren erroka berrietan duen inplikazioa aztertzea bideratuko da Aipazekin eta Bakearen Kultura Fundazioarekin adostutako lankidetzara.
- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana garatzeko orduan, gizarte-, kultura- eta enpresa-arloko edo beste arlo batzuetako eragileek bizikidetzaren aldeko kulturaren parte hartzeko eta kultura horri mesede egiteko ekimenetan parte hartu nahi badute, haiekin lankidetzan aritzeko ildo berriak sartu ahalko dira planean, berariaz aurreikusi ez badira ere.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Elkarteen Foroarekin hitzarmena sinatzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
2. ekintza. Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.	·2017. Lehen sei hilekoan.	·Bonuen programaren deialdia onestea.
3. ekintza. Aipaz eta FCPrekin lankidetzan aritzeko ildoak diseinatzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·Gizarte zibil antolatua baliabideak eta ahalmena sendotzea, herritarrek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan parte har dezaten.

12. ekimenaren fitxa

Lankidetza estrategikoa (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)

1. Ekimenaren deskribapena

Bai plan honetan eta bai aurrekoan, sektore desberdinekin lankidetzan aritzeko ildoak garatu dira etengabe. Azken lau urteotako esperientzia kontuan hartuta, partekatutako lanaren hiru ildo (Ertzaintza, unibertsitateak, gazteria, eta Lan eta Justizia Saila) lankidetza estrategiko bilakatu direla eta ekimen honen baitako lau jarduera-ildo taxutu dituztela esan genezake:

- Segurtasun Sailarekin eta Ertzaintzarekin lankidetzan aritzea, Ertzaintzak bizikidetzaren eta giza eskubideen alde hartutako konpromiso soziala garatzen jarraitzeko.
- Euskadiko hiru unibertsitateekin sinatutako lankidetza-hitzarmena eguneratzea, hiruren artean ekarpenak egiteko estrategia garatzen jarraitzeko.
- Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenarekin jarraitzea, giza eskubideen agenda berriari lotutako gai berriak jorratzeko.
- Lan eta Justizia Sailarekin lankidetza gizarteratze-politikak diseinatzeko eta bultzatzeko.

2. Helburuak

- Giza eskubideak sustatu eta defendatzeko zeregina partekatzea Ertzaintzarekin, unibertsitateekin eta Gazteriaren Kontseiluarekin.
- Programak eta ekimenak bultzatzea, hain zuzen ere, pertsona bakoitzak eta oro har gizarteak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan inplikatzeko eta erantzukizunez jokatzeko kontzientzia hartzea sustatzen dutenak esparru estrategikoetan.
- Europar zabaltzen ari den justizia leheneratzailearen esparruan gizarteratzeari buruzko Dekretu bat lantzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honek oinarritzat dituen tesietako bat litzateke instituzioek bakearen eta giza eskubideen kulturaren alde hartutako konpromisoa ekintza zehatz eta jarraituetan islatu behar dela, eta gizartearen ustez bizikidetzarako estrategikoak diren esparru eta instituzioetan.
- Ertzaintzarekin batera egindako lanaren arloan, lankidetza-esparrua zabaltzeko egindako giza eskubideen agenda berriak dakartzan erronkei aurre egiteko: erlijioen eta kulturen arteko lankidetza, gorroto-delituen prebentzioa, bidegabekeriaren eta diskriminazioaren forma berriak...
- Unibertsitateekin batera egin beharreko lanaren helburua 2015ean eta 2016an giza eskubideen arloko hezkuntza unibertsitate-esparrura zabaltzeko egindako lanaren (Ahotsak) potentzialtasunean sakontzea izango da, eta baita unibertsitateen menpeko zentroekiko (Giza Eskubideen Katedra, IVAC-KREI edo Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, esate baterako) sinergia hobetzeko egindako lanaren potentzialtasunean ere.
- Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenean bi ikuspegi hartuko dira kontuan: Kontseiluak berak hausnarketa zehatzak egitea eta horien berri ematea, eta gazteriak bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturaren parte hartzeko eta kultura hori zabaltzeko estrategia garatzea.
- Lan eta Justizia Sailarekin partekatutako jarduera, Europar zabaltzen ari den justizia leheneratzailearen esparruan, Dekretu bat definitzera bideratuko da. Dekretu horrek gizarteratze politika publikoak erregulatu eta bultzatuko ditu, indibiduoaren, gizatasunaren, eragindako minaren errekonozimenduaren eta gizarteratzearen legezko printzipioen bultzada aktiboan oinarrituta.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Ertzaintzarekin sinatutako lankidetzahitzarmena urtero eguneratzea.	·Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
2. ekintza. Hiru unibertsitateekin lan-programa eguneratzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·E.kintzaren egutegia eta edukia betetzea
3. ekintza. Gazteriaren Kontseiluarekin lan-programa eguneratzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
4. ekintza. Lan eta Justizia Sailarekin lan partekaturako bide bat ezartzea.	·2017. Bigarren sei hilekoan.	·Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan estrategikoak diren instituzioen arteko egiturazko lankidetzaren erreferentziak sendotzea.

13. ekimenaren fitxa

Nazioarteko ekintza (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)

1. Ekimenaren deskribapena

Lankidetzaren eta giza eskubideen arloko nazioarteko ekintzaren baitan egiten diren jarduerak honako hiru ardatz hauen arabera antolatuko dira:

- Nazioarteko instituzioekin lankidetzan aritzea. Horretarako, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioarekin lankidetzan aritzeko memorandumua eguneratu behar da eta EBren Peace Programme delakoari lotutako erakundeekin lankidetzan jarraitu behar da.
- Nazioarteko programetan parte hartzea eta bereziki, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Programarekin jarraitzea.
- Euskadik bakea lortzeko prozesuei bere ekarpena egitea. Euskal kasutik ateratako esperientziei buruzko oinarritzko dokumentu bat prestatuko da, beste testuinguru batzuekin alderatzeko.

2. Helburuak

- Nazioartean bakea, bizikidetzaren, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko egindako esfortzuen parte izatea eta esfortzu horien sinergia sustatzea.
- Basque Country marka bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoari lotzea eta nazioartean bizikidetzarako politiken euskal eredia partekatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Mundu globalizatu honetan, giza eskubideen aurkako mehatxuak ere globalak dira eta Eusko Jaurlaritzaren tankerako gobernu bat nazioartean indarrak batzen saiatu behar da, apaltasun osoz baina erabakitasunez, giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura defendatzeko.
- Ekimen honetan bildutakoak egiteaz gain, Eusko Jaurlaritza prest legoke nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzeko eta giza eskubideen, gatazken ebazpenaren, biktimen eta bakearen arloko edo diskriminazioaren, arrazakeriaren, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurkako nazioarteko beste programa batzuetan parte hartzeko.
- Bakea eraikitzeko prozesuei egindako euskal ekarpenaren muina indarkeria eta gatazka suntsitzaileak pairatzen ari diren herrialdeekiko nazioarteko lankidetzarako bide modura har daiteke. Zentzu horretan, Euskadiren garapenerako politiken koherentziarekiko konpromisoaren adibide praktikoa litzateke.
- Jarduera-lerro hauek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuz gauzatuko dira.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Nazio Batuen memoranduma urtero eguneratzea.	·Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan.	·Memorandumaren eguneratze-lana egitea.
2. ekintza. Peace Programme erakundeekin lankidetzan aritzeko aukera aztertzea.	·2018.	·Aztertze-lan horren egutegia eta edukia betetzea.
3. ekintza. Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Programa urtero eguneratzea.	·Urte bakoitzeko bigarren seiuhilekoan.	·Programaren eguneratze-lana egitea.
4. ekintza. Euskal kasuari buruzko oinarritzko dokumentua prestatzea.	·2018. Bigarren seiuhilekoan.	·Dokumentuaren prestaketa- eta kudeaketa-lana egitea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

- Eusko Jaurlaritzak nazioartean bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko politiken arloan duen presentzia eta parte-hartzea areagotzea (barrutik kanpora begira zein kanpotik barrura begira).

14. ekimenaren fitxa

Elkarrizketa eta akordioa

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritza ideologia politiko desberdinen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak finantzatzeko laguntza ematen saiatuko da. Honako ekintza hauetan islatuko da Jaurlaritzaren borondate hori:

- Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean memoriari eta bizikidetzari buruzko txosten espezifikoa bat sortzen eta garatzen laguntzea.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarreko taldeen arteko koordinaziorako eta haien artean komunikatzeko batzorde bat sortzea, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arlorako.
- Hiru foru aldundiekin eta Eudelekin lan-mahai bat sortzea proposatzea.
- Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekiko aldi behin koordinazioa mantentzea.
- Espainiako gobernuarekin komunikatzeko eta aldi behin koordinatzeko bideak ezartzea, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen kudeaketarekin erlazionatutako eremu guztietarako.

2. Helburuak

- Politikaren, Legebiltzarren eta instituzioen esparruan, bizikidetzarako helburuaren inguruko elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak sortzen laguntzea.
- Elkarrizketarako espazio horien baitan ahalik eta adostasun handiena lantzen, ontzen eta lortzen laguntzea.

3. Ezaugarriak edo irizpideak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen misioa gizarte elkartzen eta adiskidetasunean oinarritutako bizikidetzaren lortzen laguntzea da. Helburu hori lortzeko alde aurretik bete beharreko baldintza litzateke ideologia politiko desberdinen artean oinarritzeko akordioetara iristea. Elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak sortzeak funtzio estrategikoa du, beraz.
- Eusko Jaurlaritza Memoriari eta Bizikidetzari buruzko Batzorde Txostengilearekin lankidetzan arituko da, beharrezkoa denean edo hala egiteko eskatzen zaionean.
- Idazkaritza Nagusia eta Legebiltzarreko taldeak koordinatzeko batzordearen helburua elkarrizketarako, entzuteko, kontsultak egiteko eta lankidetzan aritzeko dinamikak martxan jartzea izango da, plan hau ahalik eta adostasun handienarekin kudeatu ahal izateko.
- Hiru foru aldundiek eta Eudelek osatutako lan-mahaiaren helburua bizikidetzaren eta giza eskubideen agendaren inguruko politikak partekatzea izango da.
- Aldi behin Nafarroako Gobernuarekin koordinatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 2016ko maiatzaren 10ean sinatutako Lankidetzarako Protokoloa hartuko da oinarritzat. Protokolo horretan bildutako 18 lankidetzaren-esparruetako bat bakea eta bizikidetzaren lortzerako bideratuta dago.
- Espainiako gobernuarekin elkarrizketa egonkorra izateko bideak sortzeko proposamenaren helburua bi gobernuen arteko akordioa bilatu eta sustatzea da.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Koordinazio Batzordearen proposamena prestatzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Proposamena prestatzeko lana egitea.
2. ekintza. Foru Aldundiek eta Eudelek osatutako mahaiaren proposamena prestatzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Proposamena prestatzeko lana egitea.
3. ekintza. Koordinazio Batzordea martxan jartzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Batzordea martxan jartzeko lana egitea.
4. ekintza. Instituzioarteko lan-mahaia martxan jartzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Lan-mahaia martxan jartzeko lana egitea.
5. ekintza. Nafarroako Gobernuarekin koordinaturik jardutea.	·Legegintzaldi osoan zehar.	·Topaketen eta edukien balantzea egitea.
6. ekintza. Espainiako gobernuarekin hitz egiteko bideak ezartzea.	·Legegintzaldi osoan zehar.	·Legegintzaldi amaieran emaitzaren balantzea egitea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

·Irizpide bikoitza da. Alde batetik, ideologia politiko desberdinen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak sortzea lortzea eta bestetik, foro horietan bizikidetzaren arloan oinarritzekoak diren eta proiektio estrategikoa duten akordioetara iristea lortzea.

IV. ardatza.

Zeharkakoa.

Kudeaketa eta aurrekontuak

15. ekimenaren fitxa

Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)

1. Ekimenaren deskribapena

Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarena da plan hau zuzentzeko, bultzatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko ardura. Zeregin horretarako, honako lau lan-ildoak ezarriko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren sailen kudeaketa dinamizatzearaz eta koordinatzeaz arduratuko den Sailarteko Batzordea sortzea.
- Aurreko legegintzaldietako Aholku Batzordea mantentzea eta 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berrira egokitzea.
- Legegintzaldiaren erdian programa eguneratzeko dokumentua eta hurrengo bi urteetan jarduteko egutegia prestatzea.
- Legegintzaldiaren azkeneko urtean Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kanpo-ebaluazio osoaren txostena egiteko agintzea.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako adierazle-taula bat egingo da, herritarrek planaren garapenaren gainean duten iritzia ezagutzeko.

2. Helburuak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honen ahalik eta kudeaketarik hobereana gauzatzeko bide ematea, ezarritako helburuak lortzen laguntzea eta ebaluaziorako mekanismo zorrotza finkatzea.
- Erakundeek eta gizarte zibilak elkarriketak izateko, entzuteko, kontsultatzeko eta elkarlanean jarduteko dinamika antolatzea bizikidetzara hobetzeko.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan hau lan-proposamen ireki, dinamiko eta malgua da, gure errealitatearen konplexutasuna eta beharrezko adostasuna bideratzeko. Irekita dago legebiltzarreko taldeek, erakundeek eta gizarte-eragileek egingo dituzten ekarpenetara, onartu aurretik eta garapen-fasean.
- Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du Sailarteko Batzordea eta planaren programaren eta egutegiaren betetze-mailaren jarraipena egiteko txostenak egin beharko ditu urtero.
- Aholku Batzordeak bere orientazioari eutsiko dio eta bere funtzionamendua eta osaera berregituratuko du, beste dekretu bat onetsita.
- Planaren ebaluazioaren erreferentia eskainiko duen herritarren inkesta egiteko adierazle-taula hori prestatzean, abiapuntu izango dira Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2016ko azaroan egin zuen 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planari buruzko inkestan lortutako emaitzak.

4. Jarduera-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio irizpidea
1. ekintza. Sailarteko Batzordea osatzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Batzordea osatzeko lana egitea.
2. ekintza. Aholku Batzordea osatzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Batzordea osatzeko lana egitea.
3. ekintza. Jarduera-programa eguneratzea.	·2018. Lehen seihilekoan.	·Dokumentuaren prestaketa-lana egitea.
4. ekintza. Planaren amaierako ebaluazioa egiteko agintzea.	·2020. Lehen seihilekoan.	·Planaren ebaluazio-lana egitea.
5. ekintza. Herritarren ebaluaziorako adierazle-taula egitea.	·2017. Bigarren seihilekoa.	·Adierazle-taula egiteko ekintza betetzea.
6. ekintza. Planaren ebaluazioari buruzko herritarren iritzia jasotzeko azterketak egitea.	·2018 eta 2020.	·Iritzien gaineko azterketak egiteko ekintza betetzea.

5. Legegintzaldi amaieran azkeneko ebaluazioa egiteko irizpidea

-Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana kudeatzeko, koordinatzeko, haren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko egin den lan egituratua objektibatu eta dokumentatzea.

16. ekimenaren fitxa

1. Planaren aurrekontuaren aurreikuspen xehakaturia

Ekimena	2017	2018	2019	2020
1. ekimena. ETAre armagabetzea eta desegitea	-----	-----	-----	-----
2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa	20.000	20.000	20.000	20.000
3. ekimena. Iragana argitzea	135.000	100.000	150.000	150.000
4. ekimena. Biktimak	2.200.000	3.100.000	3.100.000	3.100.000
5. ekimena. Memoria	-----	-----	-----	-----
6. ekimena. Espetxe-politika	35.000	35.000	35.000	35.000
7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa	70.000	70.000	70.000	70.000
8. ekimena. Elkartasunaren sustapena	215.000	265.000	175.000	175.000
9. ekimena. Hezkuntza	375.000	375.000	375.000	375.000
10. ekimena. Zabalkundea	180.000	180.000	180.000	180.000
11. ekimena. Parte-hartzea	1.100.000	1.100.000	1.100.000	1.100.000
12. ekimena. Lankidetzak estrategikoa	250.000	250.000	250.000	250.000
13. ekimena. Nazioarteko ekintza	130.000	160.000	200.000	200.000
14. ekimena. Elkarrizketa eta akordioa	-----	-----	-----	-----
15. ekimena. Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	200.000	200.000	200.000	250.000
GUZTIRA	4.910.000	5.855.000	5.855.000	5.905.000

2. Planari egokitutako baliabide ekonomikoen taula

PLANARI EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN TAULA

Jarduera-ardatzak	Aurrekontu Programa	Aurrekontu-partida edo taldeak	Gastuen aurrekontua (2. eta 4. kap.) Inbertsioa (6., 7. eta 8. kap.)				
		Sek./Zerb./Kap./Art./Kon./Azpikon.	2017	2018	2019	2020	Guztira
		Epigr./Azpiepigr./Kontua/Azpikontua					
1. ekimena. ETAre armagabetzea eta desegitea							
2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa	Biktimak eta Giza Eskubideak		20.000	20.000	20.000	20.000	80.000
1. ekintza. Jardunaldiak eta bilerak		01/4621/31/23882/000	12.000	12.000	12.000	12.000	
2. ekintza. Beste zenbait ekimen		01/4621/31/23899/004	8.000	8.000	8.000	8.000	
3. ekimena. Iragana argitzea	Biktimak eta Giza Eskubideak		135.000	100.000	150.000	150.000	535.000
1. ekintza. Ikerketako edo biktimei errekonozimendua emateko hutsuneak betetzera bideratutako azterlanak eta txostenak		01/4621/31/23899/002	100.000	80.000	100.000	100.000	
2. ekintza. Torturaren ikerketa-proiektua		01/4621/31/41801/002	35.000	20.000	50.000	50.000	
4. ekimena. Biktimak	Biktimak eta Giza Eskubideak		2.200.000	3.100.000	3.100.000	3.100.000	11.500.000
1. ekintza. Terrorismoaren biktimei elkartasunerako 4/2008 Legearen txostenen izapidea		01/4621/31/45302/001	140.000	140.000	140.000	140.000	
2. ekintza. Biktimei laguntza eta babes pertsonalizatua		01/4621/31/23899/003	30.000	30.000	30.000	30.000	
3. ekintza. Biktimekiko elkartasuna bultzatzea		01/4621/31/23882/001	100.000	100.000	100.000	100.000	
		01/4621/31/23882/000	20.000	35.000	35.000	35.000	
4. ekintza. Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen inplementazioa		01/4621/31/45302/003	1.547.000	2.302.000	2.302.000	2.302.000	
5. ekintza. Hitzarmenak, diru-laguntzak edo laguntza zehatzak		01/4621/31/41801/001	50.000	50.000	50.000	50.000	
		01/4621/31/41801/002	35.000	35.000	35.000	35.000	
		01/4621/31/45401/001	54.000	54.000	54.000	54.000	
		01/4621/31/45499/010	130.000	260.000	260.000	260.000	
		01/4621/31/45499/011	40.000	40.000	40.000	40.000	
		01/4621/31/45499/022	54.000	54.000	54.000	54.000	

PLANARI EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN TAULA

Jarduera-ardatzak	Aurrekontu Programa	Aurrekontu-partida edo taldeak	Gastuen aurrekontua (2. eta 4. kap.) Inbertsioa (6., 7. eta 8. kap.)				
		Sek./Zerb./Kap./Art./Kon./Azpikon.	2017	2018	2019	2020	Guztira
		Epigr./Azpiepigr./Kontua/Azpikontua					
5. ekimena. Memoria	Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua						
6. ekimena. Espetxe-politika	Biktimak eta Giza Eskubideak		35.000	35.000	35.000	35.000	140.000
1. ekintza. Kudeaketa		01/4621/31/23899/005	35.000	35.000	35.000	35.000	
7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa	Biktimak eta Giza Eskubideak		70.000	70.000	70.000	70.000	280.000
1. ekintza. Erlijioarteko eta kulturarteko aniztasunari buruzko ekintzak bultzatzea		01/4621/31/23899/006	35.000	30.000	30.000	30.000	
2. ekintza. Bazterketaren aurkako ekintzak		01/4621/31/23899/006	35.000	40.000	40.000	40.000	
8. ekimena. Elkartasunaren sustapena	Biktimak eta Giza Eskubideak		215.000	265.000	175.000	175.000	830.000
1. ekintza. Azterlanak, txostenak eta kudeaketa		01/4621/31/23899/005	30.000	40.000	30.000	30.000	
2. ekintza. Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak		01/4621/31/23882/000	20.000	100.000	20.000	20.000	
3. ekintza. Heriotz zigorra duten pertsona euskaldunei laguntza		01/4621/31/45499/004	90.000	50.000	50.000	50.000	
4. ekintza. Pertsona defendatzaileak hartzeko Programa		01/4621/31/45499/008	75.000	75.000	75.000	75.000	
9. ekimena. Hezkuntza	Biktimak eta Giza Eskubideak		375.000	375.000	375.000	375.000	1.500.000
1. ekintza. Hezkuntza-tresnak eta Hezkuntza-Programaren beste zenbait ekintza		01/4621/31/23899/005	50.000	50.000	50.000	50.000	
2. ekintza. Aieteko Pedagogia-Baliabideen Zentroarekin lankidetzak		01/4621/31/45499/018	75.000	75.000	75.000	75.000	
3. Elkarrekin Bonuen Programa - Hezkuntza		01/4621/31/45499/013	250.000	250.000	250.000	250.000	
10. ekimena. Dibulgazioa	Biktimak eta Giza Eskubideak		180.000	180.000	180.000	180.000	720.000
1. ekintza. Giza Eskubideen Egunerako kanpaina		01/4621/31/23899/004	75.000	75.000	75.000	75.000	
2. ekintza. René Cassin Saria		01/4621/31/45499/008	12.000	12.000	12.000	12.000	
		01/4621/31/23899/001	16.000	16.000	16.000	16.000	
3. ekintza. ZINEXIT Zine-erakustaldia		01/4621/31/45499/016	45.000	45.000	45.000	45.000	
4. ekintza. Beste zenbait ekintza		01/4621/31/23899/004	32.000	32.000	32.000	32.000	

PLANARI EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN TAULA

Jarduera-ardatzak	Aurrekontu Programa	Aurrekontu-partida edo taldeak	Gastuen aurrekontua (2. eta 4. kap.) Inbertsioa (6., 7. eta 8. kap.)				
		Sek./Zerb./Kap./Art./Kon./Azpikon.	2017	2018	2019	2020	Guztira
		Epigr./Azpiepigr./Kontua/Azpikontua					
11. ekimena. Parte-hartzea	Biktimak eta Giza Eskubideak		1.100.000	1.100.000	1.100.000	1.100.000	4.400.000
1. ekintza. Bilerak, hitzaldiak edo ikastaroak		01/4621/31/23882/000	50.000	50.000	50.000	50.000	
2. ekintza. Udalei diru-laguntzak		01/4621/31/42201/001	150.000	150.000	150.000	150.000	
3. ekintza. Elkarteei diru-laguntzak		01/4621/31/45499/002	450.000	450.000	450.000	450.000	
4. ekintza. Elkarteen Foroarekin lankidetzatza		01/4621/31/45499/005	40.000	40.000	40.000	40.000	
5. ekintza. Cultura de Paz Fundazioarekin lankidetzatza		01/4621/31/45499/012	40.000	40.000	40.000	40.000	
6. ekintza. Elkarrekin Bonuen Programa - Udalak		01/4621/31/45499/013	150.000	150.000	150.000	150.000	
7. ekintza. Elkarrekin Bonuen Programa - Parte-hartzea		01/4621/31/45499/013	100.000	100.000	100.000	100.000	
8. ekintza. Gernika Gogoratuz Fundazioarekin lankidetzatza		01/4621/31/45499/017	60.000	60.000	60.000	60.000	
9. ekintza. Beste zenbait ekimen		01/4621/31/23899/004	60.000	60.000	60.000	60.000	
12. ekimena. Lankidetzatza estrategikoa	Biktimak eta Giza Eskubideak		250.000	250.000	250.000	250.000	1.000.000
1. ekintza. Segurtasun Sailarekin Lankidetzatza		01/4621/31/23899/004	15.000	15.000	15.000	15.000	
2. ekintza. Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuarekin lankidetzatza		01/4621/31/45499/001	30.000	30.000	30.000	30.000	
3. ekintza. EHUko Giza Eskubideen eta Boteren Publikoen Katedra		01/4621/31/45499/019	75.000	75.000	75.000	75.000	
4. ekintza. Lankidetzatza partekatua 3 unibertsitateekin		01/4621/31/45499/015	35.000	35.000	35.000	35.000	
5. ekintza. Euskadiko Gaztediaren Kontseilua		01/4621/31/45499/014	50.000	50.000	50.000	50.000	
6. ekintza. Beste zenbait ekimen		01/4621/31/23899/004	45.000	45.000	45.000	45.000	
13. ekimena. Nazioarteko ekintza	Biktimak eta Giza Eskubideak		130.000	160.000	200.000	200.000	690.000
1. ekintza. GENBGK-ren Bulegoarekin Lankidetzatza		01/4621/31/45499/007	20.000	20.000	20.000	20.000	
2. ekintza. Europako proiektuekin lankidetzatza		01/4621/31/23899/004	15.000	15.000	15.000	15.000	
		01/4621/31/23899/005	65.000	95.000	135.000	135.000	
3. ekintza. Bilerak, hitzaldiak edo ikastaroak		01/4621/31/23882/000	30.000	30.000	30.000	30.000	

PLANARI EGOKITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN TAULA

Jarduera-ardatzak	Aurrekontu Programa	Aurrekontu-partida edo taldeak	Gastuen aurrekontua (2. eta 4. kap.) Inbertsioa (6., 7. eta 8. kap.)				
		Sek./Zerb./Kap./Art./Kon./Azpikon.	2017	2018	2019	2020	Guztira
		Epigr./Azpiepigr./Kontua/Azpikontua					
14. ekimena. Elkarrizketa eta akordioa							
15. ekimena Kudeaketa (Koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	Biktimak eta Giza Eskubideak		200.000	200.000	200.000	250.000	850.000
1. ekintza. Bidaiak eta desplazamenduak		01/4621/31/23831/001	40.000	40.000	40.000	40.000	
2. ekintza. Argitalpenak		01/4621/31/23881/000	40.000	40.000	40.000	40.000	
3. ekintza. Azterlanak, txostenak eta Planaren kudeaketa		01/4621/31/23899/005		30.000	30.000	80.000	
4. ekintza. Beste zenbait ekimen			120.000	90.000	90.000	90.000	
			4.910.000	5.855.000	5.855.000	5.905.000	22.525.000





2

● dokumentua



Urtez urteko
jarraipen-txostenak

Urtez urteko jarraipen-txostenak

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzaren
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

2017ari dagokion jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko urriaren 10ean onartu zen Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez. Planak bere zeharkako ardatzean aipatzen ditu kudeaketarekin lotutako ekimenak (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa). Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio urtean behin planaren jarraipena egiteko ardura. Honela idatzita dago:

“Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du Sailarteko Batzordea eta planaren programaren eta egutegiaren betetze-mailaren jarraipena egiteko txostenak egin beharko ditu urtero.”

Horrenbestez, batzorde horri dagokio –planean bertan ezarritakoaren arabera 2018ko lehen seihilekoan eratu beharko da– urteko jarraipena egiteko txostenak onartzea. Txosten hau egiteko unean Sailarteko Batzordea oraindik eratzeke dagoenez, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio lehendabiziko jarraipen-txosten hau egitea, Planean hari esleitzen zaizkio-eta Batzordea koordinatzeko eta Batzordeari laguntzeko lanak.

Txosten honek aipatutako Gobernu Kontseiluaren Akordioaren laugarren puntuan ezarritakoari jarraipena ematen dio. Honakoa dio: “2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren” jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa Gobernu Kontseilura eta Legebiltzarrera bidaliko da, jakinaren gainean egon daitezen”.

Horrekin batera, Planean ezartzen denez, jarraipen-lan horren osagarri izango dira eguneratze- eta ebaluazio-tresna hauek:

- Legegintzaldiaren erdian programa eguneratzeko dokumentua eta hurrengo bi urteetan jarduteko egutegia prestatzea.
- Legegintzaldiaren azkeneko urtean Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kanpo-ebaluazio osoaren txostena egiteko agintzea.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako adierazle-taula bat egitea, herritarrek planaren garapenari buruz zer iritzia duten jakiteko. Adierazleen taula horretan oinarrituta, herritarrek planaren ebaluazioari buruz duten iritzia aztertzeke bi ikerketa egingo dira, 2018an eta 2020an.

Ondorioz, lehendabiziko txosten honetan 2017ko kudeaketaren eta jardunaren balantzea jaso da. Logikoaenez, lehendabiziko urte hau plana bera egiteko eta onartzeko prozesuan zentratu da batik bat. Hasierako agiria lehendabiziko hiruhilekoan prestatu zen, eta proposamen gisa aurkeztu zen apirilaren 4an. Hiru hilabeteko epea ireki zen orduan, uztailaren 4ra bitartean, parlamentuko taldeen, gizarte-erakundeen eta herritarren ekarpenak jasotzeko. Behin ekarpen horiek testuan txertatuta, behin betiko onartu zen, urriko bigarren Gobernu Kontseiluan. Plana izapidetzeari lehentasuna eman behar zitzaion, baina hori ez zen eragozpen izan, horrekin batera, jarduketa-programan jasotako ekimen asko abian jartzeko eta sustatzeko. Hori guztia aztertzen da, hain zuzen, jarraipen-txosten honetan.

Aurreko Legegintzaldiko metodologia berdina jarraituz, dokumentuaren lehenengo atalean, ageri den koadroak Planaren jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabea Plana osatzen duten 15 ekimenen izenburuak jaso dira; bigarren, jarraipena egiten den urteko ekintzak, eta, azkenik, hirugarren, ekimen horietako bakoitzaren garapen-maila deskribatzen du. Azken zutabeak 2017ko abenduaren 30ean ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen du, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proportzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatzen da: 2017ko abenduaren amaieran, aurreikuspenak % 20, % 40, % 60, % 80 edo % 100 bete dira.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo urterako lehentasunak eta jarduketa-ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Lehenengo atala

2017an Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
·1. ekimena. ETAREN armagabetzea eta desegitea	·Armagabetzea egiaztatzea babes-teko prozesuaren garapena.	·Lehendakariak bi adierazpen egin zituen martxoaren 17an eta apirilaren 8an. Otsaila eta apirila bitartean, armagabetze legekoa, osoa eta atzeraezina ekarri zuen prozesua errazte-lanetan era aktiboan hartu zuten parte Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa	·Oinarrizko proposamenaren zirriborroa egitea. ·Ahalik eta adostasun handiena lortzen saiatzea.	·Barne-eremuan oinarrizko proposamenaren zirriborroa egiteko prozesuan aurrera egiten ari gara. Dena dela, bere garapena Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzeta Ponentziak ezarritako egutegiari moldatzen ari da. ·Eremu publikoan, testuinguru horretan, 2017an zehar Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze publikoek behin eta berriro adierazi izan dute terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan inguruan hausnarketa kritikoa eta partekatua egiteko prozesuaren premia.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %60 bete da, Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzeta Ponentziaren lanen garapenaren zain.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
<p>·3. ekimena. Iragana argitzea</p>	<p>·Argitze-lanaren urteko programa zehaztea.</p> <p>·Lan-programa kudeatzea.</p>	<p>·Argitze-lanaren 2017 eta 2018 urtetako programa zehaztu da.</p> <p>·Martxoan "ETAK enpresa-munduaren aurka egindako indarkeriari eta estortzioari buruzko txostena" argitaratu zen, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroak eginda.</p> <p>·Maiatzaren 17an, "Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egoera eguneratua" jendaurrean aurkeztu zen. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan sustatu nahi duen Giza Eskubideak. Txosten monografikoak eta kasuen azterketak serieko lehen txostena da.</p> <p>·Azaroaren 24ean, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuak landutako "Urruntzeko espetxe-politikak presoan familiengan duen eraginari buruzko txostena" aurkeztu zen.</p> <p>·Abenduaren 18an, Kriminologiako Euskal Institutuak (IVAC-KREI) egindako "Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)" txostena aurkeztu zuen.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
<p>·4. ekimena. Biktimak</p>	<p>·2017ko lan- programa.</p>	<p>·Martxoaren 10ean, Terrorismoaren biktimak gizarte- eta erakunde-mailan aitortzeko ekitaldia egin zen Gasteizen, honako lelo honekin: "Memoria eta etorkizuna. Elkarrekin eraiki". Egun hori Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna izan zen. Lau orduz egon ziren kontzentratuta, etenik gabe, 09:00ak eta 13:00ak bitartean, eta, aldi horretan, erakundeen eta gizartearen ordezkariak (kultura, abokatutza, enpresa-mundua, komunikabideak, unibertsitatea, udalak, aldundiak, Eusko Legebiltzarra edo Arartekoa, besteak beste) txandaka aritu ziren kontzentrazioaren gidari, 15 minutuko txandatan. Biktimek eta biktimen elkarreetako ordezkariak ere parte hartu zuten.</p> <p>·Apirilaren 24ean, "12/2016 Biktimen Legea. Giza Eskubideen nazioarteko eskubidea" jardunaldia ospatu zen, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko lehendakari ohia den Fabián Salvioliren hitzaldi eta guzti. Arartekoak eta EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrako idazkaritza teknikoak parte hartu zuten eta Kriminologiako Euskal Institutua (IVAC-KREI), Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Mondragoneko Unibertsitatea lankidetzan aritu ziren.</p> <p>·Legegintzaldi berrian Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren lehen bilera egin zen maiatzaren 8an. Bigarren sei hilabetearen Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren beste bi bilera egin dira: irailaren 25ean eta azaroaren 20an. Bertan, Legegintzaldiko BPEKren lan-proposamena aurkeztu eta onartu zen.</p> <p>·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantendu dira.</p> <p>·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildo mantendu egin da, bai eta biktimen elkarteei egindako laguntza izendunak ere.</p> <p>·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio.</p> <p>·Ekainaren 26an, "Balorazio Batzordearen txostena, 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak buruzkoa" aurkeztu zen.</p> <p>·Irailaren 12an, Espainiako Gobernuak 12/2016 Legearen aurka aurkeztutako helegitearen aurka alegazioak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
<p>·5. ekimena. Memoria</p>	<p>·Gogoraren Jardue- ra-plana aurkeztea.</p> <p>·Gogoraren Jardue- ra-plana garatzea.</p>	<p>·Urriaren 23an, uztailako bileran aurkeztutako Gogoraren 2017-2020 Jarduera Plangintza onartu zuen Gogoraren Zuzendaritza-Batzordeak.</p> <p>·Urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu lehendakariak Elgoibarren Elgoibarko Olaso hilerriaren ondoan kokatutako Duintasunaren Kolunbarioa.inauguratu zuen.</p> <p>·Martxoaren 5ean, Matxitxakoko batailan hil ziren pertsonak omendu eta oroitzeko ekitaldi bateratua egin zen.</p> <p>·Martxoaren 30ean, Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrena zela-eta oroimen-ekitaldia antolatu zen, eta Lehendakariak bertan parte hartu zuen.</p> <p>·Apirilaren 25ean, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena oroitu eta omentzeko ekitaldietan parte hartu zen.</p> <p>·Maiatzaren 24ean, Santurtzin duela 80 urte EAEko portu desberdinetatik gerratik ihesean ontziratu behar izan zuten 20.000 haurrak oroitu eta omentzeko ekitaldiak egin ziren.</p> <p>·Irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak erakunde-ekitaldia antolatu zuten, Iñigo Urkullu Lehendakariaren eta Uxue Barkos Presidentearen parte-hartzearekin, Gurs-eko (Frantzia) kontzentrazio-esparrua zegoen lekuan, bertan egondako Euskadiko eta Nafarroako 6.500 pertsonetik gora ekarriz gogora eta esker ona adieraziz.</p> <p>·Urriaren 16an, tropa frankistek filiazio politikoagatik edo sindikalagatik 1937an Santoñan exekutatu zituzten gudariak eta milizianoak gogora ekartzeko ekitaldia antolatu zen Lehendakariaren parte-hartzearekin.</p> <p>·Azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatzeko ekitaldia egin zen Bilbon Lehendakariaren parte-hartzearekin. Bertan, gazteak izan ziren protagoniatak, memoria etorkizuneko belaunaldiei transmititza zer garrantzitsua den nabarmenduz.</p> <p>·2017an Memoria Plaza ekimen ibiltaria ondorengo herrietan egon da: Getxo, Lasarte-Oria, Gernika-Lumo, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldo.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·6. ekimena. Espetxe-politika</p>	<p>·Espetxe-politikari buruzko oinarrizko proposamena pres-tatzea.</p>	<p>·Uztailaren 19an, “Espetxe-politikaren berbideratzea partekatzeako akordio-proposamena” eta “Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena” entregatu zizkion Lehendakariak Espainiako Gobernuari.</p> <p>·Bigarren seihilekoan, Eusko Jaurlaritza lanean aritu da Espainiako Gobernuarekin zein Frantziako Gobernuarekin espetxe- eta gizarteratze-politika berria bul-tzatze aldera.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

3. Iniciativas en relación con el futuro

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
·7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa	·Erljioen arteko lan- programa aktibatzea. ·Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.	·Azaroaren 20an, "Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Plana erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean" aurkeztu zuen Lehendakariak. ·Kultuko Zentroen Lege-aurreproiektua lantzeko iza-pidea barne-txostenak lantze-prozesuan dago. ·Urriaren 23an, Bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruko proiektuak diruz laguntzera bideratutako laguntzak arautuko dituen Dekretu berriaren proiektua lantzeko prozedurari ekiteko Dekretua onartu zuen Lehendakariak.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·8. ekimena. Elkartasunaren sustapena	·Esparru-dokumentu bat prestatzea.	·Apirilaren 3an, Lehendakaritzan ekitaldi eta aitopen instituzionala egin zen, Europan errefuxiatuen egoerarekin bizitzen ari garen krisi humanitario larria dela eta. EAEko erakundeek eta gizarte zibilak (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, Arartekoa, Eusko Legebiltzarra, EUDEL, alkateak, elkarteak eta GKEen ordezkariak eta euskal epailetzako arduradunak) prestutasuna eta konpromisoa erakutsi zuten, errefuxiatuak hartzeko orduan modu aktiboan lagundu eta beharrezko bitarteko eta baliabideak beren eskumenen esparruan jartzeko. ·Uztailaren 5ean, "Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailarteko Esparru-dokumentua" aurkeztu zen. 2017rako bere lan-programa bete egin da aurreikusitakoaren arabera. ·2017an zehar, errefuxiatuen egoerari erantzuna emateko erakundeek arteko Lan Mahaia sei bilera egin ditu.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·9. ekimena. Hezkuntza	·Adi-adian proiektua eguneratzea. ·Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.	·Ekainaren 29an, 2017-2020rako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren gaineko Hezkuntza Programa Osagarria aurkeztu zen. ·Irailaren 1ean, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuak "Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketari buruz dakitena eta duten diskurtsoa" txostena aurkeztu zen. ·Irailan Adi-adian proiektua eguneratu egin zen eta unibertsitate esparrura zabaltzea aurreikusten da. ·2017an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkarteak sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzeta-espazioak sustatzen dituen: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzeta.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
<p>·10. ekimena. Dibulgazioa</p>	<p>·Zinexit 2017 garrantzea.</p> <p>·Abenduaren 10eko kanpainak garatzea eta René Cassin Saria ematea.</p> <p>·EiTBrekin sinatutako akordioa berritzea.</p>	<p>·Urriaren 10ean, Zinexit Topaketen hirugarren edizioa ospatu zen, migratzaileei eta errefuxiatuei buruzkoak aurtan.</p> <p>·Azaroaren 6tik 9ra, Zinexit, Bizikidetzarako Zinemaren 8. edizioa ospatu zen, "Zuk" dokumentalaren estreinaldiarekin. Bertan, Mediterraneoko krisi migratorioan euskal erakundeek egindako lana erakusten da.</p> <p>·Abenduaren hasieran sentsibilizazio-kanpaina garatu zen Abenduaren 10ean Giza Eskubideen nazioarteko eguna dela-eta.</p> <p>·Abenduaren 11n, René Cassin 2017ko Saria eman zitzaion Sexual Minorities Uganda (SMUG) erakundeari.</p> <p>·EiTBrekin akordio-zirriborroa prestatu da Legegintzaldi berrirako. 2018ko lehen seihilekorako aurreikusten da sinatzea.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, EiTBrekin akordioa sinatzea 2017ko bukaeratik 2018ko hasierara atzeratu baita.</p>
<p>·11. ekimena. Parte-hartzea</p>	<p>·Elkarteen Foroarekin hitzarmena sinatzea.</p> <p>·Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.</p> <p>·Aipaz eta FCP-rekin lankidetzan aritzeko ildoak diseinatzea.</p>	<p>·Elkarteen Foroekin akordio berri bat itxi da 2017aren amaieran.</p> <p>·Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen urteko deialdiari eutsi zaio.</p> <p>·Tokiko erakundeei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eutsi zaio, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekimenak garatu ditzaten.</p> <p>·Urriaren 23an, Bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruko proiektuak diruz laguntzera bideratutako laguntzak arautuko dituen Dekretu berriaren proiektua lantzeko prozedurari ekiteko Dekretua onartu zuen Lehendakariak.</p> <p>·2017an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkartearen sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzaren espazioak sustatzen dituen: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzaren.</p> <p>·Urriaren 19-20an, "Gizarte bidezko, bakezale eta inklusiboak sustatzea: 16. Garapen Iraunkorreko Helburua eta bere ezarpena" nazioarteko mintegia antolatu zen Madrilen eta Bilbon, Aipaz eta Cultura de Paz Fundazioaren eskutik, bi erakunde hauek garatzen duten "EAEren etorkizun baketsuaren alde" programaren barruan. Aipaz eta Cultura de Paz Fundazioarekin lankidetzaren espazioak sustatzea 2018ko lehen seihilekorako aurreikusten da.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Aipaz eta Cultura de Paz Fundazioarekin lankidetzaren espazioak sustatzea 2017ko bukaeratik 2018ko hasierara atzeratu baita.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
·12. ekimena. Lankidetzaren estrategia	·Ertzaintzarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena urtero eguneratzea. ·Hiru unibertsitateekin lan-programa eguneratzea. ·Gazteriaren Kontseiluarekin lan-programa eguneratzea. ·Lan eta Justizia Sailarekin lan partekaturako bide bat ezartzea.	·Legegintzaldi honetarako Ertzaintzarekin lankidetzaren eguneratze gestioak hasita, 2018ko lehen sei hilabetean zehaztea aurreikusten da. ·Irailan 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren esparruan, hiru euskal unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko konpromiso partekatua adostu zen. ·Urriaren 4ean, hiru euskal unibertsitateetako errektoreek Lehendakariarekin bilera eduki zuten 2018-2020 aldirako, ETaren indarkeriaren amaieraren testuinguruan, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan partekatuko dituzten konpromisoen oinarriak finkatzeko. ·Euskadiko Gaztediaren Kontseiluarekin Legegintzaldi berrirako lan-programa itxita. ·Lan-ildo honen garapena 2018rako proiektatzen da.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, zenbait lehen kudeaketaren egutegiak aurreikusitakoa baino epe zabalagoa behar izan baitute.
·13. ekimena. Nazioarteko ekintza	·Nazio Batuen memoranduma urtero eguneratzea.	·ACNUDHeko jardueretan lagundu da, urteko diru-laguntza nominatiboaren bitartez. Laguntza hori nazioarteko erakundearen urteko Memorian dago jasota. ·2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari lotutako dokumentuak partekatu dira Goi Komisarioaren hiru babes-mekanismoekin.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·14. ekimena. Elkarrizketa eta akordioa	·Nafarroako Gobernuarekin koordinaturik jardutea. ·Espainiako gobernuarekin hitz egiteko bideak ezartzea.	·2017an aldirako behingo koordinazio-lanetan jardun da Nafarroako Gobernuaren Bakegintza, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin. ·Terrorismoaren biktimen esparruan lankidetzarako bidea mantentzen da. ·Espetxe-politikaren eremuan ere elkarrizketarako bidea mantentzen da.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

4. Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2017-XII-31n
·15. ekimena. Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	·Herritarren ebaluazioarako adierazle-taula egitea.	·Planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako Adierazle-taula prestatu da bere garapenerako inguruko herritarren iritzia ezagutzeko alderako. Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin adostuta prestatu da lan hau. (Eranskin gisa dator)	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. 2017an Planaren programa bete den aztertzea

Planaren jarraipenaren urteko txostenak alderdirik kuantitatiboan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboaren alderdia, berriz, modu zehatzagoan lantzen da planaren ebaluazio orokorraren kanpo-txostenean, eta herritarren iritzia jakiteko bi ikerketa egitea ere aurreikusten da, aurrez zehaztutako adierazle-aula batean oinarrituta. Behin zehaztapen hori eginda, alderdi hauek dira azpimarratzekoak:

A. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen, 2017ko urriaren 11n. 2017ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan da, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, nabarmentzekoa da planean jasotako 15 ekimenak aktibatuta daudela une honetan dagoeneko, haien gauzape-maila berbera ez bada ere.

B. Planaren lan-egutegiaren betetze-maila oso altua da 2017ko abenduaren 31n, eta bi mailatan sailkatuta geratzen da: lehendabizikoan, planak dituen 15 ekimenetatik 11tan, 2017ko egutegian jasotako konpromisoak % 100 bete dira; bigarren mailan, eta egutegia egokitu egin delako, 3 ekimenen betetze-maila % 80 da eta beste batena % 60.

C. Aipatzekoa da egutegiko konpromisoak % 100 bete dituzten ekimenak zuzenean idazkaritzaren ekin-tzaren mende dauden ekimenak direla. Gainerako lau ekimenak, gauzatzen atzerapen mailaren bat izan dutenak, beste erakunde edo entitate batzuekiko interakzioak baldintzatzen ditu.

D. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak behar bezala bete du 2017rako gauzatzeko aurreikuspena, bai ikuspuntu orokorretik begiratuta bai arlo zehatzetan, aurreikusitako ekimen guztietan.

2. 2018rako aurreikuspen nagusiak

2018ari begira, Bizikidetzaren eta giza Eskubideen Planaren jarduketa-programak argi eta zehatz azaltzen du zer jarduera egin behar diren. Programa honen barruan eta euskal koiuntura soziopolitikoak zein den kontuan hartuta, hauek dira Planaren erronka nagusiak 2018an:

1. ETArekin aldebakarreko, benetako eta behin betiko desegitea gauzatzen laguntzea, eta, terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek sortutako minaren injustiziarik buruz hausnartzeko, guztion artean gogoeta kritikoa egiteko prozesua sustatzea.
2. Terrorismoaren biktimekin elkarriketa-, lankidetzak- eta akordio-esparruak sakontzen jarraitzea, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren bidez eta AVTrekin hitzartutako lankidetzak-akordioaren bidez.
3. Gogoraren jarduketa-programaren bidez eta haren Zuzendaritza Kontseiluaren bidez, ahalik eta kontsentsurik handiena sustatzea memoriaren politika publikoak bultzatzeko.
4. Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen legezketasuna eta konstituzionaltasuna defendatzea, eta legean jasotako Balorazio

Batzordea abian jartzea, bere aurreikuspenak garatu ditzan etenda ez dauden arlo guztietan, Konstituzio Epaitegiak Espainiako Gobernuak jarritako errekursoaren inguruko epaia eman artean.

5. Akordioak bultzatzea Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta parlamentuko taldeekin, espetxe-politikak bestelako norabide bat har dezan presoak hurbiltzeari eta erantzun humanitarioei dagokienez, eta, horrez gain, dekretu baten oinarriak ados daitezen, gizarteratzeko politika aktiboak legez garatzeko aukera emate aldera.

6. Bizikidetzaren arloan sortzen ari diren erronkei erantzuteko 2018rako aurreikusitako ekimenak abian jartzea: besteak beste, errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioari erantzuteko oinarrizko agiria egitea, Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 Gida Plana onartzea, Gurtza Aretoen Legea onartzea, Erljioen arteko Kontseilua eratzea edo Erljioa aitzakiatzat hartuta jarduten duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko Planaren gainerako aurreikuspenak abian jartzea.

7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza eta kultura sustatzeko arloan 2018rako aurreikusitako jarduerak egitea. Hezkuntza-arloan, bi aurreikuspen azpimarratu behar dira: batetik, Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa sortuko da Aieten eta, bestetik, zenbait hezkuntza-proiektu unibertsitate-esparruan sartuko dira, Adi-adian modulua esaterako, non biktimak hezitzaile diren. Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura sustatzeko esparruan, azpimarratzekoa da Giza Eskubideen 70. urteurrena oroitzeko EAEn egin den kanpainak izan duen erakundearteko bultzada, eta nabarmendu beharrekoa da azaroan nazioarteko kongresu bat egin izana.

3. Ondorioak

A. 2017an, ETaren armagabetzea gertatu zen, eta, 2018an, segur aski, behin betiko desagertuko da. Irekita dago eztabaida, terrorismoak eta indarkeriak eragindako minaren injustiziar buruz gogoeta kritikoa eta esplizitua egin beharraz, eta eztabaida saihestezina da, gainera. Biktimekin egindako lanari esker, topagune berriak sortzen ari dira. Memoria eta Bizikidetzaren Lantaldea lanean ari da Eusko Legebiltzarrean. Frantziako Gobernuak aldaketak egin ditu espetxe-politikan, eta Espainiako Gobernuak ontzat eman ditu. Logikoki, badira zailtasunak eta konponduko gabeko arazoak oraindik ere; baina bilakaera positiboa bizi dugu, *pixkana askatzen ari dira* iraganetik gure gaur egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak zuten korapilo nagusiak.

B. 2013-2016rako Planaren misioa gizartea elkartzea zen. 2017-2020rako Planaren misioa berbera da. Azaldu berri dugunez, bilakaera positiboa bizi dugu eta korapiloak askatzen ari dira, eta, testuinguru horretan, Eusko Jaurilaritzak Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bidez gizartea elkartzera bideratzen dituen politika publikoek lehentasun berbera izan behar dute: indarkeriari amaiera ordenatua emateko prozesua burutu dadin eta bizikidetzaren normalizazioa eta adiskidetzaren sendotzea dadin une honetan ditugun aldeko baldintzak bultzatzea eta indartzea.

C. Lehentasun hori jarduna arautzeko bi irizpide handitan banatzen da: kontsentsuan inbertitzea eta gizar-tean inbertitzea.

-Kontsentsuan inbertitzea da ordezkartza politiko eta parlamentario guztien artean akordio pluralak lortzea bizikidetzarako estrategikoak diren esparru guztietan: ETaren amaiera, iraganari buruzko gogoeta kritikoa, biktimak, memoria, espetxe-politika...

-Gizar-tean inbertitzeak, berriz, esan nahi du, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana garatuta, bizikidetzaren kultura sustatzea, abiapuntu harturik gehiengoaren borondate sozialak gai estrategiko berberen inguruan: ETaren amaiera, iraganari buruzko gogoeta kritikoa, biktimak, memoria, espetxe-politika...

D. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jasotako 15 ekimenei dagokienez, 2017rako aurreikuspenen arabera programa bete den aztertu da, eta balantzeak balorazio positiboa merezi du. 2018an, planaren kudeaketak eta bultzadak konpromisoak betetzeko bide berberari jarraitu behar dio, diziplinari eta zorrotasunari, eta are gehiago, gainera, kontuan izanda zer-nolako *bilakaera positiboa* bizi duen indarkeriaren amaiera ordenatuaren prozesuak eta bizikidetzaren integratua eta integratzailea sendotzeko prozesuak.

Horrekin batera, Planaren kudeaketak, jarduketa-programan bertan aurreikusita dagoenez, indarkeriaren amaieraren agenda horri erreparatzeaz gain, bizikidetzan sortzen ari diren erronken agenda garatu behar du, aniztasunaren kudeaketa positiboaren arloan eta elkartasunaren sustapenean.

2018ko otsailaren 6a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkaritza Nagusia

Eranskina

Herritarren ebaluazioa egiteko adierazle-taula

Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin adostuta prestatu dira adierazleak.

Adierazlea	Galdetegia antolatze aukera bat
1. Bake-prozesuak bizi duen unea.	<ul style="list-style-type: none"> ·Zure iritiz, zein egoeratan dago bake-prozesua? -Aurrera egiten ari da. -Ez atzera ez aurrera geratu da. -Atzera egiten ari da. -Ez daki/Ez du erantzun.
2. Eusko Jaurlaritzak bake-prozesuarekiko duen jardunaren balorazioa.	<ul style="list-style-type: none"> ·Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritza bake-prozesuarekiko izaten ari den jarduna? -Oso ongi. -Ongi. -Erdipurdi. -Gaizki. -Oso gaizki. -Ez daki/Ez du erantzun.
3. Indarrean dagoen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren helburuekin oro har duen adostasun maila.	<ul style="list-style-type: none"> ·Eusko Jaurlaritzak indarrean duen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren helburuekin ados zaude ala ez? -Nahikoa ados. -Ez ados eta ez desados. (ez irakurri) -Nahikoa desados. -Ez du entzun gai horri buruz hitz egiten edo ez du ezagutzen. (ez irakurri) -Ez daki/Ez du erantzun.
4. Gogora Institutuaren ezagutza.	<ul style="list-style-type: none"> ·Entzun duzu Gogora Memoria Institutuari buruz hitz egiten? -Bai. -Ez. -Ez daki/Ez du erantzun.
5. Gogora Institutuaren balorazioa.	<ul style="list-style-type: none"> ·Nola baloratzen duzu Gogora Institutua memoria gordetzeko eta transmititzeko egiten ari den jarduna? -Ongi. -Gaizki. -Ez ongi ez gaizki. -Ez daki/Ez du erantzun.

Adierazlea	Galdetegia antolatzeako aukera bat
6. Eusko Jaurlaritzak biktimen inguruan duen politikaren balorazioa.	<p>·Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzak biktimen inguruan egiten duen politika?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ongi. -Gaizki. -Ez ongi ez gaizki. -Ez du entzun gai horri buruz hitz egiten. -Ez daki/Ez du erantzun.
7. Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen alde egiten duen jardunaren balorazioa.	<p>·Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen alde egiten duen jarduna?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ongi. -Gaizki. -Ez ongi ez gaizki. -Ez du entzun gai horri buruz hitz egiten. -Ez daki/Ez du erantzun.
8. Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuen gaian duen jardunaren balorazioa.	<p>·Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuen gaian duen jarduna?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ongi. -Gaizki. -Ez ongi ez gaizki. -Ez du entzun gai horri buruz hitz egiten. -Ez daki/Ez du erantzun.
9. Eusko Jaurlaritzak nazioarteko terrorismoaren aurka duen jardunaren balorazioa.	<p>·Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzak nazioarteko terrorismoaren aurka duen jarduna?</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ongi. -Gaizki. -Ez ongi ez gaizki. -Ez du entzun gai horri buruz hitz egiten. -Ez daki/Ez du erantzun.

2018.urteari dagokion jarraipen-txosten

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko urriaren 10ean onartu zen Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez. Planak bere zeharkako ardatzean aipatzen ditu kudeaketarekin lotutako ekimenak (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa). Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio urtean behin planaren jarraipena egiteko ardura. Honela idatzita dago:

“Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du Sailarteko Batzordea eta planaren programaren eta egutegiaren betetze-mailaren jarraipena egiteko txostenak egin beharko ditu urtero.”

Horrenbestez, 2018ko martxoaren 2an eraturako batzorde horri dagokio jarraipen-txosten hau onartzea planeko ekimenei dagokienez eta, zehazki, urte honi bereziki lotuta dagoen gauzatze-konpromisoa duten horiei dagokienez. Horren ondorioz, bigarren jarraipen-txosten honek egiten du 2018an Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Txosten honek aipaturako Gobernu Kontseiluaren Akordioaren laugarren puntuan ezarritakoari jarraipena ematen dio. Honakoa dio: “2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa Gobernu Kontseilura eta Legebiltzarrera bidaliko da, jakinaren gainean egon daitezen”.

Horrekin batera, Planean ezartzen denez, jarraipen-lan horren osagarri izango dira eguneratze- eta ebaluazio-tresna hauek:

- Legegintzaldiaren erdian programa eguneratzeko dokumentua eta hurrengo bi urteetan jarduteko egutegia prestatzea.
- Legegintzaldiaren azkeneko urtean Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kanpo-ebaluazio osoaren txostena egiteko agintzea.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako adierazle-taula bat egitea, herritarrek planaren garapenari buruz zer iritzia duten jakiteko. (Adierazleen taula horretan oinarrituta, herritarrek planaren ebaluazioari buruz duten iritzia aztertzeke bi ikerketa egingo dira, 2018an eta 2020an).

Aurreko Legegintzaldiko metodologia berdina jarraituz, dokumentuaren lehenengo atalean, ageri den koa-droak Planaren jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabean Plana osatzen duten 15 ekimenen izenburuak jaso dira; bigarrenean, jarraipena egiten den urteko ekintzak, eta, azke-

nik, hirugarrenak ekimen horietako bakoitzaren garapen-maila deskribatzen du. Azken zutabeak 2018ko abenduaren 30ean ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen du, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proportzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatzen da: 2018ko abenduaren amaieran, aurreikuspenak %20, %40, %60, %80 edo %100 bete dira.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo urterako lehenetasunak eta jarduketara-ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Lehenengo atala

2018an Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
· 1. ekimena. ETAren armagabetzea eta desegitea	·Armagabetzea eta ETAren desegitea egiaztatzea babes-teko prozesuaren ebaluazioa.	·Maiatzaren 4ra bitartean, ETAren desegitea aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa izan zedin bere eskura zeuden jarduerak garatu zituzten Eusko Jaur-laritzako Lehendakariak eta Giza Eskubide, Biziki-detza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak. ·Uztailaren 4an, Uxue Barkos Nafarroako Foru Erki-degoko presidentek eta Iñigo Urkullu Lehendaka-riak ETAren amaiera dela eta adierazpen bateratua egin zuten, ETAren behin betiko desagertzea iragarri ondoren, bizikidetzaren finkatzeko partekatzen dituzten proposamenekin eta konpromisoekin.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
· 2. ekimena. Iraganari buruzko hausnar-keta kritikoa	·Oinarrizko propo-samenaren zirribo-rra egitea. ·Ahalik eta adosta-sun handiena lor-tzen saiatzea. ·Ekimena ebaluatu eta eguneratzea.	·Barne-eremuan oinarrizko proposamenaren zirribo-rra egiteko prozesuan aurrera egiten ari gara. Dena dela, bere garapena Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzaren Ponentziak ezarritako egutegiari moldatzen ari da. ·Eremu publikoan, testuinguru horretan, 2018an zehar Eusko Jaur-laritzaren esku-hartze publikoek behin eta berriro adierazi izan dute terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen inguruan hausnarketa kritikoa eta partekatua egiteko proze-suaren premia. ·Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzaren Ponentziaren lanaren erritmoaren arabera, ekimen honen ebaluazioa eta eguneratzea 2019ko bigarren seihile-kora atzeratu da.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Eusko Le-gebiltzarreko Memo-ria eta Bizikidetzaren Ponentziaren lanaren garapenaren zain.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·3. ekimena. Iragana argitzea	·Argitze-lanaren urteko programa zehaztea. ·Lan-programa kudeatzea.	·Argitze-lanaren 2018 eta 2019 urtetako programa zehaztu da. ·Martxoaren 24an, “1973ko martxoaren 24an hiru gazte coruñarren desagerpenari buruzko txostena” aurkeztu zen, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan sustatu duen <i>Giza Eskubideak, Txosten monografikoak eta kasu-azterketak</i> seriearen bigarren txostena. ·Ekainaren 6an, Legebiltzarrari entregatu zitzaion AVTk Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta eginiko “Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea” txostena.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
<p>·4. ekimena. Biktimak</p>	<p>·2018ko lan-programa.</p>	<p>·Urtarrilaren 19an, XI. Legegintzaldiko Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren laugarren bilera egin zen. Honen ondoren, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren beste hiru bilera egin dira: ekainaren 1ean, uztailaren 6an eta urriaren 19an.</p> <p>·Martxoaren 10ean, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta, Bilbon erakunde- eta gizarte-errekonozimendurako ekitaldia egin zen, terrorismoaren biktimei elkartasuna adierazteko. Leloa: "Fue injusto. Biktimak eta gizarteak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz".</p> <p>·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantendu dira.</p> <p>·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildoak mantendu egin da, bai eta biktimen elkarteei egindako laguntza izendunak ere.</p> <p>·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio.</p> <p>·Uztailaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen ondorioz sortutako Balorazio-Batzordearen lehen bilera.</p> <p>·Uztailaren 23an, 12/2016 Legearen aurka jarritako Konstituzio-kontrakotasuneko Errekurtsoan Espainiako Gobernuaren atzera egite akordioa.</p> <p>·Urriaren 2an, Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean, 12/2016 Legea aldatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioaren edukia azaldu asmoz.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
<p>·5 ekimena. Memoria</p>	<p>·Gogora Institutua-ren Jarduera-plana garatzea.</p>	<p>·Martxoaren 16an, Euskadik, Nafarroak eta beste 11 autonomia-erkidegok konpromisoa hartu zuten memoriarekin, sakontze demokratikorako tresna gisa, Iruñan egin zen Memoria Historikoaren Erkidegoen arteko Sarearen I. Topaketan.</p> <p>·Apirilaren 10ean, Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak 2018rako Kudeaketa Plana onetsi zuen.</p> <p>·Apirilaren 17an, Eusko Jaurlaritzak Duintasunaren Kolunbarioan DNA programaren bidez identifikatutako lehen pertsona hobiratu zuen.</p> <p>·Uztailaren 10ean, Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak beste bilera bat egin zuen non oniritzia eman zien Foru Aldundien lankidetzarako protokoloei, memoria historikoari dagozkion politikak koordintatzeko eta partekatzeko.</p> <p>·Uztailaren 18tik 21era, “Cuerpos incómodos: violencia masiva, fosas comunes y necropolítica” izenburua zeraman nazioarteko kongresua Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluak (CSIC), Aranzadi Zientzia Elkarteak, UPV/EHUK eta Gogora Institutuak antolatuta. Bere helburua: giza eskubideen urraketek loturik hobi komunitatik gorpuak ateratzeen analisi kritikoaren arloan ematen diren joera nagusiak eta berrienak aurkeztea eta munduko hainbat lekutan gorpuak hobitiki ateratzean gertatu diren kasu garrantzitsuenak aztertzea.</p> <p>·Irailaren 28an eta urriaren 28an, Gogora Institutuko Zuzendaritza Batzordeak beste bi bilera egin zituen. Azkeneko honetan 2019rako aurrekontuak onartu zituen.</p> <p>·Irailaren 29an, 1937ko udan Limpias-eko (Kantabria) hilerrian ehortzitako Gerra Zibilaren 86 biktima “gogoratzeko eta omenaldi egiteko” ekitaldian parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak, Kantabriako Gobernuak eta Asturiasko Gobernuak. Haien familiek inoiz ez zuten inolako informaziorik jaso ehorzketaz.</p> <p>·Urrian, “Emakumea eta Gerra Zibila” jardunaldiak Euskadiko Artxibo Historikoak eta Gogora Institutuak antolatuta, Gerra Zibilean emakumeek izan duten paper aktiboa jendarteratzeko beharrak eraginda.</p> <p>·Azaroaren 10ean, Memoriaren Egunaren ekitaldi nagusia Donostian Lehendakariaren eta terrorismoaren eta indarkeriaren bost biktimen parte-hartzearekin.</p> <p>·2018an Memoria Plaza ekimen ibiltaria ondorengo herrietan egon da: Irun, Beasain Mondragon Unibertsitatea, Amorebieta-Etxano, Laudio eta Deustuko Unibertsitatea.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·6. ekimena. Espetxe-politika	·Espetxe-politikari buruzko oinarrizko proposamena presatzea. ·Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea.	·Espainiako gobernu berriari proposamen hauek aurkeztu zaizkio: “Espetxe-politikaren berbideratzea partekatze akordio-proposamena” eta “Euskal presoak Presondegietan berkokatzeko irizpide-proposamena”. ·Eusko Jaurlaritza lanean jardun da bigarren seihilekoan, Espainiako Gobernuarekin zein Frantziakoarekin, gizarteratze- eta espetxe-politika berri bat bultzatzeko. ·2018ko bigarren seihilekorako aurreikusita zegoen ekimena, 2019ko lehen seihilekora atzeratu da. 2019ko lehen hiruhilekoan, lan-talde bat eratuko da Lan eta Justizia Sailarekin batera.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea 2019ra atzeratu delako.

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa posiboa	·Erlijioen arteko lan-programa aktibatzea. ·Gurtze-zentron Legea onestea. ·Tokiko gidaliburuaren eredia aurkeztu eta zabaltzea. ·Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.	·Apirilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak “Euskal erkidego islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko jarduketaren programa” onetsi zuen, “Jarduera Plana erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean plana”ri eginiko ekarpen eta proposamenak jasotzeko lau hileko aldia itxi ondoren. ·Apirilaren 14ean, ADOS Aholku Batzordea eratu zen, Euskadiko Erkidego Islamikoekin lankidetzan jarduteko. ·Ekainaren 23an, Euskadiko Erkidego Islamikoekin lankidetzan jarduteko ADOS Aholku Batzordearen bilera eta Arabako komunitate islamikoekin informazio-topaketa Gasteizen. ·Urriaren 6an, Euskadiko Erkidego Islamikoekin lankidetzan jarduteko ADOS Aholku Batzordearen bilera eta Bizkaiko komunitate islamikoekin informazio-topaketa Bilbon. ·Abenduaren 15ean, Euskadiko Erkidego Islamikoekin lankidetzan jarduteko ADOS Aholku Batzordearen bilera eta Gipuzkoako komunitate islamikoekin informazio-topaketa Donostian. ·Azaroan. Gurtze-zentron Legearen aurreproiektua Eudeli entzunaldi-izapidean dago. Parlamentura aurkezte 2019ko lehen seihilekorako aurreikusten da. ·2018ko azaroan bizikidetzan aniztasuna ezagutze eta haren gaineko pedagogia egiteko tokiko giden eredia lantzea eskatuta dago. ·Ekainaren 11n, EHAAn bizikidetzarako eta giza eskubideetarako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzen 2018ko deialdia argitaratu zen, Dekretu berriaren ondoriozkoa.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Gurtze-zentron Legearen izaipidea lantzen ari delako.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
<p>·9. ekimena. Hezkuntza</p>	<p>·Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.</p> <p>·Diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala sortzea.</p> <p>·Elkartasuna sustatzeko hezkuntza-materiala sortzea.</p> <p>·Gizalegez Akordioaren deialdia egitea.</p>	<p>·2018an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkarrekin sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzak-espazioak sustatzen dituenak: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.</p> <p>·Lehen urratsak eman dira diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala sortzeko. 2019ko lehen sei hilabeterako aurreikusten da aurkezpena.</p> <p>·Elkartasuna sustatzeko hezkuntza-materiala bukatze dago eta 2019ko otsailean aurkeztuko da.</p> <p>·Maiatzaren 11n, Gizalegez Akordioaren urteko bilera Donostian. Bertan "Adi-adian eta Memoria Plaza Programen 2017ko memoria eta 2018ko helburuak" txostena aurkeztu zen.</p> <p>·Azaroaren 19an, Gizalegez Akordioaren urteko bigarren bilera Bilbon. Bertan abian dauden egitasmoen buruzko informazioa emateaz gain, egitasmo berriak aurkeztu ziren.</p> <p>·Urriaren 11n, Memoria Hurbilari dagokion aldia Historia irakasgaiari sartzeko Herenegun! hezkuntza-programaren material osoa aurkeztu zen.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·10. ekimena. Dibulgazioa</p>	<p>·EITBekin sinatutako akordioa berritzea.</p> <p>·Zinexit 2017 garatzea.</p> <p>·Abenduaren 10eko kanpainak garatzea eta René Cassin Saria ematea.</p>	<p>·Maiatzaren 24ean, EITBk eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-akordioa sinatu zuten, elkarrekin jarraitzeko bake-kultura zabaltzen 2017-2020rako Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Planaren esparruan.</p> <p>·Urriaren 9an, Zinexit Topaketaren laugarren edizioa Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenaren gaia ardatz hartuta.</p> <p>·Azaroaren 19tik 23ra, Zinexit, Bizikidetzarako Zinemaren 9. edizioa ospatu zen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrenaren gaia ardatz hartuta baita ere.</p> <p>·Abenduaren hasieran sentsibilizazio-kanpaina garatu zen Abenduaren 10ean Giza Eskubideen nazioarteko eguna dela-eta.</p> <p>·Abenduaren 10ean, René Cassin 2018ko Sariak eman zitzaizkien Juan José Aguirre Muñoz Monsinoreari eta José Palazón Osmari.</p> <p>·Azaroaren 7tik 9ra, Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrarekin batera giza eskubideek XXI. mendean planteatzen dituzten erronka berrietan oinarritzen den Nazioarteko Kongresua antolatu zuen. "Eske-rak Giza Eskubideei" kanpainaren barruan kokatu zen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·11. ekimena. Parte-hartzea	<p>·Aipaz eta FCP-rekin lankidetzan aritzeko ildoak diseinatzea.</p> <p>·Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.</p>	<p>·Udaberrian, lankidetzako ildoak diseinatu ziren Aipaz eta Cultura de Paz fundazioarekin, XI. legegintzaldirako.</p> <p>·2018an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkarrekin sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzako espazioak sustatzen dituenak: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.</p>	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·12. ekimena. Lankidetzako estrategikoa	<p>·Ertzaintzarekin sinatutako lankidetzako hitzarmena urtero eguneratzea.</p> <p>·Gazteriarren Kontseiluarekin lan-programa eguneratzea.</p> <p>·Lan eta Justizia Sailarekin lan partekatutako bide bat ezartzea.</p>	<p>·Martxoan, lankidetzako esparrua adostu zen Ertzaintzarekin.</p> <p>·2018an, Euskadiko Gazte Kontseiluak lankidetzako hitzarmenaren edukia aurreikusitakoarekin bat etorri garatu du eta, horretarako, giza eskubideen agenda berriari lotutako gaiak heldu die.</p> <p>·Lan-ildo honen garapena 2019rako proiektatzen da.</p>	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·13. ekimena. Nazioarteko ekintza	<p>·Nazio Batuen memoranduma urtero eguneratzea.</p> <p>·Peace Programme erakundeekin lankidetzan aritzeko aukera aztertzea.</p> <p>·Giza Eskubideen Defendatzaileen Programaren urtero eguneratzea.</p> <p>·Euskal kasuari buruzko oinarriko dokumentua prestatzea.</p>	<p>·ACNUDHeko jardueretan lagundu da, urteko diru-laguntza nominatiboaren bitartez. Laguntza hori nazioarteko erakundearen urteko Memorian dago jasota.</p> <p>·Brexitekin kontuarekin sortutako ziurgabetasunak direla medio, ekimen hau etenaldian dago, Peace Programme ekimena zertan den argitu arte.</p> <p>·Urtarrilaren 22an, Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko programara heltzeko 2018rako deialdia jarri zen abian.</p> <p>·Irailaren 17an, Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko programara heltzeko 2019rako deialdiaren abian jarzea.</p> <p>·2018ko bigarren seihilekoan, "2019-2020 Programa. Giza Eskubideen alorrean Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Jardueraren Lehentasunak" txostena prestatu da non euskal kasuari buruzko oinarriko dokumentuaren abiapuntuak ezartzen diren.</p>	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·14. ekimena. Elkarrizketa eta akordioa	<ul style="list-style-type: none"> ·Koordinazio batzordearen eta Foru Aldundiek eta Eudelek osatutako Mahaiaren proposamena prestatzea. ·Koordinazio Batzordea martxan jarzea. ·Foru Aldundiek eta Eudelek osatutako Mahaia martxan jarzea. ·Instituzioarteko lan-mahaia martxan jarzea. ·Nafarroako Gobernuarekin koordinaturik jardutea. ·Espainiako Gobernuarekin hitz egiteko bideak ezartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·2018ko lehen seihilekoan, Koordinazio batzordearen eta Foru Aldundiek, Eudelek osatutako Mahaiaren eta erakundearteko lan-mahaiaren proposamena prestatu zen. ·Ekainaren 29an, komunikazio eta koordinazio batzordea eratu zen Eusko Jaurjaritzarekin eta Legebiltzarreko taldeekin, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan. 2018an zehar bi bilera egin dira. ·Ekainaren 28an, Hiru foru-aldundiekin eta EUDELekin lan-mahaia eratu zen, bizikidetzaren eta giza eskubideen agendari buruzko politikak bateratzeko. 2018an zehar bi bilera egin dira. ·Ekainaren 28an, erakundearteko lan-mahaia eratu zen, giza eskubideak urratzeko arrisku larria duten egoerak hautemateko. 2018an zehar lau bilera egin dira. ·2018an aldian behingo koordinazio-lanetan jardun da Nafarroako Gobernuak Bakegintza, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin. ·Espainian gobernu-aldaketa eman zenetik, 2018ko ekainean, komunikazio-bide jarriak mantentzen dira bai espetze-polikaren gaiari dagokionez baita errefuxiatuen harrerari dagokionez ere. 	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

4. Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2018-XII-31n
·15. ekimena. Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	<ul style="list-style-type: none"> ·Sailarteko Batzordea osatzea. ·Aholku Batzordea osatzea. ·Jarduera-programa eguneratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Martxoaren 2an, Sailarteko Batzordea eratu eta hiru lantalde sortu ziren: espetze-politikari buruzko lantaldea, erlijioarteko elkarrizketa eta lankidetzarako lantaldea, eta giza eskubideak urratzeko arrisku larria duten egoerak hautemateko lantaldea. ·Uztailaren 6an, Aholku Batzordea eratu zen eta XI. Legegintzaldiko bilera egin zuen. ·Jarduera-programaren eguneratzea eranskin gisa aurkezten da txosten honetan. 	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. 2018an Planaren programa bete den aztertzea

Planaren jarraipenaren urteko txostenak alderdirik kuantitatiboan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboaren alderdia, berriz, modu zehatzagoan lantzen da planaren ebaluazio orokorraren kanpo-txostenean, eta herritarren iritzia jakiteko bi ikerketa egitea ere aurreikusten da, aurrez zehaztutako adierazle-taula batean oinarrituta. Behin zehaztaper hori eginda, alderdi hauek dira azpimarratzekoak:

A. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen, 2017ko urriaren 11n. 2018ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan da, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, nabarmentzekoa da planean jasotako 15 ekimenak aktibatuta daudela une honetan dagoeneko, haien gauzapen-maila berbera ez bada ere.

B. Planaren lan-egutegien betetze-maila oso altua da 2018ko abenduaren 31n, eta bi mailatan sailkatuta geratzen da: lehendabizikoan, planak dituen 15 ekimenetatik 12tan, 2018ko egutegian jasotako konpromisoak %100 bete dira; bigarren mailan, eta egutegia egokitu egin delako, 3 ekimenen betetze-maila %80 da.

C. Aipatzekoa da egutegiko konpromisoak %100 bete dituzten ekimenak zuzenean idazkaritzaren ekin-tzaren mende dauden ekimenak direla. Gainerako hiru ekimenak, gauzatzen atzerapen mailaren bat izan dutenak, beste erakunde edo entitate batzuekiko interakzioak egutegiak baldintzatzen ditu.

D. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak behar bezala bete du 2018rako gauzate-aurreikuspena, bai ikuspuntu orokorretik begiraturata bai arlo zehatzetan, aurreikusitako ekimen guztietan.

2. 2019rako aurreikuspen nagusiak

2019ari begira, Bizikidetzaren eta giza Eskubideen Planaren jarduketa-programak argi eta zehatz azaltzen du zer jarduera egin behar diren. Programa honen barruan eta euskal koiuntura soziopolitikoak zein den kontuan hartuta, hauek dira Planaren erronka nagusiak 2019an:

1. ETAREN desagite aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa gauzatu ondoren jarduera-ardatz estrategiko bat terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek sotutako minaren bidegabekeriari buruzko gogoeta kritikoaren prozesu partekatua bultzatzen jarraitzea da, zailtasunak eta erresistentziak egon arren.
2. Terrorismoaren biktimekin elkarrizketa-, lankidetzeta- eta akordio-esparruak sakontzen jarraitzea.
3. Gogora Institutuaren jarduketa-programaren bidez eta haren Zuzendaritza Kontseiluaren bidez, ahalik eta kontsentsurik handiena sustatzea memoriaren politika publikoak bultzatzeko.
4. Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legea garatzea, Legearen aurka jarritako Konstituzio-kontrakotasuneko Errekurtsoan atzera egiterakoan Espainiako Gobernuarekin legearen ataletan adostutako aldaketak Eusko Legebiltzarrean behin onartuta.
5. Akordioak bultzatzea Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta parlamentuko taldeekin, espetze-politikak bestelako norabide bat har dezan presoak hurbiltzeari eta erantzun humanitarioei dagokienez, eta, horrez gain, dekretu baten oinarriak ados daitezen, gizarteratzeko politika aktiboak legez garatzeko aukera emate aldera.

6. Bizikidetzaren arloan sortzen ari diren erronkei erantzuteko 2019rako aurreikusitako ekimenak abian jartzea: besteak beste, errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioari erantzuna, Migraziorako Euskal Itun Soziala bultzatzea, Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 Gida Plana garatzea, Gurtza Aretoen Legea onartzea, Erljioen arteko Kontseilua eratzea edo Erljioa aitzakiatzat hartuta jarduten duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko Planaren gainerako aurreikuspenak abian jartzea bizikidetzara sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoarekin batera.

7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza eta kultura sustatzeko arloan 2019rako aurreikusitako jarduerak egitea. Hezkuntza-arloan, bi aurreikuspen azpimarratu behar dira: batetik, erradikalizazio biolentoaren prebentziorako hezkuntza-moduluaren esperientzia pilotua; eta, bestetik, elkartasunaren zentzuan hezteko “Mundua eskolan–Eskola Munduan” izeneko esku-hartze proposamen pedagogikoaren aurkezpena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera.

3. Ondorioak

3.1. Diagnostikoa. Bakearen eta bizikidetzaren ikuspegitik, 2018ko gertakari handia ETaren desegite aldeakarra, eraginkorra eta behin betikoa izan da. Horrekin batera, urruntze espetxe-politikan hasiberria den aldaketa azpimarratu behar da, Frantziako Gobernuaren zein Espainiako Gobernuaren aldetik. Era berean, Estatuko erakunde ezegonkortasunak, Espainiako Gobernuaren aldaketak eta lurraldetasun-krisiak kolpatuta egon da 2018. urtea.

2011tik, indarkeriaren amaiera ordenatuaren eta gizartea elkartzearen prozesua sendotu egin da modu atzeraezinean. Oraindik gai garrantzitsuak eta konpondu gabeko arazoak geratzen diren arren, egoeraren hobetzea objektiboki egiaztagarria da. Gauzak horrela, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketak, 2019an, gizartearen gehiengoaren borondateen bultzada eta indarkeriaren amaieraren eta bizikidetzaren normalizazioaren eboluzio positiboaren eta egiaztagarriaren joera dauzka bere alde.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren helburuekiko aldeko joera honek, hala ere, eboluzio positibo hau baldintzatzen duten hiru faktore izango ditu bizikide:

- Krispazio politikoaren giroa eta testuingurua Estatuan. Euskadin bakearekin zein bizikidetzarekin harremana duten gaiak karrankaren suan erretzeko materiala bilakatzen den baldintza.
- Indarkeriaren ondorengo garaiaren kudeaketaren lehentasuna galtzea eztabaida politikoan eta iritzi publikoan. Garrantzia kentzera eta bizikidetzarako agendaren ekintza estrategikoak atzeratzera, edo horiekin espekulatzera.
- Iraganari buruzko gogoeta kritiko orokorra adosteko zailtasunak, esplizituki ETA barne hartuta, indar politiko guztiek partekatuko dutena. Bizikidetzaren normalizaziorako eremu estrategikoetan aurrerapen handiagoak eragozten dituen oztopoa.

3.2. Lehentasuna eta irizpideak. 2013-2016rako Planaren misioa gizartea elkartzea zen. 2017-2020rako Planaren misioa berbera da. Azaldu berri dugunez, bilakaera positiboaren testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bidez gizartea elkartzera bideratzen dituen politika publikoek lehentasun berbera izan behar dute: indarkeriari amaiera ordenatua emateko prozesua burutu dadin eta bizikidetzaren normalizazioa eta adiskidetzea sendotu dadin aldeko baldintzak sortzen jarraitzea.

Lehentasun hori jarduna arautzeko bi irizpide handitan banatzen da: kontsentsuan inbertitzea eta gizartean inbertitzea.

- Kontsentsuan inbertitzea da ordezkartza politiko eta parlamentario guztien artean akordio pluralak lortzea bizikidetzarako estrategikoak diren esparru guztietan.
- Gizartean inbertitzeak, berriz, esan nahi du, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana garatuta, bizikidetzaren kultura sustatzea, abiapuntu harturik gehiengoaren borondate sozialak gai estrategiko berberen inguruan.

3.3. Ibilbide orria. 2013-2016rako Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zenetik, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz adierazi du bakearen eta bizikidetzaren finkatzeak hiru gai nagusi zeuzkan egiteke: ETAREN arma-gabetzea eta desegitea, iraganaren memoria kritikoa eta espetxe-politika.

2018ko maiatzaren 4ean, ETAREN desegite aldebakarra, eraginkorra eta behin betikoa berretsi ondoren, Uxue Barkos Nafarroako Foru Komunitateko Presidenteak eta Iñigo Urkullu Lehendakariak, Bertizko Adierazpena aurkeztu zuten elkarrekin, testuinguru berrian egiteke zeuden lehentasunak identifikatzen zuen diagnostikoa.

Dokumentu hark bi denbora-eremutan egituratu zuen bere diagnostikoa: urratsak epe laburrera eta urratsak epe ertainera begira.

A. Beharrezko urratsak epe laburrera

ETA behin betiko amaitzearekin harreman zuzena dute, eta bi helburu autonomotan irudikatzen dira:

-Gogoeta kritikoa. Iraganari buruzko gogoeta kritiko globala, ETAREN indarkeria esplizituki barne hartuz, indar politiko guztiek, lehen aldiz, partekatuko dutena.

-Espetxe-politika. Espetxe-politika testuinguru berrira egokitzeari buruzko adostasuna, behin betiko indar politiko guztiak hartuko dituena.

Epe laburreko bi adostasun hauek lortzeak oztupoak ezabatzen ditu eta baldintza aldekoak eta egokiak sortzen ditu epe ertainera helburu estrategikoetan aurrera egiteko.

B. Beharrezko urratsak epe ertainera begira

Harreman zuzena dute bizikidetzaren normalizazio estrategikoarekin eta Gizartea Elkartzearen helburuarekin hiru xede nagusi lortzera begira:

-Memoria. Giza eskubideen urraketan inguruan gertatutakoa argitzean oinarritutako memoria anitza eta partekatua sendotzea.

-Biktimak. Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan biktima guztiak aitortzeko eta erreparatzeko politika publikoak bultzatzea.

-Hezkuntza. Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntza eta kultura sustatzea, prebentzio moduan, erronka berrien eta etorkizunaren aurrean.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarraipen-txosten honek –2018an egindakoan oinarritzen dena eta 2019rako asmoen programa proiektatzen duenak– bereak egiten ditu, ibilbide-orri gisa, Bertizko Adierazpenaren ondorioak beren garrantziagatik eta iraunaldiagatik.

4. Azken ondorioa. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jasotako 15 ekimenei dagokienez, 2018rako aurreikuspenen arabera programa bete den aztertu da, eta balantzeak balorazio positiboa merezi du. 2019an, planaren kudeaketak eta bultzadak konpromisoak betetzeko diziplina- eta zorrotasun-bide berbera jarraitu behar du. Horrekin batera, Planaren kudeaketak, jarduketaren programan bertan aurreikusita dagoenez, indarkeriaren amaieraren agenda horri erreparatzeaz gain, bizikidetzan sortzen ari diren erronken agenda garatu behar du, aniztasunaren kudeaketa positiboaren arloan eta elkartasunaren sustapenean.

2019ko urtarrilaren 8a

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkaritza Nagusia

1. erankina

Jarduera-programa eguneratzea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana, bere 15. ekimenean bost lan-ildo ezartzen ditu kudeaketa-lana (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa) sendotzeko. Hirugarren lan-ildoak adierazten du "Legegintzaldiaren erdian programa eguneratzeko dokumentua eta hurrengo bi urteetan jarduteko egutegia proposatzea" egingo dela. Eranskin honek aurreikuspen hori betetzera dator.

1. Betetze-maila

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren bigarren urtea amaitzerakoan, bere egutegiaren konpromisoen betetze-maila altua egiaztatu daiteke. Ondorioz, aurreikuspenen doikuntza hiru ekimenei dagokie.

2. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren aurreikuspenetan egutegi-doikuntza

2.1. 2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa

3. ekintza. Ekimena ebaluatu eta eguneratzea

·"Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa 2. ekimenaren" edukia ekintza zehatz batean islatzen zen: iraganean giza eskubideen urraketa, indarkeriaren legitimizazioa edo biktimekiko sentiberatasun falta eragin duen gauza ororen inguruko hausnarketa kritikorako dokumentu bat egitea. Akordio batera iristea eta ostean gizartean eta hezkuntza- eta unibertsitate-esparruan zabaltzea izango litzateke dokumentu horren helburua.

·Ekimen hau ebaluatzea eta eguneratzea 2018ko bigarren seihilekorako eta egoki zenerako zegoen aurreikusita, eta orain 2019ko bigarren seihilekorako proiektatzen da.

2.2. 6. ekimena. Espetxe-politika

3. ekintza. Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea

·Espetxe-politikaren eremuan Eusko Jaurlaritzaren jarduera-programak proposatzen zituen aurreikuspenen artean, Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan, Europar zabaltzen ari den justizia leheneratzailearen ildo beretik, gizarteratzeko politika publikoak arautzen eta sustatzen dituen dekretu bat onetsi eta garatzea zegoen. Dekretu honek Eusko Jaurlaritzak 2016ko ekainaren 18an Donostian egin zen Justizia Leheneratzailearen Europako Kongresuan aurkeztu zuen Dekretuaren zirriborroa hartuko da oinarri modura. Konstituzioak berriro hezteko eta berriro sozializatzeko funtzioa ezartzen du espetxe-zigorretarako, eta funtzio horretara bideratuko da Dekretuaren edukia. Horrekin batera, Langraiz Bidearen eta bere testigantza autokritikoen esperientzia izango du kontuan.

·Gizarteratzeko Dekretua bultzatzearen ekintza hau 2018rako aurreikusita zegoen eta 2019ko lehen seihilekorako proiektatzen da.

2.3. 7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa

2. ekintza. Gurtze-zentroen Legea onestea

·2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren 7. ekimenean jasotzen zen, aniztasunaren kudeaketa positiboaren arloan, garatu beharreko lan-programaren lau jarduera-ildoetako batean jasota zegoen gurtza-zentroeiei buruzko lege bat onetsiko litzatekeela, aurreko bi legegintzaldietan egindako lanean oinarrituta.

·Ekintza hau 2018rako aurreikusita zegoen eta, une honetan, 2019ko lehen seihilekorako proiektatzen da Legebiltzarrean aurkeztea.

2019. urteari dagokion jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko urriaren 10ean onartu zen Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez. Planak bere zeharkako ardatzean aipatzen ditu kudeaketarekin lotutako ekimenak (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa). Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio urtean behin planaren jarraipena egiteko ardura. Honela idatzita dago:

“Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du Sailarteko Batzordea eta Planaren programaren eta egutegiaren betetze-mailaren jarraipena egiteko txostenak egin beharko ditu urtero.”

Horrenbestez, 2018ko martxoaren 2an eraturako batzorde horri dagokio jarraipen-txosten hau onartzea Planeko ekimenei dagokienez eta, zehazki, urte honi bereziki lotuta dagoen gauzatze-konpromisoa duten horiei dagokienez. Horren ondorioz, hirugarren jarraipen-txosten honek egiten du 2019an Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Txosten honek aipaturako Gobernu Kontseiluaren Akordioaren laugarren puntuan ezarritakoari jarraipena ematen dio. Honakoa dio: “2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa Gobernu Kontseilura eta Legebiltzarrera bidaliko da, jakinaren gainean egon daitezen”.

Horrekin batera, Planean ezartzen denez, jarraipen-lan horren osagarri izango dira eguneratze- eta ebaluazio-tresna hauek:

- Legegintzaldiaren erdian programa eguneratzeko dokumentua eta hurrengo bi urteetan jarduteko egutegia prestatzea.
- Legegintzaldiaren azkeneko urtean Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kanpo-ebaluazio osoaren txostena egiteko agintzea.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako adierazle-taula bat egitea, herritarrek planaren garapenari buruz zer iritzi duten jakiteko. (Adierazleentzako taula horretan oinarrituta, herritarrek planaren ebaluazioari buruz duten iritzia aztertze- eta ikerketa-egingo dira, 2018an eta 2020an).

Aurreko Legegintzaldiko metodologia berdina jarraituz, dokumentuaren lehenengo atalean, ageri den koa-droak Planaren jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabea Plana osatzen duten 15 ekimenen izenburuak jaso dira; bigarren, jarraipena egiten den urteko ekintzak, eta, azkenik, hirugarren, ekimen horietako bakoitzaren garapen-maila deskribatzen du. Azken zutabeak 2019ko abenduaren 30ean ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen du, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proporzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatuta: 2019ko abenduaren amaieran, %20, %40, %60, %80 edo %100.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo urterako lehentasunak eta jarduketak ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Lehenengo atala

2019an Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
·1. ekimena. ETaren armagabetzea eta desegitea	·ETaren armagabetzea eta desegitea egiaztatzea babes-teko prozesuaren ebaluazioa.	·Urriaren 14ean, "Eusko Jaurlaritzak ETaren armagabetzean eta desegitean izandako zereginaren deskribapena eta balorazioa" txostena aurkeztu zen.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa	·Oinarrizko proposamenaren zirriborroa egitea. ·Ahalik eta adostasun handiena lortzen saiatzea. ·Ekimena ebaluatzea eta eguneratzea.	·Barne-eremuan oinarrizko proposamenaren zirriborroa egiteko prozesuan aurrera egiten ari gara. Dena dela, bere garapena Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzaren Ponentziak ezarritako egutegiari moldatzen ari da. ·Eremu publikoan, testuinguru horretan, 2019an zehar Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze publikoek behin eta berriro adierazi izan dute terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen inguruan hausnarketa kritikoa eta partekatua egiteko prozesuaren premia. ·Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzaren Ponentziaren lanaren erritmoaren arabera, ekimen honen ebaluazioa eta eguneratzea 2020ko bigarren hiruhilekora atzeratu da.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzaren Ponentziaren lanaren garapenaren zain.
·3. ekimena. Iragana argitzea	·Argitze-lanaren urteko programa zehaztea. ·Lan-programa kudeatzea.	·Argitze-lanaren 2019 urteko lan-programa zehaztu da. ·Uztailaren 12an, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egindako "Jazarpen indarkeria pairatutako zinegotziek jasan zuten bidegabekeriari buruzko txostena (1991-2011)" aurkeztu zen.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·4. ekimena. Biktimak</p>	<p>·2019ko lan-programa.</p>	<p>·Urtarrilaren 25ean, XI. Legegintzaldiko Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren laugarren bilera egin zen. Honen ondoren, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren beste bi bilera egin dira: ekainaren 7an eta urriaren 18an.</p> <p>·Martxoaren 11n, Terrorismoaren Biktimen Europa-ko Eguna dela-eta antolatutako ekitaldia Donostian, "Bidegabea izan zen. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz" lelopean.</p> <p>·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantendu dira.</p> <p>·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildo mantendu egin da, bai eta biktimen elkarteei egindako laguntza izendunak ere.</p> <p>·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio.</p> <p>·Apirilaren 4ean, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, aldatzeko 5/2019 Legearen, apirilaren 4koa, onarpena.</p> <p>·Apirilaren 9an, Fermin Monasterioren oroitzapen eta omenaldi-ekitaldia, ETAk hil zuenetik 50 urte bete zirenean.</p> <p>·Ekianaren 2an, Lehendakariak 'Hemen Gaude', Arkauteko Euskal Poliziaren Museoan ETArekin biktima izandako ertzainak betiko gogoan izateko gunerria, inauguratu zuen.</p> <p>·Irailaren 27an ireki zen 12/2016 Legeak aurreikusten duen erreparazio-eskaerak aurkezteko epea.</p> <p>·Urriaren 3an, 1969an Polizia Armatuaren tiroek hildako Antonio Fernandez eta Josu Murueta omentzeko ekitaldia.</p> <p>·Azaroaren 18an, Lehendakariak eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteko presidentek "beldurrik gabe bizitza/memoriarekin bizitza" erakusketa inauguratu zuten.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·5 ekimena. Memoria</p>	<p>·Gogora Institutuaren Jarduera-plana garatzea.</p>	<p>·Urtarrilaren 10ean, Lehendakariak familiartekoei entregatu zizkien Zeanurin lurpetik ateratako bost milizianoren gorpuzkiak. Horietako hiru une hartan zeramaten txapako zenbakiari esker identifikatu ziren eta beste biak DNA probaren bidez.</p> <p>·Ekainaren 8an, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Bilboko defentsa-lerroan 1937an erori zen Gudari baten gorpuzkiak berreskuratu zituzten.</p> <p>·Ekainaren 10ean, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutuak "Erorien haranera" Euskaditik eramandakoei eta beste erkidegoetatik lekualdatutako euskal herritarrei buruzko txostena helarazi zion Legebiltzarrari.</p> <p>·Uztailaren 3an, "Gerra Zibilean eta frankismoan Euskadin izandako giza eskubideen urraketei buruzko Oinarrizko Txostenaren lehen fasea: Gerra Zibilean eta lehen frankismoan izandako hildakoak (1936-1945)" txostena aurkeztu zen.</p> <p>·Irailaren 24ean, Gobernu Kontseiluak Memoria Historikoaren Legearen aurreproiektuaren zirriborroaren berri jaso zuen, eta zirriborria izapidetzen hasiko da.</p> <p>·Urriaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Euskadin sinbologia frankista kentzearen egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen.</p> <p>·Urriaren 30ean, Lehendakariak Buenos Airesko ESMA Memoriaren Gune Museoko arduradunei harrera egin zien. Gogora Institutuaren nazioarteko lehen ekimena, Euskadin beste herrialde batean egindako memoriaren eraikuntza ezagutzeko eta zabaltzeko. Gogora Institutuak erakusketa zabaldu zuen Argentinako diktaduran izandako genero-indarkeriaren eta sexu-delituen testigantzekin.</p> <p>·Azaroaren 23an, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Gerra Zibileko beste bi borrokalariren gorpuzkiak berreskuratu zituzten Gamiz-Fikan.</p> <p>·Abenduaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak, Lehendakaria buru zuen aitortza-ekitaldi batean, erbestean egondako Jose Antonio Agirre eta Jesus M^a Leizaola Lehendakariak omendu zituen, lehenengo Eusko Jaurlaritza erbesteratu zeneko 80. urteurrenean, Agirre Lehendakaria buru zela, eta Leizaola Lehendakaria Euskadira itzuli zeneko 40. urteurrenean.</p> <p>·2019an Memoria Plaza ekimen ibiltaria Euskal Herriko Unibertsitatean eta Basaurin egon da.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
·6. ekimena. Espetxe-politika	·Espetxe-politikari buruzko oinarritzko proposamena presatzea. ·Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea.	·Eusko Jaurilaritza lanean jardun da 2019an, Espainiako Gobernuarekin zein Frantziakoarekin, gizarteratze- eta espetxe-politika berri bat bultzatzeko. Nolanahi ere, Espainiako Gobernua ia urte osoan jardunean egon izanak ekimen hori gehiago garatzea eragotzi du. ·2019an lantalde bat sortu da Lan eta Justizia Sailarekin, gizarteratzeko politika publikoen esparru bat aurreikusteko, justizia leheneratzailearen Europako korrontearekin bat etorritz.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Gizarteratzeko Dekretua bultzatzea 2020ra atzeratu delako.

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
·7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa	·Erljioen arteko lan-programa aktibatzea. ·Kultu-zentrozen Legea onestea. ·Tokiko gidaliburuaren eredia aurkeztea eta zabaltzea.	·2019an, ADOS Aholku Batzordea lau aldiz bildu da. ·2019ko urtarrilaren 26an, ADOS Batzordeak World-Tea bat antolatu zuen, eta zenbait komunitate islamikotako 55 pertsona inguru bertaratu ziren, Egungo errealitateari eta komunitate islamikoek euskal gizartean dituzten bizikidetzaren ikuspegiari buruzko eta Euskadiko herritar musulmanen kezkei eta aldarrikapenei buruzko txosten kualitatiboaren emaitzak kontrastatzeko. ·2019an zehar, esperientzia pilotu bat jarri da abian Euskadiko 3 meskitatan, euskal gizartean sustraitutako islam bat lortzeko. ·ADOS Batzordeak bi komunikatu argitaratu ditu, joan den martxoaren 15ean Christchurch hiriko bi meskiten aurka eta 2019ko urriaren 28an Baionako meskita baten aurka egindako atentatuen gaitzespena adieraziz. ·Ekainaren 25ean, Gobernu Kontseiluak onartu eta Legebiltzarrerara bidali zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-leku edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Lege-proiektua. ·2019ko lehen seihilekoan bizikidetzan aniztasuna ezagutzeko eta haren gaineko pedagogia egiteko tokiko giden eredia aurkeztea aurreikusten da.	·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da, Kultu-lekuei edo-zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legearen inguruko atzerapenengatik.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·8. ekimena. Elkartasunaren sustapena</p>	<p>·Esparru-dokumentua garatzea.</p>	<p>·2019an zehar, Errefuxiatuen egoerari erantzuteko Lan Mahaiaren lau bilera egin dira.</p> <p>·Martxoaren 20an, Gobernu Kontseiluak diru-laguntza ematea baimendu zuen Salvamento Marítimo Humanitario-SMHGKEari, AitaMariZubia#MAYDAYTERRANEO2019 proiekturako.</p> <p>·Maiatzaren 6an, Share Proposamena aurkeztu zuten aldi berean Europako estatuz azpiko gobernuek erronka migratzaileari elkarlanean erantzuteko.</p> <p>·Maiatzaren 28an, CEAR Euskadi erakundeari dirulaguntza, Euskadin nazioarteko babesaren eskatzen duten eta Oñatiko Larraña Etxea lehen harrerako zentroan beren egoera argitu arte dauden pertsona eta familiei arreta, orientazioa eta laguntza emateko.</p> <p>·Ekainaren 3an, Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko 2019ko Kontingentzia Plana aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak.</p> <p>·Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunarekin bat etorri, Eusko Jaurlaritzak, Espainako Gobernuak, UNHCRrek, Euskadiko Caritasek eta Euskal Herriko Jesuiten plataformak nazioarteko babesaren onuradun diren pertsonen harreraren eta integrazioaren arloan jada martxan dagoen Babes Komunitarioko Esperientzia Pilotuaren Hitzarmena sinatu zuten.</p> <p>·Ekainaren 25ean, Migrazioaren erronkari aurre egiteko Euskadin abian jarritako politiken aurkezpena Bruselan, migratzaileak eta errefuxiatuak lurralde txikietan integrazteari buruz antolatutako Mintegian.</p> <p>·Abuztuaren 28an, Lehendakariak SHARE migrazio-erronkari erantzuteko konpromisoa hartzea planteatzen duen Proposamena aurkeztu zuen Vatikanon.</p> <p>·Irailaren 25ean, Lehendakariak UNHCRren Espainiako ordezkaria hartu zuen. Honek eskerrak eman nahi izan zizkion Euskadin babes komunitarioa duten errefuxiatuei harrera egiteko lehen proiektu pilotua abian jartzeko elkartasuna eta konpromisoa adierazteagatik.</p> <p>·Urriaren 1ean, diru-laguntza bat eman zitzaion CEAR Euskadiri, Tolosako lehen harrerako Zuloaga Txiki aterpetxean arreta emateko.</p> <p>·Azaroaren 30ean, Migrazioarako Euskal Itun Soziala aurkeztu zen, euskal gizarte-erakunde eta instituzioek adostutako migrazioarako harrera- eta integrazio-esparru bat.</p> <p>·Abenduaren 4ean, Eusko Jaurlaritzak hurrengo urratsak adostu zituen estatuz azpiko gobernuekin eta Europako erakundeekin Share Proposamenaren inguruan.</p> <p>·Abenduaren 17an eta 18an, Global Refugge Forumean parte hartzea Genevan, errefuxiatuen eta nazioarteko babesaren onuradunen harreraren eta integrazioaren arloko Babes Komunitarioaren esperientzia pilotua aurkezteko.</p> <p>·2019an zuzeneko diru-laguntzak eman zaizkie Unicef Comité Español (200.000 €), UNHCR (150.000 €), Save The Children (300.000 €) eta Zaporeak (150.000 €) erakundeei, laguntza humanitarioko hainbat proiektu garatzeko.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·9. ekimena. Hezkuntza</p>	<p>·Elkarrekin bonu-programa bultzatzea eta indartzea.</p> <p>·Diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala sortzea.</p> <p>·Gizalegez Akordioaren deialdia egitea.</p> <p>·Beste ekimenak.</p>	<p>·2019an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkarrekin sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzak-espazioak sustatzen dituen: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.</p> <p>·Ekainaren 6an, Donostiako Kursoalean Erradikalizazio biolentoaren prebentziorako Nazioarteko Mintegia antolatu zen eta bertan Eusko Jaurlaritzak Uztartu Programa aurkeztu zuen.</p> <p>·Martxoaren 22n, Gizalegez Akordioaren urteko bilera Gasteizen. Bertan "Adi-adian eta Memoria Plaza Programen 2018ko memoria eta 2019ko helburuak" txostena aurkeztu zen.</p> <p>·Otsailaren 20an eta 21ean, Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen Nazioarteko mintegia antolatu zen, Eskura zentroaren eskutik Donostian.</p> <p>·Maiatzaren 22an, Eskura Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroaren proiektuaren fase pilotua babesteko hitzarmenaren luzapena sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak.</p> <p>·Maiatzaren 29an, Herenegun materialari buruz elkarriketa erronda amaitu zen material didaktikoari ekarpenak egin zituzten erakundeekin; eta azaroaren 13an, argitara eman zen Herenegun material didaktikoaren bideoak ekarpenak aurkeztu zituzten erakundeekin maiatzean hitzartutako aldaketaren gidora egokitzeari buruzko txostena.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·10. ekimena. Dibulgazioa</p>	<p>·EiTBrekin sinatutako akordioa berritzea.</p> <p>·Zinexit 2019 garatzea.</p> <p>·Abenduaren 10eko kanpainak garatzea eta René Cassin Saria ematea.</p> <p>·Beste ekimenak.</p>	<p>·Ekainaren 5ean, Uztartu Programa, erradikalizazio biolentoaren prebentziorako gizarte- eta hezkuntza-materiala, aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak, EiTBrekin elkarlanean bi erakundeek 2018an sinatutako Lankidetzak Akordioaren barruan.</p> <p>·Urriaren 7tik 10era, Zinexit Topaketaren bosgarren edizioa.</p> <p>·Azaroaren 25etik 29ra, Zinexit, Bizikidetzarako Zinemaren 10. edizioa ospatu zen.</p> <p>·Abenduaren hasieran sentsibilizazio-kanpaina garatu zen Abenduaren 10ean Giza Eskubideen nazioarteko eguna dela-eta.</p> <p>·Abenduaren 10ean, René Cassin 2019ko Saria eman zitzaion Federico Mayor Zaragozari.</p> <p>·Azaroaren 20an, ekitaldi bat antolatu zen Unicefekin eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailarekin batera, Haurren Eskubideen Konbentzioaren 30. urteurrenaren inguruan.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·11. ekimena. Parte-hartzea</p>	<p>·Aipaz eta FCP-rekin lankidetzan aritzeko ildoak diseinatzea.</p> <p>·Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.</p>	<p>·Urtarrilean, Aipaz erakundearekin lankidetzatza "Bizikidetzatza eta bake kultura hirietan" egitasmoan.</p> <p>·2019an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan elkarrekin sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzatza-espazioak sustatzen dituena: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzatza.</p> <p>·Martxoaren 29an, (1) bizikidetzatza-erako eta giza eskubideetarako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako eta (2) bizikidetzatza-erako eta giza eskubideetarako proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri eta gainerako toki-erakundeei bideratutako laguntzen 2019ko deialdia argitaratzea EHAAn.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·12. ekimena. Lankidetzatza estrategikoa</p>	<p>·Gazteriaren Kontseiluarekin lan-programa eguneratzea.</p> <p>·Lan eta Justizia Sailarekin lan partekaturako bide bat ezartzea.</p>	<p>·2019an, Euskadiko Gazte Kontseiluak lankidetzatza-hitzarmenaren edukia garatu du aurreikusitakoarekin bat etorritza eta, horretarako, giza eskubideen agenda berriari lotutako gaietza heldu die.</p> <p>·Ekainean eta uztailean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Etikasi Programaren esperientzia pilotua garatu zuten. Programa horren bidez, gazteei aukera ematen zaie indarkeriaren edo gerraren eraginak markatutako Europako kokapenak bisitatzeetza. Horrela, 30 ikasleko talde batek Auschwitz bisitatu zuen eta 10 ikaslezk osatutako talde bat Belfastera joan zen.</p> <p>·Lan-bideetza ezarritza gizarteratze-politika publikoen esparrua aurreikusteko lantalde bat sortuz, justiziatza lehenratzailearen Europako korrantearekin bat etorritza.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
<p>·13. ekimena. Nazioarteko ekintza</p>	<p>·Nazio Batuen memorandumua urtero eguneratzea.</p> <p>·Peace Programme erakundeekin lan-kidetzan aritzeko aukera aztertzea.</p> <p>·Giza Eskubideen Defendatzaileen-tzako Programa urtero eguneratzea.</p> <p>·Euskal kasuari buruzko oinarritzko dokumentua pres-tatzea.</p> <p>·Beste jarduerak.</p>	<p>·ACNUDHeko jardueretan lagundu da, urteko di-ru-laguntza nominatiboaren bitartez. Laguntza hori nazioarteko erakundearen urteko Memorian dago ja-sota.</p> <p>·Brexit-aren kontuarekin sortutako ziurgabetasunak direla medio, ekimen hau etenaldian dago, Peace Programme ekimena zertan den argitu arte.</p> <p>·Uztailaren 24ean, Giza Eskubideak Behatzeko Or-dezkaritza bat Kolonbiara joan zen Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Euskal Programaren esparruan.</p> <p>·Barne-eremuan, Idazkaritzak lan-zirriborroak ditu prest 2020an garatuko den euskal kasuari buruzko oinarritzko proposamen baterako.</p> <p>·Lehendakariak Estrasburgon René Cassin Giza Es-kubideen Nazioarteko Institutuan Gernikako arbola-ren kimuaren landaketan parte hartu zuen.</p> <p>·Martxoaren 13an, Kolonbian bake-prozesua fin-katzeko elkarlanean oinarritzen den EBren sendotze-proiektuaren sustapena, LKS, ALECOP, Agirre Lehendakaria Center eta Eusko Jaurlaritzaren artean.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·14. ekimena. Elkarrizketa eta akordioa</p>	<p>·Koordinazio Ba-tzordea martxan jartzea.</p> <p>·Foru Aldundiek eta Eudelek osatutako Mahaia martxan jartzea.</p> <p>·Erakundearteko lan-mahaia martxan jartzea.</p> <p>·Nafarroako Gober-nuarekin koordina-turik jardutea.</p> <p>·Espainiako Gober-nuarekin hitz egite-ko bideak ezartzea.</p>	<p>·2019an ez da organo horren bilerarik egin, egon di-ren hauteskunde-deialdi jarriak direla eta.</p> <p>·2019an ez da organo horren bilerarik egin, egon di-ren hauteskunde-deialdi jarriak direla eta.</p> <p>·2019an, guztira, hiru bilera egin dira, eta lan-esparru egonkor bat sortu da zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta gazteen inguruan.</p> <p>·2019an aldi behingo koordinazio-lanetan jardun da Nafarroako Gobernuko Bakegintza, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin.</p> <p>·Espainian gobernu-aldaketa eman zenetik, 2018ko ekainean, komunikazio-bide jariakorrak mantentzen dira bai espetxe-polikaren gaiari dagokionez baita errefuxiatuen harrerari dagokionez ere.</p>	<p>·Urte honetarako aurreikusitakoa %80 bete da.</p>

4. Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2019-XII-31n
·15. ekimena. Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	<ul style="list-style-type: none">·Sailarteko Batzordea osatzea.·Aholku Batzordea osatzea.	<ul style="list-style-type: none">·2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Sailarteko Batzordeak Planaren urteko jarraipen-txostena onartu zuen. Bertan, 2018ko kudeaketaren eta betearazpenaren balantzea jasotzen da.·2019an, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Kontseiluaren bi bilera egin dira: uztailaren 10ean eta abenduaren 12an.	<ul style="list-style-type: none">·Urte honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. 2019an Planaren programa bete den aztertzea

Planaren jarraipenaren urteko txostenak alderdirik kuantitatiboan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboaren alderdia, berriz, modu zehatzagoan lantzen da planaren ebaluazio orokorraren kanpo-txostenean, eta herritarren iritzia jakiteko bi ikerketa egitea ere aurreikusten da, aurrez zehaztutako adierazle-taula batean oinarrituta. Behin zehaztaper hori eginda, alderdi hauek dira azpimarratzekoak:

A. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen, 2017ko urriaren 11n. 2019ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan da, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, nabarmentzekoa da planean jasotako 15 ekimenak aktibatuta daudela une honetan dagoeneko, haien gauzaper-maila berbera ez bada ere.

B. Planaren lan-egutegien betetze-maila oso altua da 2019ko abenduaren 31n, eta bi mailatan sailkatuta geratzen da. Lehendabizikoan, planak dituen 15 ekimenetatik 11tan, 2019ko egutegian jasotako konpromisoak %100 bete dira. Bigarren mailan, eta egutegia egokitu egin delako, 4 ekimenen betetze-maila %80koa da, baina Legegintzaldiaren barruan gauzatzea aurreikusten da.

C. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak behar bezala bete du 2019rako gauzate-aurreikuspena, bai ikuspuntu orokorretik begiratuta bai arlo zehatzetan, aurreikusitako ekimen guztietan.

2. 2020rako aurreikuspen nagusiak

2020ari begira, Bizikidetzaren eta giza Eskubideen Planaren jarduketa-programak argi eta zehatz azaltzen du zer jarduera egin behar diren. Programa honen barruan, bi eremutan egituratu daiteke 2020rako Planetik ondorioztatzen den eta egiteko dagoen lana:

2.1. 2020an jarraipena behar duten erronka estrategikoak

- ETaren aldebakarreko, benetako eta behin betiko desegitea gauzatu ondoren, jarduera-ardatz estrategiko bat da, zailtasunak eta erresistentziak gorabehera, terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek eragindako kaltearen bidegabekeriari buruzko hausnarketa kritikoko prozesu bat sustatzen jarraitzea.
- Terrorismoaren biktimekin elkarriketa, lankidetzeta eta akordio eramutan sakontzen jarraitzea.
- Gogora Institutuaren eta Erakunde honetako Zuzendaritza Batzordearen jarduera-programaren bidez, memoria-politika publikoak bultzatzeko ahalik eta adostasunik zabalena sustatzen jarraitzea.
- Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta legebiltzar-taldeekin akordioak sustatzea, espetxe-politikaren orientazio berri bat bultzatzeko, hurbilketa eta erantzun humanitarioen arloan, bai eta gizarteratzeko politika aktiboak bultzatzeko ere.
- Bizikidetzan azaleratzen ari diren erronkei erantzutera bideratutako ekimenak bultzatzen jarraitzea: besteak beste, errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioari erantzutea, Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako Gida Plana garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea, edo euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetzeta sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programaren aurreikuspenak abian jartzea.

2.2. 2020an egiteko dauden zeregin nagusiak, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana betetzeko

- Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko 12/2016 Legea garatzea, Balorazio Batzordearen funtzionamenduari buruzko Dekretua onartu ondoren.
- Iragana argitzeari buruzko txostenen urteko programa definitzea eta garatzea.
- Biktimen arloko 2020ko lan-programa ezartzea.
- Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatzea.
- Sailarteko taldeak gizartratzearen arloan aurreikusitako lana garatzea, justizia leheneratzailearen Europako korrontearekin bat etorritz.
- Kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea ezartzea, Legebiltzarrean onartu ondoren.
- Erlijio- eta kultura-aniztasunaren tokiko gidien eredia aurkeztea eta zabaltzea.
- Diru-laguntzen urteko deialdiak egitea.
- Gizalegez akordioaren sinatzaileen urteko bileraren deialdia.
- Erradikalizazio biolentoa prebenitzeko Uztartu hezkuntza-moduluko pilotajea artikulatzea.
- Herenegun hezkuntza-materialaren esperientzia pilotua garatzea.
- Etikasi Programari jarraipena ematea 2020an.
- Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Eguna ospatzea eta René Cassin Saria ematea.
- Giza Eskubideen defendatzaileen programa ezartzea 2020an.
- Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Jardueraren Lehentasunen Programa garatzea 2020an.
- 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren ebaluazioari buruz herritarrek duten iritzia aztertzea.
- 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren azken ebaluazioa eskatzea.

3. Ondorioak

X. Legegintzaldia ETAk 2011ko urrian terrorismoa behin betiko utziko zuela iragarri izanak markatu zuen. 2013ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuen. Bi izan ziren bere lehentasun nagusiak: indarkeriaren amaiera ordenatua finkatzea eta bizikidetzari eta gizartea elkartzeari laguntzea.

XI. legegintzaldian, 2017ko urriaren 10ean, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartu zen. Horren berrikuntzetako bat giza eskubideen arloan agenda bikoitza identifikatzea izan zen. Alde batetik, egiteke dagoen agenda (geroz eta txikiagoa), indarkeriaren amaiera antolatuari lotua; eta, beste alde batetik, bizikidetzaren erronka berriekin lotuta sortzen ari den agenda.

Egiteke dagoen eta iraganari lotutako agendari dagokionez, hiru lehentasun nagusi ezarri ziren: (1) ETaren armagabetzea eta behin betiko desagertzea, (2) terrorismoari eta indarkeriari buruzko hausnarketa kritikoa eta partekatua egiteko beharra, eta (3) espetxe-politika aldatzea.

Azaleratzen ari diren erronken agendari dagokionez, une hartan nabarmentzen ziren erreferentziak errefuxiatuak, migrazioak, erlijio- edo kultur-aniztasuna, desberdintasun-, diskriminazio-, bazterketa- eta injustizia-modu berriak, gorroto-delituak, nazioarteko terrorismoaren mehatxuari emandako erantzunak edo gerrak eta horien ondorioak ziren.

3.1. Balantze orokorra

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren kudeaketa-prozesutik atera daitekeen lehen ondorio bat da integraltzat jo daitekeen jarduera-ardatz multzo bat hedatu ahal izan dela, iragana argitzeko politika publikoak, biktimak, memoria, espetxe-politika, hezkuntza, aniztasuna, elkartasuna, dibulgazioa, partaidetza, nazioarteko ekintza, eta bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura barne hartzen dituena.

3.1.1. Egiteke dagoen agendari dagokionez

Arlo honetan egindako balantze zehatzago bati esker, honako lorpen nagusi hauek nabarmendu daitezke:

- ETAren armagabetzea eta desegitea gertatu da; aldebakarrekoa, behin betikoa eta baldintzarik gabekoa.
- Euskal gizartean sendotu egin da indarkeriaren deslegitimazioaren eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bizikidetzaren normalizazioaren inguruko *Gizartea elkartzea*.
- Biktimei dagokionez, laguntzaren, aitortzaren eta erreparazioaren arloan legeek ezartzen dituzten aurreikuspenak osatzen ari dira.
- Euskadiko iraganaren memoria kritikoko politika publikoak kudeatzeko gune adostu gisa finkatu da Gogora Institutua.
- Urteak igaro ondoren, inolako aldaketarik gabe, aurreko Legegintzaldian espetxe-politika aldatzen hasi dira, bai Frantzian, bai Espainian.

Zeregin garrantzitsuak geratzen dira oraindik: iraganari buruzko hausnarketa kritikoari buruzko akordio plurala eta espetxe- eta gizarteratze-politikaren orientazio berriari sakontzea. Nolanahi ere, gertatzen ari den aurrerapenaren sintoma bat da, hain zuzen ere, egiteke dauden zereginak gero eta argiago mugatuak daudela.

3.1.2. Sortzen ari den agendari dagokionez

Bizikidetzan azaleratzen ari diren erronkei dagokionez, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren aurreikuspenekin bat etorriz, egindakoaren balantzeak honako erreferentzia nagusi hauek eskaintzen ditu:

- Migrazioaren arloan, Idazkaritzak aktiboki parte hartu du Migraziorako Euskal Itun Soziala, Share Proposamena eta Iragaitzazko migratzaileei arreta humanitarioa emateko Kontingentzia Plana diseinatzen eta sustatzen.
- Errefuxiatuen harrerari eta integrazioari dagokionez, Idazkaritzak Erakunde arteko Mahai Sozialean adostutako lan-programa garatu du. Lehen harrerako aterpetxeak ireki ditu Oñatin (Larraña Etxea), eta Tolosan (Zuloaga Txiki). Abian jarri du Babes Komunitarioko esperientzia pilotua ACNURekin, Espainiako Gobernuarekin, Caritasekin eta Jesuitekin. Dei humanitarioei erantzun die, eta Aita Mari proiektua martxan jartzen lagundu du.
- Idazkaritzak «Euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Programa» dinamizatu eta garatu du, eta ADOS Aholku Batzordearen lan-plana garatzen jarraitu du.
- Gobernu Kontseiluak EAEko Kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Legea onartu du.
- Idazkaritzak erradikalizazio biolentzia prebenitzeko Uztartu gizarte- eta hezkuntza-programa ere sustatu du, bai eta Etikasi programaren esperientzia pilotua ere, kontzentrazio-esparruak edo indarkeria-gertakariak larririk direla-eta Europako leku enblematikoetara bisita hezitzaileak eginez.

Lan-ardatz horietako bakoitzaren pertzepzioa da horiek guztiek jardun-eremu zabalak eta dinamikoak irudikatzen dituztela, etorkizunera begira.

3.2. Hiru gogoeta

3.2.1. Iraganaren eragina orainean

·Eta iragana da. Ez dago biztanleriaren egungo lehentasunezko kezken artean. 35 urtetik beherako pertsona gehientzat arazo bat da, gurasoei eta aiton-amonei eragin ziena. Hala ere, sei hamarkadatan terrorismoak eta indarkeriak utzitako arrastoak orainaldian eragin handia izaten jarraitzen du. Bi akordio egiteke daude eta hiru lan-ildo finkatu gabe.

-Egiteke dauden akordioak dira, batetik, terrorismoaren eta indarkeriaren iraganari buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua, eta, bestetik, espetxe-politikari eta gizarteratzeari buruzko akordio erabakitzailea.

-Honako politika hauetan sakondu behar da: biktimak eta bizikidetzak; hezkuntza eta bizikidetzak; eta memoria eta bizikidetzak.

3.2.2. Orainaren eragina orainean

·Euskal gizartearen oraina tentsioek markatzen dute, eta gero eta zerikusi txikiagoa dute urteetan «euskal kasua» izan zenarekin. Euskal gizartearen kezken agenda eta lehentasun-ordena funtsean aldatu da, eta ez du zerikusirik duela 10, 15 edo 20 urtekoarekin.

-Tentsio berriak beldurrak eta ziurgabetasunak eragiten dituzte, hala nola etorkizuna aurreikusteko ezintasuna, bizitza- eta familia-proiektua, enplegua edo egonkortasun soziala eta politikoa, eskuin muturraren eta beste estremismo batzuen agerpena, gerraren eta nazioarteko terrorismoaren mehatxua, individualismoaren eta elkartasunaren arteko kontraesanak, askatasuna eta segurtasuna, berdintasunaren arloko aurrerapenak eta atzerapenak, kezka ekologikoa, immigrazioarekiko beldurra eta haren beharra, kultura eta erlijio desberdinetako pertsonekin bizikidetzak...

3.2.3. Etorkizunaren eragina orainean

·Etorkizunak orainean izango duen eragina definitzea saiakuntza da. Hipotesi bat da. Bere identifikazioan paper garrantzitsua jokatzen du eraiki nahi dugun etorkizunaren hautaketak. Gauzak dirudien bezala izango direla izango dira; baina izan daitezen saiatzaren garen bezala ere bai. Etorkizun hobea eraikitzeko borondate politikoak aktiboki eragiten du.

-Ikuspuntu horretatik, etorkizun hurbilean bizikidetzaren eta giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago munduko bizikidetzaren eta giza eskubideen agenda globala da.

—Hori horrela da, lehenik eta behin, tokiko agenda eta giza eskubideen agenda globala bat datozelako: estremismoak, terrorismoa, gerra, berdintasuna, migrazioa, elkartasuna, ekologia, erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzak... bizikidetzaren eta giza eskubideen agenda globalaren kausak dira.

—Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak borondate politikoa duelako bere giza eskubideen agenda giza eskubideen eta bizikidetzaren agenda globala izan dadin.

3.3. Azken gogoeta

·2020an XI. Legegintzaldia amaituko da eta XII. Legegintzaldia hasiko da. Aurten, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana ebaluatu beharko da, eta 2021-2024rako Plan Estrategiko berri baten oinarriak prestatu beharko dira. Ebaluazio eta proiektio estrategikoko ariketa bikoitz horren erronka izango da ahalik eta sinergiarik handiena eta bateratze handiena bilatzea bizikidetzaren eta giza eskubideen euskal agendaren eta munduko bizikidetzaren eta giza eskubideen agenda globalaren artean.

2020ko urtarrilaren 14a

Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren idazkaritza Nagusia





3

dokumentua

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza
Eskubideen Planaren ebaluazioari buruz
herritarrei egindako bi iritzi-azterlanen
laburpena

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren ebaluazioari buruz herritarrei egindako bi iritziazterlanen laburpena



2018ko uztaila
Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Bakea eta bizikidetz

2018ko uztaila
(Laburpena)

Ikerketa honen helburua izan da herritarren iritzia jasotzea, oro har, bakea eta bizikidetzaren inguruan, eta zehatzago erlijio musulmaneko komunitateari dagokionez. Landa lana 2018ko ekainaren 11tik 13ra bitartean egin zen.

Nazioarteko terrorismoa eta gerrateak dira kezka handiena sortzen dutenak

Aurkeztutako gai ezberdinen artean, nazioarteko terrorismoa eta gerrateak dira herritarrek gehien kezkatzen dituenak (%70 asko eta %20 nahikoa). Kezka dezente sortzen dute ere Euskadiko bake eta bizikidetzaren prozesuak (%63 eta %22, hurrenez hurren) eta immigrazioa eta errefuxiatuak (%54 asko eta %30 nahikoa). Arraza edo erlijio ezberdinetako pertsonen arteko elkarbizitzak kezka apur bat gutxiago sortzen duen arren, erdia baino gehiago dira ere kezkatuak agertu direnak (%38 asko eta %27 nahikoa). Bizikidetzarekiko kezka apur bat handiagoa da Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino.

Egoki ikusten da Eusko Jaurlaritzak bake eta bizikidetzaren prozesuan egindakoa

Bake prozesuari dagokionez, herritarren erdia baino gehiagok uste dute aurrera egiten ari dela (%55), aurreko urteetan baino dezente gehiago (2006an soilik %23k uste zuten aurrera egiten ari zela, eta 2014an %28k).

Soilik %9k uste dute Espainiako Gobernua ondo edo oso ondo ari dela gai honetan, 2014tik egonkor mantendu den portzentajea. Aldiz, Eusko Jaurlaritzak ondo edo oso ondo ari dela uste dutenak %50 dira, eta portzentajeak etengabeko gorakada izan du 2014tik hona (garai hartako %31tik egungo %50era). Zentzu berean, biztanleriaren %65ek adierazi du Eusko Jaurlaritzak indarrean duen bake eta bizikidetzaren planaren helburuekin gehienbat ados daudela.

Elkarrizketatuen herenak baino gehiagok ezagutzen dute Gogora, Memoriaren Institutua (%36), eta ezagutzen dutenen artean ia bi herenek positiboki baloratzen dute egiten duen lana (%61).

Bestalde, elkarrizketatuen %50ek uste dute Eusko Jaurlaritzak ondo ari dela giza eskubideen babesean, %43k biktimei dagokionez, %42k errefuxiatutako pertsonekin eta %37k nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan. Aldiz, %15 baino ez dira giza eskubideen defentsan gaizki ari dela uste dutenak, %9k biktimekin, %22k errefuxiatuekin eta %13k nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan.

Immigrazioarekiko jarrera irekia eta babesa bizikidetzari

Adostasun handiena jaso duten iritziak dira bizikidetzaren hobetzeko guztiok egin behar dugula ahalegin bat, bai pertsona atzerritarrek zein hemengoek (%91 erabat ados edo ados), eta beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela (%65).

Bestalde, gehiengoa dira iritzi hauen kontra agertu direnak: immigrante batzuen erlijio jarduerak arriskuan jartzen dutela gure bizimodua (%57 erabat kontra edo kontra), eta erlijioak sortutako indarkeria fanatikoa arazo bat dela Euskadin (%49). Iritziak banatuagoak agertu dira beste kultura eta erlijioetako pertsonak Euskadin bizi direnean beren ohituren arabera janztearen inguruan (%45 ados agertu da baieztapen horrekin eta %35 kontra, gainerakoak ez dute iritzirik eman).

Bertakoen eta atzerritik etorritakoen arteko udalerriko bizikidetzaren eta harreman-giroa ona dela uste da (6,3, 0tik 10erako eskalan). Balorazioa apur bat positiboagoa da atzerritik etorritakoen artean (7,4) bertan


jaiotakoen artean baino.

Aldiz, Islamarekiko konfiantzari dagokionez, non 0ak konfiantzarik eza eta 10ak erabateko konfiantza esan nahi duten, euskal gizartea 4,4n kokatu dute inkestatuek, eta euren burua 5,0an. Konfiantza hori handiagoa da erlijio islamikoa duten pertsonekin nolabaiteko harreman dutenen artean (6,1 harremana dutenen artean eta harremanik ez dutenen artean 3,7).

Testuinguru honetan, erlijio islamikoa duen komunitatearekin elkarbizitza sustatzeko Eusko Jaurlaritzak abian duen jarduera-programa oso edo nahikoa garrantzitsua dela uste dute hamarretik zortzik (%81).

Eusko Jaurlaritzaren egiten ari denaren gaineko balorazioa bakea eta bizikidetzarekin zerikusia duten hainbat gaitan

Biktimei dagokionez



(Gainerako grafikoak 2020ko azterlanean daude jasota. Azterlan hori jarraian dator. Horrela, konparazioa argigarriagoa da)

Ikerketa honen fitxa teknikoa zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,3\%$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2018ko ekainaren 11tik 13ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:
http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Nazioarteko egoera eta bizikidetzak Euskadin

2020ko otsaila

(Laburpena)

Ikerketa honen gai nagusiak nazioarteko egoeraren balorazioa eta bizikidetzak Euskadin dira. Landa lana 2020ko urtarilaren 29tik otsailaren 3a bitartean egin da.

Nazioarteko egoeraren balorazioa

Euskal herritarrek argi dute munduko beste lekuetan gertatzen diren gauzek eragina dutela euren bizitzan, eta erdiek interes handia edo nahikoa erakutsi dute nazioarteko egoerarekiko. Egoeraz egiten den balorazioa ez da oso positiboa

Elkarrizketatutako hamar pertsonatetik zazpi uste dute munduko beste lekuetan gertatzen diren gauzek euren bizitza pertsonalean eragin handia edo nahikoa dutela (%23 eta %50, hurrenez hurren). Bestalde, biztanleen erdia inguruk nazioarteko politika interes nahikoarekin edo handiarekin jarraitzen dute (%54).

Gehienek nazioarteko egoeraz egiten duten balorazioa nahikoa negatiboa da: %46k uste dute txarra edo oso txarra dela, eta %50ek hala-holakoa. Soilik %4k uste dute egoera ona edo oso ona dela. Gainera, %32k uste dute egoerak okerrera egingo duela etorkizunean eta %41ek berdin jarraituko duela; soilik laurdena dira hobera egingo duela uste dutenak.

Dena den, egoeraren balorazioak hobera egin du 2016ko datuarekin alderatuta; orduan, egoera txarra edo oso txarra zela uste zutenak %66 ziren, eta gaur egun %46. Gehien handitu den taldea egoera hala-holakotzat jotzen dutenena da (orduko %31tik egungo %50era).

Mundu mailako arazoaren artean klima-aldaketa kokatu da lehen postuan; antzeko portzentajea dute ere egoera ekonomikoak, nazioarteko gatazkak eta gerrateak, pobrezia eta goseak, eta nazioarteko klase politikoak

Nazioarte mailako arazo nagusien artean klima-aldaketa lehen postuan agertu da; eta %40k egungo hiru arazo nagusien artean kokatu dute. Azken lau urteetan, nazioarteko hiru arazo nagusien artean %12k aipatetik egungo %40ra pasa da; portzentajearen handitze hori jendearen artean hartu duen garrantziaren erakusle da.

Gauzak horrela, arazo nagusien artean bigarrena izatera pasa da nazioarteko egoera ekonomikoa, eta %38k aipatu dute hiru nagusien artean, portzentaje hori 2016koa baino dezente txikiagoa da; orduan, %52k aipatu zuten. Hiru arazo nagusien artean antzeko kopuruek aipatu dituzte: nazioarteko gatazkak eta gerrateak (%33), pobrezia eta gosea munduan (%33), eta nazioarteko politika eta klase politikoa (%30). Azken arazo hori, klase politikoarena, dezente gehiagok aipatu dute 2016an baino (%15); besteak beste, arazo moduan AEBetako presidente den Donald Trump aipatu dutenek igoarazi dutelarik portzentajea (%8).

Bestalde, izurriteak eta gaixotasunak ere jende dezente gehiagok aipatu dituzte arazo nagusien artean, 2016ko %5etik egungo %14ra, bereziki Coronavirusari egindako aipamenengatik. Modu berean, Europar Batasuneko egoeraren aipamenak ere asko igo dira (2016ko %2tik %8ra), Brexitaren gaineko aipamenengatik hein handi batean.

Aldiz, nazioarteko terrorismoa (%14tik %3ra), errefuxiatuen krisia (%14tik %2ra) eta ustelkeria (%9tik %2ra) dezente gutxiago nabarmendu dira 2016an baino.

Bakea eta bizikidetz

Egoki ikusten da Eusko Jaurlaritzak bake eta bizikidetz prozesuan egindakoa

Hamar pertsonatetik zortzi kezkatuta agertu dira aurkeztutako gaien inguruan: nazioarteko terrorismoa eta gerrateak (%83 oso edo nahikoa kezkatuta), Euskadiko bake eta bizikidetz prozesuak (%81) eta immigrazioa eta errefuxiatuak (%76). Arraza edo erlijio ezberdinetako pertsonen arteko elkarbizitzak ere kezka sortzen duen arren, gutxiago dira gai horrengatik kezkatuta agertu direnak (%56 oso edo nahikoa kezkatuak).

Bake prozesuari dagokionez, herritarren erdiek baino gehiagok uste dute aurrera egiten ari dela (%55), 2018an bezalaxe, baina aurreko urteetan baino dezente gehiago (2006an soilik %23k uste zuten aurrera egiten ari zela, eta 2014an %28k).

Hamar pertsonatetik seik, bestalde, uste dute Eusko Jaurlaritzak ondo edo oso ondo ari dela Euskadiko bake prozesuari dagokionez: aztertutako epealdian balorazio positiboa egiten dutenen portzentajea geroz eta handiagoa da gainera, 2017ko %31tik gaur egungo %60ra pasa delarik. Halaber, hobetu egin da Espainiako Gobernuak gai honetan egin duen lanaren gaineko pertzepzioa, 2014 eta 2018 urteekin alderatuta (urte horietan %9k soilik uste zuten bere lana ona izan zela); dena den, Espainiako Gobernuak egindako lana ona edo oso ona izan dela uste dutenen ehunekoa Eusko Jaurlaritzarena baino nabarmen txikiagoa da oraindik ere (%25).

Azken batean, biztanleen %69k diote gehienbat ados dagoela Eusko Jaurlaritzak indarrean duen Bake eta Bizikidetz Planaren helburuekin. Eta %75ek positibotzat jo dute Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetz eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari proposamena egitea ETako presoak Euskaditik eta Nafarroatik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko.

Elkarrizketatuen %44k ezagutzen dute Gogora, Memoriaren Institutua; 2018tik Institutua ezagutzen zutenen portzentajea 8 puntu handitu da beraz. Ezagutzen dutenen artean ia bi herenek positiboki baloratzen dute egiten duen lana (%63).

Bestalde, elkarrizketatuen %65ek uste dute Eusko Jaurlaritzak ondo ari dela giza eskubideen babesean, %53k errefuxiatutako pertsonekin, %47k biktimei dagokionez eta %41ek nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan. Ondo ari dela uste dutenen portzentajea esparru guztietan handitu da.


Immigrazioarekiko jarrera irekia eta babesa bizikidetzari

Portzentaje esanguratsu batek uste badu ere Euskadin diskriminazioa oso edo nahikoa hedatua dagoela jatorri etnikoagatik edo immigrante izateagatik (%48), larruazalaren koloreagatik (%38) edo erlijio edo sinesmenengatik (%34), bertakoen eta atzerriatik etorritakoen arteko bizikidetzak ona dela uste da orohar (6,5, 0tik 10erako eskalan). Balorazioa 2018koa baino dezima batzuk altuagoa da, eta apur bat positiboagoa da atzerriatik etorritakoen artean (7,4) bertan jaiotakoen artean baino.


Adostasuna handia izan da iritzi hauen inguruan: bizikidetzak hobetzeko guztiok egin behar dugula ahalegin bat, bai pertsona atzerriarrek zein hemengoek (%90 erabat ados edo ados), eta beste talde etnikoetako etorkin atzerriarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela (%68). Aldiz, banatuagoak agertu dira beste kultura eta erlijioetako pertsonak Euskadin bizi direnean beren ohituren arabera janztearen egokitasunaren inguruan (%46 ados agertu da baieztapen horrekin eta %30 kontra, gainerakoak ez dute iritzirik eman). Portzentaje hauek ez dira gehiegi aldatu 2018 urtetik gaur arte.

Bakea eta bizikidetzaz


Bakea eta bizikidetzarekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko kezka




Bake prozesua dagoen unea



Bake prozesuan Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren jokaeraren balorazioa




Bake eta Bizikidetzaren Planaren helburuekin adostasun maila




Presoak gerturatzeko proposamenaren balorazioa

	GUZTIRA / TOTAL
Ondo / Bien	75
Ez ondo ez gaizki / Ni bien ni mal	18
Gaizki / Mal	5
Ed-Ee / Ns-Nc	1
<i>Ehuneko bertikalak / Porcentajes verticales</i>	100



Eusko Jaurlaritzan egiten ari denaren gaineko balorazioa bakea eta bizikidetzarekin zerikusia duten hainbat gaitan



Ikerketa honen fitxa teknikoa zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 900 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,3$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2020ko urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago: http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak





4

● dokumentua



Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen
Planari buruzko balorazioa XI.
Legegintzaldiaren amaieran

Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari buruzko balorazioa XI. Legegintzaldiaren amaieran

Ebaluazio-taldea

Jesús A. Núñez Villaverde, Juncal Gilsanz Blanco eta Francisco Rey Marcos
(Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria Institutua, IECAH)

2020ko ekainaren 22a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina



Aurkibidea

1. Sarrera.

2. Gogoeta orokorrak.

3. Gaikako gogoetak.

- 3.1 Indarkeriaren amaiera / Biktimak / Memoria / Espetxe-politika.
- 3.2 Bizikidetzaren hezkuntza eta kultura.
- 3.3 Asiloa, aterpea eta immigrazioa.
- 3.4 Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa.
- 3.5 Nazioarteko gaiak.

4. Zeharkako gaiak.

- 4.1. Genero-ikuspegia.
- 4.2. Ikerketa, politikaren euskarri gisa.
- 4.3. Giza eskubideen agenda berriaren erronkak.

5. Antolaketa-alderdiak.

- 5.1. Planaren barne-antolaketa.
- 5.2. Parte hartzeko, elkarrizketarako eta lankidetzarako mekanismoak.

6. Ondorioak.

7. Gomendioak.

Eranskinak.

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari (aurrerantzean, Plana) buruzko kanpo-balorazioak, XI. Legegintzaldiaren amaieran, bete egiten du Plan hori onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren 2017ko urriaren 10eko Erabakian jasotako hirugarren akordioa. Balorazioa Legegintzaldia ixtean egin izanak ematen dion profila bereziki zentratuta dago Plana onartu zenetik gauzatutako ekintzen inguruko kontuak ematean. Nolanahi ere, bere egiturak berak, “iraganeko” eta “oraingo” gaiak ez ezik, berehalako “etorkizunari” buruzkoak aditzera ematen dituenez, ebaluazio-taldeak komenigarritzat jo du gomendioak eta proposamenak ematea, hurrengo legealdirako plan berri bat egiteko prozesuan (dagoeneko abian da) ahal den neurrian laguntzeko.

Hauteskunde-egutegian izandako aldaketek eta, batez ere, COVID-19aren pandemia pizteak, alarma-egoera deklaratzearekin eta haren ondorengo luzapenekin batera, neurri handi batean aldatu dute ebaluazio-lanaren garapena. Alde batetik, ezin izan da aurrez aurreko elkarrizketa pertsonalik egin gomendagarritzat jotzen ziren iritzi eta balorazioak zituzten eragile publiko eta pribatuekin. Zailtasun hori arindu nahi izan da elkarrizketa telematikoak eta telefonikoak eginez, baina horien kopurua murriztu egin da, hasieran kontaktatutako pertsona batzuek ezin baitzuten. Bestalde, ezin izan da talde-bilerarik egin. Horiek baliagarriak izango ziren erabilitako dokumentazio oparotik ateratako informazioa baliozkotzeko datuak biltzeko. Nolanahi ere, ebaluazio-taldeak informazio bolumen handia eduki du, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren (aurrerantzean, Idazkaritza) eta elkarrizketatutako pertsona eta erakunde batzuen ekarpenei esker, bere zeregina behar bezala egin ahal izateko.

Planean jasotako ekimen bakoitza banan-banan aztertu eta ebaluazio-prozesuetako ohiko irizpideei jarraitu beharrean, metodologia ez hain formalista aukeratu da, aurreko Planaren (2013-2016) balorazioan erabili zirenen antzeko jarraibideak beteta. Laburbilduz, nahiago izan da hasiera batean Plan osoaren balorazio orokorra eta zeharkakoa islatzea, gaikako blokeetan jarritako arreta handiagoarekin osatuta. Balorazio horretan identifikatzen da eraldatzeko potentzial handiena; azkenean, enpatiazko bizikidetzako gizarte-topaketa bat eratzeke helburu nagusia lortu ahal izateko. Eranskinetan jaso da Planaren ekimenak gauzatzeari, gauzatzeko-mailari, aurrekontuaren banakapenari, onuradunen zerrendei eta bestelako datu kuantitatibo eta finantzarioei buruzko informazio zehatzagoa.

Agerikoa bada ere (hurrengo orrialdeetan islatzen denez), Planak hamaika ekimen eta jarduera eragin ditu eta, egia bada ere testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoa eboluzionatuz joan dela orain amaitzen den Legegintzaldian zehar, egia da, baita ere, beste elementu batzuek ere ia aldaezin iraun dutela aurreko Planean egindako balorazioan jadanik jasotzen zenarekiko. Ondorioz, 2013-2016 Planaren azken balorazioan jarraitutako analisi-egiturari eustea erabaki da, eta, ahal den neurrian, garai hartan jorratu ziren eta aldaketa garrantzitsurik izan ez duten gaiak ahal den neurrian ez errepikatzea.

Aldez aurreko ohar horietatik abiatuta, balorazioa honela laburbiltzen da:

2. Gogoeta orokorrak

•Planak jorratutako gaiak dagokienez Legegintzaldi osoan izandako funtsezko mugari bat nabarmendu beharko balitz, beste edozeinetatik gailentzen da ETA desagitearen berria, 2018ko maiatzaren 4an. Albiste horrekin amaiera eman zitzaion 2011ko urrian hasi zen sekuentzia bati, indarkeria terrorista amaitzearen iragarpenarekin eta, ondoren, 2017ko apirilean izandako armagabetzearekin hasitako sekuentziari. Indarkeriaren amaiera eta ETA desagertzea funtsezko aldaketa ekarri dute Planak jadanik jasotzen zuen asmoan, hau da: sortzen ari diren gaietan (“oraina” eta “etorkizuna”) arreta gehiago jarri ahal izatea, inola ere alde ahaztu gabe Euskal Herrian bakea, giza eskubideen egikaritze osoa eta bizikidetzaren luzeegi oztopatu dutenen itxiera egokia.

•Hala ere, egoera politikoak, bai Estatuan (gobernu zentrala erortzea ekarri zuen zentsura-mozioaren ondoriozko gorabeherekin, 2018ko ekainean, eta bi hauteskunde-deialdiren ondoren gobernu berria osatzeko zailtasunekin, 2019ko apirilean eta azaroan), bai Euskal Autonomia Erkidegoan (2018ko martxoan sortutako Memoriari eta Bizikidetzari buruzko txostenaren paralisi parlamentarioan ikusia), zaildu egin du, neurri handiagoan edo txikiagoan, Plana garatzea.

•Ildo horretatik, zailtasun berezia izan du presoan arloko desadostasunak gainditzeak eta iraganari buruzko gogoeta kritikoak, baina horrek ez du esan nahi merezimenduzko aurrerapen batzuk egin ez direnik. Horren adibide dira biktimganako aitortza eta erreparazioa edo autokritika eta oroimena. Ordainetan, egoerak ia aldaezin jarraitzen du espetxe-politikari edo “kontakizunaren borroka” deitzen zaionaren alderdi batzuei dagokienez. Nolanahi ere, nahiz eta horrek berekin ekarri Legegintzaldia “iraganeko” gaiak behin betiko itxi gabe amaitzen dela, egiaztatu da, halaber, gai horietako bakar batek ere ez duela dagoeneko Planean jasotako beste esparru batzuetan funtsezko garapenak eragozteko gaitasunik.

•Legegintzaldiaren hasierako formulazioan ezarri zen plan berri baten beharra justifika zitekeela larrialdi- edo mehatxu-egoera batengatik, lehentasunezko gizarte-eskaera batengatik edo beharrezko eta amaitu gabeko zeregin bat dagoela egiaztatzeagatik. Gaur egun, Plana bere amaieran dagoenean, argi dago ez dagoela halako larrialdirik edo mehatxurik, baizik eta, zorionez, zegoen larrialdiak edo mehatxuak pisua galdu duela. Dena dela, horrek ez du esan nahi indarkeriaren behin betiko amaiera ordenatua bermatzen eta “iraganeko” arazoak ebatzen jarraitu behar ez denik, eta, aldi berean, etorkizunean izan daitezkeen bilakaerei adi egon behar denik. Era berean, ez dago lehentasunezko eskaera sozialik, uste baita euskal herritarrek lortu dutela, neurri handi batean, terrorismoaren gaitza atzean uztea eta modu eraginkorrean orria beste aldera itzultzea. Horregatik, Plana garatzean, hurrengo Legegintzaldian gerta daitekeenarekin lotuta, bultzada nagusia da argi eta garbi hautematea oraindik ixteko dauden gaiak daudela eta giza eskubideek eta bizikidetzak euskal gizartearen bezalako gizarte garatua modu nabarmenean arduratu eta kezkatu behar dutela, jadanik mende-hasiera hau definitzen duen esparru globalizatuan murgildutako gizartearen baita.

•Ildo horretatik, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak egindako diagnostikoa guztiz egokia dirudi, eta bat dator Euskadiren errealitateari buruzko azterketa soziologiko guztiekin. Horri gehitu behar zaio, orain arte aurkeztutako urteko jarraipen-txostenen arabera, Planak identifikatzen dituen ekimenen betetze-maila handia. Urteko plangintzako dokumentu espezifikorik ezean, jarraipen-txosten horiek, hurrengo urteko ekitaldirako lehentasunak jasotzen dituztenez, oinarri gisa balio dute lau hilez behingo lan-egutegiak egiteko, kasuak kasu egingo denaren aurreikuspen operatibo zehatzak jasota.

•Aurreko Planaren balorazioan adierazi zenez, esan behar da, Eusko Jaurlaritzari dagokionez, gaur egungo formulazioan Plana oso tresna baliagarria izan dela nabarmen aurrera egiteko, bai bakegintzaren arloan, bai bizikidetzaren eta giza eskubideekiko erabateko errespetuaren arloan. Horri esker, Eusko Jaurlaritzaren lehen bi planetan adierazitako koherentzia eta aplikazio politikoa positiboki balioetsi daitezke; horietan, terrorismoa eta indarkeria mota oro aurrez aurre gaitzestea eta egia, justizia eta biktima guztien erreparazioa bilatzearen aldeko apustu garbia egitea planteatzen baita.

•Bizikidetzari eta giza eskubideei dagokienez, egokia da, halaber, horiek Euskadikoa bezalako gizarte osoarentzat asmo handiko agendaren ardatz gisa identifikatzeko planteamendua, erabat garatutako eta globalizazio atzerazekin planteatzen dituen erronketan murgildutako gizartearen baita. Eta hori agerian geratzen da, bai Legegintzaldian garatutako ekimen askoren edukian, bai Idazkaritzaren beraren izen-aldaketan. Giza eskubideen agenda berria osatzen duten gai batzuk sartzea (migrazioak, erradikalizazio biolentoaren prebentzioa, herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea...) guztiz koherentea izan da Plan osoaren ikuspegiarekin.

•Euskal gizarteak aurrera egiten jarraitzen du etorkizuneko agertokirantz, nahiz eta iraganean arreta jartzen jarraitzen duen –baina, blokeorik gabe. Planaren eta euskal iritzi publikoaren 2019ko Urtekariaren esparruan egindako herritarren iritziari buruzko azterlanek¹ ildo horretatik jotzen dute, eta laugarren eta hogeita hirugarren lekuetan uzten dituzte, hurrenez hurren, gatazka politikoa eta terrorismoa gaur egun gizarteak kezkatzen duten arazotzat. Langabeziak eta migrazio-fluxuak daude berriz ere lehen lekuetan, eta “bizikidetzak” azken urteetako joerari eusten dio, hain politikoak ez diren eta beste dibertsitate batzuekin lotura handiagoa duten agertokietarantz. Azken batean, txosten soziologikoetan erakutsitako joerek erakusten dute bideragarria –eta egokia– dela hurrengo Legegintzaldian abian jartzen den etorkizuneko planak euskal errealitate berria eta bizikidetzaren erronka berriak ardatz hartzea.

•Ondorioz, gizartearen elkartzearen eta enpatiaren aldeko hautua sustatzeak –horixe izan baita Planak bere gain hartu duen zeregin nagusia– ez du eskatzen soilik eta nagusiki iraganaren itxiera ordenatua ahalbidetuko duten gaiak ebaztea, bake-giro positiboak sendotzeko. Haratago joanda, bizikidetzak normalizatu eta sakontzeko esparru bat ahalbidetu eta bultzatzean ahalegina kontzentratzeko beharra dago. Horretarako, hizkuntza berritu eta lehenetsiak birformulatu behar dira, testuinguru global batean murgilduta dagoen euskal gizarteak eskatzen duenaren ildotik. Testuinguru horretan, giza eskubideak erreferentzia nagusi dira, eta hainbat gai lehenetsun nabarmen bihurtu dira, hala nola: migrazio-fluxuak, kultura-aniztasuna, aniztasunaren kudeaketa, genero-berdintasuna, ingurumen-krisia eta bizitzaren jasangarritasuna, errefuxiatuen drama, globalizazio desberdin baten ondorioak, erradikalizazio modu berriak edo nazioarteko terrorismoa.

•Planak, 16. fitxan, 22.525.000 €-ko guztizko aurrekontu-aurreikuspena jasotzen zuen, eta kopuru hori 25.305.000 €-ra igo zen, batez ere errefuxiatuen harrerarekin lotuta laguntza humanitarioaren esparrura bideratutako ekarpen berrien ondorioz. Hortaz, guztizko azken esleipenak % 15eko igoera ekarri du aurreko planaren aldean. Aurrekontu-sailen doikuntzek eta desbideratzeek aurrekontu-egikaritzearen balorazio xehatua egiteko aukerarik ematen ez duten arren, egiaztatu da orain arte aurrekontuaren % 87 (22.040.810 €) egikaritu dela. Dena den, kopuru hori agian ez da behin betikoa izango, 2020ko datuak zenbatespen bat baitira. Nolanahi ere, aurrekontuaren egikaritze-maila egokitzat jotzen da².

•Balorazioari buruzko hurrengo atalean xehetasun handiagoz aipatzen denaren aurrerapen gisa, Planean ezarritako lehenetsunaren ildotik, honako hau nabarmendu behar da:

-**Indarkeria** terroristaren **amaierari** dagokionez, onartzen da ETaren desagete aldebakarrak, eraginkorrek eta behin betikoak –armagabetze legala, behin betikoa eta kontrapartidarik gabekoa ekarri zuenak– itxi egiten duela bizikidetzaren ahalegina eta giza eskubideen erabateko errespetua bere hedadura zabal osoan birbideratzea errazten duen etapa bat. Horrek ez dakar ez ahazterik –iraganetik oraindik kasu egin gabe dauden gaiei dagokienez–, ezta autokonplazentziazko nahasmenik ere –bakearen benetako esanahiari dagokionez, bakea beti ulertu behar baita indarkeriarik eza baino askoz gehiagotza. Beraz, aurrera begiratzeko aukera izatea eskatzen du, bizikidetzan sakontzeko eta gizarte-topaketa baketsu eta enpatikoa ahalbidetuko duten oinarriak sortzeko eta finkatzeko.

-**Biktimei** aintzatespena eta arreta emateari dagokionez, berriz ere nabarmentzekoa da haien **guztietan** aintzatespen eraginkorra eta justizia eta erreparazioa lortzeko ahalegina, egia jakiteko eskubidearen printzipioan oinarrituta. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da apirilaren 4ko 5/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aintzatespena eta erreparazioa emateari buruzkoa (lege hori uztailaren 28ko 12/2016 Legeari gehitzen zaio eta berori aldatzen du). Horri gehitu behar zaio laguntza-lanak normaltasun osoz egin direla, eta biktimen elkarteekin izandako elkarrizketak, bereziki Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren bidez, hobekuntza nabarmena izan duela.

-**Argitzearen eta memoriaren** esparruan, nabarmentzekoa da Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (aurrerantzean, Gogora) oso denbora gutxian erreferentziazko eta gizarte-kohesiorako gune bihurtu izana. Planaren aldiaren txostenak aurkeztu dira eta jarduerak egin dira, eta horiei esker, bai Gogora Institutuak, bai eragile publiko eta pribatu ugari protagonismoa hartu dute, eta gertatutakoaren ezagutza zabala lortzeko ahaleginean aurrera egin ahal

1 Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eginak 2018an eta 2020an (https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_18tef3/es_def/adjuntos/18tef3.pdf eta https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_20tef1/es_def/adjuntos/20tef1.pdf)

2 Aurrekontua egikaritzeari buruzko analisian, II. eranskinean berrius daiteke.

izan da –indarkeriaren inolako justifikaziorik gabe, ahaztu gabe eta gertakarien distortsiorik gabe–, betiere giza duintasuna eta giza eskubideekiko errespetua bermatzeko helburuarekin. **Autokritikaren** arloan, Planaren nortasun-ikur bihurtzeko ahaleaginean sakontzen jarraitu da.

-**Espetxe-politikan**, aurreko planean lortutako bultzadari eutsi zaio, eta, nahiz eta administrazio zentralaren ezegonkortasun politikoak ez duen aukera eman elkarrizketa behar bezain arina izateko, ezta Hitzeman Dekretua onartzeko ere, euskal politika birbideratzeko eta euskal presoak birkokatze proposamen bana aurkeztea lortu da. Biek eusten diote justizia errestituatiboaren eta espetxealdiaren ondorengo gizarteratzearen ikuspegi berriari, Idazkaritzak azken Legegintzaldietan bere egin duenari.

-**Bizikidetzaren hezkuntzan eta kulturaren** gaiak asko zabaldu dira, eta ikastetxeen ohiko dinamikan gero eta gehiago sartzen ari dira. Gainera, formatuak eta gaiak zabaldu dira gizarteko beste sektore batzuetara iristeko.

-Planak ikuspegi bikoitza izan du **migrazio-gaietan**. Gai sektorial gisa, EAE barruko erlijio-aniztasunaren trataeran eta jorratzean eta bertan bizikidetzan hobetzean sartu dira gai horiek, baina baita Europara iristen diren errefuxiatuen krisi humanitarioari erantzuteko elkartasunaren esparruan ere. Bestalde, Planak balio izan du Migrazioen Euskal Itun Soziala onartzeko. Itunaren helburua da migrazio-erronkei trataera holistikoagoa ematea, Gobernu osoa eta euskal herritarrak inplikatu dituen.

-Ikuspegi bera izan dute **nazioarteko gaiak**. Izan ere, EAEk nazioarteko ekimen eta akordioetan duen presentziari eutsi dio, bakea lortzen laguntzeko euskal ereduaren proiektioarekin; horrela, “Euskadi Basque Country” estrategian proposatutakoan aurrera eginez.

3. Gaikako gogoetak

•Pertzepzioa dago 2017-2020 Plana garatu bitartean jadanik, eta, are gehiago, EAEko gizarte-pertzepzioari erreparatzen bazaio, osatzen ari den agendako gaiak arretagune nagusi bihurtu direla. Bada, pertzepzio horrekin bat etorriz, “iraganeko” gaiak atal bakar batean sartzeari erabaki da. Horrek ez du esan nahi azken horien garrantzia gutxiesten denik, baizik eta egiaztapen bat baino ez dela egin: Planak bera, bere garapenean, eta euskal gizartearen gehiengoak gaur egun sentikorragoak dirudite bizikidetzaren eta giza eskubideen gaiekiko, XXI. mendean ezarritako herritarren politika publikoak inspiratu behar dituzten zeharkako gakoak diren heinean.

3.1. Indarkeriaren amaiera/Biktimak/Memoria/Espetxe-politika

•**Indarkeria terroristaren amaierak** –orain amaitzen den Legegintzaldiaren funtsezko mugariak– etapa bat ixtea ahalbidetzen du, eta aukera ematen du ahaleginaren berrorientazioa are gehiago indartzeko bizikidetzarentz eta giza eskubideen erabateko errespeturantz, bere hedadura osoan. Era berean (hurrengo urteetan oraindik dedikazioa beharko duten gaietako bat ere ahaztu gabe), aurrera begiratzea errazten du, oinarri hartuta bai bizikidetzan, eta gizarte-topaketa baketsu eta enpatikoa ahalbidetuko duten oinarriak sortu eta sendotzea.

•Oso berandu iritsi den zerbaiteko meriturik egotzi gabe, denboran zehar ekarpen ugari eta askotarikoak egin dituen baterako ekintza baten emaitza dira ETAREN amaiera eta armagabetzea. Legezko, behin betiko eta baldintzarik gabeko armagabetzea modu eraginkorrean gertatu da, eta, aldi berean, saihestu egin da biktimen sentibiltasuna mindu dezakeen edo lehen helburua arriskuan jar dezakeen edonolako distorsio propagandistiko.

•”Eusko Jaurlaritzak ETAREN armagabetzean eta desegitean egindakoaren deskribapena eta balorazioa” izeneko txostenak, Eusko Jaurlaritzak egina eta 2019ko urrian argitaratua, xehatu egiten ditu prozesu konplexu horren urrats nagusiak. Prozesu horrek balio du, era berean, 1959an hasitako indarkeria-aldi bati buruzko memoria kolektiboa eraikitzeko. Horri gehitu behar zaizkio I. eranskinean jasotako gainerako ekintzak, 1. ekimenari dagozkionak. Hortik gutxitik oso balantze positiboa ateratzen da, bai Planean bertan jasotakoa-

ri dagokionez, bai –askoz ere garrantzitsuagoa izanik– inoiz justifikatuta egon ez zen indarkeria-zikloa ixtera elkarrekin bideratutako euskal eragile publiko eta pribatuen ahalegin bateratuari dagokionez.

•Dagoeneko normalizazioa lortu ondoren terrorismoaren **biktimekiko** lanean, baita giza eskubideen beste urraketa batzuen eta beste sufrimendu bidegabe batzuen biktimekiko lanean ere; X. Legegintzaldian eta aurreko Bake eta Bizikidetzaren Planean, biktimentzako babesarekin, aintzatespenarekin eta arretarekin lotutako ekintzak hiru ildotan garatu dira: jarraitutasuna, hedapena eta berrikuntza. Jarraitutasuna: babesaren eta laguntzaren arloko jarduketekin; hedapena: motibazio politikoko testuinguru batean giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legea garatuta; eta berrikuntza: Batera Konpromisoa dokumentua bultzatuta, eta biktimen eta gizartearen arteko harremana eta haien partaidetza aktiboa sustatuta etorkizunaren eraikuntzan eta bizikidetzan. Jarraitutasunaren lehen ildoak oso emaitza onak izan ditu, eta hedapenarenak eta berrikuntzarenak, berriz, arazo batzuekin topo egin dute.

•Plan osoan zehar, Biktimei Laguntzeko zerbitzuari eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen programari eutsi zaie, baita biktimen elkarrekin irekitako dirulaguntzen programei eta hainbat elkarteri zuzendutako laguntza izendunei ere. Terrorismoaren biktimei dagokionez, adostasuna dago laguntzari dagokionez oso gutxi dagoela egiteke. Dena dela, era berean, gizartearen aintzatespen handiagoa behar dela uste da. Era berean, solaskidetzaren maila handiari eutsi zaio Legegintzaldi osoan funtzionamendu jarraitua izan du Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren bidez. Foro horretan lortutako konfiantza-giroa eta adostasun-maila nabarmentzekoak dira, eta aurreko egoeraren aldean hobera egin da horretan. Biktimen elkarrekin batek bakarrik izan du desadostasun-maila handia foro horretan eta, oro har, Planarekiko.

•1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa zabaltzeko dagokionez, Espainiako Gobernuak 12/2016 Legeari jarritako hurrenez hurrenko errekurtsoen ondoren, azkenean 5/2019 Legean onartutako haren aldaketa ia ez da praktikan jarri eta garatzeke dago. Hori da hurrengo Legegintzaldirako konpondu beharreko arazoetako bat.

•Nabarmentzekoa da, baita ere, Legegintzaldi honetan argitaratu eta aurkeztutako eta aurreko Legegintzaldian landutako honako txostena hau: “Ahanzturatik ateratzen. Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketari eta bestelako sufrimendu bidegabei buruzkoa”.

•Planaren kudeatzaileen borondate onaz haratago, aurrerabide eskasa egin den gai bat da bai ETaren, bai GALen, bai Batallón Vasco Españolen terrorismoaren biktimekin lotuta dauden argitu gabeko kasuena. Bistan denez, errealitate desberdinak dira, eta etorkizunean jorratu behar dira.

•Kezkagarria da, halaber, askatutako presoek beren herrietan harrera egiten jarraitzea, batzuek terrorismoa gorazarretzat interpretatzen dutena. Eragindako kalte bidegabea gogorarazten du eta indarkeria jasan duten kolektiboak berriz biktimizatzen ditu.

•**Espetxe-politika** eta EAEn dauden espetheen kudeaketa, Gernikako Estatutuak 10.14 eta 12.1 artikuluetan jasotzen duenez, Eusko Jaurlaritzari transferitu behar zitzaizkion bere garaian. Hala ere, onartu eta 40 urtera, eskumen horren eskualdatze eraginkorrak egin gabe dago oraindik. Metatutako esperientziak ulertarazten du espetxe-politika terrorismoaren aurkako borrokaren beste osagai bat bezala sortu eta gauzatu dela, ia aldatarik gabe, mehatxu terroristak desagertu ondoren ere.

•Geldialdi historiko horren aurrean, Idazkaritzak erabaki zuen, aurreko 2013-2016 Planetik abiatuta, eskumenen legezotasunaren barruan alternatibak bilatzea eta Hitzeman Programan gauzatutako proposamen-aldi bati ekitea, justizia errestituzioaren ikuspegian oinarrituta. Programak terrorismo delituengatik zigortutako presoak ditu ardatz, eta espetxe-politika “bakea eta normalizazio soziala sendotzeko faktore” izatea du helburu. Halaber, Zuzen Bidean Proposamenak, 2014ko azaroan aurkeztuak, zigor- eta espetxe-politikan galdutako normaltasuna berreskuratzearen alde egiten zuen, ETaren terrorismoaren aurkako borrokan gai horiek hartzen joan ziren salbuespen-izaerari amaiera emateko.

•Ildo horretatik jarraituz, Plan honek espetxe-politikari buruzko ekimen bat sartu du berriz ere. Ekimen horretan, blokeo politikoaren jakitun, Hitzeman Programaren proposamen-ikuspegiari eusten zaio. Hala, 2017ko uztailaren 19an, lehendakariak bi proposamen-dokumentu entregatu zitzaizkion Espainiako Gobernuari: “Espetxe-politikaren berrorientazio bat partekatzeak akordio-proposamena” eta “Euskal presoak espetxeetan birkokatzeak irizpide-proposamena”. Bi dokumentuek justizia errestituzioaren eta giza eskubideen ikuspegiari eusten diote.

•Bi dokumentu horiek entregatzeak ez zuen oihartzun handirik izan, Espainiako espetxe-politikaren gogortasunari eta Espetxeen Lege Organiko Orokorrari egindako kritikek euskal egoera ere gainditzen duten arren, birsozializazio-ikuspegia baino gehiago zigor-ikuspegia izateagatik. Hala ere, Eusko Jaurilaritzak elkarrizketa parlamentario eta politiko etengabea izan du Espainiako eta Frantziako gobernuekin arlo horretan. Lehenengo puntua beti izan da presoak beren familia-ingurunetik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea, gizarteratzearen aurreko urrats gisa.

•Lan eta Justizia Sailarekin elkarlanean, gizarteratze-politika publikoak arautzeko Hitzeman Dekretua izenekoa onartzea izan da abiarazitako azken ekintzetakoa. Jarduera 2018rako aurreikusita bazegoen ere, 2019ra arte ez zen lantalde bat sortu sail horren barruan. Balorazio hori amaitzean, litekeen Dekretuaren lehen zirriborroak idazteko lanean ari direla egiaztatu da.

•Funtsean, izugarri mugatu dituzte egindako ahaleginak bai maila nazionalean metatutako arazoek –eze-gonkortasun politikoaren eta arlo horretan aurrera egiteko borondaterik ezaren ondorio gisa–, bai EAEn pila-tutakoek –ezker abertzalearen agendaren eta presoan elkartze-sarearen kutsadura politikoaren ondorioz–. Hala eta guztiz ere, esan daiteke Planak aukera eman duela espetxe-politikari dagokionez termino errealistetan aurrera egiteko, eta Eusko Jaurilaritza egoera proaktiboan jarri du 1979 ezkerro izan den itxaronaldi amaigabearen aurrean.

•**Argitzearen eta memoriaren** esparruan, “kontakizunaren borroka” deitutakoak modu globalean kutsatzen jarraitzen du bizikidetzaren prozesua, eta oraindik gainditzea lortu ez den blokeo politikoak eragin ditu. Blokeoak ez dira erraz ulertzen iritzi publiko baten ikuspegitik, zeinak, praktikan, dagoeneko askoz gehiago aurrerantz begiratzen baitu iraganerantz baino.

•Ahalegin komun horri, hainbat erakunde publiko eta pribatu inplikaturik, I. eranskinean (3. ekimena) jasotzen diren ekintza eta argitalpen ugariak erantzuten diote, eta aurreko planean jadanik egindakoa osatzen joan dira. Horien artean nabarmentzen dira enpresa-munduen aurkako estortsioa; 1960-2014 aldian urrutzearen, torturaren eta tratu txarren espetxe-politikaren eragina; eta 1991-2011 aldian udaletako zinegotziek jasandako bidegabekeria.

•Gogora institutua abian jartzea, ahozko testigantzan espezializatzeko eta euskal kasuan erreferentziazko biblioteka gisa eratzeko duen helburu aitortuarekin, eta 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa garatzeko duen aktibismo nabarmenarekin, bere jardunaren norabidea printzipio etiko ukaezinetan oinarrituta mantentzeko Planean egiten den ahaleginaren frogara ona da. Printzipio horiek giza eskubideen defentsa edozein kontsiderazio alderdikoaren gainetik jartzen dute. I. eranskinean (5. ekimena) xehetasunez jasotzen diren jardueren bolumen handia izateaz gain, eta Memoria Historikoen Legearen aurreproiekturako zirriborroa 2019ko irailean onartzea lortu izateaz gain, nabarmentzekoa da euskal museo-egitura berrantolatzearen etengabeko ahalegina egin duela (Gernikako Bakearen Museoa, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea), nahiz eta aurrerapenak ez diren berdinak izan orain arte.

•Lehenengo jarduera-etapa honetan lortutako emaitzen arabera, ondorioztatu behar da plaza publikoa irabaztea eta eragile politiko eta sozialen artean konfiantza-maila bat sortzea lortu dela. Errealitate hori ezinezkoa izango zen Idazkaritzaren eta Gogoraren lana gainerako aktore politikoen aldetik aintzatetsi gabe eta aurreko jarduketek sortutako konfiantza aitortu gabe. Indar politikoen protagonismo handiagoa duten beste esparru batzuetan ez bezala, oso nabarmena izan da adostasunak sortzeko haien gaitasuna. Izan ere, horiei esker gauzatu ahal izan dira argitzearen eta memoria kolektiboaren aldeko jardueren kopuru handi hori.

•Plana, nolana ere, bi eremu oso zehatzetan blokeoa gainditu gabe amaitzen da: 1) Iraganari buruzko gogoeta kritikoa –Legegintzaldian zehar behin eta berriz saiatu arren, ezinezkoa izan da Oinarrizko Proposamena egiteko, aurkezteko eta zabaltzeko helburua aurrera eramatea (2. ekimenean jasota dago)–; eta 2) Eusko Legebiltzarraren Memoria eta Bizikidetzaren Ponentzia.

3.2. Bizikidetzaren hezkuntza eta kultura

•Hezkuntza-esparruak eta bakearen, giza eskubideen eta bizikidetzaren kultura sustatzeko jarduerak nabarmen egin dute gora aurreko bake- eta bizikidetzaren planetan egindakoaren aldean. Hazkunde kuantitatibo eta kualitatibo nabarmen hori gidatu du hezkuntza-alderdiak ukitzen dituzten ekimen guztien zentzu integratu eta koherentearen horizontea bilatzearen logikak. Ikuspegi komun hori berariaz jaso zen ekintza horien

guztien oinarria izan den 2017ko ekainean aurkeztutako dokumentuan: 2017-2020 Giza eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarria: Aukeratzeko ahalmena. Bertan, hezkuntzaren arloko ekintzei dagokionez, zentzu zabalean, honako hau adierazten da argi eta garbi: "... oinarri eta helburu partekatuak bide berean sartu beharko lirateke. Ildo horretatik, idazkaritzako zuzendaritzetan sortzen diren hezkuntza-plan guztiek giza eskubideei buruzko ikuspegia izan beharko dute. Hori horrela, hauxe da legealdi honetako erronka estrategikoa: giza eskubideen hezkuntza-proiektua sendotzea, giza duintasunaren irizpide pedagogikoan oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua, enpatiaren aldeko hautua aintzat hartuta. Helburu nagusia hezkuntza-tresnak sortzea da, bai eta bizikidetzaren arloan konpontzeke dauden edo sortzen ari diren erronkei aurre egiteko elkarrekintzak sortzea ere, gizarte- eta hezkuntza-arloan".

- Ikuspegi hain zabal horrekin batera, antolaketa-arloko erabakiak hartu dira, baita koordinazioa hobetzekoak ere, gainjartzeak edo bikoiztasunak saihesteko, askotariko erakundeak inplikatzen baitira, publikoak zein pribatuak. Haien arteko osagarritasuna izan da Planaren ekintzaren ardatza esparru horretan. Gizalegez Akordioa oinarri nagusia izan da Hezkuntza Sailarekin eta Euskadiko Eskola Kontseiluarekin egin diren giza eskubideei buruzko hezkuntza-proiektuetarako, eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ekintzetarako; gainerako erakundeetarako, berriz, lankidetzak-akordio eta -mekanismo espezifikoak bilatu behar izan dira. Gogora Institutua abian jartzearen ondorioz, halaber, ekintzen zati bat erakunde horren bidez gauzatu da³.

- Ikuspegi kontzeptualetik begiratuta, egin daitekeen lehen balorazioa da giza eskubideak ardatz gisa hartzea, haien osagaiekin batera, koherentea dela Planaren asmo orokorarekin, eta aukera ematen duela ekintza guztiak gehiago integratzeko. Era berean, parte hartu duten erakundeen artean adostasun gehiago sortzea ahalbidetu du, giza eskubideak nazioarteko eta maila nazionaleko akordio ugaritan jasotako erreferentzia eztabaiaezina baitira.

- Planean sartutako hezkuntza-jardueren gai-aniztasun handiak koherentziari ere eutsi ahal izan dio, hain zuzen ere, giza eskubideen esparruan integratu delako eta interpretatu ahal izan delako. Nazioarteko lankidetzarekin, elkartasunarekin eta herritartasun globalarekin lotuago dauden ekintzak sartzeko –lehen Planaren barruan sartu ohi ez zirenak–, bat etortzeaz gainera, modu sinergikoan ikus daitezke errefuxiatuen, erradikalizazio biolentoaren arloko prebentzioaren edo bestelakoen esparruko jardunekin.

- Eraginkortasunaren eta abian jartzearen ikuspegitik, bigarren balorazio hau egin behar da: eremu honetan aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu dira, eta hasiera batean aurreikusitako epeetan desbideratze edo atzerapen txikiak baino ez dira egon. Nabarmentzekoa da hezkuntzaren arloko ekintzen betetze-maila handia.

- Hezkuntza formalari dagokionez, azpimarragarriena da modu xumeagoan eta esperientzia pilotu gisa hasi ziren jarduerak normalizatu eta hezkuntza-programetan modu egonkorrean sartu izana. Horren adibide dira Adi-adian eta Memoria Plaza programak, baita Gizalegez Akordioaren inguruko bileren dinamika ere. Memoria Plaza programa Gogoraren mende egotera pasatzeak ez zuen arazorik sortu.

- Ekintza gehienetan adostasun-maila handia lortu den arren, beste batzuetan arazoak sortu dira akordioak egiteko, eta horrek kolektibo garrantzitsuei eskatu die euren hasierako jarrerak birplanteatzea. Iraganari buruzko kontakizunari dagokionez, adostasun sendoak lortzeko zailtasunaren kasurik adierazgarriena "Herenegun!" hezkuntza-programako materialaren proposamen-zirriborroa izan da. Material hori Memoria Hurbilari dagokion aldia (1960-2018) Historia irakasgaiari sartzeko da, DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan. Zirriborroa aurkeztu ondoren sortutako egoerak eragin handia izan zuen komunikabideetan eta iritzi publikoan, eta horrek agerian uzten du oraindik ahalegin handiak egin behar direla inplikaturako aldeek adostasun onargarriak lortzeko. Balorazio hau egitean, egoera bideratu egin da, baina zirriborroa ez da azkenik argitaratu, eta are gutxiago Planaren hasieran arlo horretan aurreikusitakoa abian jarri.

- Planarekin lotutako giza eskubideen arloko kultura eta gizarte-hezkuntza zabaltzeko ekintzetan, normalizazioa eta ekintzen kopurua eta aniztasuna areagotzea izan dira nagusi, era berean. Kasu batzuetan –adibidez, unibertsitatearen esparruko jarduketak, ikus-entzunezkoen munduarekin lotutakoak (Zinexit, adibidez), edo giza eskubideen inguruko daten oroitzenarekin lotutakoak (Deklarazio Unibertsalaren urteurrena, Haurren Eskubideak, René Cassin Saria...)-, jarraitutasuna izan da programa guztien buru, eta horiek euskal errealitatean sendotzea funtsezko lorpena da.

3 Planaren 9. eta 10. ekimenek hezkuntza eta dibulgazioan jartzen dute arreta berezia, baina beste partaidetza-ekimen batzuek –(11), lankidetzak-estrategikoak (12), elkarriketak eta akordioak (14)– besteak beste, hezkuntzaren arloko jarduketak ere sartu dituzte. Atal honetan horiek guztiak jorratzen dira, edozein ekimenetan kokatzen direla ere.

• Plan honetan berritzaileagoak diren ekintza batzuk lorpen berri oso positiboak erakusten hasiak dira, baina oraindik ez dago ebidentzietan oinarritutako masa kritikorik hori sakon baloratzeko. Hala gertatzen da erradikalizazio biolentoa prebenitzeko Uztartu programarekin. Programa 2019ko erdialdean hasi zen eta hainbat jarduera biltzen ditu, bai EITBrekin batera egiten direnak, bai bizikidetzan gehiago oinarritutako hezkuntzakoak. Egoera berean dago Etikasi programa. Gerrak markatutako Europako hirietara gazteei hezkuntza-bisitak egiteko programa da, Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan abian jarria. 2019an egindako bi esperientzia pilotuen balorazio orokorra oso positiboa izan zen.

• Planean sartu ziren, halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean egindako solidaritaterako hezkuntza-ekintza batzuk, hala nola “Mundua eskolan – Eskola munduan” modulu didaktikoa. Horren alderdirik nabarmenena izan da Lehen Hezkuntzan zein DBHn eskolaren jardunean modu normalizatu txertatzeko borondatea.

• Beste ekimen batzuk ere ohikoak bilakatzen joan dira, hala nola Elkarrekin Bonuen bidezko jarduerak edo toki-erakundeekiko ekintzak sustatzea. Esate baterako, udalek eta gainerako toki-erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan egiten dituzten jardunei emandako laguntza modu erregularrean mantendu da, 2017tik 2019ra bitarteko urteko deialdien bidez emandako dirulaguntzen bitartez. Guztira, Hezkuntzako ekimenak (9. ekimena) 1.635.000 €-ko azken aurrekontu-esleipena izan zuen, eta aurrekontuaren ia % 100 egikaritu zen. Kontuan izan behar da, gainera, hezkuntzaren arloko ekintzak ez direla ekimen horretan bakarrik biltzen. Izan ere, Plan osoan zeharkako ardatz gisa har daitezke.

• Eskura Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroa proiektuaren fase pilotua babes-teko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Donostiako Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren luzapenak garapen txikia izan du orain arte, baina, etorkizunari begira, horrelako zentro bat ardatz garrantzitsuagoa bihurtu beharko litzateke Planaren hezkuntzako ekintzetan. Eskola Bakegune espazioak ere ez du espero zen garapena izan oraindik.

3.3. Asiloa, aterpea eta immigrazioa

• 2019ko euskal iritzi publikoaren urtekariaren arabera⁴, immigrazioa eta horri lotutako arazoak hirugarren lekua hartzen dute euskal gizartearen gaur egungo kezken artean. Gai hori seigarren postuan dago 2019ko neguko Deustobarometroan⁵ eta 2019ko Euskobarometroan⁶, baina, egiaz, globalizazioari eta horrek toki-esparruan duen eraginari buruzko eztabaida berriak dira⁷. Euskal gizarte berria askotarikoa da hitzaren zentzurik zabalenean, eta aniztasun horri erreparatu beharko dio elkarbizitza osoa eta baketsua lortu nahi badu.

• Migrazio-gaiak Planean ekimen propio gisa agertzen ez badira ere, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek beren gain hartzen baitituzte beren eskumenen ardatz nagusizat, jarduera eta ekimen ugari jorratzen dute gai hori, bizikidetzaren erronka berrien etorkizuneko agertokiarekin lotuta. Zehazki, Planak migrazioarekin, aterpearekin eta asiloarekin lotutako ekintzak aurreikusten ditu, honako ekimen hauetan: 7.a (aniztasunaren kudeaketa positiboa), 8.a (elkartasunaren sustapena), 10.a (zabalkundea) eta 13.a (nazioarteko ekintza).

• 7. ekimena (aniztasunaren kudeaketa positiboa) erlijio-aniztasunean zentratzen da nagusiki, bereziki EAEko komunitate islamikoarekin lotuta. Hala, bizikidetzak hobetzeko hainbat ekintza diseinatzen ditu. Ekimen hau arrakastaz garatu bada ere, proposatutako kronograma beteta eta, are, gurtzarako toki eta zentzoei eta erlijio-aniztasunari buruzko lege-aurreproiektu bat onartuta (Legebiltzarrean onartzeke dago), bere ikuspegiak planteatzen dituen zenbait gai arreta berezia behar dute, bizikidetzan eragin negatiborik izan ez dezaten. Alde batetik, zaindu behar da EAEn komunitate islamikoak bezainbeste denbora edo luzaroago finkatuta daramaten beste komunitate batzuk ikusezin bihurtu ez daitezken. Eta, bestetik, eragotzi behar da komunitate islamikoaren eta nazioarteko terrorismoaren artean oharkabean loturaren bat ezarri ahal izatea. Nahiz eta egia den aspaldidanik islamiar sustraiko estremismo biolentoko protagonismo desegonkortzailea

4 Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egina. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_urtekaria_2019/es_def/adjuntos/urtekaria_2019.pdf

5 <https://drive.google.com/file/d/0BwLizN9mzBzoQzFXMjBhaUIIQ0tSVVluYWxMUGJJNmZuQnJ/view>

6 https://www.ehu.es/documents/1457190/1525260/EB_int_Junio19.pdf/25ff5c39-0988-d46e-a028-d5b688693cf1

7 Azken Deustobarometroak, COVID-19aren pandemia piztu ondoren egindakoak, are atzerago uzten ditu arazo horiek. <http://barometrosocial.deusto.es/wp-content/uploads/2020/05/Informe-DeustoVerano-2020.pdf>

hartu duela, Plana bereziki arduratsua izan da eremu horretan, nahi ez zen efektua ez eragiteko, alegia, jarrera arrazista eta xenofoboetatik bi gaien artean loturaren bat ezarri ahal izatea.

•8. ekimenak (elkartasunaren sustapena) ez du zuzenean migrazio-arazoa jorratzen. Aldiz, nazioartean jasandako azken krisi humanitarioez arduratzen da. Ildo horretatik, Europako mugetan errefuxiatutako pertsonen egoera nabarmentzen du. Nolanahi ere, aitortu behar da ekimen honen esparruan abian jarritako ekintzek aise eta oso modu positiboan gainditzen dutela hasieran programatutakoa. Zerrenda osoa I. eranskinean kontsulta daiteke, baina horien artean aipatzekoak dira Lehendakariak European errefuxiatutako pertsonen arretaren eta harreraren alde egindako adierazpen instituzionala; MENA edo JENA deitzen zaien bidaidetik gabeko adingabeei arreta emateko egindako ekintzak; 2018an, giza eskubideen urrakortasun-egoerei buruzko Sailarteko Lantaldea eratzea (lantalde horrek errefuxiatuengan zentratu du bere lana); “Eusko Jaurlaritzaren Esparru Dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeen artekoa eta sailen artekoa partekatuta orientatzeko” izeneko dokumentua; krisiari erantzun koordinatua ematea helburu duten Share Proposamena eta Babesletza Komunitarioa proiektuak; edo 2019ko azaroan aurkeztutako Migrazioarako Euskal Itun Soziala.

•Azkenik, aipatu behar da pertsona migratzaileen presentzia eta haienganako arreta ez direla lehen aipatutako ekimenetan amaitzen, baizik eta zeharkakoagoak diren beste ekimen batzuetan ere sartzen direla. Euskal Autonomia Erkidegoko bizikidetzaren parte diren etnia-, arraza- eta nazionalitate-aniztasuna ikusarazteko balio dute ekimen horiek. Adibidez, Bizikidetzarako Zinemaren 8. Erakustaldian, “Zuk” dokumentala aurkeztu zen, migrazioaren drama arintzeko lan egiten duten euskal boluntarioak protagonista dituen.

3.4. Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa

•Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa ez da halakotzat agertzen Planaren ekimenetako batean ere. Hala eta guztiz, Planean zehar, esparru horrekin zuzenean lotutako ekintzak abiarazi dira, 2017ko azaroan “Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Plana erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean” izeneko plana aurkeztearekin hasita. Ildo beretik, 2018an, ADOS Aholku Batzordea eratu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakundeen politika publikoetarako partaidetza, lankidetzeta eta aholkularitzarako kide anitzeko organoa Euskadiko komunitate islamikoekiko harremanetarako. Oro har, I. eranskinean (7. ekimena) ikus daitekeenez, harrezkero beste ekintza batzuk gehitu dira, euskal komunitate islamikoarekiko bizikidetzeta sustatzera bideratuta daudenak.

•Hezkuntzaren arloan ere, zehazkiago, sentsibilizazioaren arloan, gai horrekiko interes argia identifikatzen da, eta horren erakusgarri da 2019ko ekainean erradikalizazio biolentoa prebenitzeko nazioarteko mintegi bat antolatu izana. Mintegi horretan, Eusko Jaurlaritzak Uztartu programa aurkeztu zuen, gizarte- eta hezkuntza -profil argikoa, eta 2020-2021 ikasturtean ezarri beharrekoa.

•Idazkaritzaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetzaren esparruan, islamismo erradikalaren aurkako plan estrategikoa EAEko udaltzainei eta alkateei zabaltzea erabaki zen 2018ko martxoan. Ildo beretik, giza eskubideen arloan lankidetzeta zabaltzeko konpromisoa barne hartzen da, hala nola: “erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzeta, gorroto-delituaren prebentzioa, bidegabekeria- eta diskriminazio-modu berriak, nazioarteko terrorismoa...”.

•Hurrengo Legegintzaldian gaiak garrantzi handiagoa hartzeko zain, oso adierazgarria da Planak prebentzio-ko eta zeharkako ikuspegi argia aukeratzea, azkenean amaitu den hamarkadako indarkeriaren esperientzia metatuarekin eta etorkizunean antzeko zerbait gerta gertatzeko arriskua balego ere.

•Zoritxarrez, ezin da baztertu iraganeko taldeei lotutako erradikalizazio biolentoren bat berriro sortzeko aukera, batzuek terrorismoaren gurtzat hartzen duten horren ondorioz, iraganean indarkeriazko ekintzengatik kondenatutako pertsonak aintzateste eta haiei harrera egiteko ekintzak agertzen direnean. Gizarte bakar bat ere ez dago indarkeriaren eta erradikalizazioaren aurka immunizatuta, eta horregatik adi egon behar da horrelako noraeziki gertatuko balitz ere.

•Nolanahi ere, zentzuzkoa da ahalegin nagusia egitea dogmatismoak, fatalismoak, manikeismoak eta sektarismoak euskal gizartean lekuri aurkitzen ez dutenak indarkeriara eraman ez ditzaten. Ahalegin horrek neurri sozial, politiko eta ekonomikoak behar bezala konbinatuko dituen hurbilketa holistikoa egitea gomendatzen du, azken batean, EAEn bizi diren pertsona guztien erabateko integrazioa lortzeko. Ez dira nahikoak neurri polizial

hutsak –adibidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hartzen dituenak–, eta, ezta, hezkuntzaren arloko neurriak ere –balio positiboak, kontzientzia etikoa eta giza duintasuna bezalako balioak sustatzen dituen eduki pedagogikoan oinarritutakoak.

3.5. Nazioarteko gaiak

- Idazkaritzak beti esan du bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko bultzada EAEn kanpo-ekintzetan ere proiektatu behar dela, eta hala egin du, alde anitzeko instituzioek euskal eredia eta esperientzia zabalduz egiten dituzten nazioarteko ahaleginetan parte hartuta, batez ere.

- Bake eta Bizikidetzaren Planak nazioarteko ekintzarako ekimenak jasotzen zituen jadanik, eta gauza bera egiten du egungo Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak, nahiz eta orain ekimen bakar batean kontzentratzen den, 13.ean.

- Lehenik eta behin, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioarekiko harremana eta haren jardueren aurrekontu-babesari eusten zaio. Babes hori erakundearen urteko memorian agertzen da. Era berean, giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa finkatu da, 2019an dagokion deialdia irekita eta Giza Eskubideak Behatzeko Ordezkaritzak Kolonbiara egindako bisita instituzional baten bidez.

- 13. ekimeneko laugarren ekintza dokumentu batean gauzatu zen. Dokumentua 2018an egindakoa da eta izenburu hau du: “2019-2020 Programa. Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardunaren lehentasunak giza eskubideen arloan”. Aipatutako dokumentuak orientazio gisa balio du Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen arloko nazioarteko jardunari edukia eta kudeaketa emateko, batez ere Idazkaritza osatzen duten erakunde bidez. Jarduna 2020an zehar garatzekoa zen.

- Plana egikaritzeko epe osoan geldiarazitako ekintza bakarra bigarrena izan da, Peace Programme programari buruzkoa. Idazkaritzak Brexitak eragindako ziurgabetasuna alegatu du. Hain zuzen, horren ondorioz, programa horrekin lotutako edozein jarduera atzeratu dago beste abisu baten zain.

- Planak nazioarteko ekintzak ere barne hartzen ditu, ekimen bakoitzaren helburuen osagarri gisa. Ekintza horiek Eusko Jaurlaritzak bakeari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko gogoeta-foroetan parte hartzearekin dute zerikusia. Horren adibide dira Kolonbiako bake-prozesuan izandako inplikazio-maila nabaria eta 2018ko urtarrilean lehendakariak Rene Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren egoitzan Gernikako zuhaitzaren kimu bat landatzen parte hartu izana, Estrasburgon.

- Azkenik, nabarmendu behar da ekimen honek adibide gisa balio duela azaltzeko nola Idazkaritzak, planifikatutako ekintzatik abiatuta, beti bilatu izan duen Jaurlaritzako beste erakunde batzuen lankidetzaren Planaren helburuak zabaltzeko eta giza eskubideen erabateko errespetuarekiko koherentziari eusteko.

4. Zeharkako gaiak

4.1. Genero-ikuspegia

- Aurreko gomendioei jarraituz, Planak ulertu du beharrezkoa dela generoaren dimentsioa sartzeari sexuaren arabera bereizitako datuak bilduta eta aztertuta. Horrek jauzi kualitatibo bat ekarri du, eta horri esker jakin ahal izan da, problematika bakoitzaren barruan, zein egoera bereziki egin behar zioten aurre emakumeek eta neskatuek, beren izaeragatik, ekintzak aurkitutako erronketara egokitzen joateko.

- Hala ere, oraindik ez da lortu genero-ikuspegi erabat zeharkakoa, ekintza zehatzak gaudituko dituen eta Plana osorik gizon eta emakumeen arteko berdintasunerantz bideratuko duena, esparru sektoriala edozein izanik ere. Ikuspegi hori txertatzeak ez lioke soilik koherentziari erantzungo, baizik eta etorkizuneko erronketan sar litekeen gizarte-eskaerari ere: generoa eta haren dimentsioak kontzeptualizatzeak berekin dakar erantzukizunez eta koherentziaz jokatzeari, ez bakarrik nazioarteko esparru juridikoekin eta giza eskubideen beste tresna batzuekin, baita gizarte-mugimenduen eta gizarte zibilaren aldarrikapenekin ere, sozialki onartuta dagoen gaitz jatorrizko, iraunkor eta paradoxikoki onartuenari aurre egiteko, genero-desberdinkeria eta horren ondorioei, alegia.

- Horregatik, hain zuzen, genero-gaiak giza eskubideen edozein agendaren funtsezko osagaitzat ulertu behar dira, ikuspegi global horretatik soilik joan baitaiteke ikuspegi sektorialetik harago, emakumeei ez ezik, gizarte osoari ere eragiten dion arazo baten alderdi sozial, politiko, juridiko eta ekonomiko guztiak jorratu ahal izateko; hori guztia giza eskubideen urraketarik gabeko bizikidetza baketsua sendotzeko asmotan.

- Horretarako, beste esparru batzuetan egiten ari den bezala, Idazkaritzak Emakumearen Euskal Erakundearen (Emakunde) lankidetzara areagotu dezake, eginkizun horretarako aholkularitza-arlo bat baitu, edo bere saileko Berdintasunerako Unitatearekin.

4.2. Ikerketa, politikaren euskarri gisa

- Aurreko ebaluazioan aipatu zen jarraitutasunari eutsi zaio berriz ere, eta nabarmentzekoa da Planaren ekimen gehienetan, batez ere alderdi polemikoak edo berriak jorratzen zituztenetan, kalitatezko ikerketa zorrotzat abiarazi izana ekimen horietako asko onartzearen oinarrian egon dela. Ebaluazio-taldearen balorazioa ez ezik, eragindako sektoreena eta, egokitu denean, komunitate akademikoarena edo sektore bakoitzeko adituena ere oso positiboa da Planak sortutako txostenei eta azterlanei dagokienez, baita politika publikoa egiteko horien erabilgarritasunari eta egokitasunari dagokienez ere. Zeregin horretarako Euskal Unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenek behar bezala funtzionatu dute, baina ibilbide eta proiektio eskasarekin.

4.3. Giza eskubideen agenda berriaren erronkak

- Euskal gizartea bere munduaz kontziente da, eta konprometuta dago, bai tokiko balioekin, bai nazioarteko erronkekin. Hala erakutsi du, ez bakarrik bere egunerokoan, baita EAEn urtero egiten diren azterketa soziologiko guztietan ere.

- 2019an, Planaren esparruan, Aholku Batzordeak bi azterlan hauek enkargatu zituen: “Euskal gizarteak giza eskubideen arloan gaur egun dituen lehentasunak” eta “Datozen 20 urteetan giza eskubideek maila globalean izango dituzten erronkak”. Aholku Batzordean eztabaidatu ziren biak, eta ondorio interesgarriak atera ziren hurrengo planerako. Garrantzitsuenak, etorkizuneko agendan sartzeari dagokienez adostasun handiena eragin dutenak, mota guztietako aniztasunaren kudeaketari buruzkoak dira. Horien artean, honako ideia hau nabarmentzen da: “Aniztasuna integratu behar da, elementu aberasgarri gisa, pertsona guztien eskubideak bermatuz, diskriminazioari aurrea hartzeko eta bizikidetza eta elkarrizketa soziala sustatzeko politika aktiboekin”, sartuta, era berean, eskubideekin lotura handiagoa duen genero-ikuspegia zabaltzearekin lotutako politikak eta “bizitzaren iraunkortasuna” deiturikoarekin zerikusia dutenak ere.

- Giza eskubide jakin bati erreferentzia egitetik urrun, eskubide horien osotasuna kudeatzeko eta bermatzeko modurik onena bilatzen duten kezkak dira. Testuinguru horretan, gobernantzak espazio tokikoagoa hartuko du bere gain, baina ikuspegi globala galdu gabe, eta gizarteak, orain arte bezala, politika publikoetan parte hartzea eskatuko du.

- Nolanahi ere, eskubideak urratzeko arrisku handiena duten esparruak identifikatu beharko dira. Hemen egiaztatzen denez, giza eskubideen Euskal Agenda deitu dakioketena gero eta gehiago doa arlo horretako nazioarteko agendaren eskutik, eta mantentzen diren (jakina) berezitasun-elementuak gero eta urriagoak dira.

- Lehen aipatutako azterketen arabera, euskal gizartearen kezka eta lehentasun nagusien artean, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskubide zibil eta politikoekin nahasten dira. Enplegua eta berori inguratzen duten gai guztiak daude kezken zerranda honen buruan. Ezinbestekoa da giza eskubideen euskal agenda berriak kezka horiek ere islatzea eta horiek guztiak babestera eta sustatzera zabaltzea etorkizuna.

- Azaleratzen ari diren gai horiek Idazkaritzaren eskumenak gainditzea gerta daitekeenez, Idazkaritzak erronka zehatz gisa hartu beharko luke politikak koherenteak izatea eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera lan egiteko esparrua ezartzea; giza eskubideen zeharkakotasunaren ikuspegitik, beren eginkizunetan laguntzeko eta eskubide zehatzago batzuk betetzen laguntzeko. Euskadi 2030 Agendan ibilbide hori marrazten lagunduko duten elementuak bila litezke.

5. Antolaketa-alderdiak

•Aurreko balorazioetako gomendio batzuk kontuan hartuta, Planak indartu egin ditu bere kudeaketa-egiturak, eta, batez ere, askoz protagonismo handiagoa eman die aurreikusitako koordinazio- eta partaidetza-mekanismoei, bai eta beste erakunde batzuekiko elkarrizketarako, akordiorako eta lankidetzazko estrategikorako espazioei ere.

5.1. Planaren barne-antolaketa

•Giza Eskubide, Bizikidetzazko eta Lankidetzazko Idazkaritza Nagusia arduratu da Planeko ekintza guztiak zuzentzeaz eta abian jartzeaz. Garapenerako Lankidetzazko Euskal Agentzia (GLEA) Idazkaritzan eta Planeko ekintzaren batean sartzeak ondorio positiboak izan ditu, eta nazioarteko elkartasunarekin, errefuxiatuen krisiarekin eta beste alderdi batzuekin lotutako zenbait elementu modu koordinatuagoan bultzatzea ahalbidetu du. Bestalde, Gogora Institutua sortu eta indartzeak eta autonomia operatibo nahikoarekin funtzionatzeak memoriaren arloko ekintzak indartzeko balio izan dute.

•Planaren ekintzen kudeaketa, 2017an abian jarri zenetik balorazio hau egin den arte, normaltasun osoz egin da, eta jarraipen-mekanismoek ere aurreikusitakoaren arabera funtzionatu dute. Sailarteko Batzordearen eraketan atzerapen txiki bat izan zenez, lehenengo jarraipen-txostena, 2017koa, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aurkeztu zuen. Planaren “Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena, ebaluazioa)” 15. ekimenean jasotako ekintzak ere normaltasunez gauzatu dira, eta urteko programazioetan aurreikusitako ekintzak bete dira. Frogatu da Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzazko adierazlearen koadrorako plana urte bakoitzeko lehen hilabeteetan egitea egokia dela planaren eraginaren jarraipena egiteko.

•Era berean, aurrerapen nabarmena egin da Aholku Batzordeak izan duen eginkizunean, eta eztabaida-foro garrantzitsu bihurtu da giza eskubideen etorkizuneko agenda osatzeko. Sailarteko Batzordeak, bestalde, uste baino garapen txikiagoa izan duten hiru lantalde eratu zituen bere baitan.

5.2. Parte hartzeko, elkarrizketarako eta lankidetzarako mekanismoak

•Mota honetako espazioak askotariko erakunde publiko zein pribatu ugari biltzen dituzte, eta zabaldu eta dibertsifikatu egin dira Legegintzaldian zehar. Oro har aztertuta, gehienek ondo funtzionatu dute: akordioa Gazteriaren Kontseiluarekin, EUDELEkin, foru-aldundiekin, Lan eta Justizia Sailarekin, EITBrekin, giza eskubideetan hezteko erakundeekin...⁸.

•Bi espazio, ordea, problematikoak izan dira, eta horietan ia ez da aurrerapausorik eman: Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzazko Ponentzia eta 12/2016 Legeak sortutako Balorazio Batzordea, eta Espainiako Gobernuarekiko harreman-esparruak, bereziki espetxe-politikaren arloan.

6. Ondorioak

•Oro har, bizikidetzazko eta giza eskubideen arloan euskal errealitatean izandako aldaketetara egokitzen jarraitzen du Planak, eta aldaketa horiek ahalbidetzea eta sendotzea ahalbidetu duen bultzada-tresna izan da. Gai eta eduki berriak modu harmonikoan txertatu dira, eta Planaren bizikidetzazko eta giza eskubideen ikuspegi zabalaren alderdiak indartu dira. Gehikuntza horiei esker, Planaren egokitasuna areagotu da eta hura Euskal Autonomia Erkidegoaren egoerara hobeto moldatu da. Gainera, aurreko bake- eta bizikidetzazko-planetik jarraitutasunaren eta aldaketaren arteko balantze koherentea ekarri dute.

⁸ I. eranskinean ikus daiteke Planaren ekimenetarako abian jarritako askotariko hitzarmenen edo akordioen zerrenda xehatua.

•Adostasun handia dago Idazkaritzaren lanak –bere eskumenen eta Planaren helburu eta ekintzen esparruan hartutako konpromisoen betetze-maila handiarekin– ekarpena egin duela bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako zenbait gairen inguruan arreta eta interesa mantentzen. Ekarpenean esan dugu, ez, ordea, esleipena. Izan ere, balorazio honen irismena dela eta, ezinezkoa da Planari edo Idazkaritzari zuzenean egozte aipatu diren aldaketa asko. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, Idazkaritzaren jardunak gabe, gaitzuek –autokritikaren beharra, bizikidetzaren eta giza eskubideen ikuspegia etorkizuneko giltzarri gisa, adibide batzuk bakarrik jartzearen– ez lukete garrantzi bera izango agenda sozialean, politikoan eta mediatikoan. Plana berez oso ezaguna ez bada ere euskal gizartean, badira, ordea, haren ekintzak eta Idazkaritzaren zeregina.

•Kasu gehienetan, gauzatutako ekintzek Plana bera gainditu dute, eta lankidetzarako arkitektura konplexua sortu da, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai erakundeetatik haratago. Horrek Planaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotu ditu. Gobernuaren beraren barruan, gainera, badira Planarekin zerikusia ez duten beste ekimen asko, EAEK giza eskubideak erabat gauzatzeko egiten dituen ahaleginak indartzen dituztenak. Nahiz eta oraindik ez den erabat txertatu giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia euskal politika publikoetan (hori ez zen ere Planaren helburua), aurrerapen garrantzitsuak izan dira, eta horretan lagundu dute, besteak beste, Planaren Aholku Kontseiluaren barruko eztabaidek. Erakunde publikoek eta gizarte-sareak Planaren ekintzetan duten parte-hartze handia ez dator bat enpresa-sektoreek orain arte izan duten presentzia urriarekin. Izan ere, sektore horien inguruan adostasun handia dago bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan duten potentzialari buruz, baina gai hori ia ez da aztertu.

•ETAren amaiera eta armagabetzea denboran zehar ekarpen ugari eta askotarikoak egin dituen baterako ekintzaren emaitza dira, eta Planak asko lagundu horretan. Planaren bidez, euskal eragile publiko eta pribatuaren ahalegin bateratua bideratu dute ekintzak bultzatu dira. Eragile horiek, batera, inoiz justifikatu ez zen indarkeria-zikloa ixten zentratu dira. Legealdia, hasi zenetik unetik bertatik, indarkeriarik gabeko etorkizun baterako trantsizio gisa ulertzen bazen, ETAren behin betiko desagiteak are gehiago indartu du izaera hori. Horrek ez du eragotzi hainbat arlotako desadostasunek Plan hau garatzea zaildu izana. Plan honek, nolahi ere, oso balantze positiboa du gauzatutako ekintzen kopuruari, edukiari eta betetze-mailari dagokienez.

•Ekintza askotan, planaren lorpen nagusia da giza eskubideekin eta bizikidetzarekin lotutako ekintzak modu normalizatuan txertatu izatea politika publikoetan eta euskal errealitatean. Horren adibide dira biktimenganak jardunak, hezkuntzaren arloko ekintzak, elkartasun-ekimenak, nazioarteko esparruan jardutea edota babes- edo migrazio-gaiak bultzatzea. Gai horietan egiteke geratzen diren gaiak, garrantzitsuak izanik, egindako lorpenak baino askoz txikiagoak dira.

•Beste gai batzuetan, ordea, ez da lortu bat egokitzea iraganaren ikuspegi desberdinak eta horiek orainean eta etorkizunean duten pisua. Eufemistikoki “kontakizunaren borroka” deitutakoak jarraitu egiten du, eta etorkizunean ere jarraituko du. Planak eztabaida antolatzen eta horren maila igotzen lagundu du, iraganaren beharrezko berrikuspen autokritikoa nabarmenduta, baina lan hori egiteke dago oraindik. Espetxe-kontuak, berriz, euskal agenda kutsa dezakeen gai kapsulatua bihurtu dira. Idazkaritzaren lan diskretuak ez du emaitza nahikorik izan. Are gehiago, nolabaiteko frustrazioa sortu du Estatuko gobernuarekiko eta euskal eragile sozial eta politiko batzuekiko, egoera delikatueta dauden presoak artatzeko kudeaketa humanitarioek ere huts egin dutelako, pandemia piztu ondoren ere.

•Beren herrietara itzultzen diren presoak goraiatzeko zenbait ekintzarekin jarraitzeak birbiktimizazio onartezina dakar, etikaren eta bizikidetzaren edozein ikuspegitik, eta, horregatik, erabakitasunez baztertu beharko liriteke.

•Erradikalizazio biolentoari aurrea hartzeko ekintzak gehiegi zentratu dira komunitate islamiarrekiko harremanetan, eta erlijioaren ikuspegitik bakarrik. Horrek dimentsio bakarreko ikuspegia dakar, etorkizunari begira gomendagarria ez dena.

•Plana garatu ahala aurrera egin da ikuspegi argiago eta bateratuago baterantz –Aholku Batzordean bereziki nabaria–, Planaren irismena giza eskubideen eta bizikidetzaren agenda globaleko gaietara zabalduz joateko. Bilakaera horretan garrantzi handiagoa hartu dute aniztasunaren kudeaketarekin lotutako gaiak, bizitzaren iraunkortasunarekin lotutakoak, generoari buruzko gaiak bultzatzeak eta migrazioarekin lotutako gaien ikuspegi zabalagoak, besteak beste.

•Ikuspegi organikotik, Lehendakariatzako Idazkaritzarekiko zuzeneko mendekotasuna funtsezko puntu bat izan da, eta, horri esker, Planaren bultzada irmoa eta ekintzen gauzatze-maila handia lortu dira, baita aurrekoaren egikaritze-maila handia ere.

7. Gomendioak

•Behin hain etapa konplexua gaindituta, ETA behin betiko deseginik, egokia da hasitako bideari hurrengo Legegintzaldirako plan berri batekin eustea. Ahalegina bizikidetzaren normalizazioan zentratzen jarraituko duen plana, gauzatzeke dauden gaiak ixtea ahaztu gabe eta euskal gizartearen aniztasuna eta kulturantzatasuna onartuta. Giza eskubideak, bestalde, lehen mailako zeharkako ardatz gisa ulertu behar dira, irrikatzen dugun bizikidetzari hori sendotzeko erreferentzia-esparru nagusizat, hain zuzen ere.

•Bizikidetzari bermatzeko helburu nagusiarekin, etorkizuneko Planaren gai nagusiak giza eskubideen agendaren, 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriaren Helburuen artean banatuko direnez, komeni da Idazkaritzak beharrezko baliabideak edukitzeko aukera izatea, ez hainbeste era guztietako ekintzak zuzenean zuzendu eta gauzatzeko, baizik eta gai horietan inplikaturako eragile anitzen lana koordinatzeko eta errazteko ere. Horrela, sailak eta eragileak eraginpean senti daitezkeen zeharkako gaiak direnez, saihestu ahal izango da inork horiek propiotzat hartzea, eta ahalegin globala eta inplikaturako erakunde bakoitzarena desegitea.

•Gogora Institutuak argitzearen eta memoriaren arloan egin duen ibilbide finkatuari esker, aztertu ahal izan ditu adostasun zabala lortzeko aukerak, ez, hainbeste, kontakizun bakarria ezartzeari dagokionez (ezinezkoa, nolana ere), baizik eta iraganaren balorazio kritikoan eta eragindako min justifikaezinen inguruko onarpen partekatuan.

•Biktimganako eta biktimgikoko ekintzek etorkizuneko plan baten oinarritzako ardatz izaten jarraitu behar dute, eragindako kaltearen inguruan gizartearen eta herritarren aintzatespen-elementu gehiago erantsita, eta berriz biktimgizatzea ekarriko duten gertaerak saihesten saiatuta.

•Plana egikaritzean migratzaileei eta asiloa eta babesa eskatu dutenei arreta handia eman zaien arren, azpimarratu behar da kolektibo horrekiko ikuspegiak holistikoagoa izan behar duela, aniztasuna onartzean oinarritutako eskubideen ikuspegi batetik, ez bakarrik kolektibo bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, baizik eta euskal gizartearen barruko integrazio osotik eta bizikidetzatik abiatuta, bakoitzaren jatorria kontuan hartu gabe. Ikuspegi integral hori bakarrik izango da posible plan berriak ekimen propiotzat hartzen badu migrazioari arreta ematea, Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitate eta zati gisa.

•Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa komunitate islamiarrekiko hain argi eta ikuspegi erlijiosoan soilik zentratzeak gomendagarria ez den dimentsio bakarreko ikuspegia dakar. Planak ulertu du, musulmanak ez ezik, askoz ere gauza gehiago daudela, eta, horregatik, komunikaziorako eta lankidetzarako beste kanal ez-erlijioso batzuk garatzearen alde egin du. Kanal horiek multidimentsionalitate hori kontuan hartu beharko dute. Gazteen Kontseiluak, hezkuntza sistemarekin eta hedabideekin batera, garatu beharreko zeregina ere hor dauka.

•Hainbat ikuspegiatik, argitzearekin eta memoriarekin lotutako pertsona eta erakunde publiko eta pribatuak metatutako esperientziari esker, esparru instituzional bat sortzea planteatu daiteke (Bakearen Euskal Erakunde?), bai ikasitakoa baliatzeko, bai nazioartean partekatzeko, bakea eraikitzen eta gatazkak prebenitzen, eraldatzen eta ebatzen diharduten beste eragile batzuekin. Indarkeria eta terrorismoko garai tragiko horretan bizi eta ikasitakoak nazioarteko agertokian oso baliagarria izan daitekeen kapitala dakar, antzeko egoerak jasaten ari diren gizarteekin partekatzeko eta lankidetzan aritzeko.

•Genero-gaiak giza eskubideen edozein agendaren funtsezko osagaitzat ulertu behar dira, ikuspegi global horretatik soilik joan baitaiteke ikuspegi sektorialetik harago, emakumeei ez ezik, gizarte osoari ere eragiten dion arazo baten alderdi sozial, politiko, juridiko eta ekonomiko guztiak jorratu ahal izateko; hori guztia giza eskubideen urraketarik gabeko bizikidetzari baketsua finkatzeko. Idazkaritzak Emakumearen Euskal Erakundearen (Emakunde) lankidetzari areagotu dezake, eginkizun horretarako aholkularitza-arlo bat baitu, edo bere saileko Berdintasunerako Unitatearekin, politika publiko guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra helburu izango duten ekintzak diseinatzeke eta ezartzeko, edozein dela ere horien esparru sektoriala.

•Planean zehar garatu beharreko harreman-esparru gisa hainbat aldiz adierazi bada ere, oraindik ere beharrezkoa da zehetasun handiagoz zehaztea enpresa-munduaren aldetik giza eskubideen agendarekiko konpromiso-maila handiagoa ikusaraziko duten neurriak eta ekimenak.

•Era berean, oso garai zailetan bakearen alde aktiboki mobilizatu ziren gizarte zibileko pertsona eta erakundeek berriazko aintzatespen publikoa emateke dago. Izan ere, haiek, zeregin horretan, euren bizitzak arriskuan jarri behar izan zituzten, bakearen eta bizikidetzaren kausari beren jakintza eta ahalegina ekartzean.

•Kulturaren eta hezkuntzaren arloetako alderdiek –landu beharreko edukiak eta lortu beharreko formatu eta publikoak zabaldu eta dibertsifikatu– funtsezkoak izaten jarraitu beharko dute hurrengo planean, eta plan horrek protagonismo handiagoaz inplikatu beharko lituzke era guztietako hezkuntza- eta kultura-entziazak. Historia eta etika ikasteari lotu behar zaio memoria. Giza eskubideen inguruko prestakuntzak eskubide “guztietan” eta horien zatiezintasunean sakondu behar du. Bizikidetzan oinarritutako hezkuntzari modu positibo eta zabalean heldu behar zaio. Horretarako, hainbat elementu txertatu egin behar ditu, hala nola: bestereenganako enpatia eta aintzatespena, haren aniztasunaren aintzatespena, errespetuaren beharra, eta gatazkak eraldatzeko eta indarkeria arbuiatzeko mekanismoen beharra.

•COVID-19aren pandemiak elkarbizitza-eredu berriak azaleratu ditu. Horietan, mundu birtuala gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen. Gomendagarria litzateke Plan berriak agertoki digital horiek aztertzea eta ekintza zehatzak diseinatzea, ez bakarrik kanal horien bidez giza eskubideen urraketa saihesteko, baita euskal komunitate digitalaren kohesioa indartzeko ere.

I. eranskina.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren gauzatze-taula⁹

I. ARDATZA. IRAGANA. INDARKERIAREN AMAIERA ANTOLATUA		
1. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
ETAren armagabetzea eta desegitea	1. Armagabetzea egiaztatzea babesteko prozesuaren garapena.	1. 2017ko lehen lauhilekoan, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak parte-hartze aktiboa izan zuten legezko, behin betiko eta atzera bueltarik gabeko armagabetzea ekarri zuen prozesua errazteko zereginetan.
	2. Prozesua ebaluatzea.	2. 2018ko maiatzera arte, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak beren esku zeuden jarduerak garatu zituzten, eta desegitea aldebakarrekoa, eraginkorra eta behin betikoa izan zedin. Uztailaren 4an, Uxue Barkos Nafarroako Foru Erkidegoko Presidenteak eta Iñigo Urkullu Lehendakariak ETAren amaiera zela-eta adierazpen bateratua egin zuten, ETAren behin betiko desagerpena iragarri ondoren, bizikidetzak finkatzeko partekatzen dituzten proposamenekin eta konpromisoekin. Urriaren 14ean, "Eusko Jaurlaritzak ETAren armagabetzean eta desegitean egindakoaren deskribapena eta balorazioa" txostena aurkeztu zen.
2. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa	1. Oinarrizko proposamenaren zirriborroa egitea.	1. 2017az geroztik, Oinarrizko Proposamenaren zirriborroa lantzen hasi zen, betiere Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzak Lantaldean ezarritako egutegiaren arabera. 2018an jada hainbat zirriborro daude.
	2. Ahalik eta adostasunik handiena lortzen saiatzea.	2. 2017 osoan, Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze publikoek terrorismoaren bidegabekeriari, indarkeriari eta giza eskubideen urraketari buruzko gogoeta kritikoa eta partekatua egiteko prozesuaren beharra berretsi zuten.
	3. Ekimena ebaluatu eta eguneratzea.	3. Jarduera hori 2020ko bigarren hiruhilekora atzeratu zen, Eusko Legebiltzarreko Memoria eta Bizikidetzak Lantaldearen egutegira egokitzeko. Hala ere, ezin izan da gauzatu apirilaren 5eko hauteskunde deialdiagatik, lehenik, eta Covid-19aren pandemiagatik, ondoren.
	4. Adostutako dokumentuaren edukia zabaltzea.	4. 2020rako aurreikusitako ekintza.

⁹ Taula hau Planaren 2017., 2018. eta 2019. urteetarako jarraipen-txostenetan eta 2020rako bildutako datu batzuetan oinarrituta eginda. Hala ere, azken urterako informazioa ez dago osatuta.

3. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Iragana argitzea	1. Argitze-lanaren urteko programa zehaztea.	1. 2017. eta 2019. urteetan, hurrengo bi urteetarako urteko programak zehaztu ziren.
	2. Lan-programa kudeatzea.	<p>2. 2017ko martxoan, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroak egindako "Enpresa-munduaren aurkako estortsioari eta indarkeriari buruzko txostena" argitaratu zen.</p> <p>2017ko maiatzaren 17an jendaurrean aurkeztu zen "Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egoera eguneratua", Giza Eskubideak seriearen lehen txostena (Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan sustatutako txosten monografikoak eta kasu-azterketak).</p> <p>2017ko azaroaren 24an, "Urruntzeko espetxe-politikak familian duen eraginari buruzko txostena" aurkeztu zen, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egina.</p> <p>2017ko abenduaren 18an, Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) "Euskal Autonomia Erkidegoan 1960-2014 bitartean izandako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua" aurkeztu zen.</p> <p>2018ko martxoaren 24an jendaurrean aurkeztu zen "Hiru gazte coruñarrei desagerpenari buruzko txostena. 1973ko martxoaren 24an", Giza Eskubideak seriearen bigarren txostena.</p> <p>2018ko ekainaren 6an, Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egindako "Terrorismoaren biktimek egia jakiteko eskubidea" txostena entregatu zen Legebiltzarrean.</p> <p>2019ko uztailaren 12an "jazarpen-indarkeria pairatu zuten zinegotziek jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1991-2011)" aurkeztu zen, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egina, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz.</p>

II. ARDATZA. ORAINA. BIZIKIDETZAREN NORMALIZAZIOA

4. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Biktimak	1. 2017ko lan-programa.	1. 2017an, ekintza hauek egin ziren: <ul style="list-style-type: none"> • 2017ko martxoaren 10a. Terrorismoaren biktimei aitortza instituzionala eta soziala emateko ekitaldia Gasteizen, “Memoria eta etorkizuna. Elkarrekin eraiki” lelopean, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean. • 2017ko apirilaren 24a. “Biktimen Legea, 12/2016. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea” hitzaldia, Fabian Salvioli Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko presidente ohiaren eskutik. • 2017ko maiatzaren 8a. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren Legegintzaldi berriko lehen bilera. Bigarren seihilekoan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak bi bilera egin zituen, irailaren 25ean eta azaroaren 20an. Bilera horietan, TBPEKk Legegintzaldirako lan-proposamena aurkeztu eta onartu zen. • Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantentzen dira. • Eutsi egiten zaie biktimen elkarreentzako diru-laguntzen ildoari eta biktimen elkarreentzako laguntza izendunei. • Jarraipena ematen zaio urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak garatzeko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari. • 2017ko ekainaren 26a. “Giza eskubideen urraketan eta motibazio politikoko indarkeria-egoera batean izandako bestelako sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko Balorazio Batzordearen txostena 1960-1978” aurkezten da. • 2017ko irailaren 12a. Eusko Jaurlaritzak alegazioak aurkezten dizkio Espainiako Gobernuak 12/2016 Legearen aurka jarritako errekurtsuoi.
	2. 2018ko lan-programa.	2. 2018an, ekintza hauek egin ziren: <ul style="list-style-type: none"> • 2018ko urtarrilaren 19a. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren laugarren bilera egin zen. Horren ostean, beste hiru bilera egin ziren: 2018ko ekainaren 1ean, uztailaren 6an eta urriaren 19an. • 2018ko martxoaren 10ean, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna zela-eta, aitorten instituzionala eta soziala egiteko ekitaldi bat egin zen Bilbon, terrorismoaren biktimei elkartasuna adierazteko, “Bidegabea izan zen. Biktimak eta gizartea elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz”. • Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantentzen dira. • Eutsi egiten zaie biktimen elkarreentzako diru-laguntzen ildoari eta biktimen elkarreentzako laguntza izendunei. • Jarraipena ematen zaio urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak garatzeko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari. • 2018ko uztailaren 10a. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen bidez sortutako Balorazio Batzordearen lehen bilera egin zen. • 2018ko urriaren 2a. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Berdintasunaren Batzordean agerraldia egin zen, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak 12/2016 Legea aldatzeko hartutako akordioaren edukia azaltzeko. (2018ko uztailaren 23an, Espainiako Gobernuak atzera egiteko erabakia hartu zuen 12/2016 Legearen aurka jarritako konstituziokontrakotasun-errekurtsuaren aurka).

Biktimak	3. 2019ko lan-programa.	<p>3. 2019an, ekintza hauek egin ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2019ko urtarrilaren 25a. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren zortzigarren bilera. Horren ostean, beste bi bilera egin ziren: ekainaren 7an eta urriaren 18an. • 2019ko martxoaren 11n, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, biktimei elkartasuna adierazteko ekitaldi bat egin zen Donostian, "Bidegabea izan zen. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz". • Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantentzen dira. • Mantendu egiten dira biktimen elkarrekin diru-laguntzen programak eta biktimen elkarte batzuentzako laguntza izendunak. • Jarraipena eman zaio urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak garatzeko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari. • 2019ko apirilaren 4a. Apirilaren 4ko 5/2019 Legea onartzea, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. • 2019ko apirilaren 9a. Fermin Monasterioren omenezko ekitaldia, hil zuteneko 50. urteurrenean. • 2019ko ekainaren 2a. Lehendakariak 'Hemen Gaude' inauguratzen du Arkautiko Ertzaintzaren Museoa, biktima izan diren ertzainak gogoratzeko gune berria. • 2019ko irailaren 27a. 12/2016 Legeak aurreikusten duen eskaerak aurkezteko epea zabaltzen da. • 2019ko urriaren 3a. Antonio Fernández eta Josu Murueta omenezko ekitaldia, Polizia Armatuak 1969an tiroz hil zituenak. • 2019ko azaroaren 18a. Lehendakariak eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteko presidentek "beldurrik gabe bizitzea/memoriarekin bizitzea" erakusketa inauguratzen dute.
	4. 2020ko lan-programa.	<p>4. 2020an, ekintza hauek egin ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2020ko martxoaren 11, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, ekitaldia Gasteizen, "Bidegabea izan zen. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz" lelopean. • Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantentzen dira. • Mantendu egiten dira biktimen elkarrekin diru-laguntzen programak eta biktimen elkarte batzuentzako laguntza izendunak. • Jarraipena eman zaio urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak garatzeko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari.
	5. Aitorza emateko politiken ebaluazioa egitea.	5. Egiteke dagoen ekintza, Covid-19ko pandemiaren inpaktuak eraginda.

5. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURREIRA ERAMANDAKO EKINTZAK
<p>Memoria</p>	<p>1. Gogora Institutuaren Jarduera-plana aurkeztea.</p>	<p>1. 2017ko urriaren 23an, Gogora Institutuaren 2017-2020 aldirako Jarduera Plana onartu zuen Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak, uztaileko bilera aurkeztu zena.</p>
	<p>2. Gogora Institutuaren Jarduera-plana garatzea.</p>	<p>2. Ekintza honen esparruan, honako jarduerak hauek garatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2017ko urtarrilaren 30ean, Iñigo Urkullu Lehendakariak duintasunaren kolunbarioa inauguratu zuen Elgoibarko Olaso hilerrian. • 2017ko martxoaren 5ean, Matxitxakoko guduan bizia galdu zuten pertsonak gogoratzeko eta omentzeko ekitaldi bateratua egin zen. • 2017ko martxoaren 30ean, Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrena ospatzen da, Lehendakariaren parte-hartzearekin. • 2017ko apirilaren 25ean, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena gogoratzeko eta ospatzeko ekitaldietan parte hartu zen. • 2017ko maiatzaren 24an, duela 80 urte Euskadiko hainbat portutatik gerratik ihes egiteko ontziratu behar izan zituzten 20.000 haurrak gogoratzeko eta aintzatesteko ekitaldiak antolatu ziren Santurtzin. • 2017ko irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ekitaldi instituzional bat egin zuten, Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Uxue Barkos Presidentea bertan zirela, Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparrua zegoen leku berean, eremu horretan egon ziren 6.500 euskal eta nafar herritar baino gehiago oroitzeko eta aintzatesteko. • 2017ko urriaren 16an, 1937an Santoñan fusilatu zituzten pertsonak gogoratzeko ekitaldia antolatu zen, tropa frankistek beren filiazio politiko edo sindikalagatik exekutututako gudariak eta milizianoak, Lehendakaria bertan zela. • 2017ko azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatzeko ekitaldi bat egin zen Bilbon. • 2017an Memoria Plaza ekimen ibiltaria Getxon, Lasarte-Orian, Gernika-Lumon, Santurtzin, Portugaleten, Sestaon eta Barakaldon egon zen. • 2018ko martxoaren 16an, Euskadik, Nafarroak eta beste 11 autonomia-erkidegok Memoria Historikoarekiko konpromisoaren adierazpen instituzionala egin zuten Iruñean egindako Memoria Historikoaren Sare Interautonomikoaren lehen topaketan. • 2018ko apirilaren 17an, Eusko Jaurlaritzak DNA programaren bidez identifikatutako lehen pertsona lurperatu zuen Elgoibarko duintasunaren kolunbarioan. • 2018ko uztailaren 10ean, Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak beste bilera bat egin zuen, eta, bertan, oniritzia eman zien Foru Aldundiekin memoria historikoaren politikak koordinatzeko eta partekatze lankidetzaren protokolei. • 2018ko uztailaren 18tik 21era, EHUren Udako Ikastaroen esparruan, Donostian, "Gorputz deserosoak: indarkeria masiboa, hobi komunak eta nekropolitikoa" Nazioarteko Kongresua egin zen, Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak (CSIC), Aranzadi Zientzia Elkarteak, UPV/EHUk eta Gogora Institutuak antolatuta. • 2018ko irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzak, Kantabriako Gobernuak eta Asturiasko Gobernuak ekitaldi batean parte hartu zuten 1937ko udan Limpiaseko (Kantabria) hilerrian familiak informatu gabe ehortzitako Gerra Zibileko 86 biktime "gogoratzeko eta omentzeko". • 2018ko urrian "Emakumea eta Gerra Zibila" jardunaldiak egin ziren, Euskadiko Artxibo Historikoak eta Gogora Institutuak antolatuta. • 2018ko azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatzeko ekitaldi bat egin zen Donostian. Lehendakariak eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktime bost alabek parte hartu zuten.

Memoria		<ul style="list-style-type: none"> • 2018an Memoria Plaza ekimen ibiltaria Irunen, Beasain Mon-dragon Unibertsitatean, Amorebieta-Etxanon, Laudion eta Deus-tuko Unibertsitatean egon zen. • 2019ko urtarrilaren 10ean, Lehendakariak Zeanurin hobitik ate-ratako bost milizianoaren gorpuzkiak eman zizkien bere senideei. • 2019ko ekainaren 8an, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkar-teak 1937an Bilboko defentsa-lerroan eroritako gudari baten gorpuzkiak berreskuratu zituzten. • 2019ko ekainaren 10ean, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak txosten bat bidali zuen Eusko Legebiltzarrera, Euskaditik eta beste autonomia-erkidego bat-zuetatik Erorien Haranera eramandako euskal herritarrengandik egindako lekualdaketei buruz. • 2019ko uztailaren 3an, Gerra Zibilean eta frankismoan Euska-din izandako giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txos-tenaren lehen fasea aurkeztea: gerra Zibilean eta lehen frankis-moan hildako biktimak (1936-1945). • 2019ko irailaren 24an, Gobernu Kontseiluak Memoria Histo-rikoaren Legearen aurreproiektuaren zirriborroaren berri izan zuen, eta horren bidez hasiko zen izapidetzen. • 2019ko urriaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Euskadin sinbologia frankista kentzearen egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen. • 2019ko urriaren 30ean, Lehendakariak harrera egin zien Bue-nos Airesko ESMA Memoriaren Guneko arduradunei. Gogora Institutuaren nazioarteko lehen ekimena da, Euskadin beste her-rialde batean egindako memoriaren eraikuntza ezagutu eta za-baltzeko. Gogora Institutuan genero-indarkeria eta Argentinako diktadura garaiko sexu-delituen lekukotasunak biltzen dituen erakusketa ireki zen. • 2019ko azaroaren 23an, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zien-tzia Elkar-teak Gamiz-Fikako Gerra Zibileko beste bi borrokalar-i-ren gorpuzkiak berreskuratu zituzten. • 2019ko abenduaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak, Lehendakaria buru izan zuen aintzatespen-ekitaldi batean, Jose Antonio Agirre eta Jesus M^a Leizaola erbesteko Lehendakariak omendu ziren. • 2019an, Memoria Plaza ekimen ibiltaria Euskal Herriko Unibert-sitatean eta Basaurin egon zen.
----------------	--	---

6. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURREERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Espetxe-politika	1. Espetxe-politikari bu-ruzko oinarritzko pro-posamena prestatzea.	1. 2017ko uztailaren 19an, lehendakariak “Espetxe-politikaren bide-ratzea partekatzeak akordio-proposamena” eta “Euskal presoak espetxeetan kokatzeko irizpide-proposamena” eman zizkion Es-painiako Gobernuari.
	2. Legebiltzarraren ekimenekin lankidetzan aritzea.	2. Eusko Jaurlaritzak, 2017ko eta 2018ko bigarren seihilekoetan, es-petxe- eta gizarteratze-politika berri bat bultzatzeko lan egin zuen, bai Espainiako Gobernuarekin, bai Frantziako Gobernuarekin. 2018an, honako proposamen hauek aurkeztu zitzaizkion Espai-niako Gobernu berriari: “Espetxe-politikaren bideratzea parteka-tzeko akordio-proposamena” eta “Euskal presoak espetxeetan kokatzeko irizpide-proposamena”. 2019an, Espainiako Gobernuarekin eta Frantziako Gobernuare-kin lan egin zen espetxe- eta gizarteratze-politika berri bat bultza-tzeko. Nolanahi ere, Espainiako Gobernu ia urte osoa jardunean eman izanak ekimena gehiago garatzea eragotzi zuen.
	3. Gizarteratzeko Dekre-tua bultzatzea.	3. 2018an, jarduera hori 2019ko lehen seihilekora arte atzeratzea erabaki zen. 2019an lantalde bat sortu zen Lan eta Justizia Sailarekin, birgi-zarteratze-politika publikoen esparru bat aurreikusteko, justizia leheneratzailearen Europako korrontearen ildotik.

III. ARDATZA. ETORKIZUNA. BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIAK

7. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
<p>Aniztasunaren kudeaketa positiboa</p>	<p>1. Erlijioen arteko lan-programa aktibatzea.</p>	<p>1. 2017ko azaroaren 20an, Lehendakariak “Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko plana” aurkeztu zuen.</p> <p>2018ko apirilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak “Euskal komunitate islamikoekin batera bizikidetzaren sustatzeko jardura-programa” onartu zuen, “Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko planari” ekarpenak eta proposamenak jasotzeko lau hilabeteko epea amaitu ondoren.</p> <p>2018ko apirilaren 14an, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordea eratu zen, Lehendakaria bertan zela.</p> <p>2018ko ekainaren 23an, Gasteizen, ADOS Aholku Batzordearen bilera eta informazio-topaketa egin ziren Arabako komunitate islamikoekin.</p> <p>2018ko urriaren 6an, ADOS Aholku Batzordearen bilera eta informazio-topaketa egin ziren Bilbon, Bizkaiko komunitate islamikoekin.</p> <p>2018ko abenduaren 15ean, Donostian, ADOS Aholku Batzordearen bilera eta informazio-topaketa egin ziren Gipuzkoako komunitate islamikoekin.</p> <p>2019an, ADOS Aholku Batzordea lau aldiz bildu zen.</p> <p>2019ko urtarrilaren 26an, ADOS Batzordeak World-Tea antolatuta zuen, eta hainbat komunitate islamiarretako 55 pertsona inguru bertaratu ziren, txosten kualitatiboaren emaitzak kontrastatzeko. Txosten horretan, egungo errealitatea eta komunitate islamikoekin euskal gizartearen dituzten bizikidetzaren aukerak eta Euskadiko herritar musulmanen kezak eta aldarrikapenak aztertu ziren.</p> <p>2019an esperientzia pilotu bat jarri zen abian Euskadiko 3 meskitatan, euskal gizartearen errotutako islam bat eratze aldera.</p> <p>ADOS Batzordeak bi komunikatu argitaratu ditu 2019an, Zeelanda Berriko Christchurch hiriko bi meskitaren eta Baionako meskita baten aurkako atentatuak gaitzesteko.</p> <p>2020ko urtarrilaren 17an, Lehendakariak ADOS Batzordeak Euskal meskitetako Imamekin egindako lehen bileran parte hartu zuen. Bilera horretan, ADOS Batzordeak bultzatutako Bizikidetzaren aldeko Manifestua aurkeztu zuen.</p>
	<p>2. Kultu-zentroyen Legea onestea.</p>	<p>2. 2017an zehar, leku- eta kultu-aretoen lege-aurreproiektuaren izapidetzea barne-txostenen fasean sartu zen.</p> <p>2018ko azaroan, leku- eta kultu-aretoen lege-aurreproiektuari entzunaldi-izapidea egin zion EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak.</p> <p>2019ko ekainaren 25ean, Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko leku- eta kultu-aretoen eta erlijio-aniztasunaren lege-aurreproiektua onartu zuen.</p>
	<p>3. Tokiko gidaliburuaren eredia aurkeztu eta zabaltzea.</p>	<p>3. 2018ko azaroan, bizikidetzako aniztasuna ezagutzeko tokiko gidaren eredia egiteko enkargua egin zen. 2020ko martxoan aurkeztua aurrekusi zen arren, apirilaren 5eko hauteskunde deialdiak, lehenik; eta Covid-19ren pandemiak, ondoren, Legegintzaldi berriari atzeratu dute aurkezpena.</p>
	<p>4. Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.</p>	<p>4. 2017ko urriaren 23an, Lehendakariak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak diruz laguntzeko laguntzak arautzen dituen dekretu berriaren proiektua egiteko prozedura hasten duen dekretua onartu zuen.</p> <p>2018ko ekainaren 11n argitaratu zen lehen aldiz EHAA dekreto berriaren ondorioz bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzen 2018ko deialdia. Eta horrela egin da urtez urte.</p>

8. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
<p>Elkartasunaren sustapena</p>	<p>1. Sailarteko organoa sortzea.</p>	<p>1. 2017ko apirilaren 3an, ekitaldi bat egin eta adierazpen instituzional bat egin zen Lehendakariaren, Europa errefuxiatuekin bizitzen ari den krisi humanitario larriaren aurrean, eta errefuxiatuak hartzen aktiboki laguntzeko eta haien eskumenen eta aukeren esparruan beharrezko bitartekoak eta baliabideak jartzeko euskal erakundeen eta gizarte zibilaren prestasuna eta konpromisoa erakutsi ziren.</p> <p>2017an, Lanerako Mahai Institutuzional eta Sozialak sei bilera egin zituen errefuxiatuen egoerari erantzuteko.</p> <p>2018an, Lanerako Mahai Institutuzional eta Sozialak bost bilera egin zituen errefuxiatuen egoerari erantzuteko.</p> <p>2018ko ekainaren 28an, giza eskubideen urrakortasun-egoerei buruzko Sailarteko Lantaldea eratu zen. 2018an, guztira, lau bilera egin ziren.</p> <p>2019an, Lanerako Mahai Institutuzional eta Sozialak lau bilera egin ditu errefuxiatuen egoerari erantzuteko.</p>
	<p>2. Esparru-dokumentu bat prestatzea.</p>	<p>2. 2017ko uztailaren 5ean, aurkeztu zen “Eusko Jaurlaritzaren esparru-dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan jasaten duten krisi humanitarioari eman beharrekotako erantzun soziala, politikoa, erakundearen artekoa eta sailen artekoa modu partekatuan bideratzeko”.</p> <p>2018ko otsailaren 5ean, errefuxiatuen harrerari eta gizarteratzeari buruzko 2017ko balantzea eta 2018ko helburuak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak.</p> <p>2018ko maiatzaren 9an eta 10ean, errefuxiatuei harrera egiteko Kanadako Global Refugee Sponsorship Initiative-GRSI erakundeak eta Erresuma Batuko Barne Ministerioak antolatutako mintegi batean parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak Londresen.</p> <p>2018ko ekainaren 11n, Eusko Jaurlaritzak Aquariusean erreskatatutako pertsonak hartzeko eskaintza egin zuen.</p> <p>2018ko ekainaren 25ean eta 26an, Eusko Jaurlaritzak mahai-inguru batean parte hartu zuen Genevan, ATCR 2018an (birkokatzeari buruzko urteko hirutariko kontsultak), ACNURek eta Alemaniako Barne Ministerioak antolatuta.</p> <p>2018ko irailaren 19an, “Migrazio-erronka berriei erantzun integratua emateko Eusko Jaurlaritzaren estrategia egokitzea” dokumentua aurkeztu zen, Euskadiko, Espainiako Estatuko eta Europako migrazio-erronkei erantzuteko proposamenekin, erantzuna hobetze aldera.</p> <p>2018ko irailaren 28an, Eusko Jaurlaritzak eta SMH-Itsas Salbamendu Humanitarioa gobernu kanpoko erakundeak “Aita Mari” erreskate humanitarioko itsasontzia aurkeztu zuten, Maydayteraneo izeneko proiektuaren esparruan. Arrantza-ontzi hori birgaituta dago eta erreskate-misioak egiteko prest dago Libiako kostaldean.</p> <p>2018ko azaroaren 12tik 16ra, ordezkari bat Balkanetara joan zen, Eusko Jaurlaritzak haur migratzaileak babesteko finantzaturako programak ezagutzeko.</p> <p>2018ko abenduaren 18an, Migratzaileen Nazioarteko Egunean, Eusko Jaurlaritzak “Migrazioarako Euskal Itun Soziala” proposatu zien Euskadiko erakunde eta gizarte-erakundeak.</p> <p>2018ko azaroaren 29an, “Babes komunitarioko” ekimen bat aurkeztu zen. Euskadi, Irlandarekin eta Erresuma Batuekin batera, errefuxiatuen harrerari eta integrazioan aitzindari diren herrialdeen taldeko kide izango da eredu horren bidez.</p> <p>2018ko ekainaren 12an, Gobernu Kontseiluak Europako mugetako larrialdi humanitarioko deiei erantzuteko bi laguntza ematea onartu zuen: SAVE The Children (300.000 €) eta UNICEF (200.000 €).</p>

Elkartasunaren sustapena

2018ko ekainaren 19an, Gobernu Kontseiluak beste laguntza bat ematea onartu zuen, Europako mugetako larrialdi humanitarioko deiei erantzuteko: ACNUR (200.000 €).

2019ko maiatzaren 6an, Europako estatuz azpiko gobernuak aldi berean aurkeztu zuten Share Proposamena, migrazio-erronkari lankidetzan erantzuteko.

2019ko ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzak 2019ko Kontingentzia Plana aurkeztu zuen, Euskadira bidean iristen diren migratzaileei arreta humanitaria emateko.

2019ko ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna-rekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuak, ACNURek, Euskadiko Caritasek eta Euskal Herriko jesuiten Plataformak hitzarmen bat sinatu zuten, errefuxiatuen eta nazioarteko babesaren onuradunen harreraren eta gizarteratzearen arloko babes komunitarioko esperientzia pilotua bultzatzeko.

2019ko ekainaren 25ean, Euskadin migrazio-erronkari aurre egiteko abian jarritako politikak aurkeztu ziren Bruselan, migratzaileak eta errefuxiatuak lurralde txikietan integratzeari buruzko mintegian.

2019ko abuztuaren 28an, Lehendakariak Share Proposamena aurkeztu zuen Vatikanon, migrazio-erronkari erantzuteko erantzunkidetasun-konpromisoa hartzeko.

2019ko irailaren 25ean, Lehendakariak ACNURek Espainiako estatuan duen ordezkaria hartu zuen, eta hark eskerrak eman zizkion euskal gizarteari errefuxiatuak Erkidegoaren babespean hartzeko lehen proiektu pilotua abian jartzeko erakutsi zuen elkartasunagatik eta konpromisoagatik.

2019ko azaroaren 30ean aurkeztu zen Migrazioarako Euskal Itun Soziala, migrazioarako harrera- eta integrazio-esparru bat, euskal gizarte-erakunde eta instituzio guztiek adostutakoa.

2019ko abenduaren 4an, Eusko Jaurlaritzak hurrengo urratsak adostu zituen estatuz azpiko gobernuarekin eta Europako erakundeekin, Share Proposamenaren inguruan.

2019ko abenduaren 17an eta 18an, Genevan Global Refuge Forumean parte hartu zen, errefuxiatuen eta nazioarteko babesaren onuradunen harreraren eta gizarteratzearen arloko babes komunitarioko esperientzia pilotua aurkezteko.

2019ko martxoaren 20an, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman zion Salbamendu Humanitario-SMH Itsas Salbamendua GKEari laguntza bat emateko, AitaMariZubia #MAYDAYTERRANEO2019 proiekturako.

2019ko maiatzaren 28an, diru-laguntza bat eman zitzaion CEAR Euskadiri, Oñatiko Larraña Etxea lehen harrerako zentroan dauden eta Euskadin nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eta familiei arreta, orientazioa eta laguntza emateko.

2019ko urriaren 1ean diru-laguntza bat eman zitzaion CEAR Euskadiri Tolosako lehen harrerako Zuloaga txiki aterpetxean arreta emateko.

2019an zuzeneko diru-laguntzak eman zitzaizkien UNICEF Comité Español (200.000 €), ACNUR (150.000 €), Save The Children (300.000 €) eta Zaporeak (150.000 €) erakundeak, laguntza humanitarioko proiektuak garatzeko.

2020ko urtarrilaren 19tik 24ra bitartean bidaia bat egin zen Greziara, Itsas Salbamendu Humanitarioa erakundeak gonbidatuta. Bidaian, gainera, Eusko Legebiltzarreko errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideen aldeko taldearteak parte hartu zuen. Helburua El Pireoko portuan zegoen AitaMari erreskate-ontzia eta Chios uharterko Vial errefuxiatuen eremua bisitaztea izan zen.

Elkartasunaren sustapena		<p>2020ko urtarrilaren 27an, Irungo Gurutze Gorriaren ondoan irekitako aterpetxearen aurkezpen publikoa egin zen, iragaitzako pertsoneri arreta emateko, eta 2019an Euskadira igarobidean iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko 2019ko Kontingentzia Planaren aplikazioaren emaitzak aurkeztu ziren.</p> <p>2019ko otsailaren 5ean, Gobernuak Balkanetan errefuxiatutako haurrak babesteari buruzko jardunaldian parte hartu zuen, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak finantzatuta.</p>
	3. Diru-laguntzetarako beste ikuspuntu bat ezartzea.	3. 2018ko ekainaren 11n argitaratu zen lehen aldiz EHAA dekreto berriaren ondorioz bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzen 2018ko deialdia. Eta horrela egin da urtez urte.
	4. Lankidetzarako. Plan Zuzentzaile berria onestea.	4. 2018ko uztailaren 24an, Gobernu Kontseiluak 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen.

9. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
	1. Adi-adian proiektua eguneratzea.	1. 2017ko irailean, Adi-adian proiektua eguneratu zen, eta unibertsitatera hedatzea aurreikusi zen.
	2. Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.	2. 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetan Elkarrekin Bonuen Programari eutsi zaio. Programa horrek elkarte-sareko erakundeen eta erakundeen arteko lankidetzak-espazioak sustatzen ditu, hiru eremutan: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.
	3. Diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala sortzea.	3. 2018an, diskriminazioa prebenitzeko hezkuntza-materiala prestatzen hasi zen. 2019ko ekainaren 6an, Indarkeria Biolentoa Prebenitzeko Nazioarteko Mintegia egin zen Donostiako Kursalean, eta Eusko Jaurlaritzak Uztartu Programa aurkeztu zuen bertan.
	4. Elkartasuna sustatzeko hezkuntza-materiala sortzea.	4. 2018an, elkartasuna sustatzeko hezkuntza-materiala amaitu zen.
	5. Gizalegez Akordioaren deialdia egitea.	5. 2018ko maiatzaren 11n, Gizalegez Akordioaren urteko bilera egin zen Donostian. Bilera horretan, Adi-adian eta Memoria Plaza programen 2017ko memoria eta 2018rako helburuak aurkeztu ziren. 2018ko azaroaren 19an, Gizalegez Akordioaren bigarren bilera egin zen Bilbon, abian dauden proiektuen eta aurreikusitako proiektu berrien berri emateko. 2019ko martxoaren 22an, Gizalegez Akordioaren urteko bilera egin zen Gasteizen. Bilera horretan, Adi-adian eta Memoria Plaza programen 2018ko memoria eta 2019rako helburuak aurkeztu ziren.
Hezkuntza (bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)		<p>Ekimen horren barruan, Legegintzaldi honetan, gainera, honako ekintza hauek egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2017ko ekainaren 29an, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria (2017-2020) aurkeztu zen. • 2017ko irailaren 1ean, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egindako "Euskadiko terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruzko unibertsitateko biztanleen ezagutza eta diskurtsoak" txostena aurkeztu zen. • 2018ko urriaren 11n "Herenegun!" Hezkuntza-programako materialaren zirriborro-proposamena aurkeztu zen, memoria hurbilari (1960-2018) dagokion aldia Historia irakasgaiaren txertatzeko, DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan. • 2019ko otsailaren 20an eta 21ean Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Nazioarteko I. Mintegia egin zen Donostian, Eskura Zentroaren eskutik. • 2019ko maiatzaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmenaren luzapena sinatu zuten, Aieteko Eskura Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroaren proiektuaren fase pilotua babesteko. • 2020ko otsailaren 19an eta 20an Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Nazioarteko II. Mintegia egingo da Donostian, Eskura zentroaren eskutik. • 2019ko maiatzaren 29an amaitu zen Hereneguni buruzko elkarriketa-erronda hezkuntza-materialari ekarpenak egin zizkioten erakundeekin, eta maiatzean material horri ekarpenak aurkeztu zizkioten erakundeekin hitzartutako aldatuen gidaira Herenegun material didaktikoaren bideoak egokitzeari buruzko txostena argitaratu zen azaroaren 13an. • Herenegun material didaktikoaren esperientzia pilotua garatzeko dago, Covid-19 pandemiaren ondorioz.

10. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Dibulgazioa (bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)	<p>1. Abenduaren 10eko kanpainak garatzea eta René Cassin Saria ematea.</p>	<p>1. 2017ko, 2018ko eta 2019ko abenduaren hasieran, sentsibilizazio-kanpaina bat egin zen abenduaren 10ean, giza eskubideen nazioarteko egunean.</p> <p>2017ko abenduaren 11n, 2017ko René Cassin saria Sexual Minorities Uganda-ri (SMUG) eman zitzaion.</p> <p>2018ko abenduaren 10ean, René Cassin 2018 saria eman zitzaion Juan José Aguirre Muñoz monsinoreari eta José Palazón Osmari.</p> <p>2019ko abenduaren 10ean René Cassin saria eman zitzaion Federico Mayor Zaragozari.</p>
	<p>2. EITBrekin sinatutako akordioa berritzea.</p>	<p>2. 2017an, prest geratu zen EITBrekin Legegintzaldi berrirako egindako akordioaren lehen zirriborroa, eta 2018ko maiatzaren 24an, EITBk eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-hitzarmena sinatu zuten, elkarrekin lan egiten jarraitzeko bakearen kultura zabaltzen, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren esparruan.</p> <p>2019ko ekainaren 5ean, Eusko Jaurlaritzak Uztartu programa aurkeztu zuen, erradikalizazio biolentoa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-materiala, EITBrekin lankidetzan, 2018an bi erakundeek sinatutako lankidetzak-akordioaren arabera.</p>
	<p>3. Zinexit ekimenean etapa berrirako proposamena aurkeztea.</p>	<p>3. 2017ko urriaren 10ean, Zinexit Topaketaren 3. edizioa egin zen, migratzaile eta errefuxiatuei eskainia.</p> <p>2017ko azaroaren 6tik 9ra bitartean, Zinexit Bizikidetzarako Zinemaren 8. erakusketa egin zen, "Zuk" dokumentalaren estreinaldiarekin.</p> <p>2018ko urriaren 9an Zinexit Topaketaren laugarren edizioa ospatzen da, Giza Eskubideen Adierazpenaren 70. urteurrenari eskainia.</p> <p>2018ko azaroaren 19tik 23ra, Bizikidetzarako Zinemaren 9. erakusketa egin zen, Zinexit, Giza Eskubideen Adierazpenaren 70. urteurrenaren barruan.</p> <p>2019ko urriaren 7tik 10era egingo da Zinexit Topaketaren bosgarren edizioa.</p> <p>2019ko azaroaren 25etik 29ra bitartean, Zinexit Bizikidetzarako Zinemaren 10. erakusketa egin zen.</p>
	<p>4. Web gunea egokitzea.</p>	<p>4. Legegintzaldi hasieran burutu zen lan hau.</p>
		<p>Ekimen horren barruan, Legegintzaldi honetan, gainera, honako ekintza hauek egiten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2018ko azaroaren 7tik 9ra bitartean, Eusko Jaurlaritzak, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan, Nazioarteko Kongresua antolatu zuen, XXI. mendean giza eskubideek sortzen ari diren erronkei buruz. Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko urte hartan abian jarritako Giza Eskubideei eskerrak kanpainaren barruan kokatu zen. • 2019ko azaroaren 20an ekitaldi bat antolatu zen UNICEFekin eta Enplegu eta Gizarte politiketako Sailarekin lankidetzan, Haurren Eskubideen Konbentzioaren 30. urteurrenean.

11. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Parte-hartzea (bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)	1. Elkarteen Foroarekin hitzarmena sinatzea.	1. 2017. urtearen amaieran, beste akordio bat itxi zen Elkarteen Foroarekin.
	2. Elkarrekin bonu-programa bultzatu eta indartzea.	2. 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetan Elkarrekin Bonuen Programari eutsi zaio. Programa horrek elkarte-sareko erakundeen eta erakundeen arteko lankidetz-espazioak sustatzen ditu, hiru eremutan: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetz- a.
	3. AIPAZ eta Fundación Cultura de Paz Fundazioarekin lankidetzan aritzeko ildoak diseinatzea.	3. 2017ko urriaren 19an eta 20an, "Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea: Garapen Iraunkorraren 16. helburua eta haren inplementazioa" nazioarteko mintegia egin zen Madril-en eta Bilbon AIPAZ eta Fundación Cultura de Paz Fundazioak antolatuta, "Euskal Herriko bake-etorkizunaren alde" programaren barruan. 2018ko udaberrian, lankidetz-ildoak diseinatu ziren AIPAZ eta Fundación Cultura de Paz Fundazioarekin XI. Legegintzaldirako. 2019ko urtarrilean, AIPAZ erakundearekin lankidetz- "Bizikidetz- a eta bake-kultura hirietan" proiektuan.
		Gainera, ekimen honetan ekintza hauek egin dira: <ul style="list-style-type: none"> • 2017ko urriaren 23an, Lehendakariak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak diruz laguntzeko laguntzak arautzen dituen dekretu berriaren proiektua egiteko prozedura hasten duen Dekretua onartu zuen. • Diru-laguntzen 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetako deialdiak argitaratzen dira: (1) Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako eta (2) bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-errirentzako eta gainerako toki-erakundeentzako.

12. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Lankidetz- estrategikoa (bizikidetz- aren eta giza eskubideen kultura)	1. Ertzaintzarekin sinatutako lankidetz- hitzarmena urtero eguneratzea.	1. 2017an, Legegintzaldi honetarako Ertzaintzarekiko lankidetz- eguneratzeko kudeaketak hasi ziren. 2018ko martxoan, Ertzaintzarekiko lankidetz- a-esparrua ezarri zen.
	2. Hiru unibertsitateekin lan-programa eguneratzea.	2. 2017ko irailean, euskal unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko konpromiso partekatua adostu zen, 2017-2020rako Biziki- detzaren eta Giza Eskubideen Planaren esparruan. 2017ko urriaren 4an, hiru euskal unibertsitateetako errektoreak Lehendakariarekin bildu ziren, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan 2018 eta 2020 bitartean partekatuko zuten konpromisoa- ren oinarriak finkatzeko, indarkeriaren amaieraren testuinguruan.
	3. Gazteriaren Kontseiluarekin lan-programa eguneratzea.	3. 2017an, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin Legegintzaldi berrirako lan-programa zehaztu zen. 2018an eta 2019an, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak aurreiku- sitakoaren arabera garatu zuen lankidetz- a-hitzarmenaren edukia, eta giza eskubideen agenda berriari lotutako gaiak jorratu ere bai.

Lankidetzazko estrategikoa (bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)		2019ko ekainean eta uztailan, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Etikasi Programaren esperientzia pilotua garatu zuten. Programa horrek aukera ematen die gazteei indarkeriaren edo gerraren eraginak markatutako Europako gu- neak bisitatzeko. Horrela, 30 ikasleko talde batek Auschwitz bisitatu zuen eta 10 ikasleko osatutako talde bat Belfastera joan zen. 2020an Etikasi Programaren jarraipena egiteke geratu zen, Covid-19 pandemiaren ondorioz.
	4. Lan eta Justizia Sailarekin lan partekaturako bide bat ezartzea.	4. 2019an, lan-bidea ezarri da birgizarteratze-politika publikoaren esparru bat aurreikusteko lantalde bat sortuz, justizia leheneratzailearen Europako korrantearen ildotik.

13. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Nazioarteko ekintza (bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)	1. Nazio Batuen memoranduma urtero eguneratzea.	1. 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetan, laguntza eman zaie NBGEGKren jarduerari, urteko diru-laguntza izendunaren bidez. Laguntza hori nazioarteko erakundearen urteko memorian islatzen da. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari lotutako dokumentuak partekatu dira, Goi Komisarioaren hiru mekanismorekin gutxienez.
	2. Peace Programme erakundeekin lankidetzan aritzeko aukera aztertzea.	2. 2018an erabaki zen, Brexit-ak eragindako ziurgabetasun-egoeraren ondorioz, ekimen hori parentesian geratuko zela Peace Programme ekimenaren egoera argitu arte. 2019an bere horretan mantendu da.
	3. Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Programa urtero eguneratzea.	3. Urtero, Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Hartzeko Euskal Programaren deialdia egin da. Urtean hiru pertsona hartzen ditu, batez ere Kolonbiatik etorritakoak: 7 pertsona, baina baita Hondurasko 2 pertsona, saharar defendatzaile bat eta Guatemala-ko pertsona bat ere. Urtero, halaber, programaren jarraipena egiteko eta defendatzaileei beren herrira itzultzeko, behaketa-misio bat egiten da, Gobernuko, Legebiltzarreko eta Gizarte Zibileko kideek osatua. 2017ko uztailan Hondurasera bidaiatu zen, 2018ko eta 2019ko urtarrean Hondurasera, eta 2019ko uztailan Kolonbiara.
	4. Euskal kasuari buruzko oinarritzko dokumentua prestatzea.	4. 2018ko bigarren seihilekoan, "2019-2020 programa. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Nazioarteko Jardueraren Lehentasunak" izenekoak egin zen. Euskal kasuari buruzko oinarritzko dokumentuaren abiapuntuak zehazten dira bertan. Barne-eremuan, Idazkaritzak 2019tik prest ditu euskal kasuari buruzko oinarritzko proposamen baterako lan-zirriborroak, eta hurrengo Legegintzaldian garatzea aurreikusten du.
		Ekimen horren barruan, 2019an, honako ekintza hauek ere egin ziren: <ul style="list-style-type: none"> • Urtarrilaren 18an, Lehendakariak Gernikako zuhaitzaren kimu bat landatzeko ekitaldian parte hartu zuen Strasburgon, René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuan. • Martxoaren 13an, EBK, LKS, Alecop, Agirre Lehendakaria Center eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, lankidetzazko proiektu bat sustatzen du, Kolonbiako bake-prozesua sendotzeko. • 2019an eta 2020an, Kolonbian Egia, Bizikidetzazko eta Errepikapenik eza argitzeko Batzordeari lagundu zaio, HEGOA erakundearen bidez, Euskadin, Espainiako estatuan eta Europako beste herrialde batzuetan dauden erbesteko biktimei laguntzeko. • 2019an eta 2020an, Kolonbiako Korporazioa babesa ematen ari da Vivamos Humanos Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren indarraldirako, "Mahai Humanitarioak eta Bakea Eraikitzeko Mahaiak" izeneko ekimena garatzeko. Ekimen horren helburua da gizarte zibilak parte hartzeko kanal aktiboak ezartzea Kordobako, Ozeano Bareko eta Katatumboko bake-finkapenerako prozesua.

14. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Elkarrizketa eta akordioa	1. Koordinazio Batzordearen proposamena prestatzea.	1. 2018ko lehen seihilekoan, Koordinazio Batzordearen proposamena prestatu zen.
	2. Foru Aldundiek eta EUDELe osatutako mahaiaren proposamena prestatzea.	2. 2018ko lehen seihilekoan, Foru Aldundiekin eta EUDELekin Lan-Mahaiaren proposamena prestatu zen. 2018ko ekainaren 28an, hiru Foru Aldundiekin eta EUDELekin Lan Mahaia eratu zen, bizikidetzaren eta giza eskubideen agendari buruzko politikak bateratzeko. 2018an bi bilera egin ziren. 2019an, organo horrek ez zuen bilerarik egin hurrengo hauteskunde-deialdiengatik, eta 2020an, bilera bat egin da.
	3. Koordinazio Batzordea martxan jartzea.	3. 2018ko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzaren eta bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko legebiltzar-taldeen arteko komunikazio- eta koordinazio-batzordea eratu zen. 2018an bi bilera egin ziren. 2019an eta 2020an ez da organo horren bilerarik egin, hurrengo hauteskunde-deialdiengatik.
	4. Erakundearteko lan-mahaia martxan jartzea.	4. 2018ko lehen seihilekoan, erakundeen arteko lan-mahaiaren proposamena prestatu zen. 2018ko ekainaren 28an, giza eskubideen urrakortasun-egoerei buruzko Sailarteko Lantaldea eratu zen, eta, guztira, 4 bilera egin ziren 2018an. 2019an hiru bilera egin ziren guztira, eta lan-esparru egonkor bat sortu da egoera ahulean dauden adingabeen eta gazteen inguruan.
	5. Nafarroako Gobernuarekin koordinaturik jardutea.	5. 2017., 2018. eta 2019. urteetan, aldian behin koordinazioa izan da Nafarroako Gobernuako Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin.
	6. Espainiako gobernuarekin hitz egiteko bideak ezartzea.	6. 2017an, terrorismoaren biktimen arloko lankidetzeta-bideari eutsi zaio. Halaber, elkarrizketa-bideak mantentzen dira espetxe-politikaren arloan. 2018ko ekainean Espainiako gobernuak aldatu zenetik, komunikazio-bide jaria korrekak daude, bai espetxe-politikari dagokionez, bai errefuxiatuen harrerari dagokionez.

IV. ARDATZA. ZEHARKAKOA. KUDEAKETA ETA AURREKONTUAK

15. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Kudeaketa (koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa)	1. Sailarteko Batzordea osatzea.	1. 2018ko martxoaren 2an, Sailarteko Batzordea eratu zen eta hiru lantalde sortu ziren: espetxe-politikari buruzko lantaldea, erlijioen arteko elkarrizketa eta lankidetzari buruzko lantaldea eta giza eskubideen urrakortasun handiko egoerak aurreikusteko lantaldea. 2019an, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Sailarteko Batzordeak plan horren jarraipenaren urteko txostena onartu zuen, eta bertan jasotzen da 2018ko kudeaketaren eta gauzatzearen balantzea.
	2. Aholku Batzordea osatzea.	2. 2018ko uztailaren 6an, Aholku Batzordea eratu zen, eta XI. Legegintzaldiko lehen bilera egin zuen. 2019an, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordeak bi bilera egin zituen: uztailaren 10ean eta abenduaren 12an.
	3. Jarduera-programa eguneratzea.	3. 2018an, jarraipen-txostenarekin batera, jarduera-programaren eguneratzea aurkeztu zen, eta honako ekintza hauei eragiten die: 2. eta 6. ekimenetako 3. ekintza eta 7. ekimeneko 2. ekintza.
	4. Planaren amaierako ebaluazioa egiteko agintzea.	4. 2020an, Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria Institutuari (IECAH) eman zitzaion planaren amaierako ebaluazioa egiteko ardura.
	5. Herritarren ebaluaziorako adierazle-taula egitea.	5. 2017an, Planaren edukietan eta helburuetan oinarritutako adierazle-taula egin zen, herritarrek Planaren garapenari buruz duten iritzia ezagutzeko. Lan hau Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean egin zen.
	6. Planaren ebaluaziori buruzko herritarren iritzia jasotzeko azterketak egitea.	6. 2018an eta 2020an, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egingdako iritzi-azterlan bana argitaratu da, "Bakea eta bizikidetzaren" eta "Nazioarteko egoera eta bizikidetzaren Euskadin" izenburupean.

16. EKIMENA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURRERA ERAMANDAKO EKINTZAK
Aurrekontuaren aurreikuspena	Aurrekontuari buruzko informazioa balorazio-txosten honen II. eranskinean dago.	


II. eranskina

Aurrekontua egikaritzea

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak, 16. fitxan, 22.525.000 €-ko aurrekontua aurreikusten zuen guztira, hau da, aurreko planera bideratutako aurrekontua baino % 15 gehiago. Gainera, zenbateko hori 2.780.000 € handitu zen Plana gauzatzean, batez ere errefuxiatuen harrerari eta laguntza humanitarioari eskainitako ekarpen berrien ondorioz. Azken batean, Legealdiaren amaieran, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak 25.305.000 €-ko¹ aurrekontu-esleipena izan zuen.


Partiden berregokitzapenek eta desbideratzeek aurrekontu-exekuzioaren balorazio xehatua egitea ahalbidetzen ez badute ere, egiaztatu da orain arte aurrekontuaren % 87 exekutatu dela (22.040.810 €), baina baliteke kopuru hori behin betikoa ez izatea, 2020ko datuak estimazio bat baitira. Nolanahi ere, aurrekontua zenbateraino gauzatu den egokitzat jotzen da.

Gauzatutako aurrekontua 2017-2020




Hurrengo grafikoez aurrekontua urteka gauzatzen dela adierazten dute. Horiek erakusten dute egonkortasun handiagoa dagoela aurrekontuan jasotakoaren eta 2018an eta 2019an gauzatutakoaren artean, eta hori ohikoa da, Legegintzaldiaren hasieraren eta amaieraren eta planaren beraren ondorio logikoa delako. Gainera, aurten COVID-19ren pandemiak atzerapen ulergarriak eragin ditu 2020ko exekuzioan.

Aurrekontua urteka




¹ Zifra horrek 2019ra arte gauzatutako aurrekontua eta 2020rako aurreikusitakoa barne hartzen ditu.

Gauzatze-ehunekoa



Joera hori hobeto ikusten da lerro-grafiko honetan:

Aurrekontua urteka



Planak, guztira, 14 ekimen tematiko eta 2 kudeaketa-ekimen biltzen ditu. Gaien artean, 1. ekimenak (ar-magabetzea eta eta konpontzea) eta 14. ekimenak (elkarrizketa eta akordioa) ez dute aurrekontu-esleipen zehatzik, gastu horiek, batez ere, zeharkako kudeaketa-gastu generikoak direlako. Gainerako gaikako eki-menen artean, 4 (biktimak) eta 11 (parte-hartzea) dira aurrekontu-esleipen handiena dutenak, eta esleituta-ko aurrekontuaren % 50 baino gehiago pilatzen dute haien artean.

Aurrekontu-esleipena, ekimenez

- 2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa
- 3. ekimena. Iragana argitzea
- 4. ekimena. Biktimak
- 5. ekimena. Memoria
- 6. ekimena. Espetxe-politika
- 7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa
- 8. ekimena. Elkartasunaren sustapena
- 9. ekimena. Hezkuntza
- 10. ekimena. Dibulgazioa
- 11. ekimena. Parte-hartzea
- 12. ekimena. Lankidetzaren estrategikoa
- 13. ekimena. Nazioarteko ekintza



Hala ere, datu hori aldatu egiten da azken aurrekontu-exekuzioan, non desbideratze handiak agertzen baitira. Arrazoiak bat baino gehiago dira. Lehenik eta behin, Mediterraneoeko errefuxiatuen larrialdi humanitarioaren ondorioz, Plana gauzatzeko urteetan, horretarako partida bereziak sortu zirelako.


4. ekimenari esleitutako aurrekontua (hasierakoa eta berrikusia) da handiena, eta, haren barruan, funtsezko aldaketak gertatu dira, erabat gauzatzea eragotzi dutenak. Nabarmenena 12/2016 Legea garatzeko aurreikusitako ekintzekin lotutako partidari buruzkoa da. Hala ere, Espainiako Gobernuaren ondoz ondoko errekurtsioen mende egon denez, 2020ra arte ez zen haren aldaketa indarrean jarri (5/2019 Legearen bidez), eta, ondorioz, ezin izan da Legegintzaldi honetan praktikan jarri.

Aurrekontu-sail honen aurrekontua gauzatzean dauden aldeak ez dira gauzatu gabeko ekintzekin soilik lotzen. Diru-laguntzen Dekretu berriak hainbat laguntza-deialdi bateratu ditu (terrorismoaren biktimen elkarteentzako laguntzak eta bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean lan egiten duten elkarteentzako laguntzak), eta, horren ondorioz, funtsak desbideratu dira ekimenen artean, baina, edonola ere, inoiz ez da murriztu azken ekintzen esleipena.


Lehen esan bezala, 8. ekimenak nabarmen egin du gora aurrekontu-esleipenean, errefuxiatuen larrialdi humanitarioaren ondorioz. Azkenean gauzatutako kopurua ere berrikusitako esleipena baino handiagoa da. Horrek erakusten du Eusko Jaurlaritzak eta Idazkaritzak gaitasuna dutela sortutako larrialdiei erantzuteko.

Aurrekontu-exekuzioa, ekimenez

- 2. ekimena. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa
- 3. ekimena. Iragana argitzea
- 4. ekimena. Biktimak
- 5. ekimena. Memoria
- 6. ekimena. Espetxe-politika
- 7. ekimena. Aniztasunaren kudeaketa positiboa
- 8. ekimena. Elkartasunaren sustapena
- 9. ekimena. Hezkuntza
- 10. ekimena. Dibulgazioa
- 11. ekimena. Parte-hartzea
- 12. ekimena. Lankidetzazko estrategikoa
- 13. ekimena. Nazioarteko ekintza



Aurrekontuaren betearazpena 8. ekimena Elkartasuna sustatzea



III. eranskina

Bonu, hitzarmen eta diru laguntzen onuradunen zerrenda 2017-2020¹

Elkarteak, Fundazioak, Sindikatuak eta Gizarte erakundeak

Accem

AFARABA Elkartea

Afric Forum Elkartea

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba

Aisibizia Elkartea

Aldarte Elkartea

Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados (ACNUR)

AMAPASE Familien Krisietan Laguntza Integraleko Elkartea

Arabako Gizarte Lan Elkartea

Arabako SEADen Lagunen Elkartea

Aranzadi Zientzia Elkartea

Argilun Kultur Elkartea

Argituz Elkartea

Argizai Eskaut Taldea

Askatasunarte

Asmoz Fundazioa

Asociación de Víctimas Contra la Impunidad de las Desapariciones Infantiles (AVIDNA)

Asociación Española de Investigación para la Paz (AIPAZ)

Asociación Kuentame, asistencia integral a colectivos en situación de riesgo Elkartea

Asociación Moviéndote por la Integración y la Participación Ciudadana Elkartea

Asociación Mujeres de Colores para la Paz y Convivencia Elkartea

Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana (ADDH) Elkartea

Ausartzen Elkartea

Awake-Gasteiz Elkartea

Bachue Elkartea

Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia

Baketik Fundazioa

Begira Elkartea

Bidea Eginez Elkartea

¹ 2020ko ekainaren 30era arte esleitutako bonu, hitzarmen eta diru-laguntzen onuradunak barne hartzen ditu.

Bilboko Elizbarrutiko Caritas
Bizigay Eusko Abertzaleon Sexu Askapenerako Alkartasuna
Bizkaiko Familia Gurasoen eta Ikasleen Gurasoen Federazio Katolikoa
Bizkaiko SOS Arrazakeria
Bosko Taldea Federazioa
BOZAK Elkartea
Brigadas Internacionales de Paz Elkartea
Carmelitas Atsedeen Taldea
CEAR Euskadi
Centro de Información Infancia Juventud y Mujer de Euskadi Maria Cambrils Elkartea
CHRYSALLIS Euskal Herria ATF Elkartea
Clara Campoamor Elkartea
DAR-DAR Produkzioak Gizarte Ekimenezko Koop.
Demagun Hausnarketarako Taldea
Dialogue Advisory Group (DAG)
Donostiako Elizbarrutiko Caritas
EDE Fundazioa
EDEX Centro de Recursos Comunitarios
Egiako Mobida Kultur Elkartea
Egiari Zor Fundazioa
Ekai Center Fundazioa
Elkarrekin Koop Elk Txikia
Ellacuria Fundazioa
Emeriaz Memoria eta Bizikidetzeta Feminista Ikertzeko Elkartea
Emigrad@s sin Fronteras Elkartea
Emoki Elkartea
Erain Elkarteko Osasun Mentala
ERK Desarrollo de Proyectos de Promoción de Colectivos Desfavorecidos Elkartea
Errontegiko Ainara Kultur Elkartea
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Euskal Herriko Emakumeen Ahotsak Elkartea
Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskola Koop Elkartea
Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
Euskalerriko Eskautak Bizkaia
Euskalerriko Eskautak Bizkaia
Euskalerriko Eskautak Federakuntza Trebeak
Eusko Bitartekaritza Elkartea
Eusko Bitartekaritza Elkartea (AMEKADI)

Fernando Buesa Blanco Fundazioa
Fondo de Población de Naciones Unidas
Fundación Cultura de Paz
Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral
Ganbo Iturri Kultur Elkarte
Gasteizko Elizbarrutiko Caritas
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa GEUZ
Gernika Gogoratz
Getxoko Etorkinak Plataforma Federazioa
Gipuzkoako SOS Arrazakeria
Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarten Foroa
GIZABI Elkarte
Gizagune Fundazioa
Gizarte eta Hezkuntza Arloko "Elkarkidetzan Elkarte"
Gizarte-heziketako Esku-hartzerako Elkarte "Kokurrikular Proiektuak"
Globernance Institutua
Gogoan Elkarte
Goitibera Elkarte
Gozaldi Gazte Elkarte
Gurutz Gorria
HALA DZIPO Kultur Elkarte
Harribide Fundazioa
Heber Hezkuntzatik Berdintasunera Elkarte
Hegoa Institutua
Hegoak-Alde Afektibo-sexual Askatasunaren Aldeko Elkarte
Hezkide Eskola
Hitz&Hitz Fundazioa
Ikertze Kultur Elkarte
IKT Eskola Elkarte
Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokia
INSOLA Arabako Langizarteratze Elkarte
IPES Elkarte
Irudi Berria Kultur Elkarte
Itaka Eskolapioak Fundazioa
Itsas Salbamendu Humanitarioa
Jatorkin-Alnahda Elkarte
Jesus Maria de Leizaola Fundazioa
Jorge Adolfo Freytter Romero Elkarte

Juan de los Toyos Fundazioa
Kale Dor Kayiko Elkarte
Kiribil Sarea Aisibizia Elkarte
Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra Elkarte
Kriminologoen Euskal Elkarte
Landetxa Auzo Elkarte
Manuel Calvo Fundazioa
Mara-Mara Elkarte
Margotu Elkarte
Mario Onaindia Fundazioa
Matiz elkarte Balioen Hezkuntza
Moviltik berrikuntza kulturalerako Elkarte
Mundu Berriak Asociación por un Desarrollo Intercultural Elkarte
Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa
NON SERVIAM S Koop
Novisi Elkarte
Ongizate Elkarte
Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen Fundazioa
Oreka Pertsonala eta Elkarbizitza Sustatzeko Hezkuntza Kontzienterako Elkarte
Oreki Fundazioa
Orientalan Elkarte
Ortzadar Lgbt Elkarte
Pakelur Elkarte
Pausumedia GKE
Paz con Dignidad Elkarte
Perualde Elkarte
Portugaleteko Aisialdi Sarea
Ramón Rubial Fundazioa
Sabino Arana Fundazioa
Save The Children
Shareak Kultur Elkarte
Sim Romi Elkarte
Suspergintza Elkarte
Susterra Elkarte
Troconiz Santacoloma Fundazioa
UGT Euskadi
UHARAN Bizikidetzaren Eraikitzen
Ukrania Gaztea Elkarte

Umeak Kolean Elkartea

Unesco Etxea

UNICEF

Ventana a la Diversidad Asociación por la Creatividad Colaborativa Intercultural Elkartea

Vivamos Humanos Fundazioa

Zabalketa Elkartea

Zaporeak Solidario Garapenerako Elkartea

Zinegoak Elkartea

Zinhezba Kultur Elkartea

Biktimen Elkartek

Asociación 11-M Afectados por el Terrorismo Elkartea

Asociación Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado Víctimas del Terrorismo (ACFSE) Elkartea

Asociación Andaluza de Víctimas del Terrorismo (AAVT) Elkartea

Asociación Extremeña de Víctimas del Terrorismo (AEVT) Elkartea

Asociación Plataforma de Apoyo a las Víctimas del Terrorismo (APAVT) Elkartea

Asociación Riojana de Víctimas (ARVT) Elkartea

Asociación Víctimas del Terrorismo (AVT) Elkartea

Asociación Víctimas del Terrorismo de la Comunidad Valenciana (AVTCV) Elkartea

Asociación Víctimas del Terrorismo de la Región de Murcia Elkartea

Asociación Víctimas del Terrorismo Santiago Apóstol Elkartea

Asociación Vitepaz Elkartea

Colectivo de Víctimas del Terrorismo en el País Vasco (COVITE) Elkartea

Fernando Buesa Blanco Fundazioa

Fundación Pro Derechos Humanos Miguel Ángel Blanco Elkartea

La Fundación Elkartea

Martxoak 3 Elkartea

Udalak eta toki-erakundeak

Abanto-Zierbenako Udala

Alegiako Udala

Amorebieta-Etxanoko Udala

Amorotoko Udala

Amurrioko Udala

Andoaingo Udala
Arrigorriagako Udala
Astigarragako Udala
Azkoitiko Udala
Azpeitiko Udala
Bakioko Udala
Balmasedako Udala
Barakaldoko Udala
Baranbioko Administrazio Batzarra
Barrikako Udala
Berangoko Udala
Bilboko Udala
Debako Udala
Dimako Udala
Donostiako Udala
Durangoko Udala
Elgetako Udala
Elgoibarko Udala
Elorrioko Udala
Erandioko Udala
Ermuko Udala
Etxebarriko Udala
Etxebarriako Udala
Galdakaoko Udala
Galdamesko Udala
Gatikako Udala
Gaubeako Udala
Gernika-Lumoko Udala
Getariako Udala
Getxoko Udala
Gordexolako Udala
Gorlizko Udala
Güeñesko Udalako Udala
Hernaniko Udala
Hondarribiko Udala
Igorreko Udala
Irungo udala
Kanpezuko Udala

Larrabetzuko Udala
Lasarte-Oriako Udala
Laudioko Udala
Legazpiko Udala
Leioako Udala
Lekeitioko Udala
Lemoako Udala
Lemoizko Udala
Markina-Xemeingo Udala
Mutrikuko Udala
Ordiziako Udala
Orioko Udala
Orozkoko Udala
Plentziako Udala
Portugaleteko Udala
Santurtziko Udala
Sopelako Udala
Soraluzeko Udala
Trapagarango Udala
Turtziozko Udala
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
Urdulizko Udala
Urduñako Udala
Uribe Kostako Mankomunitatea
Urnietako Udala
Urretxuko Udala
Villabonako Udala
Vitoria-Gasteizko Udala
Zallako Udala
Zarauzko Udala
Zumaiako Udala
Zumarragako Udala

Unibertsitateak eta unibertsitate-institutuak

Deustuko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea

Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI)

Mondragon Unibertsitatea

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua



A large, bold, grey number '5' is the central focus. To its right is a small grey dot, and further right is a large, solid orange circle. The background features abstract, overlapping white and light grey shapes that resemble torn paper or geometric fragments.

5. dokumentua

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta
Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak
egindako ezohiko jardueren memoria,
Covid-19aren pandemiari lotuak

Giza Eskubide, Bizikidetza
eta Lankidetzaren
Idazkaritza Nagusiak
egindako ezohiko
jardueren memoria, Covid-
19aren pandemiari lotuak

2020ko ekaina

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetza
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Sarrera

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak Covid-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemia izendatu zuen. 2020ko martxoaren 13an, Segurtasun Sailburuak, Osasun Sailburuak eskatuta, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI) izeneko Euskadiko Babes Zibileko Plana formalki aktibatzea erabaki zuen, Covid-19ren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean. Martxoaren 14an 463/2020 Errege Dekretua eman zen, osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera ezarri zuena.

Une horretatik aurrera, euskal administrazio publikoek, oro har, eta Eusko Jaurlaritzak, bereziki, ekintza eta ekimen ugari egin dituzte egoera berri horri aurre egiteko.

Txosten honetan jasotzen dira Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak bere eskumeneko arloetan Covid-19k eragindako larrialdi-egoerei erantzuteko hartutako berariazko ildoak eta neurriak.

1. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak

·Alarma-egoeran, martxoaren 16tik bertatik, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza harremanetan jarri zen biktimen 200 familia baino gehiagorekin, haien egoeraz interesatuta eta osasun-larrialdian behar izan zezaketenarentzat laguntza eskainita. Egoeraren diagnostiko hobea izateko, biktimen elkarte guztiekin jarri zen harremanetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Estatuan. Hautemandako premia gehienak psikologikoak izan ziren, eta premia ekonomiko bereziko egoeraren bat ere aurkitu zen.

·Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak "Covid-19k eragindako krisiaren aurkako neurriak" izeneko aurrekontu-partida bat sortu zuen, eta horren bidez, besteak beste, biktima batzuk jasaten ari ziren eta jasaten ari diren ezohiko egoerari aurre egiten saiatu da. Horretarako, 57.000 euroko zuzeneko diru-laguntza kudeatu zen biktimen elkarte bidez: 40.000 euro Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT), 7.000 euro Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak (Covite) eta 10.000 euro Bakearen aldeko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (VITEPAZ).

·Laguntza honen bidez, elkarteek biktimei laguntza eskaini ahal izan diete honako esparru hauetan:

-Prestazioei eta babes ekonomikoiei buruzko informazioa, aholkularitza eta orientazioa. Informazio hori zuzeneko diru-laguntza honetan aurreikusitako laguntza kudeatu aurretik ematen zen, hau da, egiaztatu ondoren biktima horiek ezin izan zituztela Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskaintzen zituen laguntzak eskuratu, edo lortutako laguntzak ez zirela nahikoak izan.

-Babes ekonomikoa, irailaren 22ko 29/2011 Legearen bidez terrorismoaren biktima gisa aitortuta dauden eta 2020ko martxoaren 14an EAEn erroldatuta zeuden eta benetan bertan bizi ziren pertsonen etxebizitza, elikadura, hezkuntza, osasun-arreta eta jantzi-takako bizi-beharrak estaliko dizkiena.

-Laguntza psikologikoa ematea Covid-19ren ondorioz arazo psikologikoak larriagotu zaizkien biktimei.

2. Bizikidetzaren, aniztasunaren eta giza eskubideen arloko elkarteekin harremanetan jartzea

·Covid-19k sortutako ezohiko egoeraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak beharrezkotzat jo zuen lan-harremana duen irabazi-asmorik gabeko erakunde guzti-guztiekin harremanetan jartzea. Ekimen horri esker, jakin ahal izan zen zein izan diren, diren eta izango diren erakunde horiek beren jarduera pandemiaren aurretik egiten zuten bezala egiten jarraitu ahal izateko dituzten zailtasunik handienak. Dei horien helburu nagusia haiei entzutea, haien kezka partekatzea, laguntza ematea eta haiekin batera bizikidetzaren eta giza eskubideen defentsan lanean jarraitzeko konpromisoa berrestea izan zen.

·Elkarrizketak telefonoz egin ziren maiatzaren lehen bi asteetan. Irabazi-asmorik gabeko 134 erakunderekin jarri ginen harremanetan, honela elkartuta:

- bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuak egiteko diru-laguntzak jasotzen dituzten 88 erakunde.

- terrorismoaren biktimen 20 elkarte.

- Elkarrekin Bonuen deialdian soilik parte hartzen duten 13 erakunde.

- Elkarrekin Bonuen deialdian eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen deialdian parte hartzen duten 14 erakunde.

·Ondorio nagusiak honako hauek izan ziren:

•Kutsatzeak

- Egindako kontaktu guztietatik, erakundeen % 10ek soilik izan zuen Covid-19aren kutsatze-kasu arinen bat. Erakunde batek bakarrik jasan zuen kutsatze-kopuru esanguratsua.

•Eragina lan-dinamiketan

- Konfinamenduak sortutako egoerak eta osasun-larrialdiak ezarritako murrizketek erakundeen lan-dinamiketan aldaketa ugari egiteko beharra eragin zuten. Hala ere, gehienek telelanaren bidez jarraitu zuten lanean (harremanetan jarritako erakundeetako bik bakarrik ezin izan zuten beren lana egin).

- Erakunde batzuek nahikoa baliabide izan zituzten langileei beharrezko ekipo informatikoak emateko, eta beste batzuetan ekipo pertsonalen bidez egin behar izan zituzten lan horiek. % 50 inguruk nabarmendu du eragozpenik handiena komunikazio-modu berrietara egokitzea izan dela (Skype, Zoom).

- Erakundeek nabarmendu zuten beste eragozpen bat Administrazio Publikoarekin izapide jakin batzuk egiteko zailtasuna izan zen, eta, bereziki, IZENPE txartela berritzeko zailtasunak eragin zuen blokeoa.

•Eragina lan-harremanetan

- Kontaktatutako elkarte eta erakunde gehienek ez dute langile-plantillarik; aitzitik, borondatezko laguntzaileekin edo profesional autonomoien lan puntualak egiteko kontratuekin funtzionatzen dute. Lankidetzaren puntual horiek bertan behera geratu ziren, gauzatzen ari ziren proiektu gehienak gelditu zirelako; beraz, esan daiteke zeharkako eragina izan zuela pertsona kopuru zehaztugabe batean.

- Hainbat erakundek Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat eskatu behar izan zuten. Nabarmenezkoa da bi erakundek beren langile guztiei Aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat ireki behar izan zirela. Egoera hori larriagotu egin zen erakundeek ezin zituztelako eskuratu ahal izan abian jarritako zenbait laguntza, ez baitira Enpresa Txiki eta Ertainetat hartzen.

·Proiektuen garapena

- Oro har, erakunde gehienek atzeratu egin behar izan zuten beren proiektuen gauzatzea, batez ere ikastetxeetan egiten direnena.
- Gainera, ikusi ahal izan zen kezka handia zegoela jarduerak proiektua gauzatzeko epearen barruan egin ezin zitezkeelako eta horrek diru-laguntzak justifikatzeko eta kobratzeko izan zitezkeen ondorioengatik. Oso positiboki baloratu zuten ikastetxeetan oro har aurkitu zuten jarrera ona ekintzak birprogramatzeko, egoera urteko azken hiru hilabeteetan gerta daitekeena oso zalantzarikoa izan arren.
- Elkarte batzuek zenbait jarduera baliogabetu behar izan zituzten, eta horietako batzuk ezin izan ziren birprogramatu.
- Hala eta guztiz ere, hurbilketa hori egin zen unean, ezein erakundek ez zuen epe laburrean bide-erantzintasun ekonomikoko egoeraren berri eman. Azpimarratzekoa da, baita ere, testuinguru berrira berregokitzeko borondatea eta gaitasuna, baita erakundeek erakutsi zuten berrasmateza ere.
- Alarma-egoeran zeuden hilabeteetan ez zen hauteman erakundeentzako estaldurarik gabeko behar garrantzitsurik.
- Hala ere, kezkatzeko modukoa zen eta da elkarrizketatutako elkarte eta erakunde askok zuzenean lan egiten duten kolektiboen eta pertsonen ahultasun-egoera larriagotzea. Premia horiek bizi-sosten-gurako oinarritzkoenetatik hasi, eta laguntza emozional eta psikologikoaren premietara iristen dira, baita kolektibo eta pertsona zaurgarrienetako askok aurre egin behar dioten eten digital handitik ere.
- Azkenik, garrantzitsua da aipatzea erakundeek neurri egokiak hartu zituztela erakundeko pertsonak babesteko eta proiektuei buruzko jarduerak birformulatzeko. Erakunde batzuk modu berriak aztertzeko borondatea agertu zuten beren helburuak eta ekimenak Covid-19ren ondorengo egoera berrira egokitzeke.

·Eskaera zehatzak

- Elkarrizketatutako elkarten eta erakundeen eskaera nagusiak honako hauek izan ziren:
 - Malgutasuna.** Eskaera errepikatuena malgutasuna izan zen, bai proiektuak gauzatzeko epeei dagokienez, bai justifikazioari dagokionez. Baita malgutasuna ere, jarduerak egoera berrira birformulatu eta egokitu ahal izateko.
 - Elkartasuna.** Urtero egiten diren diru-laguntzen deialdien zenbatekoa ez murrizteko eskaera, erakunde txikiei babesa mantentzearen eta sustatzearen garrantzia errepikatuz.
 - Bizkortasuna.** Administrazio-izapideak ahalik eta azkarren egiteko eskaera, ordainketak ez atzeratzeko.
 - Hurbiltasuna.** Harremanetan jarri ziren elkarteek eta erakundeek oso positiboki baloratu zuten Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza hurbildu izana, deien bidez. Batzuek adierazi zuten oso garrantzitsua dela harreman horiek izatea, bai eta aldizka aurrez aurreko bilerak egitea ere. Jardunaldi edo azalpen-mahairen bat egiteko aukera planteatu zen, beste erakunde batzuk ere ezagutzeko eta aliantza berriak sortzen laguntzeko.

3. Errefuxiatuekin lan egiteko eremua

·Komunikazioa eta koordinazioa, bai Euskadin bai Greziako errefuxiatuen eremuetan errefuxiatuei harrera eta laguntza ematen lan egiten duten erakunde eta instituzioekin

- Martxoaren 16tik, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak komunikazio eta koordinazio estua izan zuen Euskadin errefuxiatuak hartzen dituzten erakundeekin (ACCEM, Caritas, CEAR Euskadi, Gurutze Go-

rria, Ellacuría Fundazioa, Nueva Vida eta MPDL), bai eta Greziako errefuxiatuen eremuetan lan egiten duten bi erakundeekin ere (SMH eta Zaporeak) egoeraren berri emateko, beraien esanetara jartzeko eta komunikazio-bideak ezartzeko.

·Martxoaren 17an eta 18an, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak hainbat bitartekaritza-kudeaketa egin zituen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Segurtasun Sailarekin eta Babes Zibilarekin koordinatuta, Zierbenako kiroldegian zeuden migratzaileekin bitartekotza-lanak egiteko. Ildo horretan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekiko koordinazioa etengabea izan zen larrialdietako kudeaketetarako.

·Martxoaren 20an, beste harreman-erronda bat egin zen erakundeekin, eta zuzendaritzak whatsapp-eko bi talde sortu zituen koordinazioa hobetzeko eta larrialdi bereziko egoerei aurre egiteko: talde bat Greziako errefuxiatuen eremuetan lan egiten duten bi erakundeekin (SMH eta Zaporeak) eta beste bat errefuxiatuei harrera egiteaz arduratzen diren erakundearteko mahai sozialean parte hartzen duten erakundeekin (ACCEM, Caritas, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Ellacuría Fundazioa, Nueva Vida eta MPDL).

·Zuzendaritza eta talde teknikoa alde biko harremanetan egon ziren erakunde guztiekin, abian dauden proiektu arrunten jarraipena egiten jarraitzeaz gain, alarma-egoeraren esparruko egoeraren bilakaera bertatik bertara ezagutzeko.

·Apirilaren 21ean, maiatzaren 5ean eta ekainaren 24an bilerak egin ziren errefuxiatuak hartzeaz eta laguntzeaz arduratzen diren Erakundearteko Mahai soziala osatzen duten erakunde guztiekin.

·Alarma-egoerako hilabeteetan, gainera, Hana Halloul Migrazioen Estatu Idazkariarekin eta bere taldearekin telefonoz harremana izateaz gain bi bilera formal egin ziren (apirilaren 27an eta maiatzaren 1ean). Eusko Jaurlaritzak bi proposamen aurkeztu zituen: (1) programen luzapenetan malgutasun-irizpideak aplikatzea eta (2) migratzaileei lan egiteko eta bizitzeko baimenak emateko mekanismoak gaitzea. Proposamen horiek Lehendakariak aurkeztu zituen apirilaren 26an, Espainiako Gobernuo Presidentearekin eta presidente autonomikoekin bi-deokonferentziaz egindako bileran.

·Errefuxiatuak hartzeko zentroetarako aparteko laguntzak

·Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak errefuxiatuen eta nazioarteko babesaren eskatzaileen harreran eta laguntzan lan egiten duen erakundeekin harremanetan jarri ondoren, berehalako behar batzuk identifikatu ziren, Eusko Jaurlaritzak martxoaren 17an sortutako Covid-19ren Funtsaren Memoriak ezartzen duenez, larrialdi-egoera zuzenean konpontzeko edo arintzeko jarduketei dagozkienak.

·Ezohiko neurriak ziren, Eusko Jaurlaritzak Euskadin ireki dituen harrera-zentroetan birusa zabaltzea saihesteko, nazioarteko babesaren eskatzen duten pertsonak aldi baterako hartzeko. Batetik, Oñatiko Larraña Etxea, 120 lagunentzako lekua duena; eta, bestetik, Tolosako Zuloaga Txiki, 30 lagunentzako lekua duena. Neurri horiek Eusko Jaurlaritzaren mendekoak ez diren eta honako erakunde hauek kudeatzen dituzten zentroetara hedatzen dira: CEAR Euskadi, ACCEM, Gurutze Gorria, MPDL eta Nueva Vida.

·Egoera horri aurre egiteko, 50.000 euroko laguntza izapidetu zen "Covid-19k eragindako krisiaren aurkako neurriak" partidaren kargura. Partida horren bidez, zentroetako aparteko beharrei erantzuteaz gain, Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko funts bat sortu zen erakundeentzat, bai eta lehen harrerako zentroetarako ordenagailuak erosteko beste funts bat ere, errefuxiatuei eta nazioarteko babesaren eskatzaileei Harrera egiteko Sistemaren lehen faseko etxebizitzak barne.

·Grezian eta Balkanetan dauden errefuxiatuentzako laguntza humanitarioa

·Errefuxiatuekiko lanaren esparruan, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak konpromiso proaktiboa hartu zuen, une bakoitzean premiazko inplikazio humanitarioa behar duten egoerei eta Europan nazioarteko babesaren eskatzen duten pertsonen pairatzen dituzten bidegabekeriei bizkortasunez eta presaz erantzuteko.

·Horren ondorioz, Nazio Batuen edo nazioarteko eta Europako beste erakunde batzuen deiak babesten eta erantzuten dira, errefuxiatuek krisiarekin zerikusia duten larrialdi humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko, sentsibilizazio-, dibulgazio- edo komunikazio-kanpainei funtsak, baliabideak edo atxikimendua emanez. 2020an, dei horien atzean, Covid-19k eragindako osasun publikoko larrialdia egon da. Horren ondorioz,

areagotu egin dira adingabe errefuxiatu eta migratzaileen aurkako etsaitasun- eta diskriminazio-kasuak, baita oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea mugatzeari dagokionez ere.

·Egoera horren aurrean, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak larrialdi humanitarioko hiru deialdiri erantzun zien, hiru laguntza humanitarioren bidez: 200.000 euro Save The Children erakundeari eta 150.000 euro UNICEF erakundeari Balkanetan esku hartzeko. Azkenik, 125.000 euro UNHCR erakundeari, Grezian bakarrik dauden adingabe migratzaileen larrialdiari erantzuteko.

4. ADOS Batzordearen eremua: Euskadiko komunitate islamikoak

·Aldizkako komunikazioak

·Alarma-egoeran, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak aldi-aldi komunikazioak bidali zituen arabieraz, euskaraz eta gaztelaniaz Euskadiko meskita guztietara, konfinamenduari, prebentzioari eta deseskaladari buruzko neurriei buruzko informazioarekin.

·Hainbat erlijioekin koordinatzea

·Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak harremanak eta bilerak izan zituen Euskadiko erlijioetako arduradunekin, konfinamenduari, prebentzioari eta ondorengo deseskaladari buruzko neurriak koordinatzeko.

·Testuinguru honetan, ADOS Batzordea sei aldiz bildu zen apirilaren 16an eta 29an, maiatzaren 7an eta 25ean eta ekainaren 2an eta 30ean, osasun-larrialdiko egoeraren eta batez ere meskitek har zitezkeen eta hartu behar ziren neurrien jarraipena egiteko.

·Erritu musulmaneko ehorzketak

·Covid-19ko pandemiak arazo erabat espezifikoa bat sortu zuen Euskadiko komunitate islamikoetan, erritu musulmanak egindako ehorzketen inguruan. Euskadik ez du behar honi erantzuteko moduko hilerririk. ADOS Aholku Batzordeak arazo horri heldu zion.

·Azken urteetan, euskal familia musulman askok Zaragoza, Logroño, Iruñea edo Burgosko hirietan lurperatu behar izaten zituzten beren senideak. Hala ere, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz, aukera hori baztertu egin zen. Testuinguru horretan, ADOS Aholku Batzordea eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia harremanetan jarri ziren hainbat Udalekin, premiazko irtenbide bat aurkitzeko. Zehazki, sei bilera egin ziren.

·Arrigorriagako Udalarekin akordio bat lortu ondoren, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak 44.500 euroko diru-laguntza zuzena izapidetu zion Udal horri, herriko hilerriaren zati bat Euskadiko komunitate musulmanaren hilobiak hartu ahal izateko egokitzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko beste Udal batzuekin lan egiten hasi zen, egoera hori arintzen lagun dezaketen kokaleku berriak bilatzeko.

5. Presoak

·Joan den apirilaren 27an, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Lehendakariaren izenean, Espainiako Gobernuko Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusira honako proposamena bidali zuen: "Espetxe-politikaren arloko proposamena, Covid-19ren pandemiaren ondorioen eta osasun publikoa ba-

besteko neurrien testuinguruan". Maiatzaren 14an, pandemiaren bilakaeraren harira, bigarren idazki bat bidali zen, lehenengoan azaldutako ardatz nagusietako batzuk errepikatuz.

·Proposamenak Alarma Estatuaren hurrengo hilabeteetan urruntzeak osasun publikoan eragingo duen arazoa azpimarratzen zuen, txertorik aurkitu arte. Zehazki, zioen azalpena honela formulatzen zen:

(...) "Itxura guztien arabera, Covid-19 kutsatzeko arriskuarekin lotutako prebentzio- eta babes-neurriei eusteko beharra hilabete askotan luzatuko da oraindik, Alarma Estatuaren altxatu eta gero ere, eta, ziurrenik, txertoa edo tratamendu eraginkorra lortu arte.

Testuinguru horretan, urruntzearen errealitateak presoen familiak, hurbileko pertsonak eta lagunak desplazamendu luzeak egitera behartzen ditu, urruneko eremu geografikoetatik datozen pertsonak astero komunikatzera behartuak. Pertsona horiek espetxeetan esparru eta espazio itxiak partekatzen eta erabiltzen dituzte, hala nola itxaroteko guneak, mintzatokiak, leihatilak, pasabideak, sarrerak eta irteerak.

Hori guztia ez da batere testuinguru gomendagarria, osasun publikoaren ikuspegitik, kutsatze posibleen barreiatze ororen prebentzioari eta kontaktuen kontrolari dagokienez. Gomendagarria ez izateaz gain saihestu daiteke eta zentzuzko konponbideak ditu. Urruntzeak gaineratzen dituen arriskuek ez diete soilik eragiten lekualdatzen diren presoen familiei; espetxe-eremuarekin zerikusia duten biztanle guztiei eragiten diete, eta, bereziki, espetxeetako profesionaleri eta funtzionarioei" (...)

·Zehazki, Espainiako Gobernuari aurkezten zitzaion proposamena honako hau da:

Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorren 12.1 artikulua arabera, Covid-19aren pandemiaren ondorioen testuinguruan, eta osasun publikoa prebenitzeko eta babesteko helburuarekin, oro har preso guztientzako plan bat antolatzea preso bakoitzaren familia-inguruetik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzeko.

Euskadiren kasuan, proposamen horrek berekin dakar Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan kokatzea Euskadin jatorria, ohiko bizilekua edo familia-ingurunea duten preso guztiak.

Horren guztiaren helburu nagusia da pertsona-taldeen joan-etorri luzeak saihestea eta ahalik eta gehien mugatzea, bai eta elkarrengandik urrun dauden eremu geografikoetatik datozen pertsonak esparru komunetan eta eremu itxietan elkartzea eta kontaktua izatea ere, kutsadura-hedapen handia izateko arriskua areagotzen lagun baitezakete, kontaktuak kontrolatzeko eta isolatzeko zailtasun handiarekin.

·Preso bakoitzaren familia-inguruetik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzeko plan bat prestatu beharra planteatzen du proposamenak. Ez da bereizketarik egiten terrorismoagatik eta beste edozein delitugatik zigortutako presoen artean, eta ez da ezta euskal esparrura mugatzen ere. Proposamenean, berariaz, azpimarratzen da «orokorrean preso guztientzat» formulatzen dela.

·Osasun publikoaren prebentzioaren eta babesaren ikuspegitik, ez dirudi logikoa, ezta zuhurra ere, urruneko eremu geografikoetatik datozen pertsonak astero lekualdatzen lagunduko duen sistema bati eustea, kutsadurak barreiatzeko arriskua areagotzen lagun baitezakete, kontaktuak kontrolatzeko eta isolatzeko zailtasun handiarekin.

·Urruntze politikak osasun publikoko arazo larria du aurrean, urrundutako espetxeetan dauden presoen familien kasuan. Mota horretako desplazamenduak (luzeak eta asterokoak) ez dira gomendagarriak izango, eta kontraindikaturak egongo dira denbora luzez, txertoa edo tratamendu eraginkorra aurkitzeko berandu bezain laster.

·Ez da kasualitatea espetheen eremuan neurriak malgutzeko INT/407/2020 Agindua BOEn argitaratu ondoren, praktikan, deseskaladaren lehen faseetan, bisitariak espetxea dagoen probintzia berean bizi badira bakarrik egin ahal izatea bisitak presoei.

·Maiatzaren 14an igorritako idazkian, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari txosten espezifiko bat eskatzeko asmoa zuela, osasun publikoarentzat dituen arriskuei buruzkoa, hain zuzen ere, ehunka familia eta hurbileko preso Estatuako geografia osoan astero bidaia luzeetan sakabanatzen direlako. Txosten hori maiatzaren 22an bidali zuen Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak.

6. Giza eskubideen defendatzaileak

•2020ko apirilaren 29an, Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Euskal Programak komunikatu bateratu bat sinatu zuen Espainiako Estatuko gainerako Babes Programekin, eta horren bidez adierazi zen kezkatuta zegoela giza eskubideen defendatzaileek, haien erakundeek eta kolektiboek bizi zuten arrisku-egoera larriagotzen ari zelako, Kolonbian, esaterako, Covid-19k munduan eragindako osasun-krisiaren testuinguruan: Kolonbia, Mexiko, Honduras, El Salvador eta Guatemala...

•Alarma-estatuan, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak etengabeko komunikazioa izan zuen CEAR Euskadirekin, Euskal Babes Programa kudeatzeaz arduratzen den erakundearekin, Euskadin babespean zeuden hiru defendatzaileen egoeraz eta beharrez arduratzeko. Era berean, zenbait harreman izan ziren Kanpo Arazoetako Ministerioko Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin, defendatzaileak beren jatorrizko herrialdeetara itzultzeko prozesua koordinatzeko eta pertsonak behar zituzten prebentzio- eta babes-neurri guztiak bermatuta gertatzen zela ziurtatzeko.

•Azkenik, beren herrialdeetan, Kolonbian eta Hondurasen, indarrean dagoen osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, eta aire-konexiorik ez dagoenez, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, CEAR Euskadirekin koordinatuta, defendatzaileen egonaldia bi hilabetez luzatzea erabaki zuen, eta itzulera 2020ko irailerako planifikatu zen, uztailean egin beharrean.

7. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora Institutua

•Biktimen elkarteekin eta senideekin harremanetan jartzea

•Memoria historikoaren arloko elkarte guztiekin eta biktimen senideekin harremanetan jarri zen Gogora Institutua martxoan eta apirilean, haien egoeraren jarraipena egiteko eta 2019ko diru-laguntzak justifikatzeko eta 2020koak eskatzeko administrazio-epe berriei buruz informatzeko. Harreman eta hurbiltasun hori asko eskertu zuten, batez ere adinekoek.

•Covid-19aren Memoriarako testigantzak biltzea

•Covid-19aren eraginak –1.600 hildako baino gehiago ekarri ditu, eta senideek ezin izan diete agur esan-zauri sozial handia sortu du, eta erakundeek Betirako bezalako programen bidez aurre egiten saiatu dira. Dolua egiteko laguntza psikologikoko proiektu honetaz gain, egokia dirudi pandemia honek Euskadin utzi dizkigun banakako eta taldeko bizipenak gure oroimenean jasotzea.

•Helburu horrekin, Gogora Institutua Covid-19ko biktimen lekukotasunak jasotzen dituen proiektu bat prestatu zuen, gaixotasun horretatik bizirik atera diren familiek eta osasun-langileek aukera izan dezaten beren memoria gizarte osoarekin partekatzeko eta gure herrialdeko memoria kolektiboan parte hartzeko.

8. Garapenerako Lankidetzaren eremua

•Euskadiko kooperanteen jarraipena

•2020ko martxoaren 1etik ekainaren amaierara arte, tokian bertan zeuden euskal lankideen jarraipen zuzena egin zen astero, haien kokapenaren mapa eguneratu bat edukitzeko eta kide diren erakundeekiko koordinazioa eta harremana mantentzeko helburuarekin.

·Hainbat egoeratan zeuden 130 pertsonaz ari gara: GKEetako kooperanteak lurrian; Nazio Batuen bulegoetan lanean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bekarekin; boluntario humanitarioak Grezian; eta EHUren lankidetzeta-praktiketako ikasleak.

·2020ko ekainean, 77 lankide zeuden beren helmugako herrialdeetan (egoera onean). Hilabete horietan, 53 pixkanaka itzuli ziren (Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta).

•Gauzatzen ari diren proiektuak alarma estatura egokitzea

·"Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aplikatuz, zeinak adierazten zuen Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera zegoela», deialdietarako eskabideak aurkezteko epeak etenda geratu ziren, eta jarduera puntualak edo proiektuen jarduera totalak ere eten zitezkeen.

·Horregatik, lankidetzeta-sektorearekin hitz eginez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bi informazio-ohar egin zituen (2020ko martxoaren 23an eta apirilaren 6an), erakundeek gauzatzen ari ziren proiektuak egokitu zituzten. Abian zeuden ekimen askori eragiten zien arren, azkenean gauzatzen ari ziren proiektuak eteteko 30 eskaera baino ez ziren aurkeztu (osorik edo zati batean).

•Covid-19aren ondoriozko laguntza humanitaria gehitzea

·2020ko martxoaren 11n argitaratu zen Laguntza Humanitarioaren Lerro Iraunkorraren deialdia, 2.400.000 euroko zuzkidurarekin. Covid-19ren beharrak direla eta, 1.800.000 eurotan Laguntza Humanitarioko Deialdi Iraunkorra handitzea erabaki zen (4.200.000 euroko guztizko zuzkidurara iritsi arte), eta igoera hori EHAAn argitaratu zen 2020ko ekainaren 17an.

•Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzeneko diru-laguntzak

·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bi ekarpen zuzen egin zituen Covid-19ko krisiarekin lotuta: 200.000 euroko ekarpena Nazio Batuen Larrialdi Kasuetako Ekintzarako Funts Zentralari (GERF) –zati handiena Kobidaren aurkako ekintzetarako izango da–; eta 150.000 euroko diru-laguntza zuzena UNRWaren Deialdiari (Errefuxiatu palestinarren), Covid-19ren aurkako prebentziorako Gazako Zerrendan.

•Komunikazio-kanpaina Covid-19ren esparruan

·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak komunikazio-kanpaina bat bultzatu zuen, "Lankidetzan ari-tzen gara - Jendearen bizitzak hobetzen ditugu" leloarekin, Euskal Fundoa, GGKEen Koordinakundearekin eta Habian ekimenak biltzen dituen garapenerako hezkuntzako 12 erakunderekin batera. (Maiatzaren 13tik 21era, irrati eta telebistan, eta maiatzaren 29ra arte, beste bitarteko batzuen bidez).

•Autonomia Erkidegoen eta Lankidetzeta Funtsen Baterako Adierazpena "De la Crisis se sale Cooperando"

·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekimenez, 2020ko maiatzaren 25ean, 17 Autonomia Erkidegoek eta Funtsen Konfederazioak adierazpen bateratua zabaldu zuten, Covid-19ren krisiari erantzuteko. Era berean, Autonomia Erkidegoek 2.455.000 euroko Keinu Bateratua egin zuten errefuxiatu sahararren eta palestinarren alde, bereziki ahultasunean, Covid-19 testuinguruan.

·Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatuta, 2020ko ekainaren 5ean Mintegi Birtual bat egin zen, Covid-19ren aurrean lankidetzeta deszentralizatuak duen eginkizunari buruzkoa (500 pertsona baino gehiagoren jarraipena).

•Lankidetzeta sanitarioko esku-hartzea Covid-19aren aurrean Perun, Médicos Sin Fronteras Elkartearekin batera

·Ekainaren 2an, Médicos Sin Fronteras Elkarteak Eusko Jaurlaritzara jo zuen, Euskadik Covid-19rekin izandako borrokaren esperientzia Latinoamerikako beste herrialde batzuekin "partekatze" aukera izan zezan eskatzeko; izan ere, une hartan epidemiaren fase gogorrenari aurre egin behar zioten. Peruko pandemiaren bilakaera ikusita eta bertako agintarien jarrera ezagutu ondoren, horrelako esku-hartze baten egokitasuna ebaluatu zen.

·Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak osasun-langile kualifikatuak eta funtsezko materiala mobilizatu zituen Peruko San Martin Departamentuko Tarapotoko eta Moyonbambako Osasun Ministerioko ospitaleetan eta Loreto Departamentuko Yurimaguaseko Osasun Ministerioko Ospitalean osasun-arreta emateko.

·2020ko uztailaren 1ean, Peruko Gobernuak Osasun Ministeriok formalki eskatu zion Lehendakariari Eusko Jaurlaritzaren lankidetzeta. Uztailako lehen hamabostaldian, 14 pertsonako osasun-talde bat joan zen Euskaditik, Covid-19 kasuen maneio klinikoan esperientzia zuzena duena duena material sanitario ugariarekin: arnasgailuak, aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko ekipoak, fluxu handiko ekipoak, monitoreak, sendagaiak eta Norbera Babesteko Ekipamenduak.

·Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren bidez, esku-hartze humanitario hori prestatu zuen Médicos Sin Fronteras Elkartearekin.

·Esku-hartze honen helburu orokorra Covid-19k eragindako infekzioaren ondoriozko gehiegizko hilkortasuna eta morbiditatea murrizten laguntzea izan zen, bereziki Peruko San Martin eta Loreto Departamentuetan.

·Helburu espezifikokoak hauek izan ziren: 1) Esku-hartzeko eremuetan Erkidego mailako transmisioa geldiarazten laguntzea; 2) Paziente kritikoen arreta indartzea, bereziki ZIUn, identifikatutako ospitaleetan; 3) Pazienteen zirkuituak eta tratamendu-protokoloak zehazten laguntzea, Peruko Osasun Ministerioko osasun-egituretara atxikitako langileekin lankidetzan; 4) Langileen prestakuntza eta haien autonomia bultzatzea; 5) Egungo egoeran "funtsezkotzat" jotzen diren medikamentuen eskuragarritasun iraunkorra bermatzen saiatzea, ekipamenduaz gain, O2 eta EPPS.

·Pandemia ez da hemen amaitu, eta, gainera, areagotu egiten da beste gizarte batzuetan. Esperientzia eta baliabide erabilgarri horiek Euskadin bizi dugun egoeraren antzeko egoeran edo intentsitate handiagoarekin dauden beste herri batzuen zerbitzura jartzeko unea da. Beharrezkoa da elkartasun-kate bat babestea. Pandemiako osasuna fenomeno globala dela egiaztatuta, erantzunak ere globala izan behar du. Arrazoi horiengatik, besteak beste, Euskadik positiboki erantzun zion Mugarik Gabeko Medikuen eta Peruko Gobernuaren deia.

